



*Euskal urtea
ohituraz betea*

Juan Manuel Etxebarria Ayesta



Euskal urtea ohituraz betea

Juan Manuel Etxebarria Ayesta

© Ibaizabal argitaletxea, 2003
© Juan Manuel Etxebarria, 2003

ZUZENDARI OROKORRA: Fermin Iraolagoitia
EDIZIO ZUZENDARIA: Sabin Gorrotxategi
KOORDINAZIO EDITORIALA: Eukene Herrera
TESTUAREN ORRAZKETA: Belinda Isasi
DISEINUA: Aitziber Ibaibarriaga
MAKETAZIOA: Aitziber Ibaibarriaga eta Arantza Agorria
ARGAZKIAK: Jabi Artaraz (azala eta 41., 52., 62.,
95., 100., 103., 148., 150., 188., 190. eta 195. or.),
ETOR (34., 44., 123., 138., 160., 169., 176 eta 207. or.),
Euskaldunon Egunkaria (112. eta 142. or.), Lekeitioko
Turismo Bulegoa (110. or.), Edelvives artxiboa (75. or.)
eta Lauaxeta ikastola (204. or.)
TAILER GRAFIKOAK: R.G.M., S.A.

ISBN: 84-8325-732-7
Lege gordailua: BI-2839-03




Juan Manuel Etxebarria Ayesta, Zeberiokoa.

Euskal Filologian Doktorea, Euskaltzaindiakoa,
J.M. Barandiaranen Etniker taldekidea...

Besteak beste, bereak dira:

- *Zeberio Haraneko euskararen azterketa*
Etno-Linguistikoa (Tesia), 1988
- *Gorbeiatarrak*, 1994, Ibaizabal
- *Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak*,
1995, Labayru
- *Bizkaialdeko Ipuin-Esaundak*, 1995, Ibaizabal
- *Gure fabulak (bertsoz)*, 1997, Ibaizabal
- *Iaun Zuria*, 1997, Ibaizabal
- *Txorien zoria*, 1998, Ibaizabal
- *Bibliako kontraera-antologia*, 1999, Ibaizabal
- *Eguberri eta Gabon ipuinak*, 1999, Ibaizabal
- *Zeberioko kantak*, 1999, Sendoa
- *Cuentos vascos de Navidad* (Itzul.: S. Calleja),
2000, Ibaizabal
- *Biziak bizilan*, 2001, Ibaizabal
- *Euskitz*, 2002, Ibaizabal

Aurkibidea

AURKEZPENA	12
SARRERA	14
Eguzkia, Ilargia eta Lurra	15
Eguzkia eta Kadaguako deabru-zubia	21
Osiris Egiptoko landaretzaren jainkoa	23
Palestinako Baal, Anat eta Mot naturaren joan etorrian	24
Demeter Greziako zerealen jainkosa	24
Mari Anbotokoa Euskal Herrian	25
Hilabeteak	27
Asteak	30
Munduaren eta gizadiaren jatorria: zero-lurren kreazioa	30
 UDABERRIA	34
Udaberriko esaerak	35
MARTXOA	36
Inauteriak - Aratusteak - Karnabalak (otsail - martxo)	37
“Bizitza eta Heriotza” mitoa, Mesopotamian	38
Jai Dionisiakoak Grezian, Saturnalak Erroman	39
Inauteriak Euskal Herrian	39
Salomon erregea eta euskaldun bizkaitarra	41
Marti-oiarra	42
Dima eta Otxandioaren arteko mugarrria	43
Izaro: Bermeo eta Mundaka	44
Marti-oiarra, katua, txakurra eta astoa	45
Deabruari Samartinen hamabi egiak	47
Laminak eta Zeberioko mutil gaztea	49
Martxoko oilarra, laminak eta Aezkoako mutila	51
Kastrejanako zubia eta marti-oiarra	51
Andra Mari Martiko	54

<i>Kukua Euskal Herriko txori artean</i>	54
<i>Txindorra, martia eta apirila</i>	56
<i>Artzain harroa, martxoa eta apirila</i>	57
<i>Arrano beltza eta gainetiko txoriak</i>	58
<i>Supelegorreko txori deabruak</i>	59
<i>Marti edo martxoko esaerak</i>	60
APIRILA	62
<i>Abade ehiztariak arima galdu eta berreskuratu</i>	63
<i>Ostiral Santua, andrea eta ilargiaren ilundeak</i>	66
<i>Muskerra gainetu Bariku edo Ostiral Santuan</i>	67
<i>Apirileko esaerak</i>	68
MAIATZA	69
<i>Maiatzeko erregina eta saratsak</i>	69
<i>Zozoa, ipurtikara eta txindorra</i>	70
<i>Garia eta artoa berbaz</i>	71
<i>Txirritxirria eta inurria</i>	74
<i>Sugea eta muskerra</i>	75
<i>Baltzolako suge deabrua</i>	76
<i>Maiatza, loreak eta erleak</i>	81
<i>Erlea, enara eta arranoa</i>	82
<i>Erlea eta arranoa</i>	83
<i>San Isidroak maiatzean</i>	84
<i>Nafarroako Orreagako jaia</i>	84
<i>Urroz-eko harritzarra</i>	84
<i>Ata Aralar hegiko harritzarra</i>	85
<i>Errolan leizea</i>	85
<i>“Erraldoi” hitzaren jatorria</i>	85
<i>San Virilaren ipuin-esaunda</i>	86
<i>Arabako Oroko jaia</i>	88
<i>Nora Zangozako Andra Mariaren jaia: almadiak</i>	88
<i>Maiatzeko esaerak</i>	89

EKAINA	90
Asentsio, Pentekostes, Hirutasun Deuna eta Korpus	90
<i>Hirutasun Deunaren misterioa ulertu ezinean</i>	90
<i>Abadea udaberriko soloak bedeinkatzen</i>	92
<i>Hodei lainoa eta abadea</i>	94
Urkiolako Antonio Deuna	95
<i>Mari Anbotokoa eta abadegaia Urkiolan</i>	96
<i>Promesa betetzera Urkiolara</i>	97
<i>Urkiolan promesa betetzean Mari Anbotokoa agertu</i>	98
<i>Mari Anbotokoa Urduña eta Urkiolan</i>	98

 **UDA**

Udako esaerak	101
---------------------	-----

San Juan bezpera gaua	102
San Juan bagileko sugarrak	102
Sugar-saltuak	103
San Juanen bizar zuriak	104
Mamuak edo galtzagorriak	104
San Juan eguna	104
San Juanetako egunsentia	104
San Juan aratxa (haritza)	105
San Juan bedarrak	105
San Juan elorri zuria	106
San Juanetako loak	106
San Juanak eta txakur amorratuak	106
San Juan mitoak	107
<i>Gorbeiako Arrabako landa eta San Juan zekorrak</i>	107
<i>Laminen hondamendirako San Juan sekretoak</i>	108
San Pedroak ekainaren 29an	109
Kukuaren agurra San Pedroetan	110
<i>San Pedroetako fetxoria Diman</i>	110

<i>San Pedro zeruetako giltzari</i>	111
San Marzialak Irunen	112
Ekaineko edo bagileko esaerak	113
UZTAILA	114
<i>Garia, Perutxu eta jentilak</i>	114
<i>Garagarra eta olabeorra</i>	116
<i>Errota, Perutxu eta jentilak</i>	117
<i>Mandazaina eta Carlos V elkarrizketan</i>	118
<i>Balentin de Berriotoxari bertso barriak</i>	
<i>Xenpelarrek jarriak. 1861ean</i>	119
San Ferminak Iruñean	122
Hiru behiko tributua	123
<i>Hondarribiko atuna</i>	124
<i>Hondarribiako legatza</i>	124
Karmengo Andra Mariak	124
<i>Santurtzi eta Barakaldoko Karmenak</i>	125
Arrantzaleak eta Salbea	125
Magdalenak Zuberoan	126
<i>Magdalenak Bermeo, Elantxobe eta Mundakan</i>	127
<i>Gorbeiako argi deabrua</i>	128
Uztaileko esaerak	129
ABUZTUA	130
Gari jotea	130
<i>Galondopeko urregorria</i>	130
Abuztua eta eguraldia	131
<i>Perutxu, jentilak eta arbia</i>	132
<i>Ezkurra eta kalabaza</i>	133
Andra Mariak abuztuaren erdi erdian	134
Baiona, Gasteiz, Donosti eta Bilboko Aste Nagusiko jaiak ..	135
<i>Mari Anbotokoa eta Diego Lope de Haroren ezkontza</i>	137
Pastoralak	138
Abuztuko esaerak	140


IRAILA	141
Idebateak herri basoetan	141
Sandoniak edo Andolin deuna	142
Antzar jokoak	142
Ernioko erromeriak iraileko igandeetan	143
Getariako ospakizun berezia	143
Ama Birjinaren jaiotza-ospakizunak	144
Arantzazuko Amabirjina	144
Gurutze Deuna Lezo herrian	145
Santa Eufemia ospakizunak	146

 UDAZKENA	148
Udazkeneko esaerak	149

Udazkeneko ekintzak	150
Hurrak eta intxaurreak	151
Intxaurmantxeruek	151
Gaztainaren kultura	152
<i>Perutxu, jentilak eta burdingintza</i>	153
Migel Goiangeru Deuna	154
<i>Urdaibaiko jentila</i>	155
Aralarreko herensugea	155
<i>“Aita San Migel” Iurretako ezpatadantza</i>	156
San Migel herri abestia	156
Baso eta gainetiko zuhaitzak	157
<i>Euskalduna zuhaitzei kantuka</i>	157
Iraileko esaerak	158

URRIA	159
Artoa	159
<i>Talogintza eta ezkontza</i>	160
Sagardoa eta txakolina	160
Ardoa eta gizona	161

<i>Jai egunez</i>	162
Urriko azken astelehena Gernikan	162
Urriko esaerak	163
AZAROA	164
Linoren beharlekua	164
<i>Oh! Pello, Pello</i>	165
<i>Sorgina katu itxuran</i>	166
Ikazgiztza	167
<i>Ikatz egostea</i>	167
<i>Ipiñaburuko (Zeanuri) leku altuan</i>	170
Domu Santu	171
Arimen eguna	172
<i>Arimak promesak betatuz</i>	172
<i>Arimak Lamindaon</i>	173
<i>Gaueko txerri-elia: erdia txerri eta erdia arima</i>	174
San Martin txerri garaia	175
<i>Txerri-odoloste jan ezinekoak</i>	175
<i>Bizkaiko txerriari kanta</i>	178
Usoak txori-pasean	179
<i>Gure herriko ihiztariei</i>	180
Otso-ehiza Gorbeia inguruan	181
Azaroko esaerak	182
ABENDUA	183
San Frantzisko Jabier	183
San Nikolas	183
Andra Maria Sortzez Garbia Amaren Eguna	184
Santa Luzia Laudion	184
Santa Luziara joateko promesa	184
Marijesiak	185
<i>Gabonak dira eta (Marijesiak Gernikaldean)</i>	185
<i>Nazareteko tenplu santuan (Marijesiak Markina-Zeberion)</i>	187



NEGUA 188

Neguko esaerak 189

Olentzero eta eguberri 190

Gabonetako ohiturak 193

Abenduko esaerak 199

URTARRILA 200

Ur goiena, ur barrena 200

Urteberri 201

Erregenak 201

Ekialdeko mago edo jakintsu batzuek Jesus gurtu
(Mateo 2, 1-12) 201

Erregeak datoz 202

San Antonio abad 203

San Sebastian eta tanborrada 204

Arabako Oyon-eko "Katxi"-ren jaia 205

Urtarrileko esaerak 205

OTSAILA 206

Kandelario 206

Kandelario lario 207

San Blasak 207

Agate Deuna 208

Agate Deuna kantuan etxerik etxe 208

Agate Deuna 209

Santa Ageda osteko izendapenak agilando bila 211

Otsaileko esaerak 215

Ondorioa eta gomendioa 217

Betiereko egutegia 219

Bibliografia 221

Hiztegia 225

Egitura bereziak 263

AURKEZPENA

Zer?

Euskaldunok gure historia luzean zehar bizitako hainbat eta hainbat ohitura, jai, ospakizun, bizikera, mito, ipuin, esaunda, pasadizu, abesti, esaera, topiko eta abar luze bat eskeintzen da, urtean zehar gogoratu eta euskaldun izaten jarraitzeko gure tradizioari ertsiz gaurko mundu modernoan eta etorkizunean.

Nola?

Tituluan adierazten den bezala, URTEA hartu da aitzakitzat lau urtaro eta hamabi hilabeteekin.

Sarrera luze bat egin da gaurko urte zehatza nola moldatu zen adierazteko. Behin horraz gero, hamabi hilabeteetan zehar ibili gara hileroko ekintza eta bizikera aipagarrienak gogoratzuz eta garaian garaiko lau urtaroei aparteko sakontasuna eskeiniz.

Zertarako?

Urteroko egutegia bizi ahala euskaldunok nor eta zer izan garen gogoratzuz, gaurko eta etorkizuneko mundu berrian ere euskaldun zintzoak izaten jarrai dezagun belaunaldiz belaunaldiko euskal nortasunean.

Norentzat?

Hiru belaunaldietako euskaldunontzat; ikastetxean zein etxean, bakoitzak bere adin eta ikuspuntutik bizitzeko zaindu beharreko gure euskal kultura aberatsa.

Euskara

Eredu estandarrean idatzirik, baina, oinarrian, euskara herri-herrikoia, bizi-bizia eta aberatsa dager.

Euskara aberats honen zailtasuna ulergarritasunean eskeintzeko, hiztegi lagungarri luze bat agertzen da eranskin bezala eta era horretara errekuperatu herri natiboak bizi duen hizkuntza altxorra etorkizunera bideratzeko. (Dena dela, abesti zahar, bertso, esaera eta antzekoetan, ortografia eta euskalkia errespetatu da.)

Erabilera

Aurrekoz atzera zein atzekoz aurrera irakur daiteke liburu multidisziplinari hau. Aurkibide puntual eta zehatza lagun, garaian garaiko bizikerak irakur daitezke urtaroka zein hilabeteka.

Aurkibideko titulu bakoitza, egun berean zein fetxaz kanpo ere erabil daiteke. Esate baterako: martxoan agertzen dira marti-oirarrari buruzko ipuin-esaundak, baina oilarraz kanpo, beste hainbat gauza eder ere agertzen dira euren barruan.

Euskararen zailtasunari begira, aurkibideko tituluen artean, zenbait euskara maila ikus daitezke, nolako euskara maila, halako zailtasunekoa erabiltzeko.

Bibliografia

Liburu luze honetan, jakingarri asko aurkitu ahal izango den arren, euskaldunon izakera den-dena ezin da aipatu. Horregatik, bibliografia luze bat eskeintzen da irakurkeran, ebokazioa sortu ahala, nahi duenak nahi duen gaia sakontze bidean.

Gomendioa

*Itsasoan handi ura
basoan ugari zura,
euskaldun izan, euskaldun bizi
zainduaz euskal kultura.*

SARRERA

*«Euskal Herria herri zaharra
euskaldun denon etxea
herri bizia garen aldetik
arima beti gaztea.
Antzinatasun honek egin du
euskaldunon izatea
izate hori gogoratzeko
aikomen euskal urtea
mendeak joan eta etorri
ohitura onez betea.»*

Gu euskaldunok, Euskal herria izaten hasi ginenetik, bizitzak aurrean jarri digun enigma bakoitzari jakin ahalako erantzuna ematen ahalegindu gara.

Herri zaharra gara eta bizitza luze honetan bizikera asko eta asko zaharkiturik geratu zaizkigu garaian garaiko mende modernoari aurre egin ahala.

Gure herriaren historian, lau urtaroetako kultura-ohiturak ere leku-denboretara egokituz joan gara altxor ederra lortuz gure izakera luzearen bizibidean.

Euskaldunon kultura altxor honetatik, oraingo honetan, urtaroe-tako ohitura ziklikoei egingo diegu eupada.

Gaur egun, urtearen eguzki egutegi edo kalendario zehatza daukagu, paper zein elektronikarekin, baina lehenengo euskaldunen mundura bagoaz, imaginazio osoaz, jakina, dena zegoen egin gabe.

Eguzkiak argi eguna zekarren eta sartzamandian estaltzen zenean, gaua. Horrela hasi ziren gure arbasoak eguna eta gaua bereizten eta apurka-apurka urtaroak eta urtea moldatzen naturaren agindupean.

Egunez, Eguzkia zen nagusi, bere argi eta beroari esker, eta gauean, Ilargia, bere argi hil eta guzti, hortik beharbada bere "(h)ilargi" izena.

Garaian garaiko eta belaunaldiz belaunaldiko jakitun, azti eta abarrek, ahalegin guztiak egiten zituzten egunaren eta gauaren arteko gora-beherak ulertu eta azaltzen.

Bizitzaren joanean, eguna eta gaua ezeze, aroak edota antzerakoak ere bereizten hasi ziren, behar ere beharko zituztelako belaunaldiz belaunaldiko hezkuntza herrikoian.

Eguzkiaren argia eta beroa ez ziren berdinak egun guztietan eta Ilargia ere beti zegoen aldatzen. Harago edo honago, izarrak eurak ere keinuka ikusten zituzten batez ere kanikula egunetako gau errasuetan.

Eguzkia ekialdetik mendebalderako bidean ikusten zuten, ez baitzekiten geroago baten Galileok emango zigun argitasuna, eta Ilargia, ostera, jaiio, hazi, bete, beheratu eta desagertzen. Ha bai ha buruhausterako misterioa!

Baina gure arbasoek, geroago Ciceron erromatarrak esango zuen “loquor enim de docto homine et erudito, cui vivere est cogitare” (bizitzea pentsatzea den gizon jakitunez eta erudituz hitz egiten dut), horretan oinarrituz, burua erabiltzen zuten zelako halako erantzunak emateko enigmoi.

Hasieran, eguzki egutegia moldatu aurretik, Ilargiak kontatzen ere hasi ziren nolabaiteko adina jakiteko eta ilargi egutegia erabili ere egin zela esaten da gure Euskal Herri zaharrear, munduko beste kultura zahar batzuetan bezala, musulmanen ilargi egutegian, esaterako.

Bizitzari antza emate honetan, gaur egungo zientziatzko erantzunen ondoan, antzinako erantzun asko eta asko, mito, ipuin edo esaunda bihurtu zaizkigu. Ikus dezagun nola bihurtu zaigun mito Eguzkia, Ilargia eta Lurrari buruzko antzinako belaunaldiz belaunaldiko azalpen interesgarri eta argudiotsu hau.

Eguzkia, Ilargia eta Lurra

Behinola, lurtarrak, firmamentuaren ardatz zirela uste zuten aroko egun argi batean, gure Amalur honen ortzian, Eguzkia eta Ilargia elkarriketa bizi-bizi eta bero-beroan zeuden, garbi, eder eta bizitzaz beterik zegoen Lurrari adi-adi.

Eguzkia, pozik baino ere pozago zebilen, harro esan ez egitearririk, Lur emankor eta koloretsuari keinuka. Ilargia ere, eguzki argiaren ondorioz zeru urdinean estalita ego arren, adurra dariola zegoen Lurraren lurtasuna gozatzen.

Urteko egunik luzeenaren eguerdi-eguerdia zen eta Eguzkia, Lurra dela eta, handikerietan hasi zitzaion Ilargiari eta badiotso:

—Ilargia, ikusi egiten duzu ikusi Lurra, urak handi itsasoan eta natura dariola dagoen gure Lur hori?

—Bai horixe, hobe ez! Zer ba? —erantzun zion Ilargiak.

—Ba, hara! Gure Lurraren lurtasun oparoa, niri neuri eskerrak da eta argi ikus dezazun, arrazoiak ere eman egingo dizkizut. Aditu!

»Lurra ni gabe ez da ezer eta horrexegatik nauka jaungoikotzat. Gurtu egiten nau. Nola ez ba? Alde batetik, argia ematen diot, eta bestetik, beroa.

»Argiari dagokionez, solstizio bi eta ekinozio bitan zatitu diot Lurrari urtea eta lurtarrek ospatu ere egiten dituzte arook, batez ere solstizioak, kristatasunaren aurrean zein ostean.

»Neguko solstizioan eguna luzatzen hasten natzaio, eta udakoan, laburtzen. Egun biok ospatzeko sua darabilte lurtarrek nire irudi edo sinbolo bezala. Negukoan kobazulo edo etxe barruan isiotuten didate zubila eta udakoan sugarrak egiten dizkidate kanpoan, kristauaroan ere berdin, Gabonzubila eta San Juan sugarrak deitu arren kulturaldaketa ren arabera.

»Badakit jakin, lurtarrek gauaren inguruko sineskera mitikoak ere badituztela baina egun argiz ez dago horrelakorik, nire argiak baztertu egiten ditu beste zerok, jentil, lamina, sorgin eta gainetiko guztiok. Ni neu naiz nahiko Lurrarentzat. Nik den-dena ikusten dut, Lurraren barrukoa ere bai, aditu bestela, harako greziarren sineskera mitikoetan Persefone non zegoen nola argitu nion Demeter bere amari.

»Lurrean kukurruku edo marti-oilarrek ematen didate eguneroko egunon agurra eta larreetiek euren hegazkadekin iluntze-gaueroko gabon olesa, kristauaroraz gero berriz, kanpai-hotsez, baina, nola-ko eta norainoko kanpai-hotsak? Zer gutxiago, nori eta neuri?

»Beroari dagokionean, nire beroak Lurra berotu egiten du, eguzki-begiko mendietako elurak urtu, ibai, laku eta itsasoko urak berotzean lurrundu, lainoak sortu, hotz beroetatik sortutako haizeaz gainontzeko aldaketa atmosferiko guztiak sortu. Zertarako? Ba, Lurra onuratu eta emankor mantentzeko.

»Lurra esker onekoa da nirekin eta beragana eraman ezin nauanez, nire irudiko sinboloak jartzen hasi da batez ere hilerrietako hilobi-harrietan. Gehiago oraindino, gizaki bat hiltzen denean, nire irudiaz gain, oinak ekialdera direla lurperatzen dute. Kristautasunak berak ere, eleizak ekialdeari begira eraiki ditu kultura zaharra errespetatuz.

»Abestu eta guztiraino egiten didate lurtarrek batez ere gaulendi edo ilunabarrean, entzun, esaterako:

“Eguzkia badoa
bere amagana
bihar etorriko da
egun ona bada”.

»Mari Anbotokoa bera ere, nire egunetiko lehenengo izpiak ikustean, kobazuloaren ataka-atakan ezarri eta bere ile horiak orraztu eta orraztuteari eragoten dio. Eta Marik esanda edo, lurtarrek entzutea daukate nire lehenengo argi izpiek zorua jotzen duten lekuan urre gorria dagoela hantxe bertoko lurpean.

»Esanak esanda, gehiago zer esango dizut ba Ilargia? Ah, bai! Txarrezean jarritz gero, neure bero hau berberau darabilt indar bezala.

Gogoratu, behin, nola nik neuk sortutako haizeari egin niona handikerietan hasi zitzaidalako ausarta halakoa. Aitu:

Udagoieneko egun baten, haizeak desafioan jarri ninduen nork kendu lehenago gizaki bati narruzko soinekoa. Eta esan nion ba ze haize indartsuari:

—Hainbesteko intzigua badaukak, hi heu hasi hadi lehenengo eta ikusiko diagu ea nor den gehiago gizaki hori biluztuten.

—Hori eginda zegok —erantzun zion haizeak—, laster apalduko haut Eguzki harro hori halako hori!

Indartsu baino ere indartsuago hasi zen jotzen haizea eta gizakia-
ren soinekoari oratu beharraren oratu beharrak ikustean, geroago eta gogorrago eragoion, txistu bizian, Mateotxisturen txakurren alauriak balira bezala lur-zoruko hauts, orbel, abar, harritxokor, sokil, barda eta gainetiko guztiak aidatuz.

Baina alperrik. Gizakiak, makur-makur egin eta ahaleko indar guztiaz oratzen zion soinekoari eta inondik eta inora ere ezin erantzi arazi. Bertanbera utzi behar izan zuen haizeak bere ahal den guztizko ahalegina.

Nik neuk ostera, neure baitako beroa botaten hazi nintzaion eta apurka-apurka gizakia nasaitu eta soineko latza mugitzen hasi zen. Mugitu bakarrik ez, nire beroaren ondorioz, inork behartu gabe, jakina, erantzi egin zuen soinekoa biluzik geratu arte eta inguruko en lotsari izan ez egiteagatik, erazen zeukan iturrian freskaldi bat hartu eta gerizpetara joan zen soineko arinago baten bila.

Beste behin, Icaro greziarra zigortu nuen. Jakina, aita Dedalo eta biak zeuden teilatu gabeko laberinto batean irten ezinik. Hegazti handi batzuen hega-lumak hartu, argizariz lotu eta hegaz irtetea lortu zuten. Baina gazteak zoro egoten direnez, Icarok gora eta gora egiten zuen nigana heldu nahian. Dedalo aitak ez hurbiltzeko hainbeste esaten zion, baina alperrik. Icaro gehiegi arrimatu zitzaidan eta nik orduan nire beroaz hegoetako argizaria urtu egin nion eta Icaro itsarora amildu zen aztarrika luma guztiak dariola.

—Bueno, zer diostazu Ilargia? Entzunak entzunda, ez dut uste ezer esaten atomatuko zarenik, ezta? Ala, bai?

Ilargia txiterdi ere egin gabe egon zen Eguzkiaren harrokeriazko astrapalada guztia entzuten, belarri barruetarainoko durundu eta zorabioaz gogait eginda. Eta bildursartu eta guzti egon arren, indarrak atera eta mihi gabeko arrana ugerrak jaten duela gogoratuz badiotso Eguzkiari:

—Hara, Eguzkia, ez dakitsut zer esan ez nondik hasi, baina egin egingo dut. Aiko, Lurrarentzat zu beste banaizelakotan nago. Aditu, Lurra begiak zabal-zabalik dago gauero niri begira. Zuri ezin dizu aditu ere egin zure su-argi horrekin itsutu egiten duzulako.

»Ni, jaioten, hazten, betetzen eta beheratzen ikusten nau. Hortik ilargi berri, ilgora, ilargi bete eta ilbehera, hau da, hilaren zikloa osatzen diot Lurrari eta gizaki emeak ere ziklo berbera darabil eta hortik "ilekoa" izena ere. Zer izango ote litzateke mundua emakumearen amatasunik gabe?

»Zuk, Eguzkia, urteko solstizioak ematen dizkiozu Lurrari, baina nire hogeita bederatzi eguneko zikloaren bidez, kontuak ateratzen dituzte lurta- gizakiek, euren adina, urteka ezeze, ilargika ere kontatuz.

»Zuk gauean alde egiten duzunean, nik ihintz eta hezetasunez janzen dut Lurraren zorua, freskatu eta onuratuz.

»Itsasoa ere, neure itsasoa, nik neuk darabilt gora eta behera itsas- gorak eta itsasbeherak sortuaz neure grabitateari esker.

»Hazeguna noiz den jakiteko ere ni neu edukiten naute kontutan. Landare bat birlandatu, inausi, ipurditik bota eta abarretarako ere neuk adierazten diet sasoi edo garai egokiena.

»Beti betetzen ez bada ere, gizaki emeen ernalketan ere badut zeri- kusia, ilgoran agintzen dena arra, eta ilbeherakoa, emea.

»Txerria edo eta zezinetarako zekor edo bigantxa bat hilteko ere nire egoerari begira daude lurtarrak jakiari gatza eman eta ondo kontserbatzeko.

»Orain arte esandakoa kontu hutsa dela pentsa ez dezazun, lurtar- rren ohitura bat jakinaraziko dizut. Hauxe: zuhaitz baten zura edo egurra sikatu eta luzarorako behar denean, nire maiatzeko ilargi berrian ebagiten dituzte arbolok. Ez egin sinesgaitz barrerik, Eguz- kia, ez. Gogora ezazu, harako, San Martintxuk egindakoa. Jentil edo basajaunei sorots eginik lortu zuen haltzezko zubil enborra ipin- tzea errotarriari. Jakina, haltz enbor hori, neuk esandako egunean ebagia zen, hots, maiatzeko ilargi berrian, eta horrexegatik zen eta da egokiena errotarrien oboan-oboango jira-biretan erre ez egiteko.

»Horretarako ezeze, menester gehiagotarako ere darabilte lurtar- rrek haltz zur hori, sitsak edo zedenek ere nekesago jaten duelako.

»Sineskeren mundura joanik, zuk Eguzkia, lurtarrean egunez pertsonai mitikorik ez dagoela diostazu, baina hango gizakiak eta euren arteko aztiak sineskeraz beterik bizi dira eta nire ilargi bete- pean hainbat eta hainbat hausnarketa egiten dituzte, eta behar- beharrezko nautenez, gurtzeraino iritsi dira, ezpabere galdetu lur- tarrei ni eurentzat zer naizen eta ikusiko duzu, horraitio!

Eguzkia, izatez sua bazen ba ze, sutan jarri zitzaion Ilargiari eta haserrearen haserreaz, odolak ur eginik, hartu bere baitatik esku biak bere txingar gori eta aurpegi-aurpegira bota zizkion ilargi betean zegoen Ilargiari. Ustekabe edo akordatzakoan harrapatu zuenez, Ilargiak ezin zuen ezertxo ere egin eta aurpegi guztia erreunez beterik geratu zitzaion.

Baina, Ilargia, susto-sartuaz ezeze, barru-barrurainoko bildur-sartu eta guzti zegoenez, orpoetan har barik hasi zen arineketan, hegaz ez esatearrrik zerutik zehar zein Eguzkiak atzerik hara harrapatu.

Ilargi betea, ilbeheran sartu zen eta hogeita bederatzigarren egunean, Eguzkiak ia-ia harrapatzekotan zeukala, bere burua gorde zuen zeru okeluren batean.

Eguzkiak ezin zuen bere abiada geratu eta aurrera egin behar izan zuen frustazioz beterik.

Egunak joan egunak etorri, Eguzkiak berriro ikusi zuen Ilargia, baina aurrerik hara. Atzerantz egin ezin zuenez, lehen baino bizkorrago eragoion hurrengo bueltan harrapatzeko.

Gauak joan gauak etorri, Ilargia, ilargi berri, ilgora, ilargi bete eta ilbeheran ere sartu zen eta, beste hogeita bederatziz egun barru Eguzkia hurbiltzen ikusi zuenean, berrien berriz gorde zion bere burua Eguzkiari.

Eguzkiak atzera ere intentatu zuen baina alperrik. Ilargia bere hileroko oboan-oboango jira-biren azkenean onik ateratzen zen afrontutik. Gaur egun ere, hor dabilta biak, bata bestearen atzean Lurrari egunez argia eta gauez iluna ematen.

Lurra, Eguzkiaren eta Ilargiaren eztabaidaren aurrean, irribarreka zegoen bazekielako elkarren buruak ez zituztela galduko.

Lurrak ez zien eurei inoiz esan, baina pentsakera zaharrean inguru guztiko ardatza bera sentitzen zenez, Lurrak berak sortu omen zituen Amalurretik Eguzkia eta Ilargia bakoitzak bere egun edo gaueko tasunak emateko lurtarrei.

Harrezkero, zientziak argitu arte, horrela azaldu izan da belau-naldiz belaunaldi Eguzkia, Ilargia eta Lurraren arteko mirakulua.

Eguzkia jainkotu egin izan du gizakiak eta ezintasunaren aurrean eguzkiarengana joteko ohitura zabal ibili da mundu osoan.

Euskal Herria ez da gutxiago izan eta behar izan duenean eguzkiari egin izan dio kontsulta inposibleak lortzeko. Hau baieztatzeko, herri esaunda bat aipatuko dugu. Hauxe:

E*guzkia eta Kadaguako deabru-zubia*

Enkarterriak zeharkatzen dituen Kadagua ibaiak Barakaldo aldeko urahoan egiten du bat Ibaizabalekin.

Pagasarri barreneko Kastrejanapean Kadagua gainetik zubia egin baino lehen, harri-pausuak omen zeuden alde batetik bestera joateko, eta hauxe gertatu omen zen antzina ere antzina:

Mutil gazte batek neska eder bat maite zuen, benetan maitatu ere. Neskatoa erreka bestaldean bizi zen eta beragana joateko Kadaguako harri-pausuetatik pasatzen zen elkarren arteko berba gozoez gain laztanak egiteko.

Baina, egun euritsu batean, Kadagua ibaiak ur handiak zekartzan inguruetan uriolak sortuaz.

*Mutil gaztea joan zen beti bezala neskatoa ikusteko asmoaz baina ezin, harri-pausuak ikusi ere ez ziren egiten eta ezin zuen erreka-
ren bestalderako bidea egin, neskatoa bere zain egon arren.*

Mutil gazteak ez zeukan eperik. Neskatoak lasaitzeko esaten zion, urak bajatuko zirela eta. Baina alperrik.

Mutil gaztea biraoka hasi zen eta deabruari deiadarrez arteak ere hartu ezinik.

Horretan zegoela, gizon berezi bat agertu zitzaion derrepente eta non diotson:

—Zer nahi duk mutil, hain estu eta larri egoteko?

—Zer nahi dudan? Ba, zubia, hor aurrez aurko nire maiteagana joateko.

—Tira ba, hori nahi baduk bihar Eguzkiak urten aurretik, egin egingo diat zubia, baina heure arimaren truke.

—Ondo zegok —erantzun zion mutil gazteak zer esaten zuen ez zekiela.

Ha gizon berezia deabrua omen zen eta zubiginen hasi zen gau hartan bere kide prakagorri guztiekin.

Neskatoak, bere mutil-laguna deabruarentzat izango zela konturatu zenean, zerura begira hasi zen eta, sartzamendian sartzeko zegoen Eguzkiari, esku biak jaso eta hauxe esan omen zion:

—Eguzki jauna, mutil lagunaren arima deabruak eraman ez dezan, bihar goizean apur bat lehenago agertuko bazina infinitoki esker-tuko nizuke!

Ez dakizu Eguzki jauna, zenbat baino nahigo nukeen zugandiko mesede hori!

Gaua aurrera zihoan eta zubia ere bai. Neska-mutil maiteminduak, ordea, geroago eta larriago.

Egunsentirako apur bat falta zenean, Eguzkiak gauari aurreak hartu eta agertu egin zen ekialdetik, Pagasarri aldetik.

Deabrua, Eguzkiaren aurrean, podere gabe geratu omen zen eta zubia harri baten faltan. Era horretara, mutil gazteak ez zuen bere arima galdu eta neskak ere ez bere mutil laguna.

Lur zabal honetan, euskarak euskalduntzen duen herri honek, zerupeko Amalurrean jarri zituen oinak eta oinarriak, batek badaki noiz!

Euskal Herria, bere eguneroko bizitzan aurrera joan ahala, Ilargiarena ezeze, Eguzkiaren zikloa ere ulertuz zetorren.

Natura izan zuen abiapuntu eta horren arabera ernaroa eta helduaroa bereizten hasi zen. Hainbat landare erne, hazi, fruitua eman eta hil egiten ziren, beste batzuk hostoz aldatu. Ziklo honen lehen zatiari uda deitu zioten, eta bigarrenari, negu.

Eguzkiaren eragina argi ikusi zuten hotz-bero eta argian, baina ez zen erraza naturaren enigma asmatzea.

Beste misterio batzuetan bezala, naturaren misterioa ere azaltzeko zientziaz kanpoko erantzun mitikoak sortzen ziren Euskal Herrian zein haragoan, baina beti zegoen erantzunen bat belaunaldi gaztearen jakin-egarria asetzeko.

Naturaren berezkotasuna azaltzeko, gureaz kanpoko erantzun bat edo beste aipatzearren, Egipto zaharreko Osiris, Palestinako Baal jainkoen eta Grekoen mitologiatik hartutako Demeter jainkosaren mitoak aipatuko ditugu. Aikomenzan:

Osiris Egiptoko landaretzaren jainkoa

Osiris Egipto zaharreko jainko garrantzitsuenetakoa zen, Geb et Nut-en semea.

Egun batean, Set bere anaiak, inbidiaz josita, otzara baten sartu Osiris eta Nilo ibaira bota zuen. Baina Isis arreba jainkosak ikusi egin zuen eta uretatik atera.

Set gaiztoak, orduan, hartu berrien berriz bere anaia Osiris eta zati-zati egin zuen bere gorpu zatiok Egipto guztian zehar sakabanatuz.

Isis sutan jarri zen eta birritan pentsatu gabe, hartu zurezko otzara bat eta Osiris jainkoaren zatiak batzen hasi zen negarranpuluak dariola eta, kontaktzen denez, negarranpulu horietatik sortu omen ziren zeruko izarrak. Kostatuak kostata, zati guztiak batzea lortu zuenean, Neftis eta Anubis lagunak laguntzaz, bizia eman zion berrien berriz Osiris jainkoari.

Handik gerora, Osiris eta Isis ezkondu egin ziren eta seme bat izan zuten: Horus. Honek, denborarekin, bere aitaren tronua berreskuratu zuen eta agintzen hasi.

Osiris landaretzaren jainko handia zen; hazia erein, hil eta hilabete batzuetara erne, hazi eta galburutzen denaren sinboloa.

Osirisek gizakiei lurra ureztatu eta lantzen irakatsi zien Niloren luze zabaleran.

Azkenean, hil eta berbiztu egiten zen Osiris jainkoak, baztertu egin zuen Anubis hilen erregetzatik.

Palestinako Baal, Anat eta Mot naturaren joan etorrian

Baal natura eta fertilitatearen jainkosa zen, Anat bere emaztea. Negu aldean Moteke, heriotzaren jainkoak, Baal harrapatu eta inframundura eraman zuen, inpernura, eta horren ondorioz indargetu eta gauzeztandu egin zen natura.

Anat emazteak, udaberri aldera, Mot gainditu eta Baal atera egin zuen inframundutik. Horretara, natura berriro hasi zen ordenera etortzen. Ordurik hona, hor dabilta urtero-urtero Baal eta Mot eurenak egiten Anat bitarteko delarik.

Demeter Greziako zerealen jainkosa

Demeter, Ceres erromatarrentzat, gari eta gainetiko zerealen jainkosa zen eta behar ere beharrezkoa uzta onak lortzeko.

Zeus jainkoarekin batera alaba bat izan zuen, Persefone edo Kore izeneko neska eder, zoli eta liluragarria.

Persefone, bere gaztaroko egun argi batean, lore polit bat bila joan zen landarik landa eta ustekabeen, karrast! lurra arrankaldu eta Persefone irentsi egin zuen Hades inpernuko jainkoak.

Alauri estentoreo bat bota zuen Persefonek eta bere amak entzun ere bai, baina, lurra itxi egin zenez, ezin zuen amak ikusi.

Demeter intzigu eta denodu guztiaz hazi zen bere alabaren bila, baina alperrik, ekinago eta txarrago. Lurra jota zegoen, edan gabeko hordiaz, eta erruki emateko moduan zebilen bideak betean batetik bestera mundurik aramaio, bere alabaren grillistuak belarrietatik kendu ezinik.

Orduan, Eguzkiak, dena ikusten zuenez, esan egin zion Demeter errukarriari Persefone non eta nork zeukan bahituta.

Demeter gora-goraka hazi zen eta, birritan pentsatu gabe, joan Zeus jainkoagana eta esan zion begi biak urten eginik:

—Zergatik eraman du gure alaba zure anaia Hades inpernurrak? Ba, zeuk ikusi, baina nire alaba ez badidazu handik ateratzen, aurtan ez duzu uztarik lortuko eta gizakiak ez du zer janik eukiko.

Zeus pentsakor geratu zen eta Hades anaiarekin akordio batera heldu zen. Behin horraz gero, esan zion Demeterri:

—Aitu Demeter, Hadesekin akordio batera heldu naiz eta hauxe egingo dugu: naturaren udaldia zeurekin egingo du Persefonek eta negualdia Hadesekin, zer deritzozu?

—Tira ba, besterik ezin bada, ados! Dendik ere, udaldia luzeago eta garrantzitsuagoa da eta konformatu egingo natzaizu, baina niri berriro ez holakorik, eh!

Udaldiko ernaroarekin batera, lurra zabaldu eta Hades inpernuttarrak eman egin zion Persefone Demeter bere amari Eguzkiaren argipean.

Euskal Herrian bertan ere asmatzen ziren antzerako esaundak naturaren gorabeherak azaltzeko ume eta kaskonduei.

Bat aipatzearren, Mari Anbotokoarena egingo dugu, bera baikeen, besteak beste, uztaroaren jainkosa.

Mari Anbotokoa Euskal Herrian

Mari Anbotokoa kobazulorik kobazulo ibiltzen omen zen urtean zehar eta Bizkaia aldean, besteak beste, kobazulo nagusi bi ziren aldea batera egiten zituen egonaldien egoitzak, bata Anbotoko partekoa eta bestea Gorbeia aldeko Itxinako hazduiko Supelegorrekoa.

Udaldian, Anboton ematen zituen bere egunak naturaren ernarorik harako guztia zaintzen negua heldu arte. Eguzkia eta Ilargia lagun, beren beregiko sasoi ona eskeintzea zuen helburu Amalurtarrak pozik eukiteko.

Behin udagoienaz gero, garretan joaten zen Supelegor kobazulora negua ematen. Supelegorretik, neguko ekintzak zaintzen zituen, goruetak, artazuriteak, txerri-hilteak, ikazgintzak eta abar guztiak.

Eta horrela omen dabil Mari Anbotokoa urtean zehar batetik bestera anega bat garik garautan daukan beste urtean, gutxienez.

Horrelaxe zebiltzan gure euskal arbasoak kobazulorik kobazulo, abeltzaintza eta arrantzaz gain, naturak eman eta kentzen zieten guztiaz bizitzari antza eman eta aurre egiten.

Harri, zur eta burdinazko lan tresnak egin, lurra landu, haziak erein, abereak hezi, arretxeak eraiki, eta abar luze baten ondorioz, gure arbasoak sedentario egiten zetozten.

Labrantzatik bizitzen hasi zirenean, Eguzkia egin zen nagusi, bera eta beragandiko fenomeno atmosferikoak erabakiorrak zirelako lurrerik harako uzta emaitzetan.

Euskaldunak pozik baino ere pozago bizi ziren gure Amalurrean egunez Eguzkiari eta gauzez Ilargiari adi egunean eguneango ekintzetan.

Aroak joan aroak etorri, ustekabeko herriak hasi ziren gure Amalur hau inguratu eta barruan sartzen.

Bakean dagoenari bakean uztealakorik ez dago, baina mundu hone-tan zergatik hartatik beti egoten da zirikadaren bat eta gure Amalurrean ere gonbite gabeko arrotzak agertzen hasi ziren: iberiarrak, bikingoak, keltatiarrak... eta batez ere erromatarrak.

Arrotzen artean, erromatarrak izan ziren entzutetsu eta eraginko-
rrenak. Erroma, herri handia eta indartsua izateaz gain, inperiorik han-
dienaren bila zebilen. Horretarako tresneria ugaria zeukan, bai itsasorako
bai bidegintzarako, bai burdina lantzeko, bai labrantzarako, bai basoen
ustiapenerako, bai defentsa beharretarako, berba baten esanda, denerako.

Bakean bizi eta bakea joan. Gure amalurtarrek ezin zuten gauza
handirik egin Erromako Inperio boteretsuaren aurka eta, hiltea azkena
denez, zuhurtasunez jokatzea ebatzi zuten, belea beltzago ez dela egingo
gogoratuz.

Gure arbasoek ahal zutena defenditu zuten eta gainera bikun-
tzan bizi behar erromatarrekin, nola ba osterantzean?

Harik eta ikasi arte berbaikinarekin ere erazoak izan zituzten,
latinarekin lehenengo eta erromantzearekin geroago, baina tira, gure herri
honek hortixek ere ikasi egin zuen norberea galdu barik.

Erromatarrek bidegintzan egin zuten lan handia. Zubi eta guztiz-
ko arpide asko eta handiak egiten zituzten. Gazteluak ere ez ziren harantza
horrantzakoak. Labrantza eta abarretarako tresneria ere alosokoa zen. Berba
baten esanda, oso herri aurreratua eta inperialista.

Laster konturatu ziren gureek erromatarrak ez zetoztela Euskal Herria menperatzen, beste helburu handiago baterako baino.

Gurean, lur lautadak behar zituzten zerealak ereiteko, meatzeak tresnerietarako eta egurra ikatz edota sutarako.

Gure herria beti egon da zabalik datorrena hartzeko, ona bada, noski, eta horixe egin da egin ere gurean sartzen ziren guztiekin, geuk dakigunaz gain, ez dakiguna ikasi.

Erromatarrek lautada ederrenak landu eta zerealak ereiten zituzten eurenako guztiei jaten emateko.

Gure herriak hori ere ikusi eta ikasi. San Martintxuren zuhurtasunari esker, galgarauak lortu, hazegunean erein eta ekainerako galburu.

Gehiago oraindik, boluak edo errotak egiten ere ikasi zuen gure herri zuhur honek erromatarrengandik. Burdina lantzen ere bai eta tresnak egiten zertan esanik ere ez. Eta, ikasi ahaleko aurrerakuntza guztiguzti hori hizkuntzara eraman zuen, mailegutza zein beste eraren batera.

Erromatarren bizitzaren antolaketak bete-betean jo zuen gure Euskal Herria eta egunean eguneango ikaste horretan, besteak beste, egutegia ere egokitzen hasi ziren gure amalurtarrak, behar ere beharko zutelako aurrerantzarako.

Herri ipuinean Eguzkiak Ilargiari esan zion bezala, lau arotan banatu zuten urtea gure arbasoek. Uda zenez garrantzitsuena, hiru zati bereiztu zituzten: udaberri, uda eta udazken edo udagoien, negua bertanbera utziz.

Baina erromatarrak eta eurengandikoak aurreratuago zeuden alor honetan ere. Hilabeteak ere bazituzten, asko kostata eginak seguraski.

Erromatarrentzat ere ez zen izan berezkoa egutegiaren hilabeteak zehaztea, harik eta kristauaroa ospakizunekin bat egitera etorri arte.

HILABETEA

Hasieran, erromatarrak hamar hilabeteko urtea zuten. Martian hasten zen urtea, udaberriarekin batera. Aikomenzan banan-banan hamar hilabeteok, latinez, jakina: Martius, Aprilis, Maius, Iunius, Quintinis, Sextinis, September, October, November, December. (imber = euria).

Urtea banaketa hau baino luzeagoa zenez, desoreka sortzen hasi zen eta, handik gerora, Juliano izeneko egutegia finkatu zuen Julio Cesar-ek (46 K.a.) Alejandriako Sorigenes astronomoari jarraituz.

Urteak 365 egun eta piku zituenez, piku horiek lau urterik lau urtera egun bat gehiago osatzen zuten eta "bis-sextus" = "bisiesto" izena jarri zioten, hots, banaketa berriko hilik laburrenari egun bat gehiago erantsiz, Februarius-en hilabeteari 23a bikoiztuz, hau da, "sexto die ante calendas martias" = marti lehenengoa baino sei egun lehenago.

Gauzak honela, erromatarrek hilabete bi gehiago asmatu behar izan zituzten. Lehenengoa "Januarius" Erromako, Jano, aurrekoa eta atzekoa ikusten zuen aurpegi bitako jainko ate zaindariaren omenez sortua eta bestea "Februarius", egutegi berrituan bigarren joan arren, erromatarren urte zaharreko azkenengo hilabetea, purifikazio ekintzarako aukeratua.

Horrezaz gain, Julio eta Augusto Cesar Erromako enperadore ospetsuen omenez, "Quintinis"-ek Julius eta "Sextinis"-ek Augustus izena hartu zuten.

Kristau aroan sartu eta gero, erromanizazio lurraldeetan urteen kontaderia berrantolatzen hasi ziren eta, horretarako, Jesukristoren bizitza garaia hartu zuten abiapuntutzat eta zerotik hasi berriro urteak kontatzen.

Ardatz hori kontutan hartuta, harrezkero, edozein egun izendatzeko Kristo aurreko (K.a.) edo Kristo osteko (K.o.) dela esaten da. Handik geroagora, 1582an, Gregorio XIII Aita Santuak bere izenez ezagutuko den egutegia osatu zuen eta berehala hasi zen erabiltzen lurralde katolikoetan.

Harrezkero egutegiko zenbakiak euren katean sartu ziren, baina, Eleizak arazoak zituen bere jaiak kokatzeko, batez ere Bazko eguna.

Ibili eta ibili, juduen tradizioa jarraituz, udaberriko lehen ilargi betea hartu zuten erreferentzia bezala eta egun horretatik hurbilen datoren igandea Bazko eguna izango zen beti, eta halaxe onartu ere.

Behin Bazko eguna aukeratuz gero, hortik atera ziren "quinquagesima", Erramu eguna, "quadragesima" = garizuma, eta abar guztiak.

Inguruko gauzak horrela, Amalurreko euskaldun arbasoak ez ziren lo egon eta handik, hortik, hemendik, zer? eta urteko egutegia moldatzen hasi ziren.

Herri txikia baina nortasun handikoa izatean, Euskal Herriak hila-beteen egokitzea mailegu bidez edo eta garaian garaiko aro bereiztasunez egin zuen, hilabete bakoitzak izen bat baino gehiago hartuz lurraldeen arabera. Aikomenzan hamabi hilabeteok eta euren aldaki batzuk:

- 1) URTARRIL edota beltzil, ilbeltz, izotzil, izozkil, lloila, loill, urteberril, urteil...
- 2) OTSAIL edota zezeil, barandail, iltxiki, katail...
- 3) MARTXO edota marti, epail...
- 4) APIRIL edota jorrail, opeil...
- 5) MAIATZ edota loreil, ostoil, ostaro, orril...
- 6) EKAIN edota bagil, arramaiaz, eraiero, garagarri, garagarzaro, ereilero...
- 7) UZTAIL edota üztaril, garagarri...
- 8) ABUZTU edota agorri, dagonil...
- 9) IRAIL edota buruil, garail, agor, autonomo...
- 10) URRI edota urril, urrite, lastail, azaro...
- 11) AZARO edota zemendi, (h)azil, gorotzil, lenabendu...
- 12) ABENDU edota (h)otzaro, lotazil, illul, bigarren abendu...

Hilabete batzuen izenak latinetik hartu ziren, beti ere euskarara egokituz, “marti, apiril, maiatz, etab.” baina beste asko aro edota ekintzei lotu zitzaizkien, sailkapen horri euskal kutsua emanez.

Har ditzagun, esate baterako, gure “irail, azaro edo zemendi, urri eta abendu”. Erromatarrengadikoak “september, october, november eta december” ditugu, hau da, euren egutegi zaharreko azken lau hilabeteak.

Erromatarrek euriarekin lotu zuten garai hau “imber = euria”, baina gure zaharrek, lurrarekin. Esate baterako, september ira edo ida garaiarekin lotu zuten, hortik irail; november, (h)aziarekin, hazia ereitearekin, hortik azaro edo zemendi (semen = hazia, latinez).

December, ordea, naturaz kanpoko garai batekin lotu zuten gure arbasoek. Gure abendu kristau aroan hartu zen latineko “adventus”-etik, Kristoren jaiotza aurreko preparazio garai bezala aukeratu zuelako Eleizak.

Mailegu zein beste, euskaldunak hamabi hilabeteko urteak bizi eta kontatzen hasi ziren beste kultura batzuen arrimuan.

ASTEAK

Apurka-apurka, gureek aurrera egin behar izan zuten, inguruko kulturetan hilabateak ezeze, asteak ere bereizten zirelako, zazpi eguneko asteak, egun bakoitza bere izen eta guzti.

Gure euskal arbasoek bazuten izan astea, baina euskal erara egokitua, hiru zatitan banatua: astelehena, asteartea eta asteazkena. Laugarren bat ere bazeukaten: lauren bat(e)> larunbat.

Erromatar eta eurengandikoez, hasieran, sei eguneko astea zehaztu zuten. Aikomen bakoitzaren izenak: Lunae dies; Martis dies; Mercurii dies; Iovis dies; Veneris dies eta Saturni dies edo Sabbati (hebraieratik hartua).

Gero, kristautasuna zabaldu zenean, zazpigarren egun bat ere asmatu zuten erromatar kristauek, Bibliako irakatsietan oinarriturik. Hauxe diosku Bibliako Genesis liburuak:

Munduaren eta gizadiaren jatorria: zeru-lurren kreazioa (*Hasiera, 1,1-2,4*)

I¹Hasieran, Jainkoak zeru-lurrak egin zituen. ²Lurra nahas-mahas hutsa zen: leize handiaren gain ilunbea. Jainkoaren arnasa uren gainean zebilen.

³Eta jainkoak esan zuen: "Izan bedi argia".

Eta izan zen argia. ⁴Ikusi zuen Jainkoak argia ona zela eta bereizi egin zuen ilunbeetatik, ⁵Argiari "egun" eman zion izen, eta ilunbeei "gau". Honela lehen eguna burutu zen.

⁶Jainkoak esan zuen: "Izan bedi sabaia uren artean, goiko eta beheko urak bereiz ditzan".

Eta hala izan zen. ⁷Jainkoak sabaia egin zuen eta sabai azpiko urak sabai gainekoetatik bereizi zituen. ⁸Jainkoak sabaiari "zeru" eman zion izen. Honela, bigarren eguna burutu zen.

⁹Jainkoak esan zuen: "Bil bitez multzoan zeru azpiko urak eta ager bedi lehorra".

Eta hala izan zen. ¹⁰Lehorrari "lur" eman zion izen, eta ur-multzoari, "itsaso". Eta Jainkoak ona zela ikusi zuen.

¹¹Jainkoak esan zuen: “Eman bitza lurra belar hezea, hazidun landareak eta orotariko frutarbolak beren hazi eta guzti”.

Eta hala izan zen. ¹²Eta lurra orotariko hazidun landareak eta frutarbolak beren hazi eta guzti eman zituen. Eta Jainkoak ona zela ikusi zuen. ¹³Honela, hirugarren eguna burutu zen.

¹⁴Jainkoak esan zuen: “Izan bitez argizagiak zerusabaian, eguna eta gaua bereizteko, eta jaiak, egunak eta urteak ezagutarazteko. ¹⁵Izan bitez zerusabaian lurrari argi egiteko”.

Eta hala izan zen. ¹⁶Jainkoak bi argizagi handi egin zituen: handiena egunaren gain jartzeko, eta txikiena, gauaren gain. Eta izarrak ere egin zituen. ¹⁷Zerusabaian ezarri zituen lurrari argi egiteko. ¹⁸Egunaren eta gauaren gain jartzeko, argia eta ilunbea bereizteko. Eta Jainkoak ona zela ikusi zuen. ¹⁹Honela, laugarren eguna burutu zen.

²⁰Jainkoak esan zuen: “Egin bezate urek borbor bizidunetz; egin bezate hegan hegaztiak lurraren gainean, airean”.

²¹Jainkoak itsas arraintzarrak sortu zituen, uretan borbor dabil-tzan orotariko bizidunak eta orotariko hegaztiak. Eta Jainkoak ona zela ikusi zuen. ²²Eta bedeinkatu egin zituen, esanez: “Sor itzazue umeak, ugalduek eta bete itsas urak; ugal bitez hegaztiak ere lurraren gainean”. ²³Honela, bosgarren eguna burutu zen.

²⁴Jainkoak esan zuen: “Eman bitza lurra orotariko bizidunak: abereak, piztiak eta narrastiak”. Eta hala izan zen. ²⁵Jainkoak orotariko bizidunak sortu zituen; abereak, piztiak eta narrastiak. Eta Jainkoak ona zela ikusi zuen.

²⁶Jainkoak esan zuen: “Egin dezagun gizakia; izan bedi gure antzeko, gure irudiko; menpera ditzala itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak, abereak, basapiztiak eta lurrean narraska dabil-tzan pizti guztiak”.

²⁷Jainkoak, beraz, bere antzeko egin zuen gizakia, Jainkoaren beraren irudira egin zuen; ar eta eme egin zituen.

²⁸Eta bedeinkatu egin zituen, esanez: “Sor itzazue umeak eta ugalduek, bete lurra eta izan haren nagusi; menpera itzazue itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurrean narrastaka dabil-tzan pizti guztiak”.

²⁹Jainkoak esan zien: “Hara, zeuei ematen dizkizuet lurrazalean diren hazidun landare guztiak eta hazidun frutarbola guztiak; horiek izango dituzue janari. ³⁰Abere, zeruko hegazti eta lurrean narrastaka dabiltzan bizidun guztiei, berriz, belar hezea ematen diet janari”.

Eta hala izan zen. ³¹Eta egin zuen guztia oso ona zela ikusi zuen Jainkoak. Honela, seigarren eguna burutu zen.

2 ¹Honela burutu zituen Jainkoak zero-lurrak, berauetan dagoen guztiarekin. ²Zazpigarren egunerako burutu zuen Jainkoak berak eginitiko lana eta zazpigarren egunean lanari utzi. ³Eta bedeinkatu egin zuen zazpigarren eguna eta sagaratu, egun horretan hartu baitzuen atsedean kreaizio-lanetik. ⁴Hau da zero-lurren kreaizioaren historia.

Hortik ba, Dominico/a, hots, kristauen Jaungoikoak atsedean hartu zuen eguna, beraz, asteko zazpigarren eguna.

Gauzak horrela, nahaste handiegia zen egun ezberdinekin ibiltzea eta azkenean zazpi egunak osatzea erabaki zuten gure amalurtarrek.

Euskaldunen artean egokitze-era bi hartu ziren. Bizkaialdean erromatarrengandiko ordena jarraitu zen, egun batzuen izenak mailegu bidez hartuz eta besteak asmatuz, “egun” argi-hitza bitarteko. Azkenean hauexek: astelehen, (ilen), martitzen, eguazten, eguen, bariku, zapatu eta domeka. Bariku dela eta, kristautasuneko ohitura zahar bat hartu zen kontuan, zein? eta hauxe: astean behin baraua egitearena, jatorriz: “abari bagako eguna”.

Bizkaialdetik harago beste era honetara hartu ziren astearen egunak: astelehen, astearte, asteazken, ortzegun (gero ostegun), ortzirak (gero ostiral), larunbat eta igande.

Behin honaz gero, egunen atzera-aurrerak egiteko moduak ere bideratzen etorri ziren. “Gaur edota egun”-etik hasi eta atzerantz: atzo, herenegun, herenegu-aitzitik... Aurrerantz: bihar, etzi, etzidamu edo etzilimo. Aste osoari begira: gaur zortzi, gaur hamabost; atzo zortzi, atzo hamabost; datorren ostiral (bariku) zortzi, etab.

Sarrera gisako atal honetan, laburbilduz aipatutako sortze-egokitzeak gaur egungo egutegi finkatuaren aurrean jartzen gaitu.

Baina, Euskal Herria bezalako herri zahar baten historiako ohiturak eta bizikerak ezin dira erraz sartu egutegi zehatz zehaztu batean, arbasoen gutxi gora-beheratasunaren ondoan, "panta rei" (dena aldatzen da) etengabe bat delako amalurreko biritza.

Denborak eta garaiak joan doaz eta mundu modernoaren abiadak lausotu egiten gaitu aurrekoen munduari begiratzean. Baina hor dago gure historia modernotasunari eusten. Horrexegatik da behar-beharrezkoa garena zergatik garen jakitea.

Iceberg batekin konparatuz, gaurko modernotasuna iceberg horren agiriko puntatxoa baino ez da, estarian dagoena askoz handiagoa delako eta hortxe oinarritu behar dugu gu geu izaten jarraitzeko, euskaldun egiten gaituen kulturaren barruan.

Gaur atzokoa, bihar gaurkoa eginaz, euskaldunon urtea hartuko dugu eta bizikera-ohitura onuragarrienak aipatu besterik ez bada, ezagutzeko eta behar balitz etorkizunera bideratzeko, zergatik ez?

Euskal Herriaren izakeraren joan-etorria egutegi zehatzera eramatean, arazo bat baino gehiago sortuko zaigu. Jakina, egutegi modernoak ospakizun egunak jarri jartzen dizkigu, baina lehenagoko denboretako bizikera batzuk behintzat baliteke garaiz aldatzea.

Esaterako, aratusteak. Normalean, tradizio zaharrari jarraituz, udaberriaren hasiera inguruan ospatzekoak dira, naturaren ernaroarekin batera, baina gaur egungo egutegietan aurreratu egiten dira, Eleizaren agindupeko garizumaren diziplina errespetatzeagatik.

Baldintzak baldintza eta mugak muga, goazen gaur egungo hiru belaunaldion urteari eupada bat egiten.

Udaberria

*Eguzkiko egutegian, marti edo martxoaren 21etik
ekaina edo bagilearen 21erartekoa.*



Udaberriko esaerak

Udaberriko sikatea, urte guztiko gosetea.

Udaberrian makatza, udagoienean mahatsa.

Udaberrian lur guztia ernemin.

Udaberria, odol berria.

Udaberriko lore ederrak
erortzen dira negura,
beti gustura biziko denik
ez duk jaioko mundura.

Martxo

Martiaren 21a, eguzkiaren ikuspuntutik, ekinoztoa izenez ezagutzen dugu (latinez, *aequinoctium* < *aequus* *nox*), hots, eguna eta gaua berdinak; eta ekainaren 21a, solstizioa (latinez, *solstitium* < *solis* *statio*), hots, kasu hone-tan egunik luzeena eta gaurik laburrenekoa.

Gaur egun, zientziari esker, jakina, zehatz ere zehatz jokutzen da, baina lehenagokoak gutxi gorabehera zebiltzan zientzia enpirikoak argitu ahalean.

Gure aurrekoek bazekiten jakin garai honetan natura berpizten hasten zela; eguna luzatu, eguraldia hobetu, eta berba baten esanda, natura iratzartuz zetorrela neguko lozorrotik.

Lurrerik harako uztatik bizi ziren amalurtarrek nola ez zuten ospatuko ba garai hau? Hobe ez!

Ospatu ezeze, naturaren misterioa ulertzen ere ahalegindu egiten ziren. Hortik datozkigu gaur zaharkiturik geratu zaizkigun antzinako erantzun asko, mito bihurturik. Gogoratu, besteak beste, sarreran aipatutako Demeter edo eta Mari Anbotokoaren esaunda mitikoak, naturaren zergatia azaltze bidean.


Ospatu, mundu guztiak ospatzen du garai hau eta jairik ospetsuenak, besteak beste, aratuste edo inauteriak ditugu.

→ Kalendarioz, otsail edo zezeilean ospatzen dira aratusteak. Oraindik neguaroa da, baina, izatez, udaberriko ospakizuna. Munduko beste leku batzuetan inauteri garaia uda da, Hego Amerikan, adibidez. Sarreran esan dugun bezala, juduen tradizioari jarraituz, kristau eleizearentzat udaberriko lehen ilargi betetik hurrengo igandea Bazko eguna da. Aurreko igandea, Erramu eguna, hemendik berrogei egun atzerago, hauts eguna, bien bitartean, garizuma < (latinez, *quadragesima*, 40 egun).

Eleizak, historian zehar, hainbat eta hainbat arau jarri izan ditu eta euretariko bat garizumakoa dugu.

Garizuman, besteak beste, penitentzia egin behar izaten zen, esate baterako, barau egin, ostiraletan haragirik ez jan, Bazkoazkoaz bete, hau da, urtean behin gutxienez pekatuak autortu eta komulgatu eta abar luze bat.

Horretarako, garizumaren hasieran, hots, hauts egunean, eleizkizun bat egiten zen, gaur ere bai, eta Erramu egunean bedeinkatutako ereinotz orriak erre eta hauts horrekin bekoki edo buruan gurutze bat egiten da lur-hautsa garena adierazteko.



Gauzak horrela eta Eleizaren indarra bitarteko, aratusteak garizuma aurretik ospatzen dira. Egunik handiena garizuma aurreko eguna da, hau da, astearte edo martitzena. Gaur egun, jai-egun gehiago hartzen dira, aste betearaino ere bai, ikastetxeetan, adibidez.

Inauterietan sartu baino lehen, beste ohitura bat aipatuko dugu, Gorbeia inguruetan behintzat bizi-bizirik dagoena: txitxiburduntzi edo kanporamar-txo eguna.

Garizuma aurreko igande zortzi lehenago, hartu lukainka, tostada eta abarrak eta mendira joateko ohitura dago txitxiburduntzia egiten.

Horretarako, tokia aukeratu, egur-abarrak pilatu, sua egin, lukainkak zurezko burduntzian sartu, txingar gainean berotu eta pauta-pauta jan egiten da giro alai batean, bai senitartean, bai lagun artean.

Bateren batzuek garizuma aurre-aurreko domekan ere egiten dute beste hainbeste. Egun horri "etxeramartxo" deritzogu.

Argitasun hauek eman ondoren, goazen inauterietara eta sartu gaitezen berba honen barruetatik eta ikusi zer dioskun.

INAUTERIAK - ARATUSTEAK - KARNABALAK

Hiru izenak erabiltzen dira egun ospetsuok adierazteko eta egia esan, hartzen duguna hartzen dugula, iritzi ezberdinen munduan sartuko gara pentsakera gehiagori ere ateak zabalik utziz.

Euskal Herri luze zabaleko euskalkien arabera, "INAUTERI" hitza era askotara esaten da: inauteri, ihauteri, inoteri, etab.

Hitzaren jatorria ez dago argi, baina zehazten joanez gero, "INAU / IÑAU + TE + ERI / IRI" daukagu. Atzizkiak ulergarriak dira, baina hasierako lexema ez dago argi. Batzuek "inakin (burla), inoso (burlón) edo inul (imbecil)" hitzekin lotzen dute. J.A.Urbeltzek "inauste" hitzarekin. Batetik datorrela zein bestetik, "INAUTERI" hitza zabal dabil ahoz, idatziz eta ekintzaz.

"ARATUSTE" hitza ere era batera baino gehiagotara esaten da, batez ere bizkaieraren eremuan: aratuzte, aratoste, ateste, etab.

Badirudi, "(h)aragi uzte"-rekin lotuta dagoela. Eleiza katolikoaren agin-duetara jotzen badugu, garizuman, ostiraletan batez ere, barau eta bigilia edo haragi uztea egin behar izaten zen. Urteko beste ostiraletan ere egin behar izaten zen, baina bulda erosiz gero jan zitekeen haragia. Baraua, bizkaierazko

“bariku” hitzean bertan daukagu, hots: abari bagako > bariaku > bariku eguna. Hortik gero, barausi (gosaldu), barauskarriak (baraua hausteko janariak).

“KARNABALAK” gaztelertatik hartua da, eta lehenago, latinetik. Hemen ere ez datoz bat. Batzuentzat: “carne vale” da, hots, “agur haragia”. Beste batzuentzat: “carrus navalis”, hau da, inauteri jaiak ospatzeko gurrpil gainean ipintzen zuten barkua, barru bete jendez euren jantzi berezi, janari, edari eta abarrekin paseatzeko herritik zehar. Hirugarren batzuentzat: “carnes tolendas”, hots, bigilia egin edo haragia baztertu.

Ikusten denez, “INAUTERIAK” izenarekin adierazten duguna etimologiatik argitu dezakegunera baino harago eta harago joan zaigu, eta gaur egun ikusi egiten ditugu batean besteango ospakizunak gaurko medio sofistikatuen bidez. Dena dela, egin dezagun historia pixka bat, haragoko eta honagoko bitargi batzuk eskeiniz.

Lehenago ere esan dugu, baina inauterietako jai giroa naturaren berpiztearekin batera dator eta hori konstante bat izan da munduko herrien artean.

Hasieran kutsu erlijiosoa edo espirituala zuten eta horregatik inauterietan era ezberdineko maskarak, mozorroak edo disfrazak egiten ziren, hilen espiritua antropomorfitatu eta espiritu txarrak uxatuz.

Mesopotamia aldean, udaberriarekin neguko kaosa ordenean jartzen zen eta hori azaltzeko “Heriotza eta Bizitza” mito honekin lotu zuten gizarteko erregeen jainkotzea:


“Bizitza eta Heriotza” mitoa, Mesopotamian

Behinola, Heriotza, Bizitzaren bizitasuna ikustean, ezin zuen arteak ere hartu eta negualdean sartu ahala, apurka-apurka Bizitza menperatzen hasi zen itxuraz ezerezean edo gauza ez dela utziz.

Baina, handik geroagora, udaberria agertu ahala, Bizitza, berrien berriz hasi zen lurpeko lozorrotik erne, hazi, garatu, heldu eta uzta ematen Heriotza menperatuz. Harrezkero, horrela dabilta Heriotza eta Bizitza bata besteari deutsala.

Gauzak horrela, Mesopotamia aldean eta beste leku batzuetan ere, gizarteko erregeak jaungoikotu egin zituzten eta nolabait imitatzen hasi ziren naturaren ziklo hau.

Horretarako, triduo edo aste errituala ospatzen hasi ziren kaosetik ordenerako bidea gogoratuz:



Erregea, hiru egunez, aginpide gabe uzten zuten, dena kenduta, lotsatuta, soineko zaharrez jantzita. Berba baten esanda, kaosean uzten zuten. Gero beste hiru egunez, berriro jartzen zuten ordenean eta bere lekuan, udaberriko natura bezala.

Tenpluak ere opari eta janariz betetzen zituzten jainkoak pozik eukiteko. Errege jainkotuak eurak ere, hiltzen zirenean, hilobi eder eta apainduetz gain, ezereen falta barik hilobiratzen zituzten mundu honetatik besterako bidean denerik izateko.

Jai Dionisiakoak Grezian, Saturnalak Erroman

Grezia aldean, inauteri garaian “Jai Dionisiakoak” (Bakanalak, Erroman) ospatzen zituzten. Gurpildun barku baten gainean joaten ziren kalerik kale batez ere andrazkoak euren maskarada, ile soltu, jantzi berezi eta kantu-hotsean. Batzuetan satira eta lizunkerietaraino heltzen omen ziren eta K.a.ko 186an Erromako senatuak debekatu ere egin behar izan zituen jaiok.

Erroman, ordea, “Jai Saturnalak” ziren nagusi, baina aurrerago ospatzen ziren, hots, urtearen bukaeran, gaurko abenduan.

Inauteriak Euskal Herrian

Euskal Herrian ere ospatzen da udaberriko naturaren berpiztea. Egutegi modernoak behartuta edo, garai ezagunena garizuma aurreko astea da, baina baziren hortik kanpoko ospatzeak ere.

Gaur galdurik egon arren, han, Gorbeia aldean, urte zaharra eta berriaren arteko muga-mugan, burlazar ekin edo adarra joteko ekintzak egiten omen ziren: lata-habeak euren lekuetatik atera, bedar-metak apurtu, gurdiak balkoetatik eskegi, ganaduei kateak soltatu, oiloak oilategietatik atera, arranak jo solorik solo zaldi edo basabehiak balira bezala, eleiza-ermitetako kanpaiak jo eta abar luze bat, baina gaueko ilunean eta mozorrotuta badaezpada.

Inauteri atera itzuliaz, gaur egun mundu guztian ospatzen dira jaiok, batez ere mundu erromanikoan eta eurengandiko amerikar herrietan.

Euskal Herri luze zabalean ospetsuak dira, besteak beste, Mundaka, Lantz, Lesaka, Unanu, Zalduondo, Ituren eta abarreko inauteriak eta Zuberoako maskaradak.

Gehiago zehaztuz, urte berriarekin batera hasten da Euskal Herrian inauterien egutegia.

Azpilikueta, Etxalar eta Lekaroz aldean, Errege Egunarekin batera hasten ziren inauteriak. Erasunen urtarrilaren erdialdean. Baina, gure egunotan, Ituren eta Zubietak irekitzen dute inauteri garaia. Zubietako joaldunak joaten dira Iturenera alkondara zuria euren soinean dutela gero Iturengoak itzultzeko Zubietara Aurtiztik Lasagarako bidetik euren ardi larruzko txalekoak jantzita.


Sinesmen zaharrean oinarrituz, joaldunek gerrian lotutako zintzarri handiak astinduz ateratako burrunbarekin uxatuko dituzte espiritu gaiztoak eta zaldi buztanaz egindako isopoa eskuekin eraginez bedeinkatu bazter guztiak.

Zubieta eta Ituren joaldunekin lotzen diren bezala, Zalduondoko inauteripertsonaia "Markitos" da; Uztaritze nahiz Beskoitzekoa, "Zanpantzar"; Markinakoa, "Hartza"; Lantzekoa, "Miel-Oxin"; Lesakakoak, "Zakuzaharrak"; Altsasukoak, "Moxorroak"; Agurainekoak, "Porrero eta Sorgina"; Kanpezukoa, "Toribio", etab...

Pertsonaiok urte zaharraren kutsadura eta berriaren garbitasuna sinbolizatzen dute, eta antzinetatik egin ere, eta horrexegatik txikitu, epaitu edo erre egiten dituzte sugarretan.

Inauteriak sustrai sendoak dituzte beste hainbat herritan ere, panpina mitologiko edo barregarrien ordez, ikuskizun eta ekintza bereziak opatzen dizkigute: Abaltzisketan, "txantxoen makil-dantza"; Aretxabaletan, "txino-dantza"; Antzuolan, "sorgin-dantza"; Goizuetan, "zahagi-dantza"; Mundakan, "atorrak"; Nafarroa Beherean, "kabalkadak"; eta Zuberoan, "maskaradak".

Inauteri ospetsu hauen ondoan apalagoak ere badira. Baserri aldeko inauterietan edozein mozorrotzen da eta talde batzuk agilando eske ere ibiltzen dira. Mozorrotze bitxi bat aipatzearren, Zeberikoa aipatuko dugu. Gizonezkoak andrazko janzten ziren eta adrazkoak gizonezko, barre karkaxadak sortaraziz.



Gaur egun hiri giroko inauteriak ari dira nagusitzen. Mozorroek hartzen dute pisurik handiena. Gaur-gaurko moda-modako mozorroak egin edo eginda erosten dira alde batetik, eta bestetik, dauzkanak, ganbarako eskapolotean gorderik geratu diren soineko zaharkituak aprobetxatu.

Gaurko inauterietako jai giroa aste osokoa bihurtu da, batez ere eskola munduan, eta eguna gauarekin lotu eguzki zein ilargipean.



Udaberria etorri da, inauterien bidez ospatu ere egin da bere etorrera, baina zar gaitezen hiru hilabeteotako bizikeretan.

Inauteriak eta martia lotzeko, Zeberion bildutako ipuin batekin egingo dugu:

Salomon erregea eta euskaldun bizkaitarra

Behin baten, han, mundu biblikoan, Salomon erregea izan zen entzute handikoa. Bere menpekoek bildur handia zioten eta egun baten era honetara berba egin zuen bereen aurrean:

—Entzun ondo denok. Hazitarako ez gara inor jaio munduan, nire neure ama ere ez, baina adinean gora da eta gureztala ere, egunen batean etorri behar du etorri behar duenak. Horregatik, nire amaren heriotzaren berri dakarrena, dandabela berotzeaz gain, zigortu egingo dut, gogor zigortu, zigortu ere. Besterik ez!

Salomon erregearen ingurukoek bildursartu eta guztiz zeuden eta egun batean Salomonen amak txarragora egin zuen eta hil egin zen.

Inor ez zen ausartzen berria ematen, baina eman egin behar zenez zozketa egiten zeudela badino handik zebilen euskaldun bizkaitar batek: —Hori baino ez baduk nik neuk esango zioat.

Esan eta egin! Palaziora joan, ateak jo eta bat ere ikara barik esan omen zion erregeari:

—Arrasti on, Salomon!

“Marti ilbehera
atuste hil barri, (aratuste)
Salomonen ama
ez gose, ez egarri.”

—Orduan, hil egin duk! —Salomonek.

—Hik heuk esan duk!

Udaberria martiaren 21ean hasten da. Natura badator orrira eta lorara. Txoriak ere euren txirripititxioaz gain habiaginen hasiko dira marti-zozoa aurrelari dela.

Hegaztien munduan, besteak beste, marti-oilarra eta kukua aipatuko ditugu euren inguruan bizikera ugari sortu delako gizartean.

Marti-oilarra


Zein ote da lehenago, oiloa ala oilarra < (oilo arra)? Ez dakigu, baina euskeraz, emeak dirudi nagusi, arra denean markatu egiten delako, esaterako, astar, katar, azkonar, etab.

“Oilategi bakoitzean oilar bakarra nahiko” dio esaera zaharrak, baina oilar guztiak ez dira berdinak.

Herriaren jakituriatik, marti-oilarrak omen dira onenak, oilasko garaian kikiriki, oilarra egitean kukurruku eta kapoi tertzioan mamitsu eta samurrenak omen direlako.

Oilarrak, marti-oilarrak bereziki, enigma askoren erantzun mitiko ere bihurtu zaizkigu.

Hasteko, beste ezaugarri modernoagoak agertu arte, egunsenti edo eguzkiaren argiarekin batera hasten ziren kukurrukuka, iratzargailu biziak izanik. Geroago, kristau aroarekin batera, eleizetako kanpai-hotsak zabaldu ziren: egunsentian argi-kanpaiak, eguerdian angeluse-nak zein iluntzetarako abemarietakoak.



Gure amalurtarrak sarri aurkitzen ziren oilarraren beharrezanean ebatziren bat hartzerakoan.

Lurra, izatez, denona da, baina mendeak joan mendeak etorri, herri zein propietate banaketa nagusitu egin da. Banaketa horretan, mugarriak eztabaidatsuak izan dira sarriegitan. Herrien mugarriak noizkoak diren jakitea ez da beti erraza. Herri txiki baten ondoan nagusiago bat egoten da eta txikiak bere txikitasuna azaltzeko honelako esaundak sortu izan ditu:

D*ima eta Otxandioaren arteko mugarria*

Terrenoz, Dima handiagoa da Otxandio baino eta hauxe kontatzen da Arratia aldean:

Antzina, Dima eta Otxandio konpondu ezinik zebiltzan euren arteko mugarria dela eta. Halako batean, alkartu agintari biak eta esan zion batak besteari:

—Hi, mutil, konpondu egin behar diagu eta jarri mugarri hori behar den lekuan, ez harago ez honago.

—Ondo zagok. Datorren urli egunetan, marti-oilarrak kukurruku egiten duen momentuan jagi eta biok elkartzen garen tokian jarriko diagu mugarria.

—Bale, eginda!

Etorri zen egun hori edo hobeto esanda bezpera gau hori eta Otxandioko agintaria lo zegoela, Dimakoa jagi lastamarrazko ohetik, sugarrak egin, marti-oilarra itzartu eta kukurruku egin eraziz batera, jantzi eta norbere garbikuziak egiteko asti barik hasi zen mendian gora. Otxandioko marti-oilarrak ere jo zuen, baina hango agintaria konturatu orduko Dimakoa bertan zeukan. Esana bete behar zenez, mugarria ia-ia Otxandion bertan jarri behar izan zuten.

Lurreko mugarriak eztabaidatsuak izan badira, itsasokoak eztabaidatsua-goak. Goazen Bermeo eta Mundaka bitartean dagoen Izaro islaren jabetasunera.

Izaro: Bermeo eta Mundaka

Dokumentu historikoetan, Izaro Bermeo da. Bermeo eta Mundaka elkarren ondoan daude eta aurrez aur Izaro daukate. Herriz, Mundaka txikiagoa da, nahiz eta Gernikako juntetako lehenengo jarlekua Mundakarena izan.

Izaro isla dela eta, aspaldikoak omen dira eztabaidak eta Mundakatarrek euren jabetasun eza azaltzeko istorio hau kontatzen dute:




Egun batean, Izaro dela eta, beti txakurra eta katua bezala ibili beharrean, Bermeo eta Mundakako buruzagiek ezbaia konpontzea erabaki zuten. Horretara, esan zion Bermeotarrak:

—Hi, mundakatarrok baino lehenago gaituk, baina gauza hau egingo diagu: urli egunetan, marti-oilarrak jotzen duenean, hartu bitzuok geure txalupak eta Izarora lehenengo heltzen denarentzat berarentzat isla hori?

—Bale, —erantzun zion Mundakako buruzagiak.

Etorri zitzaien urli bezpera gau hori eta, mundakatarren ustez, bermeotarrek sua egin gauerdian, marti-oilarra itzartu eta hasi ziren arraunketan. Mundakatarrek ere egunsentiko kukurruku-hotsarekin batera hasi ziren arraun-hotsean, baina alperrik, bermeotarrak Izaron zeuden itxaroten. Egia edo gezurra, ordurik hona, Bermeotarrena omen da Izaro eta hala ospatzen dute urtero-urtero uztaileko Magdalena egunean teila boteaz Izaroren magaletako uretara.

Alegia edo antzerako ipuinetan ere sarri agertzen zaigu marti-oilarra. Aikomen geure-geurea egin dugun alegia eder hau:



Marti-oilarra, katua, txakurra eta astoa

Hor ez dakit ba non be, hainbaten izango zen, astoren bat ei zegoen deslai, adinon, eta ba muna bazterrik muna bazter zebilen seguru, ezertarako gauza ez dela.

Ibilian-ibilian baten bat beti topetan da eta, ba, asto horrek be txakur galgu bat topatu ei zuen eta:

—Zer egiten duk hemen fetura horretan, alborantz einean, jausi eginik?

—Zer egingo diat ba, behin gauzeztanduz gero ez nautek gura eta andafuerazko jantzia emon zidatek, hau duk izatekoa, ondo eginaren pagua ate ostean palua!

—Tirauk mutil, ni neu be han por han nabilek eta hator, zelanbeist biziari eutsingo diagu eta.

Eta joan ziren biak bietara, itxura koitaduan baina tira, belea beltzago ez dela egingo eta, aurrera eragoioen.

Arrasti erdirantz, han pagadui batetako txorbel artean etzan egin ziren biak eta astoak astinaldi batzuk emon be bai.

Zeinakio daudela, norantz hartu ez dakitela, katu bat ikusi zuten pago baten adapoan miau baten, eta badinotso astoak:

—Hi, zer egiten dun(a) hor miauka, katarraren bati deika ala?

—Bai zera!, sagurik be ez diat harrapetan bai, eta suela emon zidatek etxean edo hobeto esanda, gosea emoten izan zidatek eta urten egin behar mundurik aramaio biziko banauk!

Hator, etorri adi geugaz, miau-gedarroi itxita, eta hau txakur hau goiti beheiti izango haiz, ze zahartzaroan norbere buruaren jabe izatea be ez duk gitxi, eta ez diat pentsetan pleitu-intzigurik eukiko dozuenik bata bestearen artean.

Alkar hartuta joan ziren joan be, hirurak hiruretara nondik gura eta handixek. Bata bestean arrimuan begiak be alimau egin zitzaizkien.

Ailegadu ziren propietario baten etxe ondora be eta, ba, han, marti-oilar mardo eta gargartsu bat ikusi zuten oilategian be kabitan ez dela, artega be artega, bateko kukurrukua, besteko alanbradurea pasadu gurako hegazkada, zoratu ez bestean ei zegoen oilar hori, eta horretara badinotso astoak:

—Zer jaungoiko pasetan zaizu ba oilarra hain artega egoteko?

—Zer pasatu dinostazue? Ba etzi zortzi Sandoniak dira, hemeko jaiak eta dagoeneko lapiko eta kazula-hotsa barruntetan dut eta hemen itxaronago eta txarrago nago ze nire atzena holango kazularen baten izango da, ai ene! Biripoak be irakin egiten dit. Erduzie laguntan!

Orduan astoak ostikada bidiru boteaz harrate bat egin zion oilategiko alanbradurari eta han eroan zuten euren hankartean ostenduta, estarian, marti-oilar hori.

Eta gero ba han ez dakit ba non be, dena be kontua izango da baina, gau beranduan argia ikusten ei zuten eta txokatuta zeuden seguru. Arrimadu ziren eta marti-oilarrak sorots egin ei zien arbolaren baten ganetik eta ene!, lapurrak!

Orduan, paretan dira astoa azpian, txakurra ganean, katua ganeragoan eta marti-oilarra ganerengo eta hasten dira bata arrantzaka, bestea ahausika, bestea miauka eta azkenengo hau kukurruku hotsean, laster eskapatu zuten urrean lapurrok orpoetan har barik.


Eta gero zer pasatu zen? Ba marti-oilarra suteko bentanan paratu zen, katua supazterrean, txakurra tranpako ateari deusala eta astoa kortako ate ostean.

Lapurrok luze eritxita zeuden eta halangoren baten euretako bat arri-matu ei zen ilunetan eta supazterrera heldu zenean ilenti edo txingerraren bat delakotan botaten dio eskua eta katuak erpaka egin ei zion. Gizon hori karran hasi zen eta sutetik kortara bitartean txakurrak ahausika eta azkenean kortako ate ostean astoak oinberdinka ostikada endemoniño bat, eta oraindino marti-oilarrak kukurruku egiten ei zion suteko bentana barrutik.

Lapur hori joan zen lagunokana eta zer? eta, badinotse:

—Ai enetxua! Sutean, supazterrean sorgin batek txatxamarka egin zidak, tranpako ate ostean gizon batek kutxilloa sartu, kortako ate ostean monstroak estakeaz jo eta oraindino suteko kristalezko bentanatik jueza entzuten izan diat esaten: “Ekarri hona, ekarri hona, neuk dominatuko diat eta”.

Lapurrok uxatzeagatik harkien ederrak hartu zituzten gure lau lagunek eta aurrerantzean zoriontsu bizi izan ziren laurak lauretara.



Mitoen mundura joanda, sarri joten zen oilarrarengana era bateko zein besteko inkognitak argitzeko, kristauaroan ere bai, nahiz eta eleiz-kanpaiak bete oilarraren egunsentiko kukurruku-hotsa. Ikus ditzagun herririk harako ipuin edo esaunda batzuk.

Deabruari Samartinen hamabi egiak

Esaten dute, antxina, hauek barregarri antzak ez zirela gauza onak be eta batzutan abadearen esana egin barik maldizinoa be hasten zirela, berba motzak esan ahal ez direla be, maldizino-hotsean.

Eta baten seguru, hor ez dakit ba nok be arima ofrezidu ei zion deabruari galondo beharrak egitearren, baina damutu egin ei zen eta horrez ganera Samartinen hamabi egiak esan behar izan zituen bere arima salbatuko bazuen. Honan hasi ei zen:

“Samartin esan ezak bat

Gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak bi

Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak hiru

Hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak lau

Lau ebangelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak bost

Jesukristoren bost ilagak bost, lau ebangelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak sei

Sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost ilagak bost, lau ebangelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak zazpi

Zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak zortzi

Zortzirik dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak bederatzi

Bederatzi ordenamentuak, zortzirik dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak hamar

Hamar mandamentuak, bederatzi ordenamentuak, zortzirik dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak hamaika


Hamaika mila angeruak, hamar mandamentuak, bederatzi ordenamentuak, zortzirik dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak hamabi

Hamabi apostoluak, hamaika mila angeruak, hamar mandamentuak, bederatzi ordenamentuak, zortzirik dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelistak lau, hiru trinidadak hiru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera duk bat, berak salbatuko gaitik.

Samartin esan ezak hamahiru

Ez duk hamahiru, ('ez dok amairu') marti-oilarrak joten dik munduan, angerutxoak zeruan!".



Laminak eta Zeberioko mutil gaztea

Behin batean, mutil gazte bat joan zen goizean goizetik solora ganaduekin beharren. Goizaldeko lauterdiak inguru edo izango zen, goizaldean binke goizaldean izan behar. Eta halangoren baten lamina batzuk etorri zitzaizkion beragana elbarreneko txarkoan, errekatxoan. Eta horiek laminok, abemariatatik hasi eta kukurrukuak edo arrikanpaiak (argikanpaiak) jo arte indartsu baino indartsuagoak izaten ei ziren eta kontu handia euki behar izaten ei zen eurekin. Mutil hori akordatzakoan harrapatu zuten laminok lainabera zarratuko lausoaldian eta euren kobazulora eroan.

Mutil horrek ez zekien zer egin, zorabiatuak zegoen, edanbako hordiaz, eta berekitan inoan:

—Zer egingo diat ba nik orain, argia niagok, hauek laminok ez dituk parte onekoak eta marti-oilarrak edo eleizako kanpandorreko argikanpaiak jo arteraino ez zeukeat urtenbiderik, honangorik! Pasatu be egitea honelako gauza bat gizonari honetan tertzio honetan!

Eta burua txapela erotateko bakarrik ez dela eta, pentsatu eta pentsatu badinotso bere buruari:

—Nik hauei parte txarrekoai denpora emonazoteko kanta bat kantatuko diet zaleak direla daukat entzunda eta.

Eta hasi zitzaien liñoaren kanta kantetan. Hori liñoaren kanta hori berak jakin bazekien, ondo jakin be, eta, hasi zen, baina astirotxo ibili arren be, akabatu egiten zitzaion atoan. Baina zuhurra zenez, atzera berrien berriz hasten zitzaien, behinola Odisean, Penelope bere soinekogintzan bezala, eta holan ekin zion hainbat denporan kantetan.

Halakoren baten, ba, horretan daudela entzun ziren argi-kanpaiak eleizan eta kukurrukuia Zabaleko oilategian. Eta ene bada! orduan hasi ziren laminok ostenduten han kobazuloko estarian. Mutilak horretara, ikusirik podere barik geratu direla, —“oraintxe duk neurea”— esanda, han zeinakio zebilen laminetariko bat hartu, burdi ondora narraz eroan, bota burdi gainera eta solora barik etxera bidea hartu zuen.

Etxean zeukan lamina hori eta, behin etxeraz gero, gura zion berba egina-zo baina ezin egin eta orduan egun batzutan egon ziren ia berbaz ete zekien edo ez ete zekien jakiteko baina, kia, ezin zion berberdi be egin erazi.

Egun batean, gaulendi inguruan, imini zuen esnea egosten mutilak eta esneak surten eperdia emon orduko ganaz egiten duenez, ba, mutil hori zertan hartan zebilela, maskeluko esnea ganezka hasi zen. Horretara, ha lamina ha, esne zalea zenez eta alperrik galdu ez egiteko, berbaz hasi zen esanaz:

—Txuria gora! Txuria gora!

Eta orduxean egin zuten gizon horren etxekoek ia-ia zantzo gedarrez:

—Ene! baina, honek badaki berbaz ba eta! Ondo gorderik euki ditu berbok nor den beist andre gauza hau!

Eta hortik hasi ziren ba berba eraginazoten. Behin barbaraz gero, era guztietako preguntak egiten eragoioen. Bateko non bizi diren, besteko zelan galduazo litezken eta holangoak.


Laminak, bere aldetik, tripakada bat esnegatik, eurak betiko zelan galdu litezken sekretua azalduz, bere eta bere lagunen burua saldu egin zuen esanez:

—Bueno ba, gu geu galduteko hauxe eta hauxe egin behar duzue: ba, San Juan egunean jaio behar dute herri-zekorrek, bik, izan behar dute bikoitzak eta horiekin zekorrokin egin behar duzuen zer hau da: intila bat hartu esaneko zekorrok ipuztarrian direla eta ilargi betea den orduan, erreka-txarkoa goitik behera pasatu, tragastu, eta urtengo du odolak, odolza sano handiak, eta horixe izango da gure hondamendia betirako.

Eta holan ibili ziren topetan horiek herri-zekorrok biok. Eta halango-
ren baten topatu zituzten, bikoitzak izan behar zuten herri-zekorrok,
eta efektibamente, herri-zekorrok topatu zituzten orduan, intila edo
tragasaz hori erreka-txarko hori, Manualdeko errekatxo hori, gora eta
behera pasatu zuten gurutzeak eginaz.

Han urten ei zuen urtetako odolzak! Hantxe akabatu ei ziren sekula
eta santarako lamina parte txarrekoak odola dariola eta tragas hagi-
netatik uleak guztiak katigatuta.

Hauek kontuok kontetan dizkiguna jakin badakigu nor den, baina laminok ikusi dituen batek badaki nor dugun, nok jakin? Honango kon-
tuetatik hobe egun argiz apartatu, osterantzean ez duzu ez gauza garbirik ate-
rako. Esakereak dinoenez, “ez direnik ez esan eta direnik ez sinestu!”.



Martxoko oilarra, laminak eta Aezkoako mutila

Behin baten, Aezkoako mutil estudiante batek behi elia eraman omen zuen ola famatuaren ondoko edangio edo uraska batera ura edaten, goizean goizetik.

Etixerantz zetorrela, bildurtu egin zen erreka bazterretatik lamiak zebiltzala bazekielako.

Bildursartua geroago eta handiagoa zenez, arnastetua eta bihotz ikarak sartu zitzaizkion. Estukura horretan, bere aititaren esanetariko batekin gogoratu zen eta esan zion bere buruari:

“Martxo-oilarrari dei egingo zioat atoaan kukurruku egin dezan eta uxatu lamina eta eurenganako bildurrok”.

Halaxe egin zuen esanez: “Martxoko oilarra, otoi, balia dakidala!”.

Oilarrak une berean kantatu omen zuen eta orduan laminak haserre gorritan esan omen zuen:

“Madarikatuko al zaio oilar horri mihia berorreatatik galdu baitut estudiante ilegorria!”.

Kastrejanako zubia eta marti-oilarra

Baten, Kastrejanako neskato bat Bilboko jaietara joan ei zen eta gus-tura ibili be antza erromerian bere lagunabarrekin.

Orduak aurrera zihoazkion eta gesu baten ilundu egin behar, eta, lagunok bertanbera utziz abantean mobitu ei zen Kastrejanako aldatza gora orpoetan har barik, begiak bota beharrean eta bularrestuarekin ia arnasa hartu ezinik.

Etxe aintzineran ailegatu zenean, gogor baino gogorrago hartu zuen aitak eta mihian har barik badinotso:

—Zer tertzio duna hau etxera etorteko, ez dinat argi esan hortik zehar zeinako egon beharrean abemariak jo aurretik etxera etorri eta iturriko ura ekarteko? Hori al duna dolimintu eta mintasuna eginbeharrak ganoraz egiteko? Ba orain, hartu ezana jarroa eta joan hadi agudo iturriko uretan, egarriz tximeltan gaudek etxeko guztiok eta!, gainera ondo irakutzi ezana jarroa, honezkero egurdiko ur egonduarekin sumikea eta ugeldarrirainoko guztiak eginda eukiko dizkina eta!

Neskatxi horrek ez ei zuen txitik be atera eta zuzi baten hartu ei zuen iturrira bidea guztiz gautu orduko egiteko iturriko haronako hori.

Iturria urruntxo zeukan eta gainera erreka bestalde. Gaua gainera gainetu behar zitzaion eta, estukuraren estukuraz, badino berekitan: "Oraintxe ez zaidak etorriko parte txarrekoren bat hemetixek horraxa, iturrira, zubi bat egiteko? Askok balekik zenbat baino gurago nukeen horixe! Demonintra!"

Esan zuena esan bazuen ba ze, ez zaio agertuten bere magal petralaren ondoan endemoniñozko kabailero bat eta esan:

—Zer gura didana ba neskato?

—Zer gurako diat ba, zubia!

—Ba, zubia gura baduna hik heuk heure arima emon behar didana zubia egin akabatuz batera!

—Ba, bai, eutso arima hau nor haizen beist!


Esan egin zituen horiek berbok, baina akordatzakoan agertuten zaizkio infernuko prakagorri guztiok eta berbarturainoko guztiak etorri zitzaizkion neskato horri. Kontuak atera ha zer izango zen, deabru koxoren batek, koxoa izateagaitik, beste guztien erremintak eta nik ez dakit zenbat kintaleko harria eroaten zuen be.

Ha bai zela ikustea, denak eragoioen beharren, batzuk harritan, beste batzuk harrilanduten eta deabru kaballeroa zaldi gainetik agintan. Esaten dute harriak Gorbeiatik, Dimatxetatik (Dimako haitzetatik) eta hortik zeretik, Oiz-tik ekarten zituztela.

Neskatoa arteak be ezin zuen hartu eta belea beltzago ez dela egingo pentsatuta, jaurtin jarro hori, utzi bertanbera prakagorriok eta karran joan ei zen herriko abadeagana eta esan:

—Jauna, jauna! Zabaldu beist atea, arin, berorrek baleki nondik eta zertan natorkion! Ai, amatxua! Hau da bihozturako mina! Hau bai dela edan bako hordia! Durdiduago sekula inor ez da egon izango! Ai enetxua! Zer behar didan baino ez duk horrek deabru mantzin horrek!





Eta abadeak esan ei zion gora-goratan:

—Baina, baina, zer jaungoiko egin didazu ba alabatxo errukarria fetura horretan etorteko? Aitearen eta semearen! Zerk eman dizun baino ez da hori afruntu hori!

—Ba, jauna, baragarria izateaz gain baragarri nabil hauxe eta hauxe, eta honantxek eta honantxek deabruari arima ez diot ba ofrezitu! eta, berorregana nator zein arima galdu. Beitsoz nire pekatuok eta partatu beistaz!

—Hori egingo zenuen ba alabatxoa, zuk egin duzu egitekoa, ez dakizu ba nire bedekazinoarekin be nahikoa ez dena!

—Zer egin behar dut ba orduan nire neure arima betirako galdu ez egiteko?

—Ba, hara, martian oilarrarekin ibilitako oiloaren arrautzatik marti-oilar batek jaio behar du eta zubi hori egin akabatu baino lehenago kukurruku gedarrez hasten ez bada zure arimarenak egin du! Pedro Boteroren galdaran zaude esanekoa egiten ez badidazu.

Abadeak eleizako kanpantorreko kanpai-hots guztiak gutxi zituen, eta Kastrejana inguruko guztiak batu ei ziren oilar hori topetako. Denodu guztiarekin eragoioen eragon be adinon egoteko asti barik, baina, eginena langoa emoten zieten eman be hark beharlekuak.

Gaua aurrera zihoakien, baina marti-oilar hori ezin topatu eta bien bitartean deabruak bazebiltzan seguru zubiginen eta azken antzean ibili be, tenolik ez zitzaien falta ez!

Deabru kabaileroak, adikuna bat zubiari eta beste bat inguruko oilategiari egiten ei zien, antza, eta, luze eritzita zegoana lez, inizitua bera baino zoliago joan ei zen bera be berenberegi harritan Oiz mendira.

Abadeari be orduak luze egiten zitzaizkion argi-kanpaietaraz gero deabruak podererik ez zeukatela bazekien eta.

Beste guztiei ostera arinegi zihoakien gaua marti-oilar hori topatu guran topatu guraz.

Ibili eta ibili, halangoren baten ez dute topetan marti-oilar hori eta galtzu zuziak sutan iminita kukurruku egin erazo!

Neskatoak, deabruak katigatutako arima berrien berriz logratu ei zuen eta, aditu gauzak zelan diren e, deabruak berak ei zekarren zubirako

azkenengo harria, baina marti-oilar horren kukurrukua entzuckeran, hor, Oiz ondoko bazterren baten bota ei zuen harri endemoniño hori eta erneguaeren erneguz emon zion eskukazuaz bere arrabeteko atzamar marka eta guzti utzi ei zuen. Hak emongo zioan emoteko zaplada!

Horrexegaitik esaten dute Kastrejanako zubia harri baten faltan lotu zitzaigula. Aikorzan ba Kastrejanako zubi horren gorabeherok! Egia ala guzurra? Batek bazekik!

ANDRA MARI MARTIKO

Gaurko kalendarioko martiaren 25ean Andramari Martiko ospatzen dugu, eta egun hori KUKUarekin lotuta dago.

Herri esaera zahar batek dio kukua Andramari Martikotik zortzi egunera agertzen ez bada, ondra edo hiletak egin behar zaizkiola.

Baina beti agertzen da tertziarako eta bere kuku-hotsak alaitu eta bizi-gogotu egiten ditu amalurtar guztiak.


Kukuaren urteroko etorrerak berbalotsean jartzen du Euskal Herri osoa. Pasadizu, esaunda eta ipuin asko kontatzen dira belaunaldiz belaunaldi. Aitu esate baterako behin kukuak nola hitz egin zien hemengo bertoko txoriei:

K*kua Euskal Herriko txori artean*

Udaberri on, txori euskaldunok! Hemen naukazue berrien berriz urteroko egonaldia egiteko.

Nonbaitetik hasteko, zera esan behar dizuet: ni Andramari martikoe-tatik ekaineko San Pedroetara bitartean bakarrik naukazuela zuon artean.

Ni Euskal Herrira natorkizueneko, dena dago lorez beterik, lore batek neure izena daroa gainera, "kuku-praka" deritzonak, hain zuzen ere. Haritz batzuetan ere sagar antzeko bat sortzen da udaberrian eta neure izena darama, "kuku-sagarra". Ez da jatekoa, baina udagoienean guttiz sikatzen denean, "kuku-bola" izenez ezagutzen da eta umeen jostailuetariko bat da, garai modernoetan beste era bateko hainbat jostailu sofistikatu egon arren.



Beste alde batetik, ni kuku-kantuka natorkizue eta herritarrak ere zain egoten dira ni noiz etorriko.

Urteko lehenengo kuku-hotsa entzuten dutenean, herritar guztiek botaten dute eskua poltsikora ia dirurik daukaten ikusteko, eta horrela bada, ez omen zaie urte horretan dirurik faltako.

Hau dela eta, behin baten baserritar bi eztabaida gorrian zebiltzan kukua lehenengo norik entzun duen auziari irtenbidea eman ezinean. Horretara, abokatu bategana joatea ebatzi zuten.

Esan eta egin. Joan ziren abokatuarenera eta arazoa planteatu. Abokatuak, ohitura zuenez, aurrezdik eskatu zien dirua, ezbaiari indarra emateko. Entzunak entzun eta ebatziak ebatzita, hauxe izan zen eztabaidaren epaia:

—Hara, bion artean konpondu ezin zaretenez, ba al dakizue aurten nori dakarkion diru-zoriona kukuak? Niri neuri, zuon bion diruari esker!

Hona helduko eran, eskolara ere joaten hasi naiz, baina letra bi baino ezin izan ditut ikasi: “K” eta “U” fonema-hotsak, hain zuzen, eta horregatik, dakidana egiten dut: “ku-ku”.

Euskal Herritik kanpoko nire neba-arrebak beste era batera egiten dute. Gaztel herrietan, adibidez, “ku-ko”; ingelesez “cuckoo”...

Egunero-egunero kukuotsean ibiltarren, ez daukat astirik neuretzako habiarik egiteko, eta horregatik, urtero-urtero beste txori txikiagoen habietan erruten ditut nire arrautzak, gehienetan amilotxaren habian.

Gero, jakina, amilotxak nire arrautza eta bereak ezartzen dituenean, hara han non aurkitzen duen kukukumea, bere umeak baino askoz handiago eta goseberago. Amilotxak, horregatik, ohizko baino behar gehiago dauka jakia bila.

Eta txarrena ez da hori, kukukumeak, hazi eta lumarrozten denean, leku handia behar izaten du eta amilotxaren umeak habiatik kanpora botaterainokoak egiten ditu. Jakin badakit hori ondo ez dagoena, baina bestela nola ekingo diot ba kuku-hotsari?

Batzuetan, gurata ez, gureztala baino, aurreratu ere egin izan dut nire etorrera.

Urte baten, neuk ere ez dakit zergatik, eguraldi onagatik beharbada, otsailaren goienean etorri nintzen eta kuku-hotsean hasi.

Zozoa larritu egin zen eta, birritan pentsatu ere egin barik, habiaginen hasi eta eragoion urte haretan ere bera izateko lehenengoā habia egiten.

Egin zuen habia eta gaisetiko guztiak, baina eguraldi txarrak etorteari eman zion eta han ibili zen zozoa bidatu ezinda hotzaren hotzez eta bustiaren bustiz bere habia eta umeak zaindu ezinik. Horixe egin nuen urte horretan lehenago etortearren. Baserritarrek igarri egin zidaten, kuku-hotsa goitibehitik bazekitelako oraindino ez zela hazegunaren tertzioa ereitzetan hasteko.

Esandakoaz nahikoa dela uste dut eta ez ahaztu ni zuentzat bidazti bat baino ez naizela, nik neure tertzioan, hegoalderantz joko dut datorren urterarte.

Behin ekaineko San Pedroak helduz gero, jai handi hori ospatzen den herrian bazkaldu eta joan egiten naiz kukukuma eta guzti hurrengo urterarte.

Amalurreko baserritarrak udan sartuta uzten ditut eta euren ahoetan hauxe baino ez da entzuten: "Ia datorren urtean ere kukua entzuten dugun". Zer den bizugurea, e?

Martiaren amaiera eta apirilaren hasierako muga dela eta ez dela, ipuin bat baino gehiago asmatu izan du gure herriak. Gogora ditzagun pare bat:


Txindorra, martia eta apirila

Behin baten, neguko arriskuak gainditurik zeudelakoan edo, txindorrak honela kantatu omen zion martiari:

"Marti kakatsu,
apiril ederrean sartu natzaizu".

Kantatu bai, baina urte haretako apirilak, bere hasieran, ekaitz eta afrontuak bota omen zituen, inizitu, tximistargi, txirgora, abazuza eta edurrerainoko guztiak bitarteko.

Gauzak horrela, txindorra zigortu egin zuten eta handik hortik hemendik, bizirik lumatu zuten narrugorrian utziaz.



Artzain harroa, martxoa eta apirila

Antzina, artzain harro bat bere ardiak eramatekotan zegoen mendira negua ibarrean egin ondoren.

Apirilean sartu berri zegoen eta martxoari desafio bat egitea baino ez zitzaion bururatu eta bat ere malbakoak halakoak badiotso martxoari:

“Martxo, martxo,
nire ardiek errez egiten diote errekarri salto!”.

Martxoa armin geratu zen eta hari artzain harroari bengantza egiteko apirilari esan omen zion:

“Apirila, biribila,
hik ekariez azkidak bi egun t’erdi,
nik emango dizkiat beste bi t’erdi,
galdu diezaizkiogun begia eta ehun ardiak
artzain gaizto eta harro horri.”

Eta, halaxe gertatu omen zen. Urte horretako apirilaren hasieran eguraldi euritsuak egiten hasi zen eta errekek geroago eta handiago.

Ha artzain harroa estutzen hasi zen eta han zebilen bere ehun ardiak pilatzen mendian gora bideratzeko. Artaldeko aharittoa giberria zen oraindino eta badaezpada lepoan hartu zuen hankak bere idunaren alde bietarantz zituela.

Euriak bota ahalean eragoion eta, errekek handi ezeze, uriolak etorri zitzaizkion mendian behera eta ehun ardiak ito. Artzaina bera ere estu eta larri zebilen belaunetatik gorako ur korronteetan eta, halako lapraskada baten, lepoan zeraman ahari giberriak estukurazko estrinkada edo astinaldi batean, jo adarraz eta begia atera omen zion hari artzain harroari.

Harrezkero, martxoaren azkeneko bi egun t’erdi eta apirilaren hasierako bi egun t’erdiei, zozomikoteak deritzogu, hots, marti-zozo bikoteak habiaginen hasten diren garaia delako.

Udaberriak, besteak beste, txoriak ere kantu-hotsean jartzen ditu txirripititxioz beteriko orkestra bat sortuz.

Baina txorien nondik norakoa erakusteko, gure zaharrek honelako esaundak asmatzen zituzten belaunaldiz belaunaldi kontatzeko:

Arrano beltza eta gainerako txoriak

Euskara Euskal Herriaren muga bakarra zen garaiko udaberri zoragarri baten hasieran, arrano beltza zebilen lau haizeetara bere ohizko hegazkadan Auñamendiko baso-zelaiak eta euskal zeruaren bitartean.

Arduraz zegoen hiru eratako txoriak antolatu nahian, lehenengo bertokoak, gero hemen egotaldi bat egin ondoren alde egiten zutenak eta azkenik pasekoak.

Gaur biharko, bihar etziko eta etzi etzilimorako utzi beharrean, basoilarrari deitu eta esan omen zion:

—Jo itzak kikiriki batzuk eta zabaldu bando hau neure izenean:

“Arrano beltzaren aginduz, urlri egunetan txori biltzarra Iratiko basoan”.

Halaxe egin zuen basoilarrak eta egun hori heldu zenean, hantxe zeuden txori guztiak Iratiko basoko pagaduiko mehatzuneko hazduian.

Arrano beltzak, pago garrazta handienaren puntan erpak estutu eta, ahoa askatu zuen esanaz:

—Udaberriz udaberri, naturarekin batera, habiagintzan hasten gara eta ugarituz goazenez, bakoitzari bere bizilekua adierazioko diot, apurka-apurka egokitzen edo mendia hartzen joateko.


Batzuk baso-basoan geratuko gara, beste batzuk gizakien bizileku inguruetara joango zarete, eta hirugarren batzuk, itsas aldera.

Egunez, nik neuk zainduko zaituztet, eta gauez, gautxoriek, hontzak zein saguzarrak.

Gure artean denporaldi bat egiten dutenekin abegitsuak izango gara. Kukuari bere kukukeriak egiten utzioko diogu, enarak eleizetara bideratuko ditugu, zikoinak kanpandorretara, eta abar.

Euskal Herria zeharkatzen datozen pasekoekin beste hainbeste egingo dugu. Gurean dauden bitartean ez dezatela ezeren saltarik izan.

Orain, goazen ba bakoitza esaneko parajera eta kontuz, denok ere, eskuz zein armazko ehiztariekin.



Esan eta egin. Udaberri haretan, arrano beltzak esandako moduan banatu ziren txori guztiok amalurreko zeruak betean.

Harrezkero, zozomikoteak aurrelari direla, beste txori guztiak ere urtero-urtero hasten dira euren habiagintzan, gero arrautzak jαιο, ezarri eta txorikumak ateratzeko.

Garai hau, oraintsurarte, umeentzat eta gaztetxoentzat jolas garaia bihurtu izan da eta, eskolarako oinezko joan-etorrietan zein etxeko egonaldi libreetan, “txoritopetan” ematen zen denpora.

Lege eta guzti jokatzeko zen jolas honetan. Txori-habia lehenengo aurkitzen zuenak non dagoen kontatzen zuen edo seinaleren bat jarri arbolan bertan edo inguruan, jaubea duela adierazteko. Eta, barrabaskeriren batetik kanpo, errespetatu egiten zen.

Behin txori-habia aurkituz gero, jarraipena egiten zitzaion. Txori txikia zenean, jarraipen hutsa, baina zozo edo birigarrotik gorakoa izanez gero, jarraipena ezeze, txorikumak lumarrozten hasten zirenean, hegaz hasi baino lehen, hartu eta janarizat aprobeztatzen ziren.

Euskal Herriko txorien garrantzia norainokoa izan den jakiteko gogora dezagun gure “zori onak” agurra. Hitzak geureak dira, baina barruko esangura erromatar kultura zaharrarekin loturik dago. “Zori” txori da, baina sortea adierazten digu “agur” berbak berak bezala, augureak zoriak interpretatzen baitzitu.

Euskal Herriko txori batzuek mitoetan ere sartu zaizkigu eta, besteak beste, hauxe aipatuko dugu:

Supelegorreko txori deabruak

Behin batean, Gorbeiaiko Itxina aldeko landa-zeharretatik zehar pastore bi zebiltzan euren ardi eta ardi-txakurrekin.

Negua zen eta ekaitza zetorren ipar aldetik. Horregatik, artzainok euren ardiok pilatuten zebiltzan edurra botaten hasi baino lehen, goietatik beheragoko landetara etorteko.

Egin ahalak egin arren be, dena alperrik. Edurra hasi zitzaien mara-mara eta santiamen baten dena zuritu.

Egoera haretan ez zeukaten beste irtenbiderik hara ondoko Supelegor kobara sartzea baino, gaua zelan edo halan emateko.

Halaxe egin zuten. Supelegorreko kobara sartu zirenean, ardiok euren artileak astindu zituzten edur-bolak botateko eta artzainak be beste hainbeste egin behar izan zuten.

Iluntzea heldu zitzaienean, artzain zaharrenak esan zion beste artzain gazteagoari:

—Hi, ohitura onak galdu ez egiteko, abemariak errezatu behar dizkiagu eta gero lo egiteko etzan baino lehenago, badaezpada morral-zakutoan beti eroaten dudan kandelarioetan bedeinkatutako kandela bedeinkatua isiotuko diat.

Esana egin zuen artzain zaharrak. Baina hor gau erdi inguruan zarata berezi batzuk entzun zituzten.

Itzartu egin ziren artzain biak eta begirada bat bota ia ardi artera otsoren bat edo sartu ote zen.

Berriro etzan ziren eta handik geroagora berriz zaratak, lehengoak baino handiagoak, ardiak be gora-goraka jartzerainokoak.

Artzain zaharrak kandela bedeinkatua hartu zuen eta haronako batzuk egin zituen ardi artetik, baina ezer be ez.


Artzain gaztea bildurkilik zegoen, baina artzain zaharraren nasaitasuna ikusi orduan badinotso:

—Zer? Hi ez haiz bildur ala?

—Begirada bota aurretik akaso, baina orain ez! —erantzun zion—. Orain bazekiat zaratok zer diren. Nik entzunda zeukat hemen, koba honetan, txori deabruak bizi direla eta horiexek dituk zaratagileok. Guk biok, angelus errezatu diagu eta gainera kandela bedeinkatua isiotu, horregatik, horiek parte txarreko txoriok urten gura eta urten ezinik zeudek hor barruan, errezu edo kandela bedeinkatuaren aurrean ez zeukatek podererik eta.

Igaro zuten gauaroa eta hurrengo goizean, lurmen dagoela ikusirik, argi-kanpaiak jo aurretik urten zuten pastoreok euren ardiekin.

Supelegorreko koba utziz batera, hara han non doazen kanpora txori deabru guztiok ikaragarritzko hego zaratak atereaz.



—Ez diat esan nik! —esan zion artzain zaharrak gazteari—, aikorzan txori bildurgarriok kanpoan. Kristau ezaugarri oztoporik aurkitu ez duten orduan, urten egin ditek, baina egunez dela ikustean berriro sartuko dituk kobazuloan.

Biziak bizita, bakez heldu ziren artzainok etxera egurdarte barruan eta zer jana zer esana baino lehenago faltatzen denez, herrian zabal-zabal egin zen gertatutakoa.

Marti edo martxoko esaerak

- *Eguzkia eta euria, martiko eguraldia.*
- *Martxoaren azken bi egun t' erdiak eta apirilaren lehenengo bi egun t' erdiak, zozomikoteen egunak.*
- *Martiaren hogeita bostean Erromako Zubitik dator kukua.*
- *Martxoan sugea ikustea baino ardi artean otsoa agertzea hobe.*
- *Martxoaren erdin (erdian) gaua eta eguna berdin.*

Apirila

Udaberria aurrera joan ahala, apirilean sartzen gara. Jorrraila izena ere badarabilgu soloak jorrratzeko garaia delako.

Landare onaren ingurumarietan bedar txarrak ere sortzen dira eta jorrai berezien bidez jorratu eta kendu egin behar izaten dira landare onen fruitu onenak lortzeko.

Garia azaro edo zemendian ereiten zen eta erne ere bai. Baina apirilean igartzen zitzaion bere hazkaia. Garia ezin da jorratu bedar landa bat bezakoa delako garai honetan. Zer egin orduan? Ba, txilindroia izeneko tresnaz mokil-sokilak apurtu, eta hazten utzi.

Otalorea aurrelari dela, dena dator lorera eta hostora, goizetikoak lehenengo eta berandukoak gerotxoago. Arbia ere bai. Aurreko urteko maiatzean ereindakoa oraintxe dator arbigarara eta jarraian lorera bere zikloa bukatzeko.

Ereitzara sartuz, garai hau da hazeguna soloak udelandu, lurra atondu eta arto-hazia ereiteko.

Azeguna adierazteko, esaera zahar bat ezagutzen da Bizkaia aldean. Hauxe da:

“San Jurgi, artoak ereiteko goizegi” (apirilaren 23a).

“San Markos, artoak ereinda balegoz” (baleude) (apirilaren 25a).


On Jose Migel Barandiaranek dioskunez, ereitzetarako herri-esaunda hau ere erabiltzen da erreferentzia bezala:

“Orri irtete, arto ereite; orri erorte, gari ereite”.

Solo edota baratzetako ereitzeaz gain, apirilean, kristautasuna Euskal Herriraten etorri den neurrian, Aste Santua izan da ospakizun handienetarikoa.

Historia, historia da, eta sinesmenduna izan edo ez, Aste Santua gure kalendario barruan egon da eta badago, azken urteotan opor giroa nagusitu bada ere.





Euskal Herria eleiza eta ermitaz beterik dago. Herritarrek, fedez, ohituraz edo moral-aginduz, eleizara jo dute batez ere garizuma eta Aste Santuan.

Egutegiaren antolaketan ere esan dugu, baina Aste Santuko eta urteko egunik handiena Bazko eguna da kristautentzat. Aberri eguna ere egun handi horretan ospatzen dugu.

Eleizearen agindu nagusietariko bat Bazkoazkoaz betetzea zen. Zer den hori? Ba, urtean behin gutxienez aitortu eta komulgatzea, bereziko Bazko egunean.

Horregatik, garizuma barruko Aste Santu aurreko astean gogojardunak edo misioak egiten ziren gure herrietan, kanpoko sermolariak ekarriaz.

Oraintsurarte, Aste Santuko Ostegun, Ostiral Santu eta Bazko egunean ia-ia herri osoa joaten zen eleizkizunetara, batek baino gehiagok soineko berriak estreinatuz.

Egoera honetan, pasadizu edo fetxoriak ere gertatzen ziren herrikoen artean eta, salatze gisan edo, ipuin edo esaundak ere sortu ditu gure herri zahar honek. Aikomenzan batzuk:

***A* bade ehiztariak arima galdu eta berreskuratu**

Orain dela urte asko, ehiztari edo kazari itzala zen abade bat ei zegoen hemen gure Zeberioko herrian edo ingurumarietan.

Egun baten, Bazko-domekaz gainera, kazan ibili zitzaigun bere erbitxakurrekin goizeko inontzean. Sotana-magalak be busti-busti eginda zebilen, umore txarrean, erbirik nondik dabilen ere ikusten ez zuela.

Etorri zitzaion meza emoteko ordua eta joan ere bai bere zereginera erropak mudetako asti barik.

Egun horretako meza dena zen laprastkada, latineko otoitzok erdi-esanean eta inoiz ez letxe barruntetan zen abade hori.

Sermoa ere inoiz baino garratzagoa bota zuen eta kantatu ere erdi urrumaka, ganaduen damorroa zirudiela, ganora handi barik.

Mezerdian, zer? eta ez ditu entzuten ba bere txakurrak “i, au, i, au”, erbi baten atzean, han eleizpeko harizduian!

Ene, bada! Abade hori arteak ere ezin zuen hartu eta birritan pentsatu barik, utzi meza bertanbera eta erbiaren atzetik joan ei zen erbi-txakur eta eskopeta eta guzti.

Abade hori ez ei zen gehiago agertu eta txakur eta guzti kondenatu zelazkoa entzun izan da beti herri sineskeran.

Herritar guztiak ikaratu egin ziren eta harrezkero, batez ere ekaitza denean eta, entzun egiten ei dira "abade-txakurrok" mendi batetik bestera pasetan, "i, au, i, au, i, au", hots baten.

Baina urteak eta urteak pasatu ondoren agertu egin ei zen abade ehiztari hori. Aikomen hemen horren berri ematen digun esaunda:

Gure euskal herrietan, hor garizuma aldean, batez ere Aste Santu aurretxoan, misinoiak, gogojardun edo ejerzizioak egoten ziren. Eleizaztikoak domekero joaten ziren mezara, baina banakaren batzuk urtean behin bakarrik, Bazkoazkoaz betetako. Horretarako, misinoietako astea izaten zen ona urteko autortza egin eta gero Bazko egunean Gure Jauna hartzeko eleizearen agindua beteaz.

Urte baten, ezin nezake esan Zeberio ala beste inguruko herriren bat zen, antzinako kontua da eta izan be hau eta, misinoiak zeuden Aste Santu aurreko astean.


Ia-ia herri guztia joaten zen misiolariari entzuten eta bide batez euren pekatuen autortza egiten.

Bazegoen eleizaztikua ez zen gizon bat ere Bazkoazkoaz bete guran eta joan egiten ei zen eleizara, baina jende asko aurkitzen zuen konfessionario ondoan txanda jagoten.

Halako baten, zer hau bururatu zitzaion, gaua eleizan egitea hurrengo egunean lehenengo izateko misiolariarekin autortza egiten.

Halantxe egin zuen egin ere. Korura joan zen sakristauak eleizako ateak itxikeran ikusi ez egiteko. Gaua heldu zen, sakristauak ateak itxi eta han geratu zen gizon hori ilunetan eleiza hutsik eta hotzik zegoela.

Kostatu zitzaion, baina halakoren baten loak ere hartu zuen. Handik lasterrera, zer? eta karraaask! eleizako ateak zabaldu egin ziren, bisagaren irrintza eta guzti.



Gizona buruko uleak ere arteztuta eta gorputzean pipiladura eta guzti geratu zitzaigun zerk izan behar ote duen pentsatuz.

Gaueko iluntasunean koruko gizon horrek ez zuen ezer ikusten, baina pausu-hotsa asmatu bai ostera.

Halako baten argiak isiotu ziren eta ene! Abade bat, ezezaguna, zahar-zaharra, fetura edo itxura txarrekoa!

Abade hori sartu zen sakristian, meza erropak jantzi eta altarara etorri zen meza emoteko tresna guztiekin.

Behin altararaz gero, alde guztietara begiratu zuen eta inor ere ez zegoela ikustean, hartu berriro meza esateko tresnok eta sakristian sartu zen.

Urten sakristiatik, argiak amatatu eta eleizako ateak ostera ere itxiaz, alde egin zuen abade denadelako horrek.

Gure koruko gizona dar-dar zegoen seguru koru bazterrean. Gehiago ez zuen lorik egin. Bateko eleiztorreko erlojuaren kanpai-hotsa, besteko saguzarren hegazkadak, haragoko mozoloen uuuuuekin, baina batez ere ezin lorik egin zuen ikusitakoa ulertu ezinik.

Eguna argitu zenean, sakristaua eta misiolaria biak sartu ziren eleizan eta ordurako itxaroten zegoen ha gizona misiolariarekin konfesetako.

Misiolaria ikaratu egin zen ha gizona hain tertzioz ikustean, eta beste ezer baino lehenago itandu zion:

—Zelan ba inor baino lehenago paraje honetan?

—Ba, jauna —erantzun zion hark gizonak—, bart hemen egin dut lo, hor koru bazterrean, gaur berorrekin konfesatzeko lehenengoa izateko, baina sustatu egin naiz hauxe eta hauxe, honantxe eta honantxe pasatu zaidalako —eta ikusitako guztia kontatu zion misiolariari.

Misiolaria bera ere ikaratu egin zen eta, jazotakoa amets hutsa ala egia zen jakin guran, badinotso hari gizon hari:

—Gaur gauez geratuko zinateke berriro koruan lo egiten?

—Bakarrik ez —erantzun zion atoan gizonak.

—Eta biok biotara bai?

—Ba, berorrek gura badu ni neu prest nauka!

Gaua heldu zenean, misiolaria eta ha gizona koruko estarian ostendu ziren eta konfesetako ezeze beste berriketa asko egiteko astia ere eduki zuten.

Behin gauerdiraz gero, zer? eta karrrrrraaask! eleizako atea zabaldu zen. Korukook isilik zeuden, sorots egiten, eta argiak isiotukeran ha abade zaharra ikusi zutenean badinotso misiolariari:

—Don Anastasio, aikor ha atzoko abade zaharra, ikusi egiten du ikusi berorrek?

—Bai, ikusiko ez diat ba! Holangorik!

Gauerdiko abade zahar hori sakristian sartu zen eta, aurreko gauean lez, jantzi meza emoteko erropok eta tresnok hartuta, non datorren altarara!

Misiolariak hori fetxoria hori ikustean, orpoetan har barik bajatu koruko eskilarok, joan altarara eta esan zion hari denadelako abadeari:

—Mutil, zerk hakar hi hona altarara honetara tertzio honetan?

—Ba, begira —erantzun zion—, ni ehiztari edo kazari ona nintzoan eta behin baten Bazko-meza emoten egonik, mezerdian hartu ni joan nire txakurrek jasotako erbia hiltzen joateko erabakia, eta jakina, kondanatuta geratu nintzoan harik eta ha meza ha emon arte. Bostehun urte egon nauk gauero hona altarara etorten, baina meza erasoteko inor aurkitu ez eta, berrien berriz joan behar izaten izan diat kanpora.

—Hori baino ez baduk, eman ezak meza hori neuk erasota eta joan hadi bake-bakean Jaungoikoaren legean!


Eman zuen erdi-emonean utzitako meza hori eta bere penitentzia betatu zuela ikusirik esan zion misiolariari:

—Eskerrik asko zeruko ateak zabaltzeagatik, gauzak ondo egitealako-rik ez zegok munduan, agur, ongileak izan eta zahar on egin zaitzela!

Ostiral Santua, andrea eta ilargiaren ilundeak

Baten, antza, Bariku edo Ostiral Santuz, andra faturen bat, holango sustar handi bakoren bat, eleizara barik labegurretan joan ei zen Elexaurreako basorantz.

Labesurako, otea, otegurra omen da onena surik biziena egiteko eta horretan joan zen ha andrea beste guztiak eleizkizunetara joan bitartean.



Besarte biak beteko ote multzoa batu zuenean, hur-zurezko estukin bat egin, lotu ote-karka hori eta bazetorren etxerantz.

Eleizako kanpandorreko kanpai-hotsak entzun egiten zituen, baina hark bereari baino ez zion kasurik egiten, labesuari.

Harrezkero ez dakigu zer gertatu zen. Ha andrea ez ei zen gehiago agertu herritik eta esaten da Ilargian geratu zela kondenatuta betiko, lepoko ote-karga eta guzti.

Ondo begiratzuz gero, Ilargiaren ilundeetariko handienak euki ere badauka lepakada egur eta guztizko pertsona baten antza. Kontatu halan egiten da behintzat!

Muskerra gainetu Bariku edo Ostiral Santuan

Noiz ere ez dakigula, zer batek, eleizastikua ez zen andraren batek Bariku Santu egunez eleizara joateari itxi egin ei zion seguru eta Pazko-labesua egiteko ote igerrak eske joan basora.

Bero egiten zuen, antza, eta eleizako kanpai-hotsa ere ondo zetorkion belarrietara, baina ha eta guzti ere aurrera eragoion basoa gora eleiz-kanpai haiei entzun eta gor eginda.

Eta hor Kortabasoko aurberako ikatz bitora ailegatu zenean, koño! ez diote musker demonintru bik saltu egiten, batak idunera, sama ondora, eta besteak belaun burura!

Andre horrek bertan bera bota ei zituen ote igerrak eta hasi zen barda batez muskerrok uxatuten, baina ekinago eta txarrago seguru. Belaun burukoak geroago eta barrurago sartzen ei zizkion hortzok, eta besteak hestegorria zulotu eta samatik barrura ez zion egin ba?

Ha zegoen egotekoa! eta ez zen sinesmenekoa, baina entzuteak zeuzkan Bazkoazkoarekin bete egin behar dela eta eleizara bidea hartu zuen fraile autorrentzuleari muskerrok erakusteko.

Joan zen, arin joan ere, eleizara eta ba, ailegatuz batera fraile horrek badiñotso aitearenka eta txera handiegirik egin barik:

—Zer Jaungoiko! Fetura langoa dakastazu alabatxua, zer pasetan zaizun baino ez da horiek alauriok botateko, baina-baina, nondik zabilta gaurko egunez?


—Ba, jauna, honantxe eta honantxe joan naiz eta ez zaizkit ba gainetu hauek musker madarikatu biok!

—Alabatxua, damututa bazaude belaunikatu zaitex eta errezatu ezazu “neure Jesukristo gure jauna”, baina horrekin ez duzu nahiko izango, horiek muskerrok uxatzeko zoaz eta zazpi herritako kanpaiak joteko agindu ezazu! —erantzun zion fraideak.

Bideak betean joan zen zazpi herriotara, jo zituzten ba kanpaiok eta orduxean itxi ei zioten muskerrok bakean. Eta hurrengo egunean joan ei zen otetan eta basorik harako otokin biztu labea eta inoiz baino ogi, pamtixa, tremes, arto, opil eta mokots edo morrokota gehiago erre ei zuen seguru.

Apirileko esaerak

- *Apirileko lorea, urrea baino hobea.*
- *Apirilaren azkenean, orria haritz gainean.*
- *Apirilean euriak euriari, uztilean eguzkiak eguzkiari.*
- *Apiril euritsu, urte garitsu.*
- *Apirila bero, negua gero.*



Maiatza

Martiaren akaberak eta apiril osoak oinarri bizi-biziak jarri dizkio udaberriari eta hilabete batek bestea dakarrenez, maiatzean sartzen gara.

Ohitura zahar bat gogoratzuz, Euskal Herriko lurralde batzuetan, apirilaren azkenengo eguneko iluntzean haritz landareak landatzen ziren maiatzaren lehenengo egunean landatuta ikusi ahal izateko. Maiatzean sartzen gaituen landare horri “maiatz-haritz” deritzogu.

Maiatzaren lehenengo astean, Gurutze Deunaren jaiak ospatzen dira gure hainbat herritan.

Usadio zaharretara joaz, arantza eta elorri bedeinkatzea aipatuko dugu.

Garai honetarako, arantzak eta elorriak lora-loran egoten dira. Gure zaharrek hartu elorri zuri errama txorta bat, arrankala bat egin ale bakoitzari, sartu gurutzeratara beste egurtxo bat, sarats-azalez irentsitara inguratu oboan-oboan elorri txortok eta eleizara eroaten zituzten bedeinkatzeko.

Eleizkizun polita izaten zen, lorez betea. Baserritar bakoitzak zorta bat eramaten zuen, solotan beste elorri-adar.

Behin bedeinkatuz gero, etxera eraman, eta banan-banan solo bakoitzari berea sartu muna baztertxo baten. Horrela, arantza edo elorri bedeinkatu horrek zaindu egiten omen zuen urte horretako ereitza eta gainetikoak, uza onak lortzeko.

MAIATZEKO ERREGINA ETA SARATSAK

Maiatzeko beste jai zahar batera joaz, “Maya-jaiak” gogoratuko ditugu. Ia-ia galdurik egon arren, gaur egun ere ospatzen dira, esate baterako, Bizkaiko Galdakaon Andra Mari dantza taldearen eskutik.

Jai honekin, naturaren berpiztea ospatzen zen. Fenizio, greko, erromatar eta abarrek bete-betean ospatzen zituzten neska-mutil gaztetxoak bitarteko zirelarik.

Guk, hemen, jaiok, natura lorera etorri ondoren ospatzen ditugu, maiatzean, “Erregina eta Saratsak” izenpean, protagonistak neskatxi gaztetxuak bakarrik ditugularik.

Ospakizun hau, gehienbat, maiatzaren lehenengo igandean egiten da eta Bizkaian Galdakaoko Andra Mari dantza taldeak urtero ospatzen du.

Erregina neskaxi bat da eta neska andariekin eramanen dute andarik anda beste neskato guztiez inguratuta. Herri guztian zehar ibiltzen dira, zuriz jantzita kantu-dantzak. Erreginak lore orriak botaten ditu batera-bestera ikuskizun aparta eskainiz.

Egun horretan batzen diren agilandoak era honetara banatzen dira: zati bat Amabirjinari argi egiteko kandelak erosteko; beste zati bat erreginentzat; eta gainetikoa saratsentzat edo beste neskaxientzat.

Kristauaroan ordea, denbora onak txarrera egin edota lehortekak etorriz gero, errogatibak egiteko ohitura zegoen. Kasu honetan, Amabirjinaren irudia eramanen zen eleizportikuan zehar edo eleiza batetik bestera letania-hotsean eguraldi egokiak lortzeko uztarorako. Begira zer gertatu omen zen errogatiba egun baten zozoa, erreka-txoria edo ipurtikara eta txindorreakin:

Zozoa, ipurtikara eta txindorra


Maia lehengotako egun bero bat zen, igandea izan ere. Zeru urdinean hodei zuri eta lodiak agertzen hasita zeuden.

Herriko apaizak, igandeko meza-eleizkizuna amaituz batera, errogatibak egitea pentsatu zuen, badaezpada.

Pentsatu eta egin. Hartu andariekin mantu zuridun Amabirjina eta erasen zetorkienez, eleizportikuari oboan-oboan hiru buelta eman zizkioten.

Eleiztar askok ez, baina andariekin letanien artean, hauxe fetxoria hau ikusi omen zuten:

Prozesioak eleizatik urtenaz batera, handik portiku ondoko sasitza batetik urten eta hegaz doala korotza egin zuen zozo batek Amabirjinaren mantu zurian. Handik lasterrera, erreka-txori edo ipurtikara batek eleiz aurreko iturrian bere buztana busti eta garbikuzia egin zion mantu ederrari. Garbi bai baina bustiunea ikusten zitzaionez, txindor bat hurreratu eta siku-siku egin zion. Ondo urten zuen denak. Arrastirako haizea atera zuen eta hodeiak guztiak zati-zati egin omen ziren artalde handi bat zirudielarik.



Maiatza aurrera doa. Artoak ernaro bizian eta garia garapen biziagoan. Esaera zaharrak dioskunez: “maiatzeko zazpi egun, zazpi hilabeteren lagun”, hots, gariak maiatzeko zazpi egunean aurreko zazpi hilabeteetan baino gehiago irabazten duela.

Horrexegatik edo, zaharren esanetatik dakigunez, garia harrokerietan hasi omen zitzaion artoari. Aitu zer gertatu zen:

Garia eta artoa berbaz

Behinola, gariak ez omen zeukan gauza onik bere burutxo hori altzatu beharraren altzatu beharraz, eta halangoren baten nori? Eta badinotso artoari:

—Hi, hemen labrantza guztitik neu nauk bedarrik onena, zegatik ze, begiratu ezak, niri neuri eskerrak jan egiten dik jan gizakiak.

»Lehenengo, azaro edo zemendian, soloko bedarrak udelandu, gero era den tresnarekin lurra arakatu, zokil-mokilak haustu eta dena pres-prest uzten diate nekazariak ereitzarako.

»Gero hazitarako itxitako galgarauak hartu, bota urez betetako zin batera, galgarau tximelak apartatu, beratu orduan ura kendu, karearekin nahastu eta solora eramaten nautek.

»Behin soloraz gero, ereiten hasi orduko, azatzak iminten dizkiate nondik erein jakiteko eta ba hantxe itxiten nautek harik eta erne arteraino.

»Erne orduan, mokil-hausteko ezin likek aitzurrik sartu eta horregaitino txilindroiaz egiten zizkidatek atzeraurrera batzuk ahal dela itaurreko barik zein ernaroa alperrik galdu zapal-zapal eginda.

»Gero ba han nagok solo gehienetan ogitarako, baina beste solo batzuetan galberderako ere bai, ganaduak berdean jateko.

»Maiatz azkenerako burua egiten zaidak eta bagilean, segun goizetiko edo belukoa, helduaz nijoak.

»Heldu orduan ebagi egiten nautek udako bero-beroan; batzutan igitaiatz eta beste batzuetan kodaiñaz, gaur kosetxadoraz.

»Gero zoruan, galondoan, zabal-zabal egin eta solo arloa ebagi akabatu egin orduan, sartu uretan aurreko urtean jotako galtzupoila batzuk

beratuteko eta eurekin egiten dizkiate estukinak eta eskutak egiten hasi eskuz joteko baduk, eta makina-trilladorarekin baduk karga handiagoak, besartea betekoak.

»Behin eskutak egin orduan, mutxurioak egiten hasten zaizkidak buruak gorantz direla eta handik lasterrera edo igual hurrengo egunean metatu egiten nautek.

»San Inazio aurretik ahal dela, holango egun bero baten, kanikularekin, zabaldu berriro gari-metok eta gari-joten hasten zaizkidak eskutok garanduteko.


»Horretarako, hartzen dizkiate harri-losak eta azpian tronko, mokor edo beste harri bat dela aurberan iminten dizkiate eta gero gari-joten, batzuk akarreaotan eta beste batzuk josten, sasoi oneko gizonak.

»Gariok jo orduan, lehenago artzaz airean, geroago galbaheaz edo eskuzko makinaz eta orain trilladoraz ere garbitu egiten nautek. Gero, zer? Ba, galgaraua, anegaka zakuetara, galtzua edo ahotza, kamara edo tejamanara, galhautsa, kortara ganaduei azpiak egiteko eta galondotan lurra betean deslari lotu diren galburuak oiloentzako, eta abar luze hori egiten diate gari jole eta gainetikoek.

»Eta orain zetorrek onena, horiekin anega gariokin, urterako ogia egiten zidatek. Hartu zorroka eta errotara eroan. Han eho eta eralgi. Urun eralgibikoaz ogiak egin eta baten eralgiaz tremesa, gaur ogi integrala deritzona. Eta ogiak, ez bat, askoz gehiago. Azpiran zabaldu gari uruna, bota gatzura eta lebadura, igurdi ondo, zatiak egin eta itxi ondo jagiten, jagi bi badira hobeto. Gero horrekin egin ogi nagusiak astera-ko, edo pamitxak, edo Bazkoetan morrokotak zein mokotsak, edo momentorako talo jagiak. Hau guzti hau labean. Otekin berotu labea eta tenplea hartu orduan barrura ogiok. Ikusten duk zer naizen?

Artoak ezin zuen aguantatu gehiago eta berak ere bere burua gitxia-gotzat ez zeukanez badinotso:

—Hi, hik hau eta hori eta bestea dinok, baina ni nagoen lekuan ere ez zegok goserik, e! Eta ezpabere begiratu ezak ia labesuen hire aurretik nor doan labera barrura, neu, eta ganera neuk tenpletan diat ganera hiri labea eta ondo gozo jaten nautek urdai errearekin eta gauetan artosopan, eta... Eta ez hori bakarrik, hire galtzua zein ahotza latzak dituk biak ere eta galhautsa zertan esanik ere ez. Nire garbea eta kanila



jan egiten dik ganaduak. Artaburua hire galburua baino askoz handiagoa duk. Barrukoa jateko baduk ere, gaineko kapaxak abereak jateko zein beste menester batzuetarako ere erabiltzen dizkiate, batez ere antzina lastamarragatarako, eta zeukanak tabakorria zigarroan erretako, edo eta kostaldean arrantzaleak atunetarako amuetan ipintzeko.

»Nire artaburu ederreko artagarauak jaten hasi baino lehen labigerra egiten zidatek, hots, artaburuak labean berotu apur bat kiskortzeko eta gero eroan errotara urun ona aterateko. Errotaria ere zuhur egoten zuan eta nire labigerreko arto-urusetik hire gari-urusetik baino pitantza handiagoa gordetan zian beretzat eho alde.

»Gero gaineko arto, opil, talo eta morokil gozoak egiten zizkiaten ni neurekin, zer pentsetan duk ba?

»Eta ganera oilo eta txarrientzat ere banauk jakia, eta gero a zelango arraultza eta txarriki gozoak jaten dizkiaten gizaki jatunek!

Eta, ba, batak eta besteak, pasatu zituzten diskutiok, ezbaioak eta trebituok eta beste egun baten artoa gainetu ei zitzaion gariari harroharro eta esan:

—Hik hau eta hori eta bestea diok, baina ni neu hi baino handiagoa eta buru hobegakoa nauk, hi nire ondoan merro, txankerre, kokoterre bat baino ez haiz!

—Hi, entzun iezadak —erantzun zion gariak—, txikia eta merroa naukala zein ez naukala, baina maiatzean buru izaten nauk eta niretzat neuretzat galtzua edo ahotza baino buru ona eukitea duk lehenengo, eta hori banauk, eta hire lasto lerdan eta kankailoak ez zidak ikerarik egiten. Horraitino, esan ere egitea hori ganorabakokeria hori!

Bata bestearenak entzun ondoren, baretu egin omen ziren eztabaidok eta irribarrea nagusitu zitzaizen biak zirelako gizaki zein abereen elikagai.

“Maiatzeko lorea udako florea” dio esaera zaharrak eta halaxe dela dirudi. Naturarekin batera, neguko lozorroan egon diren pizti guztiak ere biztu egiten dira. Inurriagandik hasita, denak ari dira negurako egiten, txirritxirria edo girgilua salbu. Hortik sortu omen zen Esoporen ha fabula zaharra, guk euskaldunok geure mundura egokitu badugu ere. Aikomen:

Txirritxirria eta inurria

1
 Uda aldean kanta-kantari
 hor dabil txirritxirria
 bere ondotik geratu barik
 lan eta lan inurria.
 Txirritxirriak inurriari
 egiten dio irria
 esanez ea zertan daroan
 horren bizitza larria.

3
 Goseak jota pentsakor dago
 txirritxirria kanpoan
 han ikusten du inurritxoan
 inurri-pilo ondoan
 hazi bustiak sikatuz gero
 berriro sartzen zuloan;
 bera ostera dardarotsean
 goseak jota osoan.

5
 Zuk orain arte ez duzu egin
 kantatu baino besterik
 ni neu lanean nenbilenean
 zu berriz nagiz beterik.
 Itaunka zatoz ea daukadan
 zuretzat borondaterik
 baina ez noa zabaltzen zuri
 nire etxeko aterik.

Goi mendietako ura
 basa loreen lilura
 dagoenean hartu behar da
 gerokoaren ardura.

2
 Bata lanean, bestea kantuz
 uda egin da pasatu
 egunak joan eta etorri
 udazkena ere sartu.
 Hortik aurrera igarri gabe
 zaie negua agertu
 eta berandu dela ikusiz
 txirritxirria larritu.

4
 Txirritxirria hor doa apal
 inurriaren etxera
 lotsak alde batera utziz
 jatekoa eskatzera.
 Ateak jota, neu naiz esanda,
 ematen du aditzera;
 deia entzunda urtetzen dio
 inurri finak atera.

6
 Negu luzean asko behar da
 jateko gure artean
 zuri emoten hasi ezkeron
 ez dugu nahiko etxean.
 Zu udan txir-txir ibili zara
 eta neguan eskean
 ea gugandik ikasten duzun
 zuk ere aurrerantzean.



Txirritxirria, fabulaz gain, umeen jolas bidea ere izaten da tertzio honetan. “Txirritxirri-topetan” orduak eta orduan ematen ziren eta harrapatze-ko metodo bat baino gehiago ere erabiltzen zen. Erabiliena, ziri-bedarrarena. Hartu ziri-bedar luze bat eta txirritxirriaren zuloan kiñatu atera arte. Baina sarritan txirritxirriak ez zuenez urten gura izaten, urez betetzen zitzaion zuloa eta ito baino lehen urten egin behar. Baina, ura aldean eramatea neketsua zenez, beharizana etorritz gero, txiza egiten zitzaion zulora eta kito.

Txirritxirrien inguruko jolasen ondoan, mailuki batzean ere ibiltzen ziren umeak. Batzuk banan-banan jaten zituzten, baina beste batzuk, ziri-bedar baten sartzen joan eta zirrikada osoa bete ondoren, denak batera jan alborik hara, musukitarra jotzen bezala.

Jolas bi hauen inguruan arriskuak ere agertzen ziren. Handiena, sugearena. Garai honetako beroekin sugeak neguko lozorrotik ateraten ziren eta kontu handiz ibili ezik sustoren bat edo beste ere igual.

Gure zaharren pentsakeran, muskerra ere bildurgarria zen eta musker bat zebilen lekutik sugea ere hurbil. Egoera hau ipuinetarano joan da. Hona hemen bat:

Sugea eta muskerra

Muskerra eta sugea beti zebiltzan euren trebituokin eta ez ziren bat be ondo konpontan, baina bietatik bat ikusi ezketino bestea ere ez zegoen askoz urrunago.

Sugea beti izan da maltzurra eta mantzina, baina muskerra ez ei da txarra eta zaharren esanetatik, gizakien laguna.

Behin batean, baserritar bat, soloan behar eta behar ibili eta gero, arbolape batera joan eta loak hartu zuen gerizpetako freskuratxoan.

Lo arrantzaka dagoela, aurpegi-tik eta, kirimillak egiten zizkion zeozerk eta musker mardokote batek ez zuen ba eragi gizon hori!

Gizon horrek lehenengotan ez zuen ez burlazar hartu, bene-benetan baino eta txorigorrika ahal ez dela be maldizinoka ez da hasten ba!



Muskerra gorde egin zitzaion han estarian eta bedartzarik bedartza topetan dabilela ez du ikusten ba endemoninozko suge bat ahoa zabalik eta ezpia aterata!

Uleak be arteztu egin zitzaizkion eta gerrikoan eskegita zeukan igitia hartu eta sasst! burua ebagi zion suge gorri gosebera horri eta berekitan esan ei zuen:

—Koño!, horregaitik musker horregaitik izan ez balitzok gorriak pasatuko nizkian, hori musker hori ona duk eta bake bakean itxita ere kontuak zeuzkat!

Beste baten ere, udaberri aldera, sugea eta muskerra biak burrukan zebiltzan seguru eta sugeak gehiago egiten zion, antza, baina muskerra kardulatz berde baten ostentan zitzaion eta sugeak ikusi ezin.

Hartara, egunen baten, konejuentzat kardutan joan omen zen etxagun edo propietarioren bat eta ez du ebagiten ba muskerra estalita zegoen kardua ere!

Muskerrak orduan saltu azkarriren bat egin ei zuen eta sugeak atzerikara segitu, aurberan okerrak dira izan ere horiek sugeok eta. Etxagun horrek fetxoria ikusi zuenean, jaurtin egin ei zion igitia, ahal den guztian, eta koño! jo zuen bai suge hori eta bertan tragatu.


Beste behin, musker harroren bat, sugea besteko luzaria lortzeko ekan-duaz edo, bere gorputzari tiraka eta tiraka hasi omen zen sugea bestean edo harroago ibilteko asmoz. Baina, ukondua hurbil egon arren, mosurik eman ezin zaionez, muskerra ere erdibitu egin zen eta tragatu.

Sugea mitoetaraino heldu da gure sineskera zaharretan. Sugoizenez esagun dugun pertsonaia mitiko hori aipatuz, hona hemen Baltzolako sugearen mito famatua:

Baltzolako suge deabrua

Negu aurretiko baten, urteko lehen edur-malutak barruntatuz batera, ardietara joan ziren Paulo eta Pello anaia biak.

Ardiak Baltzolako kobazuloaren ondoko landan zeuzkaten eta edurra loditu baino lehen etxera edo tejamanara ekarri nahi zituzten.



Han zebiltzan ardiok pilatu nahian, bateko txakurrari txistu egin, beste teko makila jaso edurrak mara-mara eragoion bitartean.

Ahalegin guztiak eginda be, dena zen alperrik. Edurrak, goian-behean, zarratu-zarratu ekiten zion eta santiamen baten zuritu zen dena, ardiak ibili ez egiteko moduan.

Ardiei hanka meheak edurtzan sartzen zitzaizkienean, euren artileak edur-bolaz jazten ziren pisuaren pisuaz ibili ezinik utziz.

Ardiok lehorreratu nahiaren ekina begien bistan zegoen, baina ezina bistarago. Horregatik Paulok ondobarrean badinotso Pello anaia gazteari:

—Hi, honekin edurtza honekin ezingo gaituk etxera joan, pentsatu be ez. Orduan, horraxa, Baltzolako kobazulora eramango dizkiagu ardiok hari eta lurmendu arte. Zer deritzok?

—Nik neuk ondo! —erantzun zion Pellok—. Nire gogoaldian, ez diat sekula honelako edurtzarik ezagutu. Hik bai?

—Hobe ez! Ni neu gerrirainoko edurtza be ezagututa negok, hi jaioberri hintzela. Orduan, basabehiak eta zaldiak sartu nizkian hortxe Baltzolako kobazulo horretan. Gaur ardiak egin beharko dizkiagu, osterantzean hotzak hilgo dizkik, gesu baten gautu egin behar dik eta.

Halaxe egin zuten. Aidatu ardiok eta denabarrean heldu ziren ardi eta guzti kobazulo haretara.

Behin kobazuloraz gero, ardiek euren artileak astindu zituzten edur-bolak botateko. Jarraian etzan eta hausnar hasi ziren haitz-zuloaren abaroan.

Paulok eta Pellok be euren soinekoei astinaldi bat emon eta gero, ezarri egin ziren kobazuloaren arratean.

Paulok sua isiotu zuen eta jateko apur bat atera bere zakutotik. Pellok ez zeukan soinekoa baino besterik eta esan zion:

—Hi, Paulo, zer dela eta ekarri duk hau guzti hau? Jakin egin duk ala gaur gaua hemen egin behar diagula?

—Jakin ez —erantzun zion Paulok irribarreka—, baina edurrarekin kontuz, edurra zuria dela beltza duk eta badaezpada zuhur ibiltealakorik

ez zegok. Nik neuk be aitagandik ikasita zeukat eta hik heuk be ikasiko duk nire adinera orduko.

Biak bietara, jan zuten Paulok eramandako jakia eta kontu kontetan zeuden noizbehinka sugarretan eskuak igurtziz.

Kandela bedeinkatu bat be biztu zuen Paulok. Honek beti eramaten zuen kandelario egunean bedeinkatutako kandela bedeinkatua aldean, behar zenean isiotuteko, sinesmen handikoa zen eta.

Loak noiz hartuko zeudela, Pellok suge handi bat ikusi zuen suaren ingurumaritik ardiatarantz.

Zutundu egin zen eta surtatik bertatik ilenti handi bat hartuz, ha suge ikaragarria hilten joan zen.

—Zertan hoa? —itandu zion Paulok.

—Suge endemoniño bat zegok hemen eta hil egin behar diat.

—Ez, Pello, ez ezak hil, hori be Jaungoikoak egina duk eta!

—Berdin zaidak, hil egin behar diat eta kito!

Esan eta egin! Pellok indar guztiaz bota zion ha ilentia sugea buruan joko zuelakotan, baina huts egin zuen eta buruan barik buztanean jo eta buztan punta kendu.

Sugea estaldu egin zitzaion koba barruan. Txori-gorri eta guztiak bota zizkion sugeari koba barruko iluntasunean, baina alperrik, sugearen gerizarik be ez.


Gaua igaro eta eguna zabaldu zenean, Paulok joan-etorri bat egin zuen inguruetatik eta esan zion Pellori:

—Hi, egun eguzkitsua agertu duk eta egurdartean ez bada, arrastirako lurmenak agertuko dituk eta joan ahal izango gaituk astiro-astiro etxera.

Halaxe gertatu zen. Arrastian, hartu ardiok eta gau iluntzerako bake-bakean zeuden etxean ardi bat esan eta bera be galdu barik.

Negu luzea be joan zen eta udaberria etorri zenean, Paulori guda batera joan beharra etorri zitzaion.

Urrun joan behar izan zuen, Luyandoko Malato arbola baino askoz urrunago. Borondatez kontra, baina joan egin behar.



Guda hori luzea izan eta luze egin zitzaion Paulori, baina halakoren baten akabatu zen gerra hori eta lizentziatzeko eguna ailegatu.

Gabon eguna zen. Eguerdi ostean lizentziatu zituzten gudariok. Poza eta algara ez zen falta, baina Paulok, begiak jaso eta, esan zion bere buruari:

—Ni negok ona! Gabon arrastia duk eta ez zeukat gaur etxera heltzeko modurik. Aurtengo Gabonak bidean egin beharko dizkiat. Baina tira, konformatu egingo nauk, gerra honetatik bizirik urten diat eta.

Hausnarketok eginda, etxerako bidea hartu zuen Paulok. Oinez zetorren bakar-bakarrik eta pentsakor.

Handik lasterrera gizon ezezagun bat hurreratu zitzaion Paulori eta era honetara berba egin zion:

—Zer burutazino darabilk buruan?

—Zein erabiliko diat ba, Gabon gaua etxean egin gurarena! —erantzun zion Paulok.

—Benetan be Gabon gaua heureekin egin nahi duk?

—Hik heuk be ez dakik zenbat baino gurago niakeen Gabon gaua neure etxekeekin egitea!

—Hori gura baduk, plantatu hadi apurrin nire neure lepoan eta nik neuk eramango haut airean! Baina, kontuz, kondizio batekin: hegaz goazela ez duk esango “arre deabrua” baino besterik, entzun didak?

Paulok ezin zuen ezer ulertu, baina, alde batetik etxera-gogo handia zuenez eta bestetik hari gizon bereziari ezetz esaten ausartzen ez zenez, badinotso:

—Ondo zegok, joango nauk. Baina ba al dakik hik ni nongoa naizen?

—Jakingo ez diat ba! Gogoratzen al duk, behinola, hi eta hire anaia nola egon zineten Baltzolako kobazuloan gaua egiten edurtza handi batekin eta zelan ibili zuan hire anaia Pello ha sugea hil guran?

—Bai!, gogoratuko ez nauk ba!

—Ba ikus ezak nire eskua, atzamar txikia falta diat. Hauxe duk hire anaiak ilentiarekin kendutako buztan punta. Oraindino hire anaiarenganako berbak ondo gogoan dizkiat: “bakean uzteko sugea be Jaungoikoak

egina dela eta”; horregatik zorrean negok eta eramango haut Baltzolako kobaraino.

Esan eta egin! Deabruak apurrin hartu zuen Paulo eta honek “arre deabrua” esanaz batera airean zeuden.

Gabon egun horretako iluntze aurretxoan heldu ziren Baltzolako kobazuloaren arratera. Paulo guztiz zorabioturik zegoen eta bere konortera etorri zenean ezin zuen sinistu be egin Baltzolan zegoenik.

Deabruak Paulori zion zorra hobeto bete guran edo, hauek berbok esaten hasi zitzaion:

—Hi, Paulo, hator kobazulora barrura, hor barruan zeozer zeukat bai hiretzako eta bai hire anaia Pellorentzat.

Joan ziren biak barrura eta han kobaren sakon-sakonean artza bat bete urregorri zeukan deabruak gordeta. Horretara badinotso:

—Eutsoz, har itzak artza eta bertako urregorri guztiak ondo eginaren pagurako. Ostera, hire anaia Pellori eraman iezaioz hau gerriko gorri hau eta esan iezaioz oraingoz libratu egin dela. Hi izan haizen kasuan Pello izan balitzok, harenak egin zian!

Ikusiak eta entzunak entzun ondoren, Paulok hartu deabruak emandakook eta abemarietarako bere etxea jo zuen.

Ateak jo, etxean sartu eta bizitako guztia kontatu zien etxekoei. Haiek harrituta zeuden, baina pozik.


Denak lasaitu zirenean, Paulok Pellori esku bata lepora bota eta besteetan gerriko gorria zeukala esan zion:

—Hi, Pello, hau gerriko hau heuret zat eman zidak deabruak!

—Nik zertarako behar diat ba gerrikoa? —erantzun zion Pellok—, lotu iezaioz etxe aurreko intxaurrari!

Halaxe egin zuen Paulok. Baina gerrikoa intxaurrari lotuz batera, zzzzziiiiisssstttt!!, sustrai eta guzti desagertu zen ha intxaur hondoa lainoetan galduz.

Denak ikaratu ziren eta badaezpada, haiek urregorriak be, etxerako utzi beharrean, abadeari eramatea pentsatu zuten. Eta esaten da, haiek urregorri guztiak San Pedro parrokiako urteroko Gabon gaueko meza ordaintzeko erabili zirela.



MAIATZA, LOREAK ETA ERLEAK

Maiatza, lorail izenez ere ezagutzen da Bizkaian, eta lore munduarekin inork eukitekotan erleak dauka protagonismoa.

Erlea eta gizakia beti egon dira alkarren ondoan, alde batetik, ezta izan delako beti-betiko gozoki naturala eta, bestetik, abai geometrikoetako materialatik argizaria atera delako historian zeharko beharrizanetarako.

Erlearen inguruan esaera zahar asko gorde da. Hona hemen batzuk, besteak beste: “erle anitz, ezti anitz”; “erle joanak ezirik ez”; “erlea lanean, lilia denean”; “erleak ezta eta ezpia”; “erleak jabe bakarra”; “ez dago ezirik gibel-min gaberik”; “eztiaren ingurutik euliak”; “ezta eta olio, osasun eta zorion”...

Erlauntza, lehenago, etxe edota inguruan kokatzen zen eta gehienetan gaztaina-enbor harroetan. Denboraren joanean aldatuz joan da kokagune eta abarren mundua.

Erlearen garrantzia norainokoa zen jakiteko, ikus zer gertatzen zen etxeko nagusia hiltzen zenean. Mundu honetan hazitarako inor jaio ez garenez, etxeko nagusia hil bezain laster, alarguna edota etxaguntzarako semea erlauntzara joaten ziren erleari parte ematen. Joaneko eran, hiru golpe ematen ziren erlatokiaren gainean eta gero berbok esan:

*“Erletxuok, erletxuok,
egin argizaria
nagusia hil da eta
behar da eleizan argia”.*

Lehentxoagoko esaera baten esan dugun bezala, “erleak jabe bakarra” eskatzen du eta jabetasun hori ondo baino ere hobeto zaintzen da. Erlategian erregina berri bat agertzen denean erdibitu egiten dira, eta bata betiko erlatokian geratzen bada, besteak alde egin behar du.

Alde egite horretan, ugazaba erne egoten da eta, erlaumea nonbaiten kokatuta ikusten duenean, erlategi huts batera eramaten du erle-familia ugarituz.

Inoiz, otop otop joan eta erlaumaren bat aurkituz gero zuhaitz baten pilatuta, gauza bi egiten ziren: jakinez gero, ugazabari parte eman edota, jaberik izan ezik, zerbaitekin kurutze bat egin zuhaitz enborrean eta jabetasuna norberak hartu. Besteren batek, geroago joan eta erlauma hori ikusiz gero, hauxe esaten zuen: “Horrek, bere jabea du”.

Ohitura eta esaeretan ezeze, ipuin edota esaundetan ere oinarritu da erleen mundua eta bat edo beste aipatu egingo ditugu:

Erlea, enara eta arranoa

Behinola, arranoak, hegazti guztiak tokian tokira bidali zituenean bakoitzak bere mendia hartzeko, maiztz goienean erlea eta erlai edo enarari dei egin zien esanaz:

—Erlea, lorerik lore zabiltzan horrek, inork baino hobeto dakizu gozoa non dagoen. Baina ni hegazti guztion erregea naizenez, eskubide osoa daukat odolik gozoena daukan animalia jateko. Horregatik, zoaz mundurik aramaio enara lagun duzula eta esan iezadazu nork daukan nire gozamenerako odol hori.

Joan ziren biak eta erleak animalia guztien odola probatu zuenean esan zion enarari:

—Gizakiarena da odolik gozoena.

—Zer diostazu?

—Ba, bai, gizaki osasuntsuaren odolalakorik ez dago munduan.

Enara pozteaz gain ikaratu egin zen eta kanpandorrearen punta-puntara hegaz egin, lau haizeetara begiratu eta badiotso bere buruari:

—Zer gertatuko den baino ez da orain, erleak berri hau arranoari ematen badio. Arranoak pikuka jango ditu gizakiak eta mundua akabo!

Berebiziko hausnarketa hori egin bezain laster, bota beste hegazkada bat eta larrosa gainean zegoen bere lagun erleari mihia atera zion pikokazo batez barbarik egin ez egiteko moduan utziaz.

Hala eta guztiz ere, erlea, zer gertatuan ere, itzuli egin zen arranoa-gana eta enara ere atzerik hara badaezpada.


Arranoaren aurrera heldu zirenean, arranoari berari utzi zioten hitza eta:

—Zer diostazu ba erlea? Norena da odolik gozoena?

—bizzz...bizzz...bizzz... —berbaikunaz erantzun zion erleak.

—Orduan, odolik gozoena sugearena dela diostazu?

—bizzz...bizzz...bizzz... —berriro ere erleak.



Harrezkero, arranoak sugeak jaten ditu eta enara eta gizakia geroago eta lagunago.

Erlea eta arranoa

Urte batean, akordatzakoan, maiatzean edurra egiteari eman zion eta mendietan jakirik ez edota, arranoa baserri batera hurbildu zen eta erleak ikusi zutenean, denak batera gainetu zitzaizkion eta hango erle-erreginak esan omen zion:

—Hi, harako urli denporetan eginekoa eginda zelan atomatu haiz gurera etorten?

—Goseak eraginda hartu diat erabaki hau. Goseak-hilik nagok eta zuen parkamena lortzeko autortu egingo dizuet baso-erlauntza harekin gertaturikoa.

—Kontatu, kontatu, bestela hireak egin dik.

—Ba, aitu. Behin baten, txibizkeria baten ondorioz, gaztaina-harro baten kokatuta zegoen erlauntza batera hurreratu nintzen ezti apur bat jateko asmoz. Hurreratuz batera erle guztiak egin zuten alde eta dranga-dranga bete-bete egin nuen ezti z nire birapoa.

»Erleak haserre zeuden, baina nor ausartu niri eser egiten? Egia esateko bildur apur bat banuen, izan ere, alde batetik baserritarrena, banekielako baso-erlauntza baten enborrean ezaugarriren bat egonez gero, jaubeduna zela, eta hark bazuen, eta beste alde batetik, erle guztiak denak batera kontra etorte bat izan balitz ez dakit nola libratuko nintzen eta badaezpada ondoko arbola baten puntara jo nuen.

»Eztiaren gozoa gozatzen nengoela, erlauntza barrutik gedar egin zidan eta gogor gainera, erle-erreginak. Nik, ordea, ez nion kasurik bat ere egin eta eztiaren gozotasunean loak hartu ninduen.

»Lo gozoan nengoela erle-erregina hurreratu egin zitzaidan, baina ez hegaz, oinez baino, zein bere hegazkada zaratatsuak ni itzartu.

»Hurreratu bakarrik ez, halako baten nire erpa bateko barruko mami-tik ezpia ez zidan ba sartu eta min egin!

»Grrrraaaa! esanda esnatu nintzenean, erpa-mamian ezpia sartuta nuen erle-erregina ha birrindu egin nuen, ausartia halakoa. Gero, jakina,

erle-erregina birrintzean, erlauntza guztia alperrik galdu zen. Berriro ez dut egingo horrelako erasorik, behar dudanean eskatu baino.

San Isidroak maiatzean

Maiatzaren erdi-erdian, Eleizak zaindari bat jarri zuen: Isidro nekazaria. Jai handia eta zabala. Egun horretako eleizkizunari garrantzia eman nahian edo hauxe ipuin hau kontatzen da:

Maiatzaren erdiko egun batean, nekazari bat omen zebilen soloa lantzen bere itaurreko, idi-buztarri eta goldearekin. Eguerdiko hamabihamabietan, eleizako kanpaiak entzutean, angelus errezatu, utzi bertan behera ganaduok eta Isidro Deunaren meza ospakizunera joan zen itaurreko andrearekin batera.

Meza ostean, solora itzuli zenean, ene! Zer? eta mirakulua; goldatzeko falta zen solo arloa, dena labratuta. Nork? eta Isidro Deunak, nork ba ordea?


NAFARROAKO ORREAGAKO JAIA

Maiatzaren hogeita batean, Nafarroako Orreagan ere ospatzen zen eta egiten da "Orreagako Andra Mari" jaia.

Jai handia zen eta beharbada horrexegatik Karlomagnoaren laguntzaile izan zen Erroldanek harri handi bat hartu eta eleiza apurtu egin nahi omen zuen. Nola? Begira:

Urroz-eko harritzarra

Behin baten, Andra Mariaren egun berean, eleiza beterik beterik zegoela, Erroldan erraldoiak Orreaga inguruko mendirik altuenera igo, hartu hantxe harri handi bat eta eleiza gainera botateko plantatu zen. Baina mantzinkerietan dabilenari sarritan gertatzen zaionez, Erroldan indartsu hori ha harritzarra jaurtitzeko zegoela, manda-gorotza zapaldu eta laprast egitean, harri eta guzti amildu omen zen kikiri-bueltaka mendian behera, eta esaten da han dagoela oraindino ha harritzarra Urroz aldean.



Ata Aralar hegiko harritzarra

Beste behin, Erroldan erraldoiak Aralar mendiko Migel Deunaren eleiza gaineko mendirik hara bota nahi zuen harritzar bat Madoz herriko eleiza eta inguruetakoa arerioak gauzeztantzeko. Igo mendi punta horretara, hartu harri hori eta botaten joan zenean, soinekoak katigatu eta ezin izan omen zuen Madoz herriraino bota, eta Aralar mendi inguruko Ata izeneko hegian erori eta tinkatu zen. Harritzar horrek marka batzuk omen ditu eta zaharren ustez, Erroldanen hatz-markak omen dira. Harrezkero, harri horri “Errolan-arriya” deitu zaio eta askok menhertzat edo eta funeraria estatuatzat hartu gizaki itxura duelako harri horrek.

Errolan leizea

Beste baten, Erroldan erraldoiak Aralar mendiko Migel Deunaren eleiza birrindu egin nahi omen zuen. Horretarako, hartu harritzar bat, kokatu uhalezko habaila edo honda baten eta botaten hasi zenean, krask! habailaren uhalezko kordela apurtu eta ezin izan zuen Leizaranetik Aralarreko eleizaraino bota. Harri hori kobazulo baten aho-ahora joan zen, Belarzinketa aldean, Leizako Aritz mendian dagoen haitzulora. Harrezkero, “Errolanleizea” deitzen zaio leize horri. Harritzar horretan ere Erroldanen habailaren arrastoak omen daude.

“Erraldoi” hitzaren jatorria

Gaurko “erraldoi” hitza ere hortixek datorkigu. Guk, euskaldunok, zortzigarren mendean, 778. urtean, Karlomagno, bere laguntzaile indartsu Erroldan eta gainetikoei irabazi egin genien Orreagan. Harrezkero, Erroldan indartsua mito bihurtu zen eta apurka-apurka jatorrizko hitza bera ere eboluzionatzen joan. “Roldan”-en jatorrizko izen latinoa “Rotolánus” zen. Gero erromantzeetara “Rodoláno / Rodoláne” bezala etorri arren “Rod (o)lán(e) > Rodlán > Roldán, azken pausu hau metetesi bidez. Orreaga eta inguruko euskaldunek “Erroldáne” bezala hartu zuten hitz mailegu hau eta gero “Errolda(n)e > “Erroldai” > “Erraldoi”, bokale itxidura eta metatesi eta guzti.

Azkenean, pertsona izena barik, “indartsua eta jigantea” adierazteko erabiltzen dugu gaurko euskeraren eremu zabalean.

San Virilaren ipuin-esaunda

Orreaga eta inguruetan VIII. mendean monasteri edo zenobioak indar-
 tzen hasi ziren, eta euren artean, Leirekoa.

Monasterio honen hasierako gauza gutxi dakigu, gerora eraginkorra
 izan zela jakin arren.

Jarraian aipatuko dugun ipuin hau, lehenengotarikoa da, VIII. mendekoa.
 Zortzigarren mendearen erdirantz izan zen antza. Leireko abate izan
 omen zen Virila, komentu gaineko iturrirantz joan zen haronako bat
 egiten.

Aspalditxotik omen zebilen bere burua hausten beste bizitzako eterni-
 tatean ez ote zen aspertuko zeruko bizitza pozgarriarekin.

Joanean-joanean iturri batera heldu zen eta goroztipe baten ezarri.


Bere buruhausteari eragoiola, txori bat hasi zitzaion txirripitxioka.
 Pozik baino ere pozago zegoen txoriaren kantu alai entzuten eta kontu-
 ratu gabe “gautu” egin zitzaion eta esan zion berekautan bere buruari:

—Ene, zer arin joan zait arrastia, banoa komentura berandu egin
 baino lehen!

Arrastia pentsatu zuen Virila abateak, baina hiru mende pasatu omen
 zitzaizkion txoria entzuten eta ez omen zen ezertaz enteratu ere egin.
 Hiru mendeotan, hainbat gauza gertatu zen, besteak beste, kristau eta
 mairuen arteko gudak, kristauen euren arteko eztabaidak, komentuko
 bertako hamalau agintaritzako barruko zein kanpoko aldaketak eta
 abar luze bat. Argibide bezala, arlandu baten agertu zen txori bat aba-
 tearen makila gainean.

Joan ere joan zen komenturantz gure Virila, baina galduta legez ibili
 zen bidezidorrik bidezidor eta kanpai-hotsagatik izan ez balitz heldu
 ere ez zen egingo beresi haretatik.

Leireko komentura heldu zenean, dena aurkitu zuen aldatuta. Hobe ez!
 Komentua askoz handiagoa zen, antzinako zumar eta haritzen ordez,



beste arbola batzuk zeuden landatuta; leihoen ordez, kristalezko bentanak eta abar luze bat.

Halako baten, burdinazko ate zahar bat aurkitu zuen eta durdituta ateak jo zituen:

—Nor zaitugu? —esan zion atezainak— aurrera egiteko esanaz.

—Nor nauzuen? Nor izango naiz ba, Virila, zeuon abatea!

—Zein Virila? Hemen ez daukagu Virila izeneko abaterik.

—Zelako ezetz, ni neu naiz eta, arrasti erdian hortik iturritik haronako bat egiten joan naizena.

Atezainak ez zuen ezer ulertzen eta abate nagusiari deitu zion eta apurka-apurka beste kide guztiak ere hurbildu ziren Virila misterio-tsuaeren ingurumarira.

Abateak Virila agurtu, beste guztiei ezartzeko agindu eta esan zion:

—Aita Virila, janzkunatik benediktinoa dirudizu, baina hemen ez zaitugu inork ezagutzen, nondik agertu zaren baino ez da?

Abateak komentuko erregistro eta artxibo liburuak ekarteko agindu zuen eta begiratzen hasi atzekoz aurrera.

Zortzigarren mendearen erdiko zerrendara heldu zenean, ene!, han zegoen Virila izena eta bere aldamenean “post data” bat, hauxe: “Virila abatea, iturrira joan zen eta ez zen gehiago agertu”.

—Neu nauzue hori! —esan zion Virilak oraingo abateari—, baina nola izan daiteke hainbeste denbora, nire ustez arrasti erdi bat baino ez da izan eta!

Virila abate zaharrari begiak zabaldu zitzaizkion eta orduxean ulertu zuen bere buruhaustearena eta esan omen zuen berekautan:

—“Hiru mende arrasti erdiztat hartu badut eta txoriaren abestiek aspertu ez banaute, zeruetako eternitateko gozamenen ere ez naiz aspertuko!”.

Denak ikaratu ziren entzundakoaz eta abateak, hantxe bertan, eleizakokak eta azken igortza eman zizkion eta Virilaren arima zeruan sartu zen.

Egia izan zela nahiz ez zela, gaur ere hantxe dago San Virilaren iturria Leireko monasteriaren gainekaldean.

ARABAKO OROKO JAIA

Bizkaia aldera begira dagoen Arabako Oroko Andra Mariaren jaiak, maiatzaren 23an ospatzen da.

Ospakizun honetara inguru-herrietako hainbat erromes hurreratzen izan da.

Bizkaia aldetik ere joaten zen jendea, batez ere Orozko eta Arratiatik.

Arratiarra kontatzekoa da. Gaberdi inguruan urten etxetik eta lehenengo Gorbeiaiko gurutzera igoten zen; goizeko seirak ingururako. Gurutzean barausi eta Oro-ra hamarretakoa egiteko tertziarako.

Oroko Andra Mariaren eleizara heldu eta atoan, sartu eleizara eta Amabirjinaren andetako muturretan moko-zapi garbia ipinten zen moropil bat emanda. Lehenengo lau zapiak jartzen zituztenak joaten ziren andari Andra Maria sorbaldan dela meza nagusi osteko prozesinoan. Eguerdian maleta-sikua jan, gero erromeria apur bat egin eta bakoitza norbere etxera, oinez, jakina.


NORA ZANGOZAKO ANDRA MARIAREN JAIA: ALMADIAK

Maiatzaren hogeita hamarrean ospatzen dira almadiazainen patrona den Amabirjinaren jaiak.

Almadiak garrantzitsuak izan dira Zaraitzu, Erronkari, Anso, Hecho eta inguruetan. Pinu edo izei material-egurra behetara garraiatzeko, Zaraitzu, Ezka eta Berari ibaiak erabilten ziren lehenengo, gero Aragon eta Ebrotik Zaragoza edo Tortosaraino heltzeko.

Horretarako, zuhaitz enbor prestatuak, hurritezko estukin bihurtu edo itsutaz lotu egiten ziren muturretatik. Gero arraun bat aurrean eta beste bat atzean jarriz, errekan behera ekarten ziren almadiazain prestuak gidari zirela. Ibaien desnibelak konporta bidez eratzen zituzten eta bidean errota-
ren bat egonez gero, erranpa berezi bidez libratzen zuten enbarazua. Artistak ziren, benetan.

Behin Zangozaraz gero, almadia bakoitzeko honenbesteko zerga bat ordaindu behar izaten zuten. Zangoza, almadiazainen fielato bihurtu zen. Aurrerapideak agertu ahala, galduz joan da almadien garraioa.



Ikusi denez, kristauaroan, maiatza Amabirjinarekin oso lotuta egon da eta horrexegatik, Eleizeak, maiatz-lore ospakizunak sortu zituen maiatz guztirako. Lorea ekintza onaren sinbolo bihurtu zen.

Gaur egun, mundu laikorantz goaz baina gure aitite-amamak ondo gogoan izango dituzte koplak hauek:

“Maiatzak hamairu
udabarria
zerutik jaitsi da
Andra Maria”.

“Goazen, goazen guztiok
Birjina amagana
eskeintzera bihotzez
loretxo eder bana”.

Maiatzeko esaerak

- *Maiatz iluna eta bagil argia, urte guztiko ogia.*
- *Maiatz lorea, udako florea.*
- *Maiatz hotz, ez gari ez ahotz.*
- *Etorriko da maiatza, jango duguna lebatza.*
- *Maiatza, urte guztiaren ardatza.*

Ekaina

Hilabete honen 21ean, udako solstizioan sartzen gara, baina horrar-
teko egunak betetzeko kristautasunaz gero, Eleizeak jai handi eta ospetsu
batzuk antolatu zituen kultorako.

ASENTSIO, PENTEKOSTES, HIRUTASUN DEUNA ETA KORPUS

Bazko eguna ardatz hartuta, Bazko aurrean egin zuen bezala, Bazko
ostean ere ospakizun handiak antolatu zituen garai batean Eleiza Katolikoak,
eta egutegira joaz, aurrerago edo atzerago, maiatzaren azkenean edo eta ekai-
nean ospatzen dira jaiok. Ospakizun aldakorrok ekainean sartuko ditugu,
gainetikoak euren egun berean gogoratuz.

Jai mugikor nagusienok lau dira, eta Eleizaren egutegi kronologikoan
honela datoz: Asentsio, Pentekostes, Hirutasun Deuna eta Korpus Kristi.

Jai nagusiok aprobe txatuz, gure herrietan hainbat lehenengo jaunartze
eta ezkontza egiten izan da eta egiten da gaur ere.

Asentzio eguna Bazko egunetik berrogeigarrenera ospatzen da. Baz-
koatik zazpigarren domekan. Gogoratu, garizuma ere Erramu egunetik berrogei
egun aurrerago hasten dela. Berrogeiren kontua aspalditik datorkigu. Exo-
doan berrogei urte eman omen zituzten Egiptotik gaurko Israelera joaten.


Pentekostes egunean Espiritu Santuaren etorrera ospatzen du Eleizeak.
Sinesmendunentzat jai garrantzitsua. Sinbolo mailan, su-argia eta uso zuria
erabiltzen da. Latineko abesti eder batean jasotzen da ospakizun hau: “Veni
creator spiritus, mentes tuorum visita...”.

Hirutasun Deuna misterio bezala ezagutu dugu eta ezin daiteke ulertu
sinesmen osoz izan ezik.

Ulertze hau dela eta, ipuin famatu bat kontatzen da. Agustin Deuna-
rena dela esaten da, baina ez dago argi. Dena dela, hauxe da istorioa.

Hirutasun Deunaren misterioa ulertu ezinean

*Kristauaroaren hasieretan, eleizgizonen bat omen zebilen batetik bes-
tera hondartza batean Hirutasun Deunaren misterioa ulertu nahi eta
ezinean.*



Pentsatuago eta nahastuago zebilen garaunak lokatu beharrean bere buruari galdera hauek egiten zizkion bitartean:

—Baina, nola izan daiteke Jaungoiko bakarra eta bakar horrek hiru pertsona: Aita, Semea eta Espiritu Santua?

Eleizgizon horrek sinestu egiten zuen baina ulertu ez. Eta halako hondartzako haronako batean, ustekabean, umetxo bat aurkitu zuen zertan hartan. Joan-etorri guztietan begiratzen zion ea zertan zeragoion jakiteko. Baina umetxoarena ere ezin zuen ulertu eta arteak hartu ezinik badiotso:

—Hi, umetxo, zertan habil?

—Ba, hara, ikusten du berorrek hor arean txatxamarka egin dudan zuloa?

—Bai, ikusiko ez diat ba?

—Ba, aitu, orain hor zulo horretan itsasoko ur guztia sartzeko asmoa dut, esku biak bete ur dakart haronako bakoitzean eta.

—Je, je je, umetxo, nola sartuko duk hor zulotxoan itsasoko ur guztia? Ezelan ere ezin duk hori egin, atomatu ere egitea hori beharleku hori hartzen?

—Ba, hara, nor den beist berori, itsasoko ura nik egineko zulotxoan sartzea errazagoa da berorrek ulertu nahi duen Hirutasun Deunaren misterioa ulertzea baino.

Berbok entzunarekin batera desagertu egin omen zen ha umetxoa eta ezin izan zion egin galdera gehiago. Aingeru bat izan zela kontatzen da.

Korpus Kristi eguna izan da beharbada jaunartzea egiteko egunik egokiena, sinesmendunarentzat jaunartzean sinbolizatzen delako Korpus Kristiren edukia.

Egun honetan eleizportikuetatik prozesinoak egiten ziren. Garai hau eguzkitsu eta beroa izaten denez, izerdi-kiratsa beste ezer baino gehiago igartzten da eta horregatik, prozesioak egin baino lehen, “korpuzbedarrak” botaten dira eleizportikuan, gero zapaldukeran usain gozoa zabaltzeko eleiztarraren artean.

Ekainean, natura haziz eta helduz dator. Garia buru, artoa artajorraren zain, frutalak loretik garaura bidean, animaliak ugaltzen, berba baten esanda, bizitza emankortasunean.

Oso garrantzitsua da nekazariarentzat hau garai hau eta horrexegatik egoten dira eguraldiari begira. Baina batzuetan eguraldiak okertu egiten dira eta natura arriskuan jarri. Kristauaroa etorri zenean, eguraldi arriskutsuen aurrean eleizarik harako errogatiba, bedeinkazio eta otoitzak egiteko ohitura zabaldu zen. Ekintza horien inguruan ipuin edota esaundak ere gorde ditugure herri zaharrak. Aikomenzan pare bat:

A *abadea udaberriko soloak bedeinkatzen*

Behin baten izan zen abade bat eta ibili zebilen uda aurretxoan herriko garitza, artotza eta abarrak ikusten. Urte horretan, artotzak ernaro ederrean zeuden eta galondoak inoiz ez lakoak. Abade hori sotanak ere ez zuen hartzen pozaren pozez eta eleiz erropak soinean dituela han eragoion solook bedeinkatu eta solook bedeinkatu zein behar ez denaren bat sugertatu eta dena alperrik galdu.

Eta, halangoren baten agertu egin zitzaion gizon bat. Deabrua zen gizonaren feturan, forma edo itxuran. Ondora hurbildu eta tentazar hasi zitzaion abadeari esanaz:

—Zelango kanpo ederrak dauzkazuen ezta herri honetan?

—Bai, benetan ederrak! —erantzun zion abadeak—. Hobeak ere inoiz euki ditugu, baina tira ez daukagu kexarik.


—Nik baditut ba zaldiak hauek kanpoak behingoan apurtuko dituztenak!

—Eta bai?

—Ba, bai!

—Ba nik neuk ere baditut hede zail eta luzangak horiek zure zaldi madarikatuok lotutekoak!

Eta, bueno, holan ibili zitzaizkigun berbaz biak bietara eta lehen esanari gutxi eritzita edo, non diotson berriro hak deabru mantzinak abadeari:



—Ba, gaur gauera orduko hauek kanpoak ezerbezean, gauzentandurik utziko dizkizut horiekin nire neure zaldi gorriokin, lotsari eta bajeza gorrian iminiko zaituztet, ikusiko duzue! Inoiz ez lakoak bizi beharko dizkidazue zeuk eta zeure herritarrok!

Eta joan zen ha gizon ha eta abadea izerdi larria dariola geratu zitzai-gun bere buruari ziotsola:

—Zerk izan behar ote du hemen? Nor izan den baino ez duk hau berbaz euki dudan elementu parte txarreko hau!

Eta, halangoren baten abade hori apur bat konortera etorri zenean etxera joan zen gose bako bazkari antzerako bat egiten. Bazkaldu eta estukurak jota ezin zuen ohizko bekanekoa ere bota eta balkoian plantatu zen zerura adi. Eguna argia zen izan ere eta arrastirantz laino batzuk agertu ziren, hodei laino batzuk Aibelabeko haitz gainetik. Abadea estututen hasi zen eta abadetxeak ere ez zuen hartzen batera besterako sotana magal-hots eta guzti.

—Jagoten egon behar dut ba —zioen abadeak— ia zer datorrigun ikusi arteraino! Jainkoarren, ez dadila izan harri, txirgora, abazuza edo gauza txarren bat, holan bada argiak gaude aurten!

Eta bazetorren etorri ere kargetan-kargetan denporala txarra, afruntua, akordatzako ekaitza eta hodei dorreak alde guztietatik denak bat egin guran.

Eta ba herriko jendea ere sano estututa paratu zen zerk pasatu behar ote duen pentsetan!

Inizituak eta trumoiotsak inoiz ez lakoak ziren izan ere eta herri guztia zegoen bildursartu eginda.

Abadea hasi ere egin zen bere brebiario edo otoitz liburu hori atera eta errezuak egiten abadetxeko atakatik.

Euki ere bazeukan ortu bat abade horrek eta halangoren baten ikusi zuen orduan jausi egin behar duela ur-golpe handiren batek eta berekitan eragoion: “ekaitz hau jaustekoa bada, jausi dadila nire neure ortuko barrikara barrura! Hantxe zeukan euki ere abadeak sagardo upel handi bat itoxureko urerako, eta haraxe!

Eta hasi zen jausten harria eta gainetiko guztia, ganoso jausi ere. Zeruak lurrera etorri behar zuela zirudien, baina mirakulua edo nik ez dakit zer, nora? eta ez da ba ekaitz osoa abadearen barrika horretara jausten!

Herrikoek ezin zuten ia sinestu ere egin. Abadeak ere ez zekien iratzarrik ala ametsetan zegoen. Gauza da ze, horretan urte horretan inoizkorik eta kosetzarik handiena ezagutu zutela herrian abadearen errezuei esker.

Hodei lainoa eta abadea

Udabarri goieneko egun sargori baten hodei lainoak zetozten Untzeta-beko menditik, eta egurdarteko goiz beranduan, dena ilundu zen itxura bildurgarria hartuz zeru guztiak.

Orduko denporetan, oraintsuago ere bai, leku batzuetan, hodeia bedeinkatuteko ohitura zegoen eurite edo ekaitzak afrontuarekin jo eta kalterik egin ez egiteko soloetan ereitzak gauzeztanduz.

Orozkoko Olarteko abadeak, ha ilundea ikusi zuenean, deitu sakristauari, joan eleizara, jantzi erropak, hartu otoitz liburua eta isopoa, eta eleizportalean plantatu zen bedeinkazioa botateko asmoz.

Hasi zen otoitzok egiten, baina sakristaua arteak hartu ezinik zegoen prakagorri edo parte txarrekoak ikusten zituelako hodei artetik eta jakina, abadearen estolari oratuten zion bildurraren bildurrez tipirrika.

Abadeak ezin zion barbarik esan errezu-errezuan zegoelako, baina hain ikusten zuen estu eta larri sakristaua, errezzuetan zegoela, bota gora-goraka ezkerreko hanka eta zapata jaurtin zion hodeiari, eta zer? eta hodei lainoa erdibitu egin omen zen bitargi handi bat logratuz.

Halantxe lortu zuen hark abadeak eurite edo jausterik ez sufritzea eta dena lasaitu zenean badinotso sakristauari:

—Gehiago kostatu zait zu zeu defenditzea zeinda hodeia erdibitzea!

Urtekarrenean ere kontetan da ha abadeak jaurtineko zapata, Olartetik Gorbeiarantz bost kilometro ingurura dagoen Austingarbiraino heldu zela, hantxe topatu ei zuelako mandazain batek.



URKIOLAKO ANTONIO DEUNA

Ekainaren erdirantz, 13an, hain zuzen, Bizkaia aldean, Urkiolako erromeriak ospatzen dira. Santuario honek historia handia dauka. Antonio Deunak dira bertako patroï biak: ekainaren 13an Paduako Antonio Deuna eta urtarrilaren 17an Abad Antonio Deuna.

Bietan egiten dira jai handiak pertsona gaixo, osasuntsu zein animalia eta gainetikoak bedeinkatuz.

Urtean zehar ere errogatiba, gogojardun, bederatziiurren, triduo, erro-sario, promesa-betetze eta abarrak egiteko ohitura egon da eta badago.

Neguko Antonio Deuna baino ekainekoa egokiagoa da erromeria nagusia egiteko, eguraldiak laguntzen duelako.

Bizkaia, Araba eta Gipuzkoatik joaten dira erromesak. Antzina oinez, zalpurdiz, idi-buztarriz eta abar, gaur autoz ere bai oinezkoekin batera. Batzuk, osasun bila; beste batzuk, senar edo emaztegai topetan; eta gehienak erromeria eguna ospatzera lagun zen senide artean. Kantu-kopla ugari ere atera dira jai honen inguruan. Hona hemen bat edo beste:

*Aita San Antonio
Urkiolakoa
askoren bihotzeko
santu debotoa.*

*Askok egiten deutso
San Antoniari
egun batean joan
bestean etorri.*

Urkiola paraje zoragarria da, pago eta urkiz betea. Batera begiratzu gero, Anboto, bestera Gorbeia, berba baten esanda, lurreko paraisoa.

Gazteriak eta gainetikoetan ahal duenak joakera handia izan du Urkiolara, eta kilometro eta kilometroetako bideak egin arren, denak pozik Urkiolako eleizkizun eta erromeriara, gero iluntzean berriro etxera bueltatzeko abemariak jo aurretik, jakina.



Erromeria honen helburuetariko bat santuari senargai edo emaztegaia eskatzea zen eta ez dakigu ba santuak ala bideetako kilometro eta abarrek ez ote zuten laguntzen horretarako.

Bestera ere gertatzen zen baten baino gehiagotan. Ezkongai-harremanak apurtu ere egiten ziren, eta orduan galtzaileak bertsopaperetan kontatzen zuen berari gertatutakoa eta Urkiolako erromerian edota antzerakoetan saldu bertsopaperok bengantza bezala edo.

Sinesmen munduan, garrantzia handia izan du Urkiolak eta kristau aurreko zein osteko sineskerak mito edo eta esaundetara ere heldu dira. Batzuk aipatzealakorik ez dago:

Mari Anbotokoa eta abadegaia Urkiolan

Otxandio herriko Olaeta auzoan abadegai bat bizi zen. Aspalditik zegoen abade sartuta eta laster meza berria emateko zen.

Egun baten, Urkiola gainetik zehar, Polpol iturrian ur trago bat egin eta Anbotorantz zihoan.

Anbotora heldu eta Mari Anbotokoaren kuebara sartu baino lehen, sotana gainetik estola imini zuen.

Sartu zen barrura eta hantxe bertan aurkitu zuen Anbotoko Señorea goruetan, lino-firua egiten. Abadegaiak ura eskatu zion esanez:

—Egarriak tximeltan nago eta ur apur bat emango didazu?


—Hobe ez! —erantzun zion Mari Anbotokoak—. Eutsi eta edan emendatu arte!

Ha abadegaia ikaratu egin zen ura uregorrizko basuan atera zionean, baina halan eta guztiz be edan egin zuen. Edan bai, baina ez “Jesus” esan barik, ohitura zen lez.

Urregorrizko basuko ura bedeinkatu egin zuela konturatu zenean, badinotso Anbotoko Señoreak:

—Urten ezazu atoan hemendik kanpora!

—Zer ba? —erantzun zion abadegaiak.



—Zuk bedeinkatu egin duzu basu-ura! Edan ezazu hori ur hori eta zoaz hortik zehar urregorritzko ur-basu eta guzti!

Abadegaiak bildursartu eginda urten zuen kobatik, baina atzerantz badaezpada, zein koban barruan kondematuta geratu betiko!

Promesa betetzera Urkiolara

Lehenago, gaur baino Urkiolara joakera handiagoa zegoen eta gaur baino modu gutxiagorekin, oinez denok.

Egun baten, dimoztar bat joan zen promesa bat betatuten Urkiolara. Hortik, Oba-burutik zihoala, Mari Anbotokoak urten zion bide bidera.

Gizonak, ez ikusi egin zion eta ia-ia burua hankartean duela, aurrera egin zuen Urkiolarako bidean.

Behin Urkiolaraz gero, sartu zen eleizan, autor-entzulearekin konfesatu, meza entzun, limosna egin eta bere promesa betatu orduan, badi-notso abadeari:

—Jauna, Obaburun Mari Anbotokoak urten dit biderdira eta ez ikusi eginik alde egin diot, baina bildur naiz harantzean berriro urtengo ez ote didan!

—Ez arduratu, Jaungoikoarekin bakean zoaz eta ezin dizu ezer egin, ez baitauka podererik Jaungoikoaren aurrean! Orain, beharbada, eskua eskatuko dizu baina ez luzatu eskurik zapi edo soinekoren bat oboan-oboan imini barik, hori jagonez gero, ez akobardatu, ez eta atzemardoka ibili be!

Bazetorren ha gizona eta Obaburun berriro ere agertu zitzaion Mari Anbotokoa eta zer? eta eskua ez zion eskatu ba!

Dimoztarrak, betuxokerietan ibili barik, Urkiolako abadearen esana eginez, hartu moko-zapi bat, eskuan imini eta gero eman zion bostekoa Mari Anbotokoari.

Bostekoa bota eta moko-zapia gordetan zihoala, Mari Anbotokoaren bost atzamarrak egindako erre-marka ikusi zuen. Zergatik hargatik esango zion zapiarena hak Urkiolako abadeak. Zelan diren gauzak e?

Urkiolan promesa betetzean Mari Anbotokoa agertu

Hona hemen Gorbeialdeko artzain bati Urkiola gaineko barruti-larreetan zegoela entzundakoa:

Hamar urte inguru nituela, amak Urkiolara eroan ninduen promesa bat betatuten. Gaxorik egon nintzen eta osatu orduan, nire amak kunplitu egin gura zuen bere promesa.

Bedratzi egun eman genituen Urkiolan. Bedratzi egunotan, bedratzi sermoi eta meza entzutea tokatu zitzaigun.

Egun bateko mezatik bestekora bitartean asti handia eukiten genuen zertako hartako eta ibili egiten ginen gehienetan Urkiola-mendietatik denpora ematen.

Sandoia mendira ere joaten ginen eta han Mari Anbotokoak urtetan zuen arrasti beranduan, abemarietako kanpaiak jo-akabatu orduan. Batzuetan, elegante jantzita, dotore-dotore, baina beste batzuetan txispa edo sua eskuan duela eragoten zion bere beharlekuari.

Txispa dariola ikusten genuenean, arin baino ere arinago sartzen ginen Urkiolako eleizan, entzutea geneukalako, haretariko txispa batek ikutuz gero, betiko geratzen zinela kondenatuta.


Nobena edo bederatziruareneko bederatzigarren sermoia entzun genuenean, gaixo-osatu bakoitzak, utzi makulu edo denadelakoak hormatik eskegita, hau da, Urkiolako Antonio Deunaren altararik harako hormari deusala, eta etxera etorri ginen ama eta biok, pozarekin negarrez!

Mari Anbotokoa Urduña eta Urkiolan

Gure aurrekoen esanetatik eta, Mari Anbotokoak urtebete egiten omen zuen Anboton eta beste urtebete Urduñako haitz zuloan, han Antiguako Amaren azpian.

Urduñako abadeak eta Urkiolakoak, urtero bedeinkatzen zituzten haitz-zulo biak Mari Anbotoko horrek zein kalteak egin gure soloetan.

Gabon eguna izaten zen bedeinkazinoa botateko eguna. Urte baten, Urduñako abadea atzeratu egin zen bedeinkazinoa botaten eta inon



diren kalteak egiten hasi zen Mari Anbotokoa Nerbioi ibaiaren ingurumarietan.

Urduñako abadea atoan joan zen Urduñako haitzera eta bedeinkatu egin zuen haitz-zulo hori Mari Anbotokoa kanpoan dela.

Jarraian, Urkiolako abadeari emon zion parte, hark ere, beste hainbeste egiteko Anbotoko kobazuloan.

Urkiolako abadeak, Gabon egunetik zeukan bedeinkatuta Anbotoko kobazuloa eta Mari Anbotokoak ez zeukan han sartzerik edo gordetarik.

Koba biak bedeinkatuta geratu zirenez, bietatik kanpo geratu zen Mari Anbotokoa eta harrezkero omen daragoio Anbototik Urkiolara haronakoan, garra dariola gauiluntzetan enpartikular. Noizik honakoa dakigun bezala, noiz artekoa ere badakigu: Anega bat garik garautan daukan beste urte!

Urkiolako paraje zoragarria aipatu dugu baina, zorionez, antzerako leku ugari dugu, dena mendi-baso, dena haran-ibar eta dena ibai-erreka dugun Euskal Herri honetan.

Edertasun guzti honekin, ekainak aurrera egin ahala, udaldian sartzen gara, berri eta goienaren ardatzean.

Uda


Ekaina edo bagilaren 21etik irailaren 21era bitartekoa dugu udaldiaren iraupena.

Ekainaren 21a solstizio (solis statio) izenez ezagutzen da. Egun honetan, urteko egun-argirik luzeena eta gaurik laburrena daukagu. Egun honetatik aurrera, eguna laburtuz joango da abendu edo gabonilaren 21erarte.

Zerura adi bizi zen herriarentzat, eguzki argia, eta gainera luzea, garrantzi handikoa zen eta ospatu ere halaxe egiten zuten, egunex egunarekin eta gauean suaren sinbolopean.






Denborarekin, kristautasuna zabaldu zen Euskal Herrian, eta estrato kultural hori ezarri ahala, eleizeak kristautu egin zituen solstizio biak egunak ere aldatuz.

Ekainaren 21a, 24ra pasatu zuen Juan Bateatzaile Deuna izendatuz, eta abenduaren 21a ere 24ra, Gabon-Natibete ospatuz.



Udaren hasiera hau, ospakizunak ospakizun,
ohituraz bete zaigu historian zehar eta
ohiturotan kultura paganoa eta kristautua
nahastean agertzen zaizkigu baten baino
gehiagotan.

Udako esaerak

-  Uda, negu hotzak edertu.
-  Negu bigunegiak uda gogorregia.
-  San Juan, artoa eta ogia kanpoan.
-  Egunik luzeena, San Juanena.
-  San Juanak, esku batean sua, bestean ura.

SAN JUAN BEZPERA GAUA

Gau handi, ospetsu eta misteriotsua lehen, gaur zein geroan ere euskaldunon tradizio barruan.

Gaur egun, sugarrak bakarrik nagusitu badira ere, historian zehar hainbat ohitura bizi izan du gure herri zahar honek. Goazen ohiturotara:

San Juan bagileko sugarrak

San Juan bezpera gauean, sugarrak egiteko ohitura zabal ibili da eta badabilela esan genezake.

Gure zaharrek garrantzia handia ematen zioten ekintza honi. Udaberriaren azken antzean sasi, bedar txar eta abarrak ebagi eta sikatzen uzten zituzten, gero San Juan sugarretan erretzeko, nolabait natura purifikatuz gauza ez diren zarraparra guztietatik.

San Juan bezpera iluntzea heltzen zenerako, prest-prest eukiten zituzten erregai guztiak, etxeetako erropa zahar eta abarrak ere bai.

San Juan bezpera gaueko sugarrak isiotu baino lehen, gure baserritarrak, garia jo eta gero geratzen den galtzu-eskuta edo poila bana hartu, isiotu ipurdi aldetik eta solo ingururik solo inguru ibiltzen ziren kantu-hotsean:

*San Juan bagilean
denpora ederrean
artoak eta gariak gorde
subeak eta sapoak erre
San Juan Bezpera gaube.*

*San Juan, San Juan, gaur dala
bihar dala Donibane
etzi San Juan biaramune,
gure soloan lapurrik ez,
badagoz bere, erre beitez,
artoak eta gariak gorde
siraunak, sapoak, subeak,
piztia guztiak erre.*



Ekintza hau labrantzako solo guztietan egiten zenez, etxeko familia osoak hartzen zuen parte. Umeak hurbileko soloetan eta helduak urrunagoetan.

Modu handikoek, zuzien ordeztan, kandela bedeinkatuak erabiltzen zituzten, labrantza-solo bakoitzean bat isiotu eta guztiz amatatu arte utziaz.

Kantu-hotsezko solo-inguratzeok bukatu ondoren, ailegatu ahala auzuna erdiko erregai ingurura hurbiltzen ziren. Denak elkartu orduan sua isiotzen zen. Baserriren bateko supazterreko ilenti bat hartu eta aurreko urteko San Juan bedar siku-sikuak isiotuten ziren eta gero erregai txondorrari magalik magal sua eman.

Sugar lekua gehienetan bidekurtzea izaten zen, bidekurtzetan sorginak agertzen zirelako sineskera zegoelako.

Ikuskizun paregabea sortzen zen suaren inguruan, ume, kaskondu, gazte, heldu eta zaharrak denak batera armonian.


Batzuetan gauza barregarriak ere gertatzen ziren. Bedar txarrak galtzeko, biluztu, atera bedar txar hori zuztar eta guzti soloan eta San Juan sugarretara bota behar izaten omen zen betiko galtzeko. Mutil gazte batzuk batez ere, egin ere egiten zuten fetxoria hori inguruko guztien barre eta algarak sortuz.

Baserri edo auzune guztietan egiten zirenez sugarrak, batetik bestera zantzoz eta eupadak ere egiten ziren elkar animatuz eta suen neurria konparatuz, zeinek handiagoka.

Behin sugarrak eskasten hasten zirenean, sugar-saltuen txanda dator.

Sugar-saltuak

San Juan sugarrak apur bat amatatuz joaten zirenean, saltuak egiten ziren ilenti eta txingar gainetatik. Batzuen ustez, saltuon bitartez gorputz-arimen osasuna lortzen omen zen saltuok egin ahala hauxe esanaz: "ona barrura, txarra kanpora", eta holakoetan sinesten ez zutenentzat saltu-txapelketa bat zirudien. Herri batzuetan, sinesmendunek errosarioa ere errezatzen zuten sugarren oboan-oboan.



San Juanen bizar zuriak

San Juan suak azkenerantz zetoztenean eta arriskutik irten, umeak ere ausartzen ziren saltuak egiten.

Suari azkena emateko, herri batzuetan, bertanbera uzten zuten gau luzean amatatuz joateko, baina beste herri batzuetan harri-losa handi bat ipintzen zuten su-hondakinen gainean eta inguruko umetxoei esan: “Bihar goizean, lehenengo jagi eta harri-losa hau lehenengo altzetan duenak, San Juanen bizar zuriak ikusiko ditu”.

Sugarretako iduri edo su-hautsak gorde ere egiten ziren garauak kentzeko ona omen zelako.

Mamuak edo galtzagorriak

Bizkaiko Sollube aldean, San Juan bezpera gauean, orratz-ontzi edota antzerakoak uzten omen ziren zabalik, gauaroan, mamu, galtzagorri eta gai-netikoak barruan sartzeko. San Juan goizeko inontzean, hartu mamuz beteriko ontziok, zarratu eta gorde egiten omen ziren urtean zehar zerbitzu misteriosoak eukiteko.


SAN JUAN EGUNA

San Juanetako egunsentia

Egun horretako eguzkiaren agerpena interesgarria izan da gure herrri zaharrear.

Batzuentzat, egun horretako eguzkia dantzan omen datorkigu eta ikusteko mendietara jotzen zen jendea eguna zabaltzen ikusteko. Bizkaiko Arratia partean, Gorbeiaiko puntan itxaroten zioten eguzkiari bere lehenengo distirak ikusteko. Gorbeiatik Oiz mendia ikusten da eta esaten zen, Oiz tontorrean eguzkiak lehenengo jotzen zuen lekuan urregorria agertzen zela.

Barkus aldean, San Juan eguneko eguzkiak irten baino lehen, urak bedeinkatuak zirela uste zen eta horrexegatik, iturrietara joan eta ura edan ezeze, gorputzeko eta gainerako garbikuziak ere egiten omen zituzten purifikazio bidean.



Iturrietako uretan ezeze, San Juan goizeko inontzean oinak zein gorputz osoa bustitzen zen osasunerako ona omen zelako, horregatik ez zen harritze-koa eguzkiak irten aurretik bateren batzuk ortozik edo biluzik ibiltzea bedartzarik bedartzako inontzean.

Erremedio hau pertsonentzat ona bazen, ganaduentzat ere bai eta horregatik ganaduak ere eramaten ziren ura edaten zein inontzean euren apatxak bustiten.

San Juan aratxa (haritza)

San Juan goizeko ohitura hau polita eta zabala dugu batek badaki noizk hona.

Goizean goizetik, "San Juan aratxa" izenak dioen bezala, haritz landare edo haritz adar bat hartzen zen nahinondik. Etxera eramane eta lehenengo arrankala bat egiten zitzaion eta gurutzetara ezpal bat sartu, gero galburu, eguzkilore eta abarrez apaintzen zen eta azkenik balkoiko balaustra, ate-marko edo leiho bazter baten ipini estukinez lotuta edo iltzez josita.

Denboraren joanean, haritza eskasten joan delako edo, haritzaren ordez, lizarra jartzen izan da, lizar berez erneak nahinon daudelako, baina izena ez zaio aldatu, lizarrezkoari ere "San Juan aratxa" deritzogu, eta etxea zaindu egiten duenaren ezaugarria da.

Zeberrioko herrian entzuna dudanez, "San Juan aratxa" etxea bedeinkatzeko ezeze, ezkontzarako errekadu egiteko ere erabilten omen zen lehenago.

Ezkontza-errekadua egiteko modu asko egon da, baina originalik inon bada, hauxe. Mutil bat neska baten intziguanez gero, iterantzunak egiteaz gain, mutilak berak edo etxekoren batek, "San Juan aratxa" jartzen zuen egunsentiarekin batera neskaren etxeko lekuren baten.

Errekaduaren erantzuna baiezkoa bazen, neskaren etxekoek, San Pedro egunean, hots, bost egun geroago, mutilarenean egiten zuten beste hainbeste.

San Juan bedarrak

San Juan goizeko egunsentian, oinetakoak erantzi eta ortozik ibiltzen ziren ihintz edo inontzezko bedartzarik bedartza. Joanean-joanean, era guztietako bedar eta zuhaitz-adarrak batu eta bakoitzeko pater noster bat erre-

zutzen zen. Egun horretan batutako zorta hori era bateko edo besteko erre-
medio gisa erabiltzen zen. Esate baterako, enplastuak egiteko, sugeak ausiki
egin ez egiteko, tripalak kentzeko eta abar luze baterako.

Zorta hori estarian gordetzen zen, ganbarako goitegian, etxearen erre-
suman edo leku ezkutu batean, eta sobratzen zirenak hurrengo urteko San
Juan sugarrak isiotuteko erabilten ziren, ziklo osoa beteaz.

San Juan elorri zuria

Ezeri bildurrik izan badiogu, inizitu edota tximistargiari izan diogu
eta horren kontrako hainbat erremedio erabili izan da gure herri zaharrean,
bai kristau aurrean zein gero.

Sineskera-erremedioetariko bat elorri zuriarena dugu. San Juan egu-
nean ebagitako elorri zuri bedeinkatuak tximistorratz edo pararrayos gisa
erabili izan dira, kardulorea bezala. Zeanuriko bati entzunda daukotzat, kiri-
kinolatz diseekatua ere ona omen zela inizituak kalterik egin ez egiteko.

San Juanetako loak

San Juanetako loak luzeak omen dira. Egun horretan, goizean goize-
tik edo tertzioz jagiten dena ez omen da izango logura urte osoan goizean
jagikera. Baina, egun horretan goizberanduan jagi edo siesta luzea botaz
gero, nagiipurdi ibiliko omen da urte osoan.

Beste alde batetik, jaiotzerik harako lo txarreko edo lo gitxiko umeak
ere egoten dira. Kasu horretan, San Juanak ospatzen diren eleiza batera eroan
behar dira eta lo luze eta ona eskatu santuari.

San Juanak eta txakur amorratuak

Txakur amorratuaren ausikadari bildur handia izaten zitzaion eta
erremedio gisa hainbat gauza erabili izan da, besteak beste, Gabon afariko
lehenengo ogi kuzkur bedeinkatua.

San Juanetara etorritz, berakatzak ere balio izan omen du erremedio
horretarako, baina ez edozein berakatzek. Txakur amorratuaren kontrako
erremediorako, Gabon egunean erein eta San Juan egunean ateratako bera-
katzak izan behar du, horrek bakarrik balio omen du amorrua kentzeko.



San Juan mitoak

San Juan eguna esaunda eta mitoetan ere sartu da eta ipunetan ikusiko denez, erabakiorra izan da desenlazean.

Modelo bi aipatuko ditugu. Bata herri mailako eztabaida baten baldintza betetzen duena eta bestea lamiak desagertzeko determinantea izan dena.

Gorbeia *Arrabako landa eta San Juan zekorrak*

Gorbeia eta Lekanda bitartean Arrabako landea dago. Landa ederra, zelaia eta ganaduentzat bedar gozokoa.

Gaur, Zeanuri parte da, baina lehenago, Arrabako landea Zeberioko Olabarrietako Santo Tomas-ena zen.

Lehenago, Zeberioko abadea, ohiturari jarraituz, urtero-urtero joaten zen Arrabara urteko bedeinkazioa botaten.

Zeberioko herriak elia eroaten zuen Gorbeia ondoko landa horretara. Arrabako landea taket eta alanbradura ederrez hesituta eukiten zuten zein ganaduak mundurik aramaio joan.

Zeberioko herriak bere elia batzanduten zuenean, Santo Tomas eleiza nagusiko eleizportalera eroaten zuen lehenengo. Han bedeinkatu, gero eleizondoko harizpetan abaroan euki eta, hurrengo egunean, freskuran Arrabako bidea hartu.

Era horretara, urteetan ibili ziren, baina halangoren baten, Zeanuriko herriak demandea sartu zion Zeberioko herriari Arrabako landea erreklamatz.

Egia esateko, Arrabako landea hurbilago dago Zeanuritik Zeberiotik baino, baina usadioak usadio Zeberioak ere ez zuen bere ohitura galdu gura.

Abokatuekin hasi barik, izan ere abokatuek ez-baiari emoten diote emon ere indarra eta, beste apostu hau hartu zuten ontzat: San Juan egunean jaiotako zekor bana aukeratu, urte barruan hazi eta urteagarreneko San Juan goizean, egunsentiarekin batera, biak borrokan imintea Arrabako landan eta irabazten duena haxe izateko landa horren jabe.

Esan eta egin. Baina Zeberioztarrak larri zeuden, euren zekorra irdarga eta hezur hutsa zelako eta Zeanuriztarrena ostera mardo-mardo eta indartsua.

Baina, barbari eutsi egin behar zitzaion lez, heldu ziren hurrengo urteko San Juanak eta eroan zituzten urteko zekorrok bezpera gauean.

Hasi zen zekor-enbitea herri bietako testiguen aurrean eta Zeanurikoak aurretik zeraman Zeberioko zekor mekoa.

Hain zen handia Zeanuriko zekorraren indarra, halako baten taket eta alanbradurazko hesia ere apurtu egin zuen eta Zeberioko zekor borroa amildegira noiz botako zeukanean, zer? eta laprast ez du egiten ba Zeanuriko zekorrak eta bera jausi amildegira!

Ikusle guztiak harrিতa zeuden, batez ere zeanuriztarrak, baina berba, berba denez, berriro ere Zeberioentzat izan zen Arrabako landea.

Urteak joan urteak etorri, Zeberioko abadea zahartu egin zen eta utzi egin zion Arrabako landea bedeinkatzen joateari.


Apurka-apurka elia eroateari ere utzi egin zion Zeberioko herriak eta jabetu ezaren jabetu ezaz, azkenean Arrabako landea Zeanuriko herriko propietatera joan zen eta hantxe dago. Bake santu bat!

Laminen hondamendirako San Juan sekretoak

Lehenago, erreka txarko, errota andapara eta abarretan egoten ziren laminak eta erreka-munara urtetan zuten orraztuten.

Baten, neskatxi bat egon zen Saldaingo Olarran krida. Lehengo denboretan, kridu-krida edota sentzain joatea usadioa zen. Modurik ez zegoenez, eta eskolak ikasteko dite edo afan handirik ere ez, gazte-gazterik joaten zen jendea beharleku horretara. Asko eta asko mantentalde, beste batzuk soldata eskas baten truke. Eta kridu edo krida ona izateko, urtebete, gutxienez, egon behar izaten zen etxe baten, osterantzean, kridu edo krida txarra, seminarioetatik irtetea "mal estudiante" izatea lez.

Eta Saldaingo Olarrako krida hori Zeberioگانeko San Juanetako erromeriara joan zen. Dantzaz gura dena egin eta gero, oraindino egun argiz, etxerantz zetorren.



Saldain-errekara heldu zenean, lamiñak ikusi zituen ertzeko munetara igonda uleak orraztuten urregorritzko orraziaz.

Katua sagua edo satarraren atzean dabilenean baino isilago zihoan neska hori laminak hurretik ikusi guran.

Baina, ondora ailegatu zenerako, plist-plaust! laminok errekkara saltu egin eta estaldu zitzaizkion.

Orrazia ez, orrazia ez zuten urera eroan, muna bazterrean ahaztuta utzi baino neskatoaren pozerako.

Olarreko neskatxi horrek ez zuen behar esaterik ha orrazia hartu eta etxera arin, galapan joateko!

Heldu zen etxera, merindafaria egin gazigarri altzi batekin eta oheratu ere bai orrazi horrekin iratzarrik ametsetan.

Behin abemariak joz gero, badatorchio neskatxi horri lamina elia bere kuartuko lehiopera eta ez zaizkio ba sokorru baten hasten, esanez:

“Saldaineko neskatxia
ekar ezan orrazia
ezpabere hilgo diagu gaur
hire etxeko askazia”.

Bildurtu egin omen zen ha neskatxia eta atoan jaurtin zien orrazi hori, bakea diruaz ere ez dela pagetan eta!

Gero, denborarekin, desagertu egin omen ziren laminok. Harako, lamina esnezaleren batek, tripakada bat esnegatik, eurak galtzeko sekreto argitu omen zuen, eta harrezkero ez omen dago laminarik. Sekreto hauxe zen: San Juan egunean jaiotako zekor bi buztartu eta errekkak intilatu edo tragastu behar zituzten baina guruzetara egin ere. Beharrok egin zituztenean, orduantxe galdu omen ziren betiko laminok. Sokorruka eta odola dariola joan omen ziren erreka behera laminok guztiz tragatu arte sekula eta santarako.

SAN PEDROAK EKAINAREN 29AN

Pedro Deunaren jai herri askotan ospatzen da eta santu hau entzuetse bihurtu zaigu. Bateko apostolua, besteko lehen Aita Santua eta azkenik zeruetako giltzari.



Esaunda edota mito asko sortu izan dira santu honen ospakizun garaian zein garaitik kanpo. Batzuk aipatuko ditugu:

Kukuaren agurra San Pedroetan

Herri esaera askotan ere jaso izan denez, kukua mututu egiten da San Pedro egunean. Andra Mari martikotik San Pedro bagile edo ekainekora bitartean dabil kuku gedarrez lau haizeetara.

Euskal Herriko egotaldiko agur eguna ospatzeko, San Pedroak non, kukua hara joaten da.

Bizkaia aldean kontatzen denez, kukuak Arratiako Arantzazun baraus-ten omen du, Diman bazkaldu eta gauiluntzean Mungian afaldu, San Pedroak aloso ospatzeko eta ez omen da kukuka entzuten hurrengo Andra Mari martikoetararte.

Esaunda barregarriak ere ugari asmatu dira San Pedro edo Jondone Petriren inguruan, baina oraingo honetan Arratian bertan entzundako bat azalduko dugu:


***S*an Pedroetako fetxoria Diman**

*Egia edo gezurra, kontatu, hauxe kontatzen da. Behin baten, Dimako San Pedro parrokian santu berria egitea pentsatu zuten sitsak eta zedek-
nak jan-zaharkituaren ordeztu ipinteko.*

Pentsatu eta egin. Herri mugarriak direla eta Otsandioekin eztabaidak euki arren, Dimako abadeak Otsandio irudigile famatua zen Felipe Arrese Beitiari eskatu zion San Pedroren egurrezko irudi berria egiteko.

Hartan zeuden, baina Arrese lanpeturik edo olerkigintzan edo inork ez daki zergatik, San Pedro bezpera heldu zen eta santurik ez.

FONDO < > FOKMIA
MAMIA < > ARALIA



a burua bonetea erama-
esan zion:

ik ezean, hik heuk egin
to meza-eleizkizunean,

egin beharko da, hola-
garen ere gero!

sakristaua biak bietara
leak jantzi zuen sakris-
tan hartu erazi eta igo-

Han zegoen San Pedro
a, joan galapan etxera
nan santu berriari ezti

eko ordua etorri zenean

a nolako itxura ederra

akristauaren aurpegiko
a mugitzen hasi.

satuko ere, ez zekienez

u, mirakulua! Bizirik

-lekitik—, egongo ez
eta banoa, erleak jan

ere bizitzako gurutzea

i hartu zuen eta hara

teale -Kamabalele Euztane Heerik.

11 - Euztane Heerik. Kopieratzen etan.

—Zer Jaungoiko! Zertan hator hona bizirik?

—Ba, hara, nik neuk ezin dut gehiago neure bizitzarekin eta hau bizitzako gurutze astun hau kanbiatuko balit berorrek?

—Ba, aditu, hemen zenbat gura eta harexen beste gurutze dauzkak eta hartu hik heuk nahi duana, bat ere kunprimentu barik.

Joan omen zen gurutzerik gurutze eta batak hau bazeukan besteak hori, ez zuen gustukorik aurkitzen.

Eta azken antzean han ate inguruan tentetan du bat eta: hauxe, hauxe datorkit ondo, eroso, eta hauxe!

Eta badinotso San Pedrok bere bizarpetatik irribarreka:


—Ba, hori oraintxe puntuan heuk utzi duana duk ba eta! Joan hadi berriro mundura eta heu izaten ahalengidu hadi beti inorenaren intzi-guan egon gabe.

Ekaina badoa eta ospakizun bukaera emateko azkenengo eguneko aipamentxo bat egingo dugu: Iruneko San Marzialak.

SAN MARZIALAK IRUNEN

Ospakizun honen jatorria 1522koa da. Behobiako gazteluaren errekonkista gogoratzen dugu. Franko-
 naparrak Bidasoa gurutzatuz gero San Marzial deituko zen Aldabe mendira igo ziren. Arrisku handiko ekintza zen eta, antza denez, apaiz baten zuhurtasuna erabili omen zuten irundarrek. Hauxe: Oiartzungo errepidean zehar gizon, emakume, zahar nahiz gazte denak batera joan ziren gaez prozesioan zuzi isiotuekin, benetako tropa bat balitz bezala. Bien bitartean Iruneko gudariak atzerik hara joan ziren euren zaldiei mihiak lotuta irrintzarik egin ez egiteko eta salatuta geratu. Azkenean bete zen helburua.





Gudu hori oso famatua egin zen eta urtero ospatzen da orduko egu-
nean jarraitutako bide berberetik.

Ekaineko edo bagileko esaerak

- *Bagil argia, urte guztiko argia.*
- *Ekaina eder, uda halaber.*
- *San Juan bagilean, denbora ederrean.*
- *Maiatz iluna eta bagil argia,
urte guztirako ogia.*
- *Bagila, sei goseen baila.*

Uztaila

Uzta izenak ematen dio eman ere izena hilabete honi eta, besteak beste, garia izan da emaitzarik preziatuena. Uztailean garia urregorritu egiten da, ogigai bihurtu. Gariarekin zer egiten den, gariak berak azaldu zion artolari udaberriko "Garia eta Artoa berbaz" fabula ederrean.

Baina, nola etorri zitzaigun garia Euskal Herrira? Hori jakiteko mitotara joko dugu.

Garia, Perutxu eta jentilak

1
Perutxu gendun jentil garaian
oso mutiko bizkorra
eta bera zen basajaunentzat
zuhurtasunezko zigorra.

2
Herritarrentzat jentilak ziren
indartsu ta aurreratuak
burdina lantzen trebeak eta
nekazaritzan landuak.

3
Gose urteak etorri ziren
eta janik ez herrian
zerbait pentsatzen eragoioen (ari ziren)
eurek ahal zuten neurrian.

4
Jaki onena herritarrentzat
dudarik gabe ogia
horretarako beharrezko zen
jentilek zuten garia.

5
Jentilengandik ezinezkoa
zuten garia lortzea
apalik sarri eskatu arren
alperrik zen ekitea.

6
Gure Perutxuk une haretan
erabiliaz zentzuna
buru-bihotzak batu zituen
bizkortuz zuhurtasuna.

7
Uda-udako goiz eder baten
joan zen mendia gora
badaezpada isilik eta
kontuz jentilen basora.

8
Jentil baratza gari ederrez
zegoen bete beterik
jentil artean ez zen entzuten
zantzoa baino besterik.



9

Perutxuk hara hurreratzean
sakon hartzen du arnasa
jentil artean erakutsiaz
lasai itxura demasa.

11

Baina Perutxuk zuhurtasunez
erantzuten dio gertu
gari pilorik handienetik
berak baietz egin saltu.

13

Zerbait asmatu beharra dauka
gari garauak lortzeko
zuhurtasuna martxan jarri du
arazoa konpontzeko.

15

Jentila eta Perutxu ere
saltatzeko daude prestu
jentila nasai baina Perutxu
benetan daukagu estu.

17

Jentilak barreka hasi dira
Perutxu han ikustean
oinetakoak sartu ta atera
gari pilo barrenean.

19

Handik gerora jentil gazte bat
egiten da konturatu
oinetako barruan garia
egin diela lapurtu.

21

Perutxuk ez du ezelan ere
bere lana gauzeztandu
haritz-harro bat aurkitukeran
hantxe egiten da ostandu.

10

Jentil handiak esaten dio
handik ia zerk dakarren
garirik ez duela lortuko
arrenka eskatu arren.

12

Hartan geratu zaizkigu biak
hurrengo egunerako
eta Perutxuk nahiko ardura
dauka bere barnerako.

14

Oinetakorik nasaituenak
egin ditu aukeratu
gari artera jausten denean
han egiteko betatu.

16

Jentilak saltu batez igaro
du gari pilo handia
eta Perutxuk beren beregi
egin du saltu txikia.

18

Perutxuk gariz beterik ditu
aldeko oinetakoak
jentilak berriz barre zantzoka
kokoloak halakoak.

20

Perutxu arin doa herrirantz
jentilak atzerik hara
basorik baso, biderik bide
bakoitza bere erara.

22

Jentilak ere hantxe dabilta
batera eta bestera
eta Perutxu aurkitu ezinik
berriz doaz eurenera.

23

Jentilak nasai doaz mendira
euren artean esaten
Perutxuk eta, ez dakitela
garia noiz ereiten den.

25

Perutxuk berriz ezkutokian
adi dauka belarria
eta ikasi egin du buruz
basajaunen abestia.

27

Gauza ugari etorri zaigu
mundu zaharretik berrira
eta holantxe heldu omen zen
garia Euskal Herrira.

24

Kantatzen doaz mendi bidean
ereitzaren sekreto
“orri erorte gari ereite”
horixe da hazaroa.

26

Jentil bildurra joanda gero
herrira doa Perutxu
gari garauak eta hazaroa
egin dizkie azaldu.

Gauak ostean eguna
argia bere laguna
irtenbideak gaur asmatzeko
behar da zuhurtasuna.

Garia preziatua dela esan dugu eta bere antzera garagarra ere bai, hortik garagarril izena ere, baina euren aldamenean, bedar txarrak ere ernetzen dira eta uzta garaian kontu handiz baztertu behar dira. Bedar txarreratiko bat olabeor edo zizaña dugu eta begira zer dioen Erronkariko alegia potit honek:

Garagarra eta olabeorra

Behin batean, uzta garaian, olabeor edo zizañak honela hitz egin zion garagarrari:

—Hi, bizioso eta bastoa haiz. Hiretzat ugazabak soloko lurbel emankorrena aukeratzen dik. Ongien zaintzen hau. Ernarotik jaioko bahaiz, lurbela izateaz gain, abonoz berotu eta onuratu behar diate eta hain haiz trauskila, mahaiak ez hau ezagutu ere egiten. Hire estimazio guztia, gorta-ganaduan zagok, euren jaki baihaiz.

Garagarrak entzun-entzun egin zizkion bekaizkeria eta gorrotoz beteriko hitzok eta hauxe erantzun:

—Hi nekazari guztiek higuintzen haute, inortxok ere ez hauelako maite. Hiretzat ez zagok ez neurririk ez preziorik. Inork erein gabe erne eta hazten haiz eta ingurukooi ostukoaz bizi. Udaberrian harroputs habil



dotore jantzita. Zoroa haizenez, hizka-mizka hutsean diarduk inguruko guztiekin. Ipurditik ebagi eta gero, burua hutsik daramak larrainera eta ahotza airean baino ez haiz. Ni ordea, ganaduen janari eta gizon-emakumeen edari eskerrak garagardoari.

Garia, jentilengandik ekarri omen zela esan dugu, eta antza denez, bolu edo errotak ere jentilei sorots eginda lortu omen ziren. Nola? Ba, Perutxuren zuhurtasuna bitarteko. Ikus dezagun:

Errota, Perutxu eta jentilak

1

Perutxuk lortu zuen
jentilen garia
eta asko poztu zen
benetan herria,
baina gero behar zen
berriz ausartia
herrian asmatzeko
errota harria,
ekintza berria
benetan larria,
baina lortu ezker
interesgarria.

3

Perutxuk beste norbait
deituz laguntzera
basora mana zuen
jentilen artera
jentiltzarron mendira
helduaz batera
zuhurtasun gezur bat
bertan esatera:
Perutxu heldu da
errota sortzera
eta herrian goaz
ogia jatera.

2

Perutxuk lortu zuen
jentil sorostea
eta euren antzera
errota asmatzea,
baina errota harrian
behar zen habea
sarritan agertzen zen
buelbaka errea,
errearen kea
kiratsez betea,
horrela ezina zen
gari irintzea.

4

Jentilak jarri ziren
guztiz haserrean
erantzun hau emanik
denak bat-batean:
Hori ez da posible
herriko partean
haltza behar delako
harri ardatzean
haltza ebatean
idergi betean
horrela irauten du
denpora luzean.

5

Jentilen sekretoa
 zutenean lortu
 errotari ardatza
 zioten aldatu
 ordurik hona ez zen
 bolua geratu
 garia eho eta
 zahia banatu,
 ostean labesu
 erraria prestu,
 harrezkero goserik
 ez da ezagutu.

Bedar ederra garia
 uda aldeko saria
 baserritarren bizibidean
 oinarritzko janaria.

Gariari buruz luze ere luze egon gaitezke hitzegiten, baina mugarri bezala pasarte kurioso hau aipatuko dugu.

Carlos V, enperadore nagusiak, euskera apur bat ikasi zuen bere kape-lau, autorrentzule eta osagilea euskaldunak zirelako. Horra hor, mandazain batekin izandako elkarrizketa Nafarroan XVI.mendean.

Mandazaina eta Carlos V elkarrizketan

—Mandazaina, nondik zatoz?

—Nafarroatik.

—Nafarroan gari asko?

—Bai, jauna, asko.

—Nafarroan gari asko; batere, betere ez neretako.

Nafarroa aipatu dugunez gero, uztailaren joanean, hilaren zazpian, zer? eta San Ferminak. San Fermin munduan eta mundua San Ferminetan.

Baina, San Ferminetan sartu baino lehen, beste jai berri bat aipatu behar dugu. Eleizeak, oraintsurarte Beatoa izan den Balentin de Berriotxo, santu egin berri du eta berori da Bizkaiko (Elorrioko) lehenengo santua eta bere eguna ospatzeko uztailaren 4a aukeratu da.



Santu honen berri emateko, nor hoberik Xenpelar bertsolari ospetsua baino. Hona hemen Balentin de Berriotxoari Xenpelarrek bertso paperetan idazi zizkion 24 bertsoak: (bertso hauek Zeberioko baserri batean jasoak dira eta A. Zavalaren Auspoa 259an "Zeberioko Kantak" liburuan datoz. Bizkaieraren eragina begien bistakoa da).

Balentin de Berriotxoari bertso barriak Xenpelarrek jarriak, 1861ean

1

Milla zortzireun irurogeita
zazpigarren urtean
Kristo zerutik jatsi zanetik
onañoko bitartean.
Iru obispok pasatu duten
martirioaren gogorra
penagarria izan da oien
munduko bizitzea.

3

Amairu urterik amabostera
estudioak ikasi
gero aitaren ofizioa
erakusten zuten asi
gogoan eukan apaiz eginda
naiago zuela bizi
tormentu gitxi mundu onetan
ez dau beragan ikusi.

5

Seminario eder batean
Logroñon apaiz egiña
beste guztiak baño lenago
ikasirik esamiña.
Buru argia izanik eta
fede santurako fiña
negarrez urtu leiteke artaz
akordatuko bagiña.

2

Baten bizitza kanta dezadan
au da bigarren bertsoa
Elorrioko semea da ta
Balentin Berriotxo.
Aita ta ama Bizkaian daude
semea an ila gaixoa,
jentil artean betetu jako
eriotzako plazoa.

4

Berrogei urte orain zituen
gertatu balitz bizirik
ogeta zazpi lendabiziko
estudiatzen asirik.
Seminario batera joan zan
arotz ikasirik
negarrez nabil aren pausoak
ezin adierazirik.

6

Ogeitaka urte zituela
etzeukan umore ila
kolegioko maixuak baizen
estudiante abila.
Obispo jaunak ezaguturik
justua ta umila
agindu zuen meza eman ta
erretiratu zedila.

7

Goizero laurak jotzian meza
eman ta konfesiorea
berau egin ta obra onetan
pasatzen zuean denpora.
Pobrerik iñoz etorten bazan
eskean ate ondora
bere ogia ari emon da
deboziñoa gogorra.

9

Suertatu da gure Balentin
San Inazion sartzea
pentsatu zuen ango padreak
abertentzia artzea.
Nola nai zuen Santo Domingok
zeukan jantzia jartzea
eta fabore egingo zian
al bazuen ekartzea.

11

Allegatu zan Ocañara ta
emon zioten jantzia
berak nai zuen gorputzarentzat
alako penitentzia.
Munduko gauzak guztiak beti
alde batera utzia
neke, trabaju, naigabeetan
artu du pazientzia.

13

Paseatzera etzan joaten
komentu lagunarekin
etxean zeukan tertulia ona
errosario birekin.
Bere gorputza martiriatzen
azote disziplinakin
orazioak balio badu
zeruan dago Balentin.

8

Logroñon meza emon zuen ta
Elorriora etorri
predika eta konpeseñoan
bere errian zan jarri.
Azpeitiako San Inazion
bisita egin du sarri
azkenerako aren pausoak
ziraden lastimagarri.

10

Ango padreak maite izanik
imini zuan kontuan
agindu zion sartu zedila
Ocañako komentuan.
Bide guztian eskean joan zan
gabak askotan kanpoan
bere gorputza azotatuaz
allegatzen zan lekuan.

12

Gure Balentin Berriotxoak
egin zituen pausuak
konsideratzen jarri ezkerok
dirade lastimosuak.
Beti negarrez Jesusen ama
zabaldurikan besuak
aren biotza atsegintzen du
zeruko usain gozoak.

14

Bakardian oneraño zan
Balentinen istoria
Ocañatik Manilara ziran
zortzi ministro abia.
Barkuan ere sufritu duta
makina bat kalameria
biotza penaz urtu leiteke
ez baldin bada arria.

15

Ocañatikan Manilaraño
barkuan bost ilabete
jakina dago izango zala
asko leguaz aparte.
Zortzi ministro oien artean
au zan sobresaliente
gure Balentin ango maixuak
obispo nonbratu dute.

17

Artoa jana ta ura edari
arri ganean lo egin
beti Jesusi erregututzen
gugaz akordatu dedin.
Kristandia nai zuenari
konfesiñoa eragin
jakina dago salbajeakin
etzegoala atsegin.

19

Garagarrilaren lendabiziko
goizean ziran asi
arratserako bost millatatik
etzan garaurikan bizi.
Fede santuko kristabak ilten
zituenean ikusi
Balentin bere lagunetara
abiatu zan igesi.

21

Arrapatuta kate gogorrez
lotuak zeuden alkarri
ilteko emon sententzia ta
kartzela banatan jarri.
Soldadu tropa batean jarri
gero plazara ekarri
ezpateagaz sama moztuta
dirade lastimagarri.

16

Ango padreak agindu zion
eskubidea artzeko
predikatzen asi zedila
kristandadean jartzeko.
Konfesiño ta barau egunak
animaz akordatzeko
pekatuaren mantxa Judasen
kalabozuan sartzeko.

18

Erreiñu artan gobernadore
salbajeen nagusia
Jaungoikoaren bildur gabea
estranjerian azia.
Erlegioko fede santuan
jarri nai duen guztia
agindu zuen plazan kentzeko
ezpatarekin bizia.

20

Pedro Albato eta bestea
Geronimo Ermosilla
gero Balentin Berriotxo
saltatu zan euren billa.
Iru obispo batzartu ziran
zeukaten biotz umilla
aien bizitza laster izanda
martirizatu ta illa.

22

Orretarako eskatu zuten
ordubeteko lekua
Jaungoikoari egin artean
bere ofrezimentua.
Gobernadore batek emon dau
pena kantidadekua
iñor aiekaz damutzen bada
bertan kentzeko burua.



23

*Iru obispo oien gorpuak
ogei eta lau orduan
eduki eta enterratuak
urrikaltzeko moduan.
Oriente aldeko probintzian bertan
Jeu-dat deitzen dan lekuan
erregutzen dot aien arimak
egon daitezcan zeruan.*

24

*Orra ogetalau bertso barri
ejenplo eder batian
oroipengarri kanta daitezcan
pekatarien artian.
Ai nire Jesus eskatzen deusut
grazia errematian
komeni da ta sartu gagizuz
zeruetako glorian.*

SAN FERMINAK IRUÑEAN

San Ferminak bizi egiten dira kontatu baino gehiago, baina oraingo honetan idatziz emango ditugu bizikera nabarmenenak.

Uztailaren 7an San Ferminak, San Fermin ebanjelizatzaille ospetsuaren omenez.

Protagonista, San Ferminekin batera, jendea bera da. Jai-elementuak, alde batetik, erligiosoak, San Fermin prozesioak, eta bestetik, jai-giroak, zezenak, musika, jan-edanak, etab. Berba baten esanda, mundu guztia kalean.

XVI. mendean, urriaren 10etik uztailaren 7ra aldatu zen San Fermin eguna, eta horrez gain, feria franka sortzean, inguruetako jendea erakartzen hasi zen.

Jai ospetsu honek baditu antezedenteak: antzinatik zeuden auto sakramentalak, komeriak, pifano-musika, juglarak, atanboreak, dantzak, idikorridak eta pobre-jana (idi pare bat hil ezeukiei jaten emateko).

XVIII. mendean, zientzia aurrerapideei esker, aurrerapauso handia ematen da: elektrizitatea erabili, zezen plaza eraiki, antzerki, pelota eta kultura-ekintzak antolatu, kontzertuak ere bai, J. Gayarre tenorea eta P. Sarasate biolinistea herriko seme ospetsuak parte harturik.

Apurka-apurka, unibersaldu egin dira jaiok eta fenomeno honen eragiletariko bat Ernest Hemingway izan zen.

Geroagora, gizonezkoak ezeze, andrazkoak ere sartu dira bete-betean jaiotan, ume eta ame, denak batean.



Gaur egun, ikus-entzunezko medio, garraio moderno eta abarrekin, jaiok masifikatu egin direla esango genuke, zehaztasun handiagoetan sartu gabe.

Euskal kutsuko bukaera emateko aipamen labur honi, XV. mendeko abestitxo batekin egingo dugu. Nafarroako Kondestablearen kanta famatuarekin:

*“Labrit eta Errege
aita seme dirade
Condestable Jauna
arbizate anaie”.*

Nafarroan jarraituz, uztailaren 13an, Erronkari eta Isaba aldean ospatzen den jai berezi bat aipatuko dugu.

HIRU BEHIKO TRIBUTUA

Antzina ere antzina, Bearneko Baretons haranekoek Erronkari harana ezin menperatu eta, norgehiagoka galdu zutenean, betiko zerga konpromiso bat hartu zuten, hauxe: “Urtero-urtero hanka zuridun eta bekokian zuriuneko hiru zaldiko tributoa pagatzea Erronkarikoei”.

Esan eta bete. Baina denboraren joanean, hor XIV. mendean, ordainketak apurtu egin ziren eta mugaren alde bietako artzainen harremanak gogortu.

Eztabaida horretan, Hueskako Anso herriak egin zuen arbitro beharra eta bearnotarrak behartu egin zituzten zerga pagatzera, baina oraingoan, hiru zaldi barik, hiru behi.

Ordainketa honen ospakizuna Ernaz herrian egiten da urtero uztailaren 13an, eta hiru behietatik bi Isabarentzat dira, eta hirugarrena, inguruko hirientzat. Ekintza hau aitzakitzat hartuz, jai polita ospatzen da.



Kostaldera etorritz, uztailaren hamabostean, Lekeition atunaren arrantzatza-txapelketa ospatzen da.

Gure kostaldean, maiatzetik uztailera atun gorria harrapatzen da, eta uztaitetik zemendi edo azarora, atun zuria.

Jasoera askoren artean, Hondarribian, 1898an gertatutakoa kontatuko dugu.

Hondarribiko atuna

Uztaileko arrantza egun batean, atunetan zebiltzala gure hondarribiarrok, atun handi bat zeukaten amuak hartuta. Tira eta tiraka zebiltzanean, atun artetik marrazu batek saltu egin eta erdia jan zuen buztan aldetik. Buru aldea barkuratu zutenean eta neurria ikusi, pisatu egin zuten. Aurreko parte horrek 21 arroa pisatu zituen. Osoa izan balitz 360 kilo. Ederra benetan!

Hondarribiako legatza


Beste behin, hondarribiar arrantzaleak legatzetan zebiltzan. Legatzak, bata baino bestea ederragoak harrapatzen zituzten. Barku batean, arrantzalez aparte, laguntzaile berezi bat zeukaten: txakurra.

Txakur horrek, legatza amuan ikusten zuenean eta arrantzaleak ezinean, uretara salto egin, haginekin oratu eta lagundu egiten zien zintzo-zintzo barku ertzeraingo ekartzen.

Baina baten, legatz handi bati haginak sartuta zetorrela, pita apurtu egin zuen legatzak astinaldi batean. Txakur zintzo hark arrantzaleei lagundu beharraren lagundu beharraz, hortzak soltatu eta alde egiten utzi beharrean, legatzarekin batera hondoratu zen eta ito. Txakur horri bertsoak eta guztiak atera zizkieten Artolatarrek.

KARMENGO ANDRA MARIAK

Uztailaren 16an, Karmengo Amabirjinaren eguna ospatzen da hainbat herritan eta batez ere kostaldean, arrantzaleen patrona delako. Prozesio politak egiten dira Amabirjina andarik anda eramanaz aurrezdik aukeratutako andariekin.



Prozesio ugarienak lurrean egiten dira, baina itsasoz egiten denik ere bada: Trintxerpe, Donosti eta bereziki Santurtzikoa, hain zuzen.

*S*anturtzi eta Barakaldoko Karmenak

Prozesio eta ospakizun honek bere historia kuriosua du, eta labur baino ez bada ere, goazen Santurtzi eta Barakaldokoen artean kontaktzen den esaunda eskeintzera.

Eleizak apurtu eta erretzen hasi ziren garai baten eta kristautasunaren kontrako bateren batzuk ibaira bota zuten Barakaldoko Karmengo Amabirjina.

Handik geroagora, Barakaldoko ibaitik Ibaizabalera eraman zuen Amabirjina ur korronteak eta behera eta behera Santurtziraino heldu omen zen eta han Santurtziko arrantzale batzuek uretatik atera eta euren eleizara eraman, eta gainera Abra deritzon itsas ertzean material modernoekin egin zuten beste irudi bat eta han dago arrantzaleen zaindari bezala.

Itsasotik atera zutenek, prozesioa ere itsasoz egiten hasi ziren eta egiten dute.

Urteak joan urteak etorri, barakaldoarrak erreklamatu egin zuten Amabirjina. Herri biek nahi zutenek, estropadetan jokatzera erabaki zuten Amabirjinaren kokaleku berria, eta jakina, nork irabazi Santurtziko arraunlari ospetsuei?

Kontuak kontu, gaur egun, herri bietan ospatzen da Karmengo Amaren eguna itsasoko prozesio eta guzti, azkenean Salbea errezzatu edota kantatuz.

ARRANTZALEAK ETA SALBEA

Arrantzaleak itsasorantz abiatzen direnean, beti daude bateko besteko Amabirjinaren bati adi Salbea errezzatzeko.

Ohitura hau aspaldikoa da eta itsasoko lan arriskutsuaren babesa izan da eta bada gaurko egunetan ere.

Besteak beste, Bilbon "La Salve" toponimoa dugu eta gaur egun arrantzaleen monumentu bat dago eraikita. Zer dela eta? Ba, aitu: Bilbo, zehatzago

esanda, San Anton eta Atxuri ingurua arrantzaleen portua zen garaian, barkuak Ibaizabal ibaia behera joatean, gaur "La Salve" den ingurutik Begoñako Amabirjinaren basilika ikusten zuten eta handixik pasatzerakoan errezetan zuten Salbea. Horrexegatik hartu zuen gaurko izena.

Salbea errezatzearen ohitura eta sineskera norainokoa zen jakiteko, zer egokiagorik, Txomin Agirreren Kresala eleberriko "Kitolis" kapitulo famatuan agertzen dena gogoratzea baino:

"Tru aldiz egin dot tirabira. Lenengoan, Arno atzean, besigutan gengozala; bigarrena, aortxe (ara ortxe) erriko sarreran, (Ondarroan); da bietan berialaxe artu genduezan erritar lagunak. Baña irugarrengo!, itzala ta ikaragarritzkoa izan zan irugarren ori. Ain zuzen, ibaian zear kanporuntz giñoiazanean, uragea edo erramua zala ta etzala, beste txalopa batekoakaz aserretu giñan; deadarka, zarataka ta arrokerizko berbak alkarri esanaz urten genduan ur-zelaira, ta iñori etxakon (ez jakon) gogoratu Antiguako Amari beti esaten jakon Agur edo Salbea esatea. (...) Gaixorik egon nintzan gero ia illabetean, da sendatu nintzanerako... itsasora barrero. Baña ez geiago Agur edo Salbea esan barik".


Uztailaren 22an Magdalenak ospatzen dira Euskal Herri luze zabalean. Ertz batetik bestera joango gara, Zuberoatik Bermeora, lur barrutik itsasora.

MAGDALENAK ZUBEROAN

Zuberoako Tardets aldeko mendi baten Magdalena Deunaren ermita dago. Ohitura denez, erromesak opariz beterik joaten dira baseliza horretara. Besteak beste, erromesak erremedio bila joaten dira.

Aditu. Umeren bat gaixorik edukiz gero, bere etxekoek, hartu ume gaixo horren alkandora pare bat eta ermitara eramaten dituzte. Alkandora bata bertan uzteko izaten da eta bestea, Magdalena Deunaren irudian igurtzi-igurtzi ondoren, etxera eraman eta ume gaixoari janzteko.

Beste batzuk zapi bat pasatzen dute santaren aurpegitik eta gero norberarenetik, eta gainera, buruko ile, orrazi edo beste zeozer ere uzten dute buruko minak kentzeko. (Horixe diosku On Jose Migel Barandiaranek.)



Magdalenak Bermeo, Elantxobe eta Mundakan

Historian sartu baino lehen, esaundara joko dugu Izaro isla norena zen jakiteko.

Alkarri deusala dauden herri askotan gertatzen den bezala, Bermeo eta Mundakaren artean ere eztabaida sortu zen Izaroren jabetza zela eta.

Legez, Bermeo egin zen, eta betiko egin ere, Izaroko Magdalena Deunaren ermitaren jabe. Baina ahorik aho, aditu zer dioten Mundakakoek:

“Bermeok eta Mundakak, biak nahi zuten Izaro eurentzat eta konpontzen ez zirenez, estropada bat egitea pentsatu zuten eta lehenengo heltzen denarentzat izateko isla polit hori.

Baldintza bakarra jarri zuten. Hauxe: egunsentian oilarrak joaz batera irtetzea bakoitzak bere portutik!

Mundakarren ustez, Bermeokoek sua egin omen zuten goizaldean eta oilarra itzartu eta kantatu erazi. Horrexegatik irten eta heldu omen ziren Izarora Mundakakoak baino lehenago eta eurak jabetu”.

Esaundak esaunda, gaur egun, Bermeo arduratzen da egun hori ospatzen, baina Elantxobe eta Mundaka ahaztu gabe.

Uztailaren 22an, goizean, Bermeoko zin-egiteko Santa Eufemia eleizan meza entzuten dute Bermeoko agintari eta gainetikoek. Gero, igon barkuetara eta han doaz bozina-hotsean barkuok Izarorantz. Izaro ondoan geratu eta Bermeoko alkateak, hartu teila bat eta Izarorantz botatzen du hauxe esanaz: “Bermeoko teilatua Izarorainokoa da”. Jarraian, ikurriña jartzen da Izaro gainean eta denak Elantxobera. Elantxobeko alkatea itxaroten egoten da eta Bermeokoa helduz batera makila uzten dio zati baten aginpidea emanaz. Jai ederra ospatzen da eta herri arteko bazkaria jan.

Arrastian, alkateen agurraren ostean, hartu barkuak eta Mundakara bolandera-hotsean.

Mundakako agintariekin beste hainbeste egiten da eta udaletxean bete betebeharrekoak kopau eta guzti.

Iluntzean, denak Bermeora itsasoz zein kaminoz, egun osoko erromeriari amaiera emateko anaitasunean.

Uztailari txapela ipinteko, Ignazio Deunaren eguna daukagu, Gipuzkoako lehenengo santu eta patroia; Bizkaikoa ere bai San Balentin de Berriotxo santu egin arte.

Loiolatik hasita, leku asko ere askotan ospatzen dira santu honen inguruko jaiak.

Besteak beste, bat aipatuko dugu: Bizkaiko Gorbeia mendian Egiriñaoko haitz barruko ermitan ospatzen dena.

Uztailaren 31n, inguruko herrietako gazteak eta ez hain gazteak, Gorbeia eta Gorbeiapeko landetara joaten dira jaiak ospatzeko. Gehienak egunatan, baina beste batzuk bezperaz ere joaten dira, egunak lagunduz gero.

Meza eta erromeria egiten da. Aurretik, askok eta askok Gorbeia tontorreko gurutzeari bisita egin ere bai. Janari eta guzti joaten dira, maleta sikua enjeneral.

Erromeria handia egiten da. Antzina ere bai, baina gauza kuriosoak gertatzen ziren eleiza-zensurarekin.

Gaur ez, baina lehenago, eleizeak debekatu egiten zuen baltseoa edo dantza agarradua egitea, eta eleiza edota eleizaz kanpoko autoritateak zeuden hori kontrolatzeko.

Baina gazteriak, zuhurtasunez, erromeria, apurka-apurka, Egiriñaoko landatik Sastegiko landararen mugaraino eramaten zuen.

Egiriñaoko Zeanuri da eta Zeanuriko apaizak debekatu egiten zuen baltseoa, Orozkokoak ez ostera, eta Sastegi Orozko partea denez, egin egiten zuten baltseoa. Fetxoria hau beste herri askotan ere gertatu izan da.

Kristau aroko jai onen ondoan, mitoak ere sortu dira Gorbeia ermita honen inguruan. Aikomen bat:


Gorbeia argi deabrua

Behin baten, Gorbeia mandazain bat Arratiako feriara joan omen zen San Inazio bezperan atze bete mandorekin.

Egin zituen egin beharreko tratuok eta bazkaldu ere inoiz baino ere hobeto.

Egon eta egon, janzaharrean, Gorbeiarantz mogitu zen eta han zihoran bideak betean bete-bete eginda.

Pagomakurrera orduko gautu egin zitzaion. Arrabako landara heldu zenean, atsedena hartu zuen. Zerura begiratu zuen eta enel, ilargiaz aparte beste argi berezi bat bere ondo-ondoan!



Zutundu zen eta karran hasi bere Egiriñaoko txabolarantz bildursartuz beterik.

Hark argi bereziak atzerik hara jarraitzen ziola ikusirik, badino berekautan:

—Nor haizen beist argi madarikatu hori, ikusiko duk Egiriñaoko pagadaira heltzen naizenean!

Heldu zen mandazain hori bere txabola ondora eta ene! ez zaio ba katigatzen argi berezi hori pago inausi baten adarretan!

Orduan mandazainak, hartu estaka endemoniño bat, jo ahal den guztian argi hori eta oño! deabruak berberak ez zion ba urten argi barrutik!

Aitearenka hasi zen ha mandazaina eta badaezpada Egiriñaoko ermitara sartu omen zen.

Hurrengo goizean, San Inazio ospatzen joan ziren goiztarrenak, hantxe aurkitu omen zuten ha mandazaina, dardar, berbartu eta guzti sustosartuaren sustosartuaz, baina bizirik.

Uztaileko esaerak

- Uztailean gariak ebaki, horrek zer poz duen nekazariak badaki.*
- Uztailean igitaia eskuan.*
- Uztaileko abarrotsak maite laket mahatsak.*
- Garagarrilean neskea utzi alborean (bazterrean).*
- Garagarrilean kanikula gainean.*

Abuztua

Abuztua, agorri edota dagonil izenez ere ezagutzen da sikate garaia izaten delako, alde batetik, eta artatxiki garaia, bestetik.

Gariaren garaia bukatzen da eta udaberrian ereindako artoa gora dator. Galondoak landu egiten dira eta arbia erein. Landa zeharretan belarrak ebagi, sikatu eta negurako gordetzea da bete-beteko beharlekua.

GARI JOTEA

Uztailaren azkenetan eta abuztuaren lehenengotan gari jotea izaten zen beharlekurik garrantzitsuena. Galondoetako gari metak egun kanikula edo beroetan zabaldu egiten ziren eta jo etxearen larrinetan, eskuz zein ganaduen laguntzaz.

Gari-joteak auzolanean egiten ziren. Gizonezkoak joten, emakumeak eta gaztetxoak akarreoan, umeak iturriko uretan eta amamatxoak bazkaria atontzen.

Garijoteak amaitu eta iluntzeko afarian inon diren kontuak eta gehiago kontatzen ziren gari-piloak lortu eta gero.

Egoera honetan zenbat eta zenbat bider kontatu ote da umeen aurrean harako ha galondopeko urregorriarena.

Galondopeko urregorria

1
Aita baten familia
alperra eta handia
nagusi nagikeria;
seme alperrok entzuten daude
aitagandik notizia
badela urregorria
guztientzako saria
solopean estalia.

2
Aitarena entzutean
hasten zaizkigu lanean
semeok euren artean;
aitzurak hartu eta aitzurren
goiz eta arratsaldean
batzuek lur azalean
ta besteek sakonean
denak jo ta ke batean.



3

Aitzurtu eta aitzurtu
egin zaizkigu nekatu
eta lanean aspertu;
beharra utziz etxera doaz
eta aitari azaldu
ezin dutela aurkitu
nahiz eta lurra sakondu
baina bai bihozberatu.

5

Semeok konturaturik
aitarena ulerturik
ez daukate ez dudarik;
garia dute urregorria
guztiak daude pozturik
aitarekin eskerturik
alperkeria kendurik
geroko jana lorturik.

4

Aita hasi da poztuten
semeon lanen ondoren
hasiz eurei esaten:
lur landuotan hasi zaitzte
gari hazia ereiten
urtean zehar zainduten
uztailean ebagiten
gero ogia egiten.

Udazkeneko ereitza
uztailerako emaitza
zintzo jokatzuz berma daiteke
eguneroko bizitza.

ABUZZTUA ETA EGURALDIA

Gure azti zaharrak enpirista hutsak ziren eta abuztuaren hasieran urteko pronostikua egiten saiatzen ziren. Egun horiek “ilegun, sortelegu edo zotalegun” izenez ezagutzen ziren.

Azti batzuk abuztuaren lehenengo hogeita lau egunak hartzen zituzten, eta bakoitzari urteko hilabete bat parekatu, era honetara:

Abuztuaren bata zelako, hamahirua halako. Urtarrilerako.
Abuztuaren bigarrena zelako, hamalaua halako. Otsailerako.
Abuztuaren hirugarrena zelako, hamabosta halako. Martirako.
Abuztuaren laugarrena zelako, hamaseia halako. Apirilerako.
Abuztuaren bosgarrena zelako, hamazazpia halako. Maiatzerako.
Abuztuaren seigarrena zelako, hamazortzia halako. Ekainerako.
Abuztuaren zazpigarrena zelako, hemeretzia halako. Uztailerako.
Abuztuaren zortzigarrena zelako, hogeia halako. Abuzturako.

Abuztuaren bederatzigarrena zelako, hogeita bata halako. Irailerako.
 Abuztuaren hamargarrena zelako, hogeita bia halako. Urrirako.
 Abuztuaren hamaikagarrena zelako, hogeita hirua halako. Azarorako.
 Abuztuaren hamabigarrena zelako, hogeita laua halako. Abendurako.

Beste azti batzuk "abuztuko lehenbiziko hamabi egunak, sorte egunak" esaeran oinarritzen ziren. Era honetara:

Abuztuaren lehena, abuztukoa.
 Abuztuaren bigarrena, irailekoa.
 Abuztuaren hirugarrena, urrikoa.
 Abuztuaren laugarrena, azarokoa.
 Abuztuaren bosgarrena, abendukoa.
 Abuztuaren seigarrena, urtarrilekoa.
 Abuztuaren zazpigarrena, otsailekoa.
 Abuztuaren zortzigarrena, martikoa.
 Abuztuaren bederatzigarrena, apirilekoa.
 Abuztuaren hamargarrena, maiatzekoa.
 Abuztuaren hamaikagarrena, bagilekoa.
 Abuztuaren hamabigarrena, uztailekoa.

Perutxu, jentilak eta arbia

Perutxuk eta hainbat gauza lortu zuten jentilengandik. Garia bazuten, "orri erortean" ereinda, artoa ere bai "orri irteteen" ereinda, baina hirugarrena falta zitzaien, arbia "orri lehorte edo San Lorentzotan arbi ereite" jentilen esaera betetzeko.

Herritarrak galondoak lantzen hasi ziren, areatu, saputzak atera eta lurra landu eta landu itaurrekoak aspertu arte.

Bien bitartean, Perutxuk bere anaia txikerra bialdu zuen jentilengana zuhur jokatzeko esanak esanda.

Jentilak, arbi-hazia garantzen zeuden eta Perutxuren anaia txikerrak esan zien:

—Zuen arbi-hazia txikiaren txikiaz ikusi ere ez duk egiten ba eta!

—Eta zuena bai ala? —erantzun zion jentil batek.



—Gurea? ia-ia galgaraua lakoa duk, ez duzue ikusi ala?

—Ba, eutso esku biak bete eta konpara ezak ondo zuenarekin, baietz gureak gehiago eman!

Perutxuren anaiak, hartu arbi-haziok eta santiamen baten eraman zituen galondo landura.

Botxoak egin zituzten eta arbi-hazi batzuk erein botxo bakoitzean, gero satsa bota gainera abonu gisa eta ernaroari itxaron. Horrelaxe lortu omen zuten arbia gure amalurtarrek, pertsona zein animalien elikagai izateko.

Arbiaren ereitza ostean, baserritarrak artoari begira hasten dira. Artopeko belar eta abarrak kendu, jorratu, gauza ez direnak atera eta arto artean hirusta edo sekulabedarra erein zainbelarra nagusitu ez dadin. Artoaren lasto lerdena aprobetxatzeko, sustrai hondoetan indaba ere ereiten da eta han, hor, hemen erremolatxa eta kalabaza hazia ere bai. Jarraian itxaron.

Itxarote honetan harako alegia polit bat kontatzen da gauza bakoitza bere lekuan dagoela adierazteko. Aikomen:

*E*zkurra eta kalabaza

1

*Behin baten baserritarra
udaburu partean
solorantz abiatu zen
jarraitzeko lanean
lanerako tresneria
eramanaz aldean
tipi-tapa plantatu zen
artajorra alorrean
jorratu ta jorratu
gogoz egurdartean
berriro ere ekiteko
berdin arratsaldean.*

2

*Gaulendia heldukeran
egin zenez nekatu
etxera baino lehenago
zuen atsedena hartu,
bidertzeko harizpea
zen bere pausa leku
eta bertan ezarririk
zegoen zoriontsu,
artotzako kalabazak
zituen begiratu
eta eurak direla ta
berekautan pentsatu:*

3
 Benetan daukat barruan
 buru hauste larria
 zergaitino kalabazak
 duen hazi txikia
 eta bere aihenetik
 horren fruitu handia,
 eta ostera haritzak
 izanik nagusia
 ezkur txikia du berak
 urteko arnaria,
 ulertezina benetan
 desoreka neurria.

5
 Baserritarra hasi zen
 ha ikusi orduan
 berrien berriz pentsatzen
 sakon bere buruan:
 gauza eder asko dago
 bizi garen munduan
 eta bat hementxe daukat
 nik neure inguruan,
 desorekarik ez dago
 uste nuen moduan
 berezkoak jarrai beza
 sortutako lekuan.


4
 Hausnarketan zegoela
 jausten zaio behera
 haritz ezkur txikitxo bat
 buruaren gainera,
 buruan jo eta gero
 saltoka paparrera
 eta poliki-poliki
 behingo baten lurrera,
 begiratzen zegoela
 batera ta bestera
 ezkur-kalabazak zeuden
 elkarrekin batera.

Dena ona urrunean
 eskasa norberenean
 ondo legoke gauzak hartzea
 beti diren-direnean.

ANDRA MARIAK ABUZTUAREN ERDI-ERDIAN

Jaietara pasatuz, abuztuaren hamabostean, Euskal Herriko beste herri askotan bezala, Bizkaian, Begoñako Andra Mariaren eguna ospatzen da.

Eleiza inguruko jaia da eta egun horretan tokian tokitik erromesak joaten dira Begoñara oinez, batzuk hogeitaka kilometroak eginaz goizean oso goizetik jagi eta erantatuta.



Behin Begoñaraz gero, txokolate egina hartu, zurrut zein txurroekin, meza kantadua entzun, eskapulario eta erroskillak erosi, maleta sikua jan eta tertzio batean berrien berriz etxera, oinez zein beste era batera.

*“Begoñako Andra Mari
Bizkaiko zaindari
zure seme maitaleok
zeugana kantari”.*

Abuztua, opor hilabatea bihurtu zaigun neurrian, hara eta hona dabil jendea atsedean bila.

Azken urte hauetan, hiriak protagonista izaten hasi direnetik, aste nagusi izeneko jai nagusiak ospatzen dira gure hiriburuetan.

Baiona, Gasteiz, Donosti eta Bilboko Aste Nagusiko jaiak

Aste Nagusia, hirietako jai ofizialak dira eta ekintzak ere halakoak izaten dira.

Baina, urteak joan urteak etorri, gizarte aldaketaren ondorioz edo, Euskal Herria hiritartuz joan den neurrian, Aste Nagusiotako ospakizunak kaleratu egin zaizkigu.

Lehengo ekintza ospakizunak jarraitzen badute ere, berriak etorri dira eta hiriok bete egiten ditugu jai giroa zabalduz bai egunez eta bai gauzez.

Gaur egun ez dago distantziarik eta bateko edo besteko jaiak ia-ia denonak dira.

Baionan, uztailaren 29tik abuztuaren 2ra bitartean ospatzen dira jai patronalak ekintza ugari direla bitarteko. Besteak beste, pilota partiduak, zezenak, folklorea, suziriak, zezensuzkoa, musikaldiak, kalejirak, etab.

Opor hilabete honetan, abuztuaren bostean, Gasteiz dugu bete-betean bere “La Blanca edo Elurretako Andra Mariaren” jaiak ospatzen.

Zeledon jaisten denean goietatik hasten dira jaiok eta amaitu artean ez dago paramenik. Gogora dezagun antzinako herri abesti hau:

"Aite, aite da
 txuntxulun berde
 ama Madalen matute,
 aite joan da Vituriera
 ama lepoan hartute
 aite etorri da Viturietik
 ama bidean galdute
 aitek topa dau ama kamaran
 gona gorri bat jantzite".

Erreleboetako lasterketa balitz bezala, abuztuaren hamabostean, Andra Mariaren Jasokundean, Donostiko Aste Nagusia datorkigu eta han ere beste hainbeste. Gogora dezagun "Festara" abestia:

FESTARA - FESTARA - FESTARA

"Festarik bear bada
 bego Donostiya, bai-bai
 betikoa da fama
 ondo mereziya.
 Bestetan ez bezala
 emen gaztediya
 amaren sabeletik
 dator ikasiya.

Tran la lai
 Tran la lai
 Tran la lai."

FESTARA - FESTARA - FESTARA

Azkenik, abuztuaren azkenetarantz, Bilbo sartuko zaigu bete-betean Aste Nagusian Marijaia aurretik dela.



Bilboko jai giroaren ondoan, Bilboren sortzaile Diego Lope de Haro eta Mari Anbotokoaren arteko mitoa daukagu. Aikomen:

Mari Anbotokoa eta Diego Lope de Haroren ezkontza

Behin baten, Diego Lope de Haro, Bilboren sortzailea, mendira joan omen zen eta halako batean emakume eder batekin egin zuen topez tope eta esan:

—Nor zaitudan baino ez da?

—Ni, Mari Anbotokoa nauzu, amalurtarren jainkosa zaharra, eta zu?

—Ba, ni, linaje handiko gizona eta Bilboren sortzailea.

Berbaldi luzea egin zuten biek bietara eta, Leireko San Virilaren txori entzutearen antzera, igarri ere egin gabe pasatu zitzaien denbora eta elkar agurtu baino lehen badiotso Bilboren sortzaileak:

—Ezkongai bila nabil eta linaje handikoak garenez biok, zergatik ez zara nirekin ezkontzen?

—Bai, egingo nintzateke —erantzun zion Mari Anbotokoak—, baina baldintza bakar bat jarri behar dizut, hauxe: ni kristau aurreko jainkosa naizenez eta zu kristaua, ez duzu nire aurrean kristau ezaugarrikerik erabiliko, bestela alde egingo dizut.

Esan eta egin. Ezkondu egin ziren eta seme-alaba bi mundura ekarri ere bai.

Baina, gabon egun baten, afaria hasteko zeudela, Diego Lope de Harok laberik harako ogia hartu, eta lehenengo ogi kuzkurra txakur amorratuarentzat gorde baino lehen, gurutze bat eginaz bedeinkatu egin zuen ogi hori, eta Mari, horretara, haserre gorrian plantatu zen eta birritan pentsatu gabe, hartu alaba eskutik eta garretan alde egin zuen etxeko balkonadatik eta ez omen zen gehiago agertu. Herritarren esanetatik dakigunez, harrezkero hor omen dabil Mari Anbotokoa kobazulorik kobazulo garra dariola.

Bestalde, Bilboren sortzailea eta bere seme Eneko etxean geratu omen ziren, eta aitak begiak itxi zituenean, Enekok jarraitu omen zuen Bizkaiko jaurreriko buru izaten.



Iparralderantz joaz, abuztuan, uztailean ere bai, beste jai zahar batzuk ospatzen dira: pastoralak.

PASTORALAK

Jenero hau herri-teatroaren barruan kokatuko dugu eta lurraldeari begira Zuberoa dugu nagusi, azken urteotan beste euskal herrietan zabaltzen hari bada ere.

Pastoralen berri emateko J. M. Lekuonaren *Ahozko Euskal Literatura* liburura joko dugu.

Jatorria

Ikerketa baten ondorioz (*G. Hérelle, Les Representations des Pastorales basques*), Frantziako misterioetatik datoz, XV eta XVI. mendeetan antzesten ziren antzerkien kidekoak eta molde berekoak omen direlako.

Deskribapena

Pastoralak deitutako multzo dramatiko hauek, ezertan aldatu gabe gorde dute Erdi Aroko misterioen teknika: funtsean, historia bat, bizitza bat, kontatzen da; "lehen pheredikia"-rekin hasten da eta "azken pheredikia"-rekin bukatzen. Ez ditu gordetzen teatro klasikoaren hiru batasunak: lekuarena, denborarena eta ekintzarena; ez dago ekitaldirik, ez eskenarik; eta nahasian datoz gai tragikoak eta gai komikoak.

Lekua

Tradizioz, herriko plaza eta pilota-lekuko paretari deusala kokatzen da antzes-taula.

Antzezlariak

Ezkongai diren gazteak, denak mutilak edota denak neskatoak; herriko jendea izaten da, profesiodun ez dena.



Ekintza

Antzezlariren mugimenduek kantuaren higidurari eta erritmoari jarraitzen diete, aurrera emanez pausoak lehen hemistikioan, eta atzera emanez bigarrenean. Onen eta gaiztoen ibilera berezia da: onak patxadan eta ohoretsu ibiltzen dira; gaiztoak, berriz, pauso handiak emanez, garraisiak atereaz eta imintzio bildurgarriak eginez.

Giroa

Antzerkiak egun guztian irauten duela esan behar, eta herri osoan zehar egiten dela: antzerki aurreko ibilaldi eta desfileekin hasten da, eta emanaldiari jarraitzen dioten kantu eta dantzekin amaitzen. Festa-giroa dela esan behar pastoralen emankizunak berekin dakarrena.

Antzez-tokia

Azpian hiru barrika-sail, eta hauen gainean oholtzazko zolera, habe batzuen gainean josia. Gortina batek bi zati desberdin egiten du antzez-lekua; eta gortinan egindako eskuineko atetik sartu eta ateratzen dira onak; eta ezkerretik, berriz, gaiztoak edo txarrak.

Hizkuntza

Neurtitzez emanik dago dena; eta era askotako moldeak daude, bai oinei, bai errimek dagozkienetan.

Garapena

Lehen predikuak antzerkiaren gaia ematen du. Heroiaren historian tartekatzen dira sataneriaren agerraldiak, eta emanaldi labur komikoak (nahasian datoz gauza gordin ausartak eta erlijiozko gairik jasoena, Erdi Aroko misterioetan egin ohi zenez). Eta azken predikuarekin bukatzen dira, ondarreko bertsoak oraindik ere usuario klasikoa gogora ekartzen digutela.

Musika

Liturgian erabiltzen diren gregoriar leloekin badute antzik pastoraletan erabili ohi diren musikak, batez ere lehen predikuan kantatzen denak. Eta ez ahaztu, pastoraletako doinuetan osagai txit desberdinak aurki daitezkeela eta

aldi oso desberdinetakoak. Zenbait lelok badute antzik pilota-partidutan tan-tuak kontatzeko erabiltzen den doinuarekin: beraz, doinu ohia zitekeen jendaurreko hotsegiteetan.

Gaiak

Gaurko gai berriez kanpo, J.M. Lekuonak zazpi ziklotan banatzen digu pastoraletako pertsonaien mundua: 1) Testamentu Zaharreko zikloa. 2) Testamentu Berriko eta antzinako Elizaren zikloa. 3) Santuen bizitzei buruzko zikloa. 4) Aintzinate profanoaren zikloa. 5) Gerra giroko kantuen zikloa. 6) Menturazko eleberrien zikloa. 7) Alegietako historien zikloa.

Pastoralen etorkizuna

Beste gauza asko bezala, gure geure esku dago. Orain arte gorde bada ohitura zahar hau, zergatik ez etorkizunean garaian garaiko leku-denboretara egokiturik?

Abuztuko esaerak

- Abuztuko euria, azafrau, exti eta ardan.
- Abuztuaren lehenbiziko egunak, sorte egunak.
- Dagonileko euria, ardao eta eztia.
- Esana baino gehiago ikusia, abuzturaz gero behera eguzkia.
- Abuztuko arratsean, hotza sudur ertzean.

Naturaren emaitzak agortuz datoz eta euren artean basoko ida edo irak orbeltzen, beste zuhaitz hostoerorkorretako orrien antzera.

Garai honetarik aurrera, orbela batu, idak ebagi, meta edo idapiloak egin eta abarretan ziharduten gure aurrekoek. Helburua, satsa lortzeko aurre-lanak egitea.

Gaur egun, lurrerako abonua edo ongari kimikoak nagusitu zaizkigu eta abonuek trataturiko lurra erosi ere egiten dira zertarako hartarako.

Baina lehenago, gure baserrietan, satsa zen abonua bakarra eta hori lortzeko oinarritzeko ekintza bihurtu zen idebate, azpigarri-batze eta abar guztia.

Esaera zaharrak diosku: "sats bako ereitzea eta diru bako ezkontzea berdinak". Eta hala izaten omen da, lurra satsa eta gizakiak bizitzeko lain diru beharrezko duen bezalaxe.

Basoetako ida, orbel eta azpigarria korta-ganaduei azpiak egiteko erabiltzen ziren. Azpigarriok sats egin ahala atera egiten ziren kanpora eta sats-piloak egin, fermentatu eta behar zenerako prest eukiteko.

Labrantza lurretarako erabiltzen ez zen satsa, landetan zabaltzen zen belartzak lortzeko.

Chileko nitratoa edo txori-satsa lehenengo eta gero abonua kimikoak etorri ahala, desagertzen joan da lan neketsu hau eta gaur egun korta moder-noei esker, ia-ia satsik egin ere ez da egiten. Nolako aldaketa!

IDEBATEAK HERRI BASOETAN

Etxagunek euren basoak zituzten satsgaietarako, baina errentadoreak ez, ugazabak eman ezik bere basoetakoa.

Baina, ia herri guztietan daude herri-basoak edo komunalak, eta horrelako denetan, ida garaian banaketa egiten zen. Nola? Ikus dezagun Arratiako ohitura hau:

Udaletxeak baso arloak izendatzen zituen eta herriko plazan elkartu interesatu guztiak, errentadore zein etxagun.

Iraileko egun bat aukeratzen zen eta agintariak adarra jotzen zuenean, denak hasten ziren galapan basoko arloa harrapatzeko. Igitaia lehenengo sartzen zuenarentzat izaten zen ha arloa. Eta, jakina, nor nagusi? Hanka bizkorrak



zituena, eta esaerak dioskunez, ezeukia zer den dakiena bizkorrago ibiltzen omen da eta etxagun asko bekokiastunduta ikusten omen ziren errentadoreen bizkortasunaren aurrean.

Behar astun honen ondoan, jai ospetsuak ere badaude hilabete honetan. Aipa ditzagun batzuk:

SANDONIAK EDO ANDOLIN DEUNA

Irailaren bian hasita, herri askotan ospatzen dira jaiok, baina urteak joan urteak etorri, herri batzuk entzutetsuago egin zaizkigu, esate baterako, Lekeitio, bertoko antzar joko edo “antzarrada” kontuan hartzen badugu.

Antzar jokoak

Mundu idatziari bagagozkio, ohitura honen berri idazle frantsesak eman digute XVIII. mendetik hasita.

Gaur egun, Lekeitiokoak nagusitu badira ere, ohitura hau zabalago ibili da Euskal Herrian.

Joko hau lurtean zein itsasoan egiten da. Lurrekoa zaharragoa dugu. Gogoratu, bestela, Oiartzuneko antzar joko zaharra: zutoin batetik bestera edo arbola batetik bestera kordel edo soka bat teinkaturik jarri, hanketatik eskegi antzarra, eta partaideak zaldiz joaten ziren antzarrari esku bakarrez sama edo burua kentzen. Beste batzuetan, ezpataz ere bai. Hasieran antzarra bizirik jartzen zuten, baina gerora hilda, erruki ematen omen zuelako bizirik harako heriotza horrek.

Denporarekin, ohitura hau itsasora aldatu zen, portura.

Pasaiaiko portuan ere egiten ziren antzar jaiak, baina nagusienak Lekeitioan egiten dira, urtean baino urtean ospetsuago bihurtu zaizkigularik.

Kasu honetan, soka edo kablea barku batetik zutoin batera jartzen da antzarra erdian lotuta dagoela. Lurrekoan baino altuagoan jartzen da soka. Partaideak, taldeka, txalupa baten joaten dira prota-





gonista zutunik dela eta antzarpera heltzen denean, antolatzaileek zoka bajatu egiten dute, partaideak samatik oratu antzarrari eta orduxean hasten da soka gora eta behera astinaldiak ematen edo antzarraren burua apurtu arte edota partaideak hankazgora erori arte itsasora. Antzar burua lortzen duenarentzat txapela eta talde afaria. Hau zer den jakiteko, bertan ikustealakorik ez dago, antzarrak erruki ematen duela ahaztu gabe.

ERNIOKO ERROMERIAK IRAILEKO IGANDEETAN

Erromako aita santu Leon XIII.ak mendi entzutetsuetako tontorretan gurutzeak ipinteko agindua eman zuenetik, Euskal Herriko hainbat menditan daukagu zutik kristau ezaugarri hori, Gorbeiakoa aurrelari dugula.

Gipuzkoaren bihotzean dugun ikuspegi zoragarriko Ernio mendian, gurutze bat ezeze, pila bat daude, batzuk tontorrera bidean eta gehienak tontor-tontorrean itxura misteriotsua eskeiniz.

Irailean zehar, lehenengo igandean hasi eta azkenengorarte "San Juan Txiki" ospakizuna bitarteko, Ernio inguru-herrietako erromesak ibiltzen dira gora eta behera, sinesmenean edo eta jai giroan.

Erromesak hiru koloretako zintak (gorriak, berdeak eta zuriak) eramaten dituzte aldean, gero gurutzeetan dindilizka eskegiteko.

Ernio puntarako bidean, gurutze batzuetan, neurri ezberdineko arandelak daude, eta herri-sineskeran esaten da, arandelok burutik oinetara pasatzen dituenak ez omen duela erreumarik izango.

Azken urteotan, iraileko azkenengo igandea izaten da egunik handiena, erromes eginbeharrok egin ondoren Erniopeko hegi-landetan sekulako herrijaia ospatuz.

GETARIAKO OSPAKIZUN BEREZIA

Irailaren seian, Getarian, munduari itzulia eman zion Juan Sebastian Elcanoren lehorreratzea ospatzen da.

Ez zen izango ez txantxetako kontua garai hartan eta garai hartako barku batekin munduari itzulia ematea.

Guk euskaldunok, Amalurraren ondoan, Amaitasoa ere badugu gure geuretasunaren eusgarri.

Itsasora joanik, zenbat bider ikusiko ote zuen Juan Sebastian Elcanok euskal abesti zahar honetan kantatzen dena:

*“Ilunabarra, eguzkia hasten da
jaitsitzen-jaitsitzen
dizdira ederra zaiola gutxitzen.
Diamantezko printzak zaizkonian galtzen
urrezko bola baten antzera da jartzen
eta geldi-geldi da itsaspean sartzen.
Eta geldi-geldi; eta geldi-geldi
eta geldi-geldi, eta geldi,
itsaspean sartzen-sartzen
itsaspean sartzen-sartzen!”*

AMA BIRJINAREN JAIOTZA-OSPAKIZUNAK

Irailaren zortzian, Ama Birjinaren jaiotza ospatzen da hainbat eta hainbat herritan.

Bizkaian, Urduña gainean, hantxe daukagu Antiguako Ama Euskal Herriari begira.


Txiki-txikitatik ezagutzen izan dugu jai honen berri, etxeko supazterretan abestu egiten zigutelako abesti hau:

*“Arre-arre mandako
bihar Urduñarako
handik zer ekarriko
zapata ta garriko,
eraztun bat eriko!”*

ARANTZAZUKO AMABIRJINA

Irailaren bederatziaren ospatzen da Arantzazuko Amabirjinaren egun handia.

Oñatetik Urbiarako bidean, hantxe daukagu frantziskotarren egoitza ederra, inon ederrik bada.



Sineskerak dioskunez, artzaitxo bati agertu omen zitzaion Amabirjina arantza baten gainean. Agerpenean, baseliza txiki-txiki bat egiteko agindu omen zion eta hasieran hasierakoa eta gaur gaurkoa Arantzazu Euskal Herri osoko erreferentzia bihurtu zaigu, bai sinismen eta bai kultura leku. Gogora dezagun abesti eder hau:

*“Zuk zer dezu Arantzazu?
amets kabi, otoitz leku,
Euskal Herria oso-osorik
kantari jartzen gaituzu.
Izena bera Arantzazu
kantu ederrena dezu
hitz bakar hori mintza orduko
kantari jartzen gaituzu”.*

GURUTZE DEUNA LEZO HERRIAN

Gurutze Deunaren jaiak herri askotan ospatzen dira irailaren 14an. Lezo herria aipatuko dugu eta, bereziki, Xenpelar bertsolari famatuari gerta-tutakoa kontatzeko.

Lezoko Gurutze Deunaren jai egun batean, Justo izeneko famatua egin zen bertsolari traketsak apostu egin zion Xenpelarri zeinek bota bertso aldrebesenak.

Egin zuten, baina Xenpelarrek berririk aldrebesenak ere ondo tajututa botaten zituenez, Justori eman zizkioten txalorik beroenak.

Dena dela, “galtzaile” suertartu arren, hona hemen Xenpelarren bertsook:

1
*Aranon sortu dira
hamalau nobio
zortzi konfiteroak
sei botikario.
Seina kintalekoak
hamar armario,
gizon batek “a pulso”
bizkarrian igo
arrazoi honi kontra
nork egingo dio?*

2
*Itsasoan ari da
arbolak landatzen
itsuak ikusi du
etxea erretzen;
hankamotzak badaki
bidea korritzen
mutua deiadarka
jendeari deitzen.*

3

*Gizon bat ikusi det
hirurehun urtetan
marinel dabilela
ontziko soketan;
zapata orde zituen
txalupak oinetan
haren aitona berriz
itsasora urketan.*

4

*Txantxangorri batenak
sei libra tripaki;
txingurri batek berriz
zazpi arto-jaki.
Baheak irina eho,
errotak iralki,
ganibetak erre ta
labeak ebaki
horien madrea non dan
Xenpelarrek daki.*

SANTA EUFEMIA OSPAKIZUNAK

Irailaren 16an Santa Eufemia ospatzen dugu Euskal Herriko hainbat herritan. Bermeon, jai patronaletatik aparte, uztailaren 22an, Santa Eufemia eleiza-juradera honetan hasten da mezarekin Magdalenetako jai ospetsua.

Jaiak jai, beste bat aipatzera goaz, Aulestia edo Murelagakoa. Santa Eufemiaren basiliza, Aulestiako herri lurretan badago ere, Markinako marmol beltzeko harrobi istorikoen mendi gainarekin egiten du muga edo lindero.


Jai honetara inguru-herrietako asko joaten da, egunez goian erromeria, meza, eta gainetikoak ospatu ondoren, gero Markina edo Aulestiako plazan jai giroan jarraitzeko.

Santa Eufemiaren basiliza honetako jai hau gerriko mina kentzeko erremedio bezala ere erabili izan da. Horretarako gerrikomindun guztiak joaten ziren ermitara bideko eskeilarak gora gerrian argizarizko kandela biguna oboan-oboan ipinita, gerrikotea bera argizaiola balitz bezala.


Gaztetxoei dagokienez, basilizara igon eta gero, igoeran zenbat maila edo eskeilara kontatu dituzten galdetzen ibiltzen dira ezbai gisa, Gaztelugatxera bidean bezala. Berba baten esanda, jai ikusgarria, bai horixe!

Udazkena


*Ospakizunak ospakizun, urteko egutegia aurrera
doa eta irailaren 21ean udagaien edo udazkeneko
ekinozioan sartzen gara.*



Udazkeneko esaerak



Udagoieneko loreak indar gutxi.



Udazkeneko loreak fruta gutxi.



Udazkenean uso pasea izateko,
aurrena txoriak pasa behar.



Udagoienean batzeko, aurretik egin behar.



Udazkenen orbela lurrean.

UDAZKENEKO EKINTZAK

Etimologiara bagoaz, euskaldunok UDA erroa hiru urtaro edo estaziotarako darabilgu: UDABerri, UDA eta UDagoien edo azken, NEGUrekin kontrajarriz. Hots, udaberrian natura berpiztu, udan garatu eta udagoiengan heldu egiten da.

Esaera zahar batek diosku “udagoiengan batzeko, aurretik egin behar”. Egia esan, Euskal Herrian, udan bertan hasten dira batzen garia eta abarrak, baina gainetiko uztak udagoiengan zehar.

Naturaren zikloko lau aroak hartuz, beharbada, udazkena dugu ospakizun aldetik urriena, uda eta neguaren arteko zubia delako.

Baina, baserri mundura bagoaz, pisu handiko estazioa dugu nekazaritza eta artzaintzan, itsasoa ahaztu gabe.


Euskal Herriko baserrietan, udagoiena uztaroa da. Urtean zehar ereindako hazien eta fruta-arbolen frutuak batzeko garaia dugu. Horra hor, laboreak, linua, artoa, mahatsa, sagarra, madariak, gaztaina, intxaurrak, hurrak eta abar luze bat.

Uzta batze horrek beste hainbat ekintza ekarriko ditu, hala nola, gari eta artoaren prozesua, galburu edota artaburutik hasi eta irin egin arte, linuaren lanak eta penak, mahats eta sagarrarekin egiten den ardo, txakolin edo sagardoa, etab.

Urtean zehar hazi eta loditutako abere batzuk ere txerriki edo zezin gatzituetarako aukeratzen dira negurako jaki bezala.

Ganbaretan, sagarrak, intxaurrak, hurrak, indabak, gaztainak, madariak eta abar gorde egiten dira etxekeen beharrianak betetzeko.

Udagoiengan, uzta batu bakarrik ez, hurrengo urterako ere pentsatu behar da, eta horretarako, hurrengo urteari begira, hazirik onenak aukeratu eta hazitarako gordetzen dira, hazeguna heltzen denean ereiteko, batzuk sabi edo mintegietan lehenengo, piper-tomateak esaterako, gero ernaro on baten ostean ortuetan landatzeko eta beste batzuk zuzenean lur landuetan, gari-artoak, adibidez.



Aipatu ditugun ekintzak txandakutzen joango gara udagoieneko hiru hilabeteotan zehar.

HURRAK ETA INTXAURRAK

Gaur egun, era guztietako gozokiak ditugu edozein lekutan, baina lehenago, gure baserrietan ez zegoen holakorik eta hur-intxaurrek ziren nagusi gabonetako intxaursaltsa zein urtean zeharko agilando guztietarako.

Horrexegatik, udagoiengan, batu egiten ziren fruitu sikuok eta gorde artza, zakuto edo otzaretan.

“Umeak Madrilen ere ume” diosku esaerak eta halaxe izaten zen, eta deskuidatuz gero, fruituok zoruratu ahala jan egiten ziren dandabelekoak goiti beheiti. Horregatik, mehatxupean eukiten zituzten umeak zein bat ere barik geratu.

INTXAURMANTXERUAK

Hurritzetako hurrekin zailagoa zen jakitea, “in fraganti” harrapatu ezean, baina intxaurrek nork jan dituen errazago jakiten zen.

Intxaurren garauaren mintza arrankaldu edo itzekarratzen hasten zenean, umeek ezin izaten zuten itxaron eta mintz hori kendu eta jan egiten zituzten intxaurrek gordin-gordinik eta eskuak garbitu barik, eta jakina, zenbat tripala eta bizigo! Baina, intxaurren mintzak eskuak zikintzen zituen zumika edo ugeldarria utziaz eta lohi hori lejiak berak ere nekez kentzen zuen, eta jakina, eskuetan zen ezagun nor ibili den intxaurren jaten.

Kasu horretarako, intxaurre-jabeek mehatxua asmatu behar izan zuten eta nagusiek hauxe esaten zien, zigun, niri neuri ere bai, jakina: “Denbora baino lehenago eta baimen barik jaten badituzue intxaurrek eta eskuak zikindu, intxaurremanteak etorriko dira eskuok ebagiteko”.

Era horretara, batzuk behintzat, bildurtu egiten ziren eta bakean utzi intxaurrek, batu eta gordetzeko.

Auzune batzuetan, intxaurren oilar-lur edo herri-lurretan egoten ziren eta horiek ez zuten jaberik, denenak baitziren. Hor ez, hor ez zegoen intxaurremantearen bildurrik, indartsuenarena baino.

Hur-intxaurren zindoak gorde egiten ziren, baina harjoekin jolastu egiten zen.

Intxaur azalekin txepetxak egiten ziren. Azal erdi bat hartu, alde bataren aurrealdea ebaki kontuz-kontuz, hari edo firu bat lotu oboan-oboan, zotz batekin tornikete bat egin eta txepetxaren hotsa atera erazi eskuko lau atzamarrekin.

Hurrekin ordea, harjoak, barrutik janda zeudenez, erre kara joan, erreka barruan harrizko ubideak egin eta hur-lasterketak egiten genituen ur korrontean.

Beste batzuetan, hur biribilenak hartuz, kaniketara ere jolasten zen, batez ere neskatoen artean.

GAZTAINAREN KULTURA

Euskal Herrian, artoa eta garia nagusitzen hasi arte, gaztaina janari garrantzitsua izan da gure baserrietan.

Gaztaina izena latinetik datorkigu eta badirudi erromatarrak akarritakoa dela nahiz eta gero gaztaina mota bakoitzak euskal izena hartu: esaterako: edadegeak, saldaimentuak, lopetxak, ataloak, mentugorriak etab.

Udagoienean, gaztainondoa eratzi egiten zen fartika edo baranda batekin. Behin kirikiñoak lurrera bota ondoren, batu egiten ziren eta kirikinisuetan gorde edota etxera eramán.

Kirikinusiak harrizko edo zurezko hesiak ziren eta hesparruok kirikinoz betetzen ziren eta gero tapatu zein ganaduren batek jan.

Denborarekin, kirikiñoak usteldu egiten ziren eta errazago apartatzen ziren gaztaina garauak, jateko zein saltzeko.

Gaztainak danborilean erreta zein lapikoan egosita jaten ziren, afarian batez ere.

Fruituaz kanpo, gaztainondoak zur preziatua ematen izan digu, oholak, etxegintza zein altzarietarako, zurmitzak otzara, zaran eta abarretarako, egurra ikazgintza edo surterako, etab.

Urteak joan urteak etorri, gaztainari gaixotasuna etorri zitzaion eta harjo horrek apurka-apurka azkena eman zion kultura honi.

Baina euskaldunon herri zaharra bizia denez, gaztaina galdu ahala, beste landare mota batzuk landatzen hasi zen.

Garrantzitsuena pinua izan zen. Besteak beste, Mario Adan de Yarza (Bilbo, 1846-1920) nagusitu zen basoak berritzean. Koniferak ekarri zituen kanpotik, batez ere "pinus insignis", eta hemen landatzen hasi.

Pinu mota honek, iritziak iritzi, beste mundu baten sartu gaitu: papelera, zerrategi eta abarretan.

Pinu mota honen landatzetik botatzerainoko batazbestekoa berrogei urtekoa da. Landatu eta urte batzuetara entresakak egiten dira eta apeak papeleratara eramanez papela egiteko. Enborra loditzen denean, oholerako balio du eta zerrategietan egiten da lan hori behar den gauzetan aplikatzeko.

Guzti honek baserrietako etxagunen ekonomiari bultzada bat eman dio eta belaunaldiz belaunaldi probetxua atera.

Gaztainaren kultura atzean geratu zaigu, eta atzerago joanda, mitotaraino heltzen gara. Ikus dezagun Perutxu bizkorrak nola asmatu omen zuten trontza, jentilen esanetarik gaztaina orrira begiratuta: aikomen!

Perutxu, jentilak eta burdingintza

1

Jentil artean oso erreza
ei zen burdina lantzea
hori zen behintzat bai Perutxuren
ta herritarren ustea
lehenengotan garia eta
gero errota lortzea
herritarrentzat izan omen zen
bizi aurrerapidea,
hurrengo baten jentil ola bat
lortu zuten sorostea
ikasiz nola egiten zuten
burdinaren soldatzea
horretarako behar zelako
buztina edo area.

2

Jentil guztiak oso haserre
zeuden baso ta mendian
eta ostera pozez beterik
Perutxu eta, herrian
baina tresna bat ikusten zuten
han jentilen pagadian
trontza luzea hara ta hona
pagoaren ipurdian,
bota ta bota pago garraztak
euren ingurumarian
Perutxu eta ohartu ziren
aurrerapide handian
eta sorosten ibili ziren
gaueroko ilargian.

3

Sorostu arren ibili ziren
gura eta ezinean
eta Perutxu oinarritu zen
herri zuhurtasunean,
ola gizon bat bialdu zuen
udako egun batean
esanaz trontza sortua dela
olagizonen artean,
hori entzunik jentil guztiak
jarri ziren ezetzean
esanaz hori ezina zela
eurekandik aparte
gaztañorria behar zelako
trontzaginak egitean.

5

Perutxu eta, lotan zeudela
agertu zen ilargia
eta jentilak olara sartuz
egin zuten fetxoria
trontzari guztiz oker-okertu
haginadura guztia,
arin ikusi zuten herrian
iritsiz egunsentia
jentilak gabaz maltzurkeriaz
egindako okerkeria,
baina begira norainokoa
izan zen ha miraria
trontza berriaz nagusitu zen
Perutxutarren herria.

4

Perutxuk eta gaztañorria
laster egin zuten hartu
eta haginak nola zituen
berehala begiztatu,
olara joan eta trontza bat
egin zutenean sortu
pagadui baten badaezpada
egin zuten konprobatu,
aurrerakuntza handia zela
ziren denak konturatu
baina mendian jentil guztiak
egin ziren haserretu
eta birritan pentsatu gabe
iluntzean herriratu.

Mendi altura aldatza
loreak ere arantza
lur honetako bizibidean
ez baztertu esperantza.

MIGEL GOIANGERU DEUNA

Irailaren 29an ospatzen da hau jai hau eta hainbat herritan egin ere. Besteak beste, hiru leku esanguratsu hartuko ditugu: bata Aralarrekoa, Nafarroan, bestea Erñozarrekoa, Bizkaiko Santimamiñe gainean dagoena, eta hirugarrena Iurretakoa, Durangori deusala.

Hiruak ditugu leku mitikoak eta zer egokiagorik bateko eta besteko mitoren bat kontatzea baino.

Ereñozarreko ermitara bidean, haitzean, berezko hiru eskilara aurkitzen dira, eta herritarren ustez, San Migelen hiru pausuak omen dira deabruari ihes egite ordukoak.

Urdaibaiko jentila

Jentil ikaragarri bat bizi omen zen Urdaibai inguruan. Ikaragarriak izan ere egin behar. Herritarrek kontatzen dutenez, jentil honek hanka bata ipinten omen zuen Ereñozarreko San Migelen, bestea Sollube gainean, esku bata Atxerreko San Pedron eta bestea Izaron, eta Mundaka aurrean itsasoko ura edan Urdaibaiko padura guztia ia-ia ur barik utziaz.

Aralarreko herensugea

Behinola, San Migelen eleiza dagoen mendi tontorrean, herensuge bat bizi omen zen eta herrira joaten zen bakoitzean deskalabruak egiten omen zituen.

Horretara, herriak, herensugea aplakatzeko, egunean pertsona bat ematea pentsatu zuen.

Egun batean, neska bati tokatu zitzaion herensugereren zain egotea. Ha neskatoa itxaroten zegoela, penitentzia betatuten zegoen Goñi zalduna hurreratu zitzaion bere katea luze batetik lotuta zeuzkan burdinazko oinetako eta guzti, eta etxera joateko agindu zion neskatoari.

Handik lasterrera, deabrua agertu zitzaion Goñiri gizon feturan eta badiotso:

—Burdinazko oinetakootatik irtetzeko, zeure gorozkiekin igurtzi behar-ko dituzu oinak.

Halaxe egin zuen eta libratu ere bai, katea narraz eraman arren. Herensugea etorri zenean, Goñiren katea irentsiten hasi zen eta beragana hurbildu zenean:

—San Migel, lagundu! —deiadarka hasi zen.

Esaten da, zeruan entzun egin zirela berbok eta baten batek esan ere egin ziola San Migeli:

—Mundutik deika dauzkazu, zoaz!

—Bakarrik ez, —erantzun omen zuen San Migelek—, Jaungoikoa buru gainean dudala joango naiz joatekotan.

Halaxe egin omen zuen eta San Migelek bere ezpata zorrotzarekin burua ebagi omen zion herensugeari eta katea Goñiri.

Gerora, hantxe bertan egin omen zen San Migel eleiza, gaur egunetan ere entzute handikoa.

“**A**ita San Migel” Iurretako ezpatadantza

Herrian zein dantzarien artean erabiltzen da koplak nagusi hau, letra ez denean, soinua, edo biak batera. Horra hor:

“Aita San Migel Iurretako
zeru altuko lorie (gloria)
agure zaharra dantzan ibili
hak eiten jozak barriek”.

San Migel herri abestia

R.M. Azkuek batu zigun abesti hau bere *Cancionero Popular Vasco* bilduma ederrean:

San Migel dogu geure patroia
jarraitu ondo berari
zapalduteko zintzo burua
infernuko dragoiari
mundu (h)onetan egin eztaigun
sekula gaxik inñori.

Izanik aldi atan
zeruko jentea
alde bat guztiz ona
bestea deungea
esetsi gogor batek
birrindurik Luzifer
geratu zan kapitan
zeruan San Migel.

BASO ETA GAINETIKO ZUHAITZAK

Udagoienez, gure amalurtarrak baso eta inguruko zuhaitzei begira zeuden. Zuhaitz bakoitzak bere funtzioa bete eta betetzen du euskal gizartean eta hona hemen koplakantuz eurretariako batzuen aipamena:

Euskalduna zuhaitzei kantuka

1

Oinarri sendoan haitza
basoan zutik zuhaitza,
gizakiontzat babes lekua
gure betiko haritza.

3

Haziaren ernaroa
lur onean oparoa,
Euskal Herriko gure basoan
beti emankor pagoa.

5

Basaloreen usaina
gozoa eta bikaina,
janari eta egurtarako
horra hor gure gaztaina.

7

Gauean zerua baltza
diz-diz keinuka izartzat,
errekaldean erne ta hazten
bihotzik ez duen haltza.

9

Izotzetik ura hotza
gari lastotik ahotza
etxe ondoan beti presente
sinbolozko ereinotza.

2

Lur goienean iparra
zeru altuan izarra,
basoan eta etxe ondoan
gizonen lagun lizarra.

4

Ur artean ugartea
arbolatsu basartea,
euskaldunontzat batzar lekua
orri iraunkor artea.

6

Piperraren azal fina
batzuetan pipermina,
pozoitarako erabili da
gure basoko hagina.

8

Berdea zuhaitz orria
lurpeko lurra gorria,
barrutirako hesi bizia
arantzazko elorria.

10

Lorez beterik maiatza
lorerik lore erletza,
lorera lehen datozen biak
otea eta saratsa.

11

Mahatsondotik ardoa
sagarretik sagardoa,
fruta landarez beterik dago
gizakiaren soloa.

12

Baso-zuhaitzak egurra
pago-haritzak ezkurra,
gizakiaren etxe ondoan
hurritza eta intxaurra.

Iraileko esaerak

- *Iraila, udaren buztana eta neguaren hastapena.*
- *Iraileko euria, berrogei eguneko euria.*
- *Iraileko euriak mahasduia ondu.*
- *Agorrila idaila.*
- *Garoilak neguari keinu.*

Urriak dira izan ere hilabete honetako ospakizunak, baina urteak joan urteak etorri, ekintza nagusi batzuk ia-ia festa bihurtu dira, besteak beste, artazuriketak, sagardoa, txakolina eta eurengandiko erakust-azokak. Artoa, sagardoa eta txakolina aipatuko ditugu, azkenean Gernikako urriko azkenengo asteleheneko ospakizunaz bukatzeko.

ARTOA

Artoa dinogu eta ez artaburua bakarrik. Artaburua orduko, gure base-rritarrek garbea eta kanila aprobetxatzen dituzte ganaduen jaki bezala.

Urri inguruan, artaburuak batzen dira eta lastoa ganaduei eman ahal dena jateko, edo bestela soloan bertan utzi usteltzeko edo erre ere bai iduri edo hautsak abonua bezala erabiltzeko.

Behin artaburuak ganbara, dolare edo tejabanaraz gero, artazuriketa-
ren tertzioa heltzen da.

Artazuriketa artaburuari garau gaineko kapaxak kentzea da. Eskuz egiten zenez, familia osoak elkartzen ziren menester hori aurrera eramateko, udazkeneko iluntze luzeetan.

Behar hau, normalean, iluntze edota gauetan egiten zen, beste beharrak egin eta gero. Tertulia itzelak egiten ziren, kantu eta bertsoetaraino heldu arte. Horra hor esate baterako Nafarroan “arrosnabarrak” izenez ezagutzen diren kantuak.

Artaburu zirituak gorde egiten dira, onenak hazitarako aukeratu eta kapaxak goitegian gorde ganaduei jaten emateko.

Artakapaxak hainbat gauzatarako erabili izan dira. Besteak beste, lastamarraga edo koltxoia egiteko erabilten zen. Arrantzaleek atunetarako amuan ipinten zuten amua estaltzeko. Beste batzuek zigarroak egiteko papel orde ere bai.

Hortik aurrera, jan ahala-jan ahala, garandu egiten ziren artaburuak eta jan, batzuk garauan eta beste batzuk eho eta irinean.

Pertsona-jaki bezala, artopil, talo eta morokila nagusitu ziren, eta horretarako, labigerrak egiten ziren harik eta artaburuak berez ondo sikatu arte.

Talogintza eta ezkontza

Zeberion gertatu zen. Herri honetan hainbat eta hainbat errentadoreak izan dira eta urtero-urtero joaten ziren egun izendatu batean errenta ordaintzen ugazabaren etxera. Errenta hiru erataria ordaintzen zen: beharrarekin, uzta edo animalia batzuekin eta azkenik, ahal zuenak, diruarekin.

Errenta ordaintze egun horretan, ugazabak bazkaria ematen zien errentariei.

Holako egun baten, errentadoreak ugazabaren bazkariaren zain zeuden. Han supazter batean, ugazabaren neskamea talo erretan zebilen behe-suaren gainean talaburdinea ipinita. Errentoretariko bat, mutil gazte eta lerdena bera, hurreratu egin zitzaion eta esan neskatzari:

—Zuk erretako taloak jango nituzke ba nik, eta ondo gozo gainera!

Hak neskatoak, talo-erretzeari utzi gabe eta buruari buelterdi emanda, erantzun zion:


—Ba, nik zuri erre ere bai, azal biko talo gozoak!

Eta, ezkondu egin ziren biak handik geroagora, errentadore bezala lehenengo eta gero dirutxo batzuk egin zituztenean, Ugaoko pisu batera, etxerik hara joateko beharren, gizona fabrika zaharrera eta andrea sentzain aberats baten etxera.

SAGARDOA ETA TXAKOLINA

Araba eta Nafarroan, klima bitarteko, beti edan izan da ardoa, baina Bizkaia eta Gipuzkoan erosi egin behar izaten zen. Erosetik aparte, Gipuzkoa eta Bizkaian sagardoa eta txakolina izaten ziren, eta gaur ere badira, ardoaren ordezkioak.

Horretarako, ondo zaintzen ziren sagardui eta mahasduiak, uzta garaian dolareetara eramane eta sagardo-txakolinak egiteko.



Baina, ardoa laster nagusitu zen Euskal Herri osoan. Gaur ia dena egiten da ardobotiletan, baina lehenago narruzko ontziak erabiltzen ziren. Ahuntz narruz egindako laurogei litro inguruko zahagiak erabiltzen ziren ardoaren garraiorako eta neurri ezberdinetako zahatoak etxean eta lagun artean edateko.

Neurrietara joanaz, azunbrea eta kantara erabiltzen ziren. Azunbrea litro bi dira, eta kantara, hamazortzi. Koartiloa azunbrearen laurdena, edo errazinoa.

Gaur egun, ardoaren kulturak beste dimensio bat hartu du eta horren ondoan sagardotegi eta txakolindegia ere indarra hartu dute, baina ez ahaztu herriko esaera zahar hau: "Sagardo, txakolin edo ardoarekin afaltzen duenak, urarekin barausi".

Edarien mundu honek umore ona ekartzen duenez, bizitzaren joanean herri-abesti entzutetsuak ere sortu izan dira. Aipa ditzagun pare bat: bata Gipuzkoakoa eta bestea Bizkaikoa.

*A*rdoa eta gizona

*Ardoa eta gizona dijoaz kantatzera
ardan-andere gizona entzule dutela,
gizonak galdetzen dio: —ona ote zera?
—Bonbilean nago eta hasi zaiz edatera.*

*Ardoak erantzun du pozaz zoraturik:
—ez da nigana etorri zeu bezalakorik,
bahituta izan naute kortxo ez estalirik;
zuk askatu nazu eta ez utzi tantorik.*

*—Ardoa, klin-klin-klin, zatoz bonbiletik pozez,
puxkaz nahiago zaitut, ez guztia kolpez;
usaiz ona zera ta hobea kolorez;
ahoa muxtatzeke barruratu zaitetz.*

*—Ahoan sartu ezkerre banuen esperantza,
eztarria dezulako elkorra ta latza,
ondotxo har nazazu, gozatu al baneza;
negarra heldutakoan, hori dezu poza!*

Jai egunez

Jai-egunez txakolinez
barrua bete ezkeru,
abarkadun auzo-lagun
guztiok gagoz bero.

Txakolin, txakolin, txakolin eta txuzpin;
txakolin, txakolin, txakolinak on egin.

Mahats urdina pitxar bina
edan arren zutunik,
batzuk motel-motelik;
irradari, zantzolari
ager gara zororik.

Txakolin, txakolin...

Bi ailara kurtzetara
lurrean irarrita,
ikotika, artazika,
irradan bat hasten da.

Txakolin, txakolin...

Batzuk uju, bestek juju
berein agura han dira
bekaitzaren begira
bizkor ta azkar lehena bakar
dabil jira ta bira.

URRIKO AZKEN ASTELEHENA GERNIKAN

Urrian gaudenez, Gernikakoa hartzen dugu, baina urtean zehar Euskal Herriko hainbat herritan ospatzen dira azoka ederrak eta bide batez jai giro aparta eskeintzen digute.

Gernika bete-bete egiten da urriaren azkenengo astelehenean. Inguruetako baserritarrak euren produktu eta guzti plantatzen dira han, hor, hemengo postuetan eta salerosketaren saltza eta perejila martxan jartzen da.

Bien bitartean, gose-egarriak asetzeko, talogintza eta prijitelak ez dira falta, ardo, sagardo eta txakolina lagun direlarik.

Gernikako merkatu entzutetsu hau aipatzean, ezin dugu ahaztu harako ha beste merkatua, bonbaz josita haustuta utzi zutena.

“Eman da zabal zazu, munduan frutua” kantatzen zuen Iparragirrek eta halaxe dela dirudi gaurko Gernika gaztea ikusita.

Urriko esaerak

- Urri eguraldia, eguzkia eta euria.*
- Urria, usoaren galgarria.*
- Urriaren azkenean, gaztainera etxean.*
- Urri txerri, mal txerri.*
- Urrieteak urri gauzak eta urri dira aren be(h)arrak.*

Azaroa

Hilabete hau, bere izenak adierazten digunez, haziarekin lotuta dago. Herriko esaera zaharrak dioenez, “orri erorte, gari ereite...” garai honetan, behin iraileraz gero lino, gari eta abarren ereitzan sartzen ziren gure aurrekoak. Gaur egun, linoa eta, hainbat euskal lurraldetan, garia bera ere historia bihurtu da.

Beraz, garai honetan, lurrak landu eta ereitzak eginda uzten ziren, gero hurrengo urteko udan uztak lortzeko.

Behin ereitzak eginez gero, beste ekintza batzuk nagusituko dira gure baserrietan. Bata etxean bertan, linoaren kultura, eta bestea basoan, ikazgintza.

Beste alde batetik, kristautasuna sartu ahala, Eleizeak ospakizun handi bat kokatu zuen hilabete honen hasierako egun bietarako: Domu Santu eta Arimen eguna.

LINOAREN BEHARLEKUA

Euskal Herrian, ehun modernoak sartzen hasi arte, linu eta artilezko oihal, jantzi eta abarrak egiten ziren.

Artile eta linu irutea andrazkoen beharlekua zen, eta udagoien eta neguko gauiluntzetan goruetan eragoioen bakarka edo taldeetan ikaragarritzko tertuliak eginaz.

Artilea errez lortzen zen. Behin uda joanez gero, ardiak mutildu egiten ziren eta mendira bota. Lana edo artilea haria egiteko zein koltxoitarako erabiltzen zen, lastamarragazkoa baino erosoagoa zelako. Behar zenaren gainetikoa saldu egiten zen.

Abarka trailak eta egiteko, ardi beltzaren lana nahasten zen, horretarako azuri beltzak ere hazi egiten ziren artaldeetan.

Linuaren prozesua luze eta gogorragoa zen eta batek baino gehiagok kontatu zein kantatzen izan ditu linuaren penak eta nekeak.

Esaera da izan ere, baina, “linoaren atsekabeak, amaigabeak” izaten omen ziren.

Linua irailaren azkenean edo urrian ereiten zen hurrengo urteko San Juan inguruan batzeko.

Linua eskuz ateratzen zen, sustraitik, eta egun batzuetan sikatzen utzi linaza soloan bertan.

Gero eskutadak egin eta etxera eramaten zen, jo eta hazia garantzeko.

Hazia gorde egiten zen hurrego urterako eta lastoa edo belarra putzu edo erre kara eraman ondo beratuteko.

Hamabost bat egun igaro ondoren, linu-sorta guztiak hartu eta etxe aldera eramaten ziren. Eskutaden estukinak desegin eta zabal-zabal jartzen zen linua larrainean sikatu eta azala usteltzeko.

Gero, etxeko atarian, linarrarian zanpatu edo mazoaz jo egiten zen dena, azal ustel eta sastaparra guztiak bota arte.

Hurrengo beharra ezpatatu eta trangatzea zen, linuaren harigaia harrotu eta biguntzeko. Jarraian, andrazko eta gizonezkoen linu-afaria.

Hurrengo pausua subarasketa zen. Subaratsak linua harrotu eta bigundu egiten zuen, eta baten barik, hiru bider eginez gero hobeto.

Behin horraz gero, orrazketa zetorren, zarrantxa izeneko tresna bat zen, ohol luze baten puntan hamar-hamabi zentrimetrotako iltzeak zituena orrazi modura. Harigai zeheagoa nahi izanez gero, orraztualdi gehiago emon behar izaten zitzaion. Guztietatik zehe edo finena amukoa edo kirrua zen, izara, atorra edo gizonezkoen alkondarak egiteko erabiltzen zena; muiloa latzagoa, eta mukerra edo burutxa bastuena.

Hori guzti hori egin ondoren, irun egiten zen gorulariak goruetan ekinaz. Irute horren azalpena adierazteko zer politagorik R.M. Azkuek jasotako iparraldeko "Oh!, Pello, Pello" abesti famatua baino; Aikomen:

Oh! Pello, Pello

1

*Oh! Pello, Pello
logale nauk eta
jinen niza oherat?
Irun ezan eta
gero, gero, gero
irun ezan eta
gero, gero bai.*

2

*Oh! Pello, Pello
irun diat eta
jinen niza oherat?
Astalka zan eta
gero, gero, gero
astalka zan eta
gero, gero bai.*

3

Oh! Pello, Pello
astalkatu diat eta
jine niza oherat?
Harilka zan eta
gero, gero, gero
harilka zan eta
gero, gero bai.

5

Oh! Pello, Pello
irazki diat eta
jinen niza oherat?
Jos ezan eta
gero, gero, gero
jos ezan eta
gero, gero bai.

4

Oh! Pello, Pello
harilkatu diat eta
jinen niza oherat?
Irazki zan eta
gero, gero, gero
irazki zan eta
gero, gero bai.

6

Oh! Pello, Pello
josi diat eta
jinen niza oherat?
Argia dun eta
bihar, bihar, bihar
argia dun eta
jinen hiz bihar.

Linuaren kultura mitoetaraino heldu da, eta horren testigantza gisa, hona hemen Zeberion batutako gorularia eta katu beltzaren ipuin esaunda:

Sorgina katu itxuran

Aikomen hemen, Zeberiko Uriondoztar andra gorulari batek kontatutakoa:

Lehenago Zeberion, Uriondon batez ere, goruetan asko egiten genuen, linoarekin linatzak egoten zirenean zein lanearekin, ardiak nahinon egoten ziren eta.

Elektrizitaterik ez geneukanez, lantzean etxe baten juntetan ginen petrolio-argi, karburu edo kandelargi batekin auzonako guztiok iruteko lana-linook.

Antzina, gorueta garaian katu beltz demonintru bat gainetuten ei zitzaion andraren bati supazterrera gauetan goruetan eragoiola.

Eta ba andre horrek bere gizonari esan ei zion zer pasetan zitzaion eta gizonak esan ei zion ba ze:

—Gaur gauean gura baduna neu lotuko nauna goruetan!

Eta ba atan lotu ziren. Gizon horrek zelan beist baeragoion goruetari eta halangoren baten non agertuten zaion hankartetik buztana gora duela katu beltz bat eta esan:

—Ene! Gizona eta goruetan?

—Katua eta berbetan! —erantzun gizonak.

Eta orduan gizon horrek surten berotuten zeukan burruntzia hartu eta di-dau! emon zizkion narruko batzuk eta gero trebera gainetik zartena hartu eta barruko koipe irakina bota burutik behera.

Katu beltz horrek hegaz egin ez bazuen gutxiagorik ez zuen egin tximienia zulotik gora laratzua arandelotsean utzita kedarre artean.

Eta esaten dute, hurrengo egunean auzoko ez dakit nor ere mandaituta eta aurpegia erreta agertu zela, nondik eta zelan berak ere ez zekiela edo esan gura ez zuela.

IKAZGINTZA

Burdinolak sortu eta garatu ahala, ikazgintzak bultzada handia hartu zuen Euskal Herrian, harik eta mineral-ikatzeta edo beste erregai batzuk agertu arte.

Ikazgintzaren azalpen teorikoa egin beharrean, Zeberioko Juan Akesolo ikazginak zuzenean kontatu zidana eskeiniko dizuet:

Ikatz egostea

Zemendi inguruan asten ginen basora joaten. Guk enpartikular burbux ikatzeta egiten genuen, enjeneral burbux egurrarekin, beste batzuk, pago, gaztaina, arte edo haritzarekin.

Joaten ginen preparentan, egurginen egiten genuen, zemendi inguruan hasita zezeila edo martirararteraino eta gero egur batzen botoetara. Botoak zelaiune biribilak ziren, jakina, zelako txondorra halako botoa.

Botoak egiteko behetik hesi bat egiten zen, hesi fuerte bat, burbux egurrarekin, eta gero goiko lurra behera bota eta zelaitu, zeinda kortabaso txiki baten antzera, biribila, oboan-oboan edo bueltan-bueltan, baina zelai-zelai, larraina balitz bezala.

Gero urten zuen beste usu edo kostumbre batek, aidean egiten zen botoa urkulu edo urkatxen gainean iminten ziren egur batzuk lurtean sartuta, lurretik inkatuta eta zelaia askoz ere fazilago egiten genuen, egillamuaren antza eukiten zuen baina biribilean, behetik palatua letxe iminita, hesi ganorazkoaren gainean.

Gero ba txondorginen hasten ginen eta txondorra kargatu egiten zen. Denodu eta dolimintu guztiarekin ibili behar izaten genuen.

Erdian iminten zitzaion kargerea esaten zitzaion egur bat, egur lerden eta lodi bat, eta hasten ginen egurra zutunik iminten kargereari deutsala.

Bere inguruan egurra zutunik imini eta gero beste pisu bat, oseake, iru edo lau pisu eukiten zituen txondorrak.

Haiek egurrak zutunik imini eta gero txondorra apur bat holan berrogeita bost gradu inguruan edo paratuko zen zelai-aldatzean. Gero egiten zitzaion azala esaten zaiona egur txikerragoekin eta finagoekin, bai, azala egiten zitzaion.

Eta gero zohia egon ezketino eraz, zohia ateraten zen tapetako eta zohia egon ezik eraz, idea ekarten zen, eta idearekin tapetan genuen lehenengo eta gero gainetik botaten zitzaion iduria esaten zaion hautsa.

Iduria egoten zen lehengo boto zaharretan. Han topetan zen baina osterantzean holan lur fazil bat topatu eta galbaheaz eralgi egin behar izaten genuen gainetik tapetako arnasarik hartu ez egiteko. Ikatzak egosi egin behar du, ez erre.

Eta gero kargerea esaten zaiona ez zen luzea izaten, hor metroterdi bat edo zeukan eta txondorra kargatu ahala gorantz eroaten zen ateraz-ateraz ha kargerea.

Zenbat eta txondorra luzeagoa egin, gorago eroan behar izaten zen ha egurra eta gero atzenean atera egiten zitzaion.

Gero iduriz eta idaz tapetan zenean handik zulotik behera botaten zitzaion brasa eta egur txikitxoak, abar antzekoak, zezpal meheekin batera, behean hartu dezan suak.

Lehenengo apurtxo baten txondorraren ahoa zabalik eukiten zen baina gero ahoa tapatu egiten zitzaion, suak hobeto hartzeko.

Eta gero suak hartzen zuenean ha gainea tapatu eta gero ordu bat edo beste barru ha zuloa egurrez betetan zitzaion, egur txikitxoak txiker-



tuta. Ha zuloa bete eta gero beste ordu bi edo hiru barru, betegarria eskatuten zuen txondorrak.

Betegarria izaten zen egurrak zutunik zeudenak harroren bat euki eta ikatz egiten hasi orduan plegatu egiten zirenak, eta, haiek plegatu orduan bitarteak urtetan zuen, zuloak, eta zuloa betetako izaten zen ha betegarria esaten zaiona.

Eta txondorrak holan berrogei bat karga inguruko txondorrak, (karga, zaku bi inguru ikatz izaten zen), berrogei bat karga inguruko txondorrak, ba, eskatuten zuen lau edo bost betegarri harik eta puntan ikatza egin arteraino.

Txondorrak gero puntan ikatza egin orduan txondorrari betegarriak uzten zion, eta zigarro bat egiteko astiak ere emoten zigun.

Hori zigarroarena, zuk jakingo duzu, esakera da, eta hori esatea deskantsu apur bat hartutea izaten zen, solo-beharretan ere tamañu baten zigarroa erretan zen, zeukanak, jakina, eta ez zeukanak deskantsu piti bat eta pozik gainera.

Gaubiluntzean egiten zitzaion, zapalagea esaten zitzaion porra bat egoten zen eta harekin zapaldu eta gauean iduri apur bat bota goian goiko puntan gaua pasetako, betegarrian dagoen arte ez, betegarrian dagoen arte gauerdian ere igual-igual eskatuten du betegarria eta gero etorten da beherantz-beherantz ikatza egiten goitik eta gau guztietan egiten zaio martxa, ba zapalagatu eta zulorik badauka tapatu eta iduri apur bat bota eta apur bat itota utzi gauean bake apur bat emoteko, lo altzi bat egiteko be.

Eta gero magaletara esaten zaiona beheko barrenera ailegatu orduan ere bastante prisaz ibiltzen da, alde bat tapetan zaionean beste magaletik urten lezake suak, eta haiek tapetan ia magalean dagoenean ere behar handia emoten du eta magaletara ailegatuz gero ba gau bat edo egun bat eta gau bat edo uzten da eta akabetan da, aituten didazu? Ez dakit ba, hau behar-leku hau zuontzat gazteontzat enbrollu lar ez ete den!



Goazen aurrera. Eta gero egiten da hotzitu esaten zaiona, hotzitu txondorra. Belekiak egoten ziren lehenago, orain ez da usatuko, orain ez da holango usadiorik ere eta orain ez da egiten ikatzik ere baina, belekia, oholezko arraspa baten antzekoa da eta harekin goitik behera dana arraspatu ondo eta basoiñarrak imini preparatuta eta basoiñarrearekin igurdi eta gero haiek iduriak siku-siku egoten dira eta haiek ikatz bitarteetatik sartu egiten dira eta amatatu egiten dute txondorra, oseake, sano sua galtzen du, suabe pasetan zaio ba hotzituteko eta gero bigarren egunean edo maskalak ateraten zaizkio zergatik ze maskaletan egoten da ostera ere surik gehien.

Eta gero ba hurrengo goizean goizetitxo jagita eguzkiak urten orduko enjeneral ikatza ateraten da, segun zelan pentsetan duen batek.

Ba, aterata gero, boto barrenean egoten da zabal, suagaitino, surik urte-tan badu amatatu eta gero han egon behar du sikieran zortzi hamar orduan.

Eta gero surik ez badauka botaten da larrina esaten zaion lekura horko txondorreko ikatza. Gero zakuetan sartu eta bide gainean tolestu garraiatzeko nora gura eta haraxe.

Horixe, horixe zen gure ikatz egostea. Txondor baten lana egin-akabeteak eginen handia emoten zigun eta beharlekuelangoa izaten zen ba, itzala, batez be, eguraldiak txarrera edo berogira ematen zuenean, egun kani-kulan berriz, azkena!

Kontaketa bizi-bizi honen penak eta nekeak jaso ondoren, gai honi lotuta dagoen kantu famatu batera joko dugu:

Ipiñaburuko (Zeanuri) leku altuan

1
Ipiñaburuko leku altuan
Undurragaren buruan,
ikazginagaz ezkontzen danak
ez dau zentzunik buruan.

2
Atzo goizean prebentau eta
gaur naroazu basora
leku txarrean egineko egurrak
aterazoten bidera.

3

*Harezpe baten ezarri eta
negarra far-far altzora,
abadearen lapikotxo
etorri jatan gogora.*

4

*Abadearen lapikotxo
txikerra baina gozoa
ikazginaren lapikotxo
handia baina harroa.*

DOMU SANTU

Azaroaren lehenengo egun hau hainbat izenekin ezagutzen da. Domu Santu, Domuru Santu, Domuru Santuru, Domini Santu, Dome Santoe (Z), Omiasaindu (BN) dira entzutetsuenak.

Kalendariora bagoaz, egun hau beti da jai eguna eta egun handi bihurtu da kristautasuna zabaldu den neurrian.

Hiletak eta olatak banan-banan ospatu arren, zemendiaren batean santu guztien eguna ospatzea erabaki zuen Eleizeak, eta harrezkero, gure eleizak bete-bete egiten dira hildakoak gogoratzeko.

Hilerrri edo ortusantuak egiten hasi arte, eleiza barruetan lurperatzen zituzten hildakoak eta familia bakoitzak bere sepultura tokia zeukan kokatuta eleiza barruan.

Domu Santu egunean, olatak eramaten ziren sepulturara. Familiako sepultura gainean, haginadura eta guztizko mantel zuria ipinten zen erdian zapi beltz bat zuela. Antzina, opariak eramaten ziren, zakuto bete gari, ogia eta abar, baina azken urteotan dirua. Sepulturaren aurrealdean, kandelargi edo zurlanduzko argizaiolak ipinten ziren, norik gehiagoka ere erakutsiz.

Olatako ogiak, meza ostean, batu egiten ziren eta sakristiara eramaten. Batzuk abadearentzat ziren, beste batzuk monagiloentzat eta gainetikoak herriko umeentzat.

Urteak joan urteak etorri, hilerrri edo ortusantuak egiten joan ziren, eleizari deusala edo inguruan, eta eleiza barruan sepulturak bakarrik utzi, sendi bakoitzari bere ohiturazko tokia adieraziz.

Gerora, Domu Santu egun honetarako, hilerrri edo ortusantuak apaindu egiten ziren eta egiten dira. Eleizan, eleizkizun otoitza egiten da, eta azkenean hilerrira bisita, errespontso eta guzti.

Aspalditxotik, nitxo edo panteoiak erabiltzen dira hobiratzeko, eta azken urteotan, gorpuak erre egiteko joera zabaldu da eta gero hautsak ortu-santu zein mendi-erreketan bota edo etxean gorde.

Egiten dena egiten dela, gaur egun ere gure herrietan ia-ia herri osoa alkartzen da egun honetan eta giro paregabea bizi izaten dugu eleizkizunaren inguruan.

ARIMEN EGUNA

Azaroaren bian, arimen eguna ospatzen da. Asteguna denez, ospakizun familiarragoa egiten da. Meza eta ortusantura joan-etorria erresponsoa bitarteko dela.

Egun honetan, purgatorio edo garbitokiko arimen aldeko nobena edo bederatziurrena egiten hasteko ohitura handia zegoen.

Katekesian entzuten genuenez, hildakoen arimak ez ziren sartzen zeruan harik eta lurrean gaizki egindako hutsak garbitu arte. Garbitze horretarako, bizidunen otoitzak ziren beharrezkoak eta halaxe sortu izan dira arimen aldeko hainbat eta hainbat otoitz.

Eleizako sineskeraz aparte, herri mailako ipuin edota esaunda ugari ere sortu izan da arimak zeruratzeko kontuan.

Herritar askoren ustez, lurrean zerbait bete gabe hildakoen arimak eleizaz eleiza eta ermitarik ermita ibiltzen omen ziren gauiluntzeko abemarietako kanpaietatik egunsentiko kanpaietararte. Aikomenzan bidiru ipuin edo esaunda esanguratsu:

Arimak promesak betatuz

Gauiluntze batean, Zeberioganeko Andra Mariaren eleizako portikura joan omen zen eskeko bat, gaua egiten. Zakutotik atera jaki apur bat, afari iski bat jan, lo aurreko errezuak egin eta loari eman zion.

Gaberdian, desoran, jan-zaharreko amesetan zegoelakotan, zer? eta berbalotsa eta grillistuak barruntatu zituen han errekarritz atondutako eleizportikuan zehar.

Ikaratu egin zen eskeko hori eta atinik zegoen kasuan, zutundu eta berbaltu eta guzti badinotsie:

—Jesus, Maria eta Jose!, zer dator hemen? Nortzuk zaituztedan baino ez duk!

Eta besteok esan zien:

—Gu, Purgatorioko arimak gatzazkizu eta geure penitentzia kunplitan gatoz, gaur leku batera eta bihar beste leku batera, eleizarik eleiza, ermitarik ermita, zeruan sartuko bagara!

Hak eskekoak, horretara, ez zeukan adorerik eta susto-sartuaren susto-sartuaz, konortea ere galdu eginik izan zuen.

Arimok ez zuten logratu ezer eskekoagandik, gedar baten eta grillistuka hartu zuten Santo Tomas zaharreko bidea.

Eskapakeran, “gaua gauzkoentzat eta eguna egunezkoentzat” esaten omen zuten alaurika handik beresi ondoko estarta behera zihoaztela.

Hurrengo goizean, eskeko hori artez joan zen herriko abadeagana eta kontatu zer gertatu zitzaion gauaroan.

Abadeak, horretara, hauxe esan zion:

—Berrero holangorik sugertetan bazaizu, ikaratu beharrea hauxe esango diezu horiei arimoi: “Ez zaitezte arrimatu nigana honebeste estadiotan, eta zerk zakartzate hona?”.

Eurak, horiek arimok, hasiko zaizkizu bakoitzak bere betatu gabeko promesa edo dena delako koitak kontetan eta laguntza eskatuko dizute. Holan balitz, lagundu, baina, hurrengo domekan, han eukiko dituzu itxaroten eleizportikuan eskua emateko. Zuk ez eman eskua zapi batekin batuta edo ez bada. Eskua emakeran, han ikusiko dituzu euren atzamar markak edo erreuneak.

Eskekoak nasaialdi bat hartu zuen, eta aurrerantzean, eleizportikuetan barik labe aurreetako aterpeetan eman zion lo egiteari badaezpada.

Arimak Lamindaon

Gaubiluntzetan antza, arima koadrilla ikaragarria, elia ibiltzen ei zen eleiza eta ermitarik ermita euren munduko okerrak arteztu arteraino.

Baten, aberatsen baten arima ei zebilen sokorru baten Lamindaoko elezportalean eta ba hango baten batek barruntatu ere egin ei zuen eta joan ere bai. Eta badaezpada “aitearen” bat egin eta badinotso:

—Nor zaren beist, zer ofreziduten zaizu?

—Ba urlia natzaizu eta honantxe eta honantxe urli lekutako etxeko orma zuloan honenbeste hamaseiko gorri utzi nituen gordeta eta senitarteko inori esan barik hil, eta inori esan barik hilez gero, ezin da bat sartu zeruan, horixe mesedez esango bazenio gurekoren bati?

—Ori baino ez bada egingo zaizu, baina ez zaitetz honenbeste estadio barruan arrimatu nigana, zaude hor geldi eginbeharrok egin arte.

Eta gizon horrek emon ei zuen parte eta familiak hartu ere bai diruon gozamina eta zati bat hamarrenak eta limosnatan emon seguru eleizeari. Handik gehiago ez ei zen ikusi arima hori, zeruak hartuko zuen!

Gaueko txerri-elia: erdia txerri eta erdia arima

Baten antza, hortik Gallotik Kolasiñorantz joan omen zen andre bat abemariak jo eta gero, eta Galloko kurtzeroko oilarraren ondotik zihoala, txerri-eli edo txerri banda bat agertu zitzaion irrintza eta urrumotsean.

Andre hori odolak ur egiteko moduan zegoen zer egin ez zekiela. Apur bat konortera etorri zenean, berriro ere abemariak errezatu eta orpoetan har barik ekin zion etxera-bideari.

Behin etxeraz gero, bizitako guztia kontatu zien berekoei. Etxekoek burlazartzat hartu zioten kontatutako guztia esanez:

—Txerri-eli batek urten badizu bidera, zergatik ez duzu ba ekarri bat etxera, urtean zehar hazi eta jateko?

—Zaudete ixilik! —erantzun zien hark andreak—; horiek ez dira izan kortatxietako moduko txerriak, horiek erdia txerri eta erdia pertsona-arimak izan dira, hilez gero kondenaturik dabiltzanak mundurik aramaio harik eta euren bizitzako mantzinkerien ordean betatu arte. Horiakin kontuz! Horiengandik hobe egun argiz apartatu, zein norberari behar ez denaren bat egin. Berriro dinotsuet, kontuz!, eguna egunezkoentzat da eta gaua gauezkoentzat; hauek azkenengook, norbera bila joan barik ere laster gainetu litezke gero! Gauari errespetoa izan behar zaio, ezbeharrak gertatu egiten dira eta!

Hark andreak, hain esan zituen berbok barrutik eta bene-benetan, etxekoak ere hartan geratu ziren eta ez zuten komertazino hori gehiago atera euren artean, badaezpada!

SAN MARTIN TXERRI GARAIA

Euskal Herriko baserrietan, abereak haztea ekintza garrantzitsua izan da beti, hortik gure aberatsa hitza bera ere.

Abereetariko batzuk hazi, loditu eta jateko erabiltzen izan dira, batez ere, txerria, axuria, ardia, ahuntza, untxia eta hegaztiak. Ganadu nagusia ere bai ospakizun handietarako edo zezina egiteko.

Jatekoz gainera guztiak saldu egiten ziren eroslearen bere beharrietarako.

Abere hilketak urtean zeharko sasoi ezberdinetan egiten ziren. Esate baterako, axuriak eta auntsimeak udaberrian hiltzen ziren, ardia eta txerria udazken edo negu hasieran eta hegaztiak nahinoiz.

Azaroaren hamaikan San Martin ospatzen dugu eta txerriaren aroan sartzen gara. Garai hau eta ekintza hau esateraz beterik daukagu. Hona hemen batzuk: "Txerri guztiei heltzen zaie San Martin eguna"; Zerririk ez bada tegian, koiperik ez zartagian"; "Zerria hildako urtea eta ezkonduetakoa onenak"; "Zerria dena aprobeztatzekoa"; "Txerriaren bizitza, ona, baina laburra"; etab.

Txerri-hiltzearen inguruan dena da poza, bai etxeko eta bai auzokoen artean. Auzokoek ere parte hartzen dute txerria hiltorduan eta txerriboda ederrak ospatu ere bai. Hortik aparte, auzokoei odolosteak oparitzeko ohitura egon da beti eta horregatik esaten da odolostea berritsua dela, eta batzuren eskua beti hobea.

Inon diren kontuak ere kontatzen ziren txerribodetan eta bat aipatze-arren, hauex jazoera barregarria hau egingo dugu:

*T*xerri-odoloste jan ezinekoak

Arratia parteko txerriboda batean, matarifeak honela kontatu zion aurrezaurkoari behinola zer pasadu zitzaizen oso-osoko anaia biri lehenengoz txerria hiltzen atomatu zirenean:

Ba aitarekin bizi zituan anaiok eta ez zeukeaten tajurik ezertako ere eta auzokoren batek txerria edo zezina hiltzen ziatenean enbidiaz erreta egoten zituan, klaro, eurak ere sasoi onean eta entrama ere ez txikerra.

Eta ba, aita ere, zekena ez zela ere, siku antza huan eta txakur txiker baten gastua egin baino lehenago moro! Eta ba semeok apur bat mundua ere gehiago eta egunen baten seguru esan ei zioten aita horri:



—Aita, begiratu beza, berorrek gura ezbadu ere, aurrerantzarako txerrikuma bat ekarten goaz, eze, hau ez da bizi-modua, denak daukate zer jan eta gu emen beti goseaz irrintzaka zertan ez dela, zer deritzo berorrek?

—Ba, egin ezazue zeurok gura duzuen, zeuron eukiekin zeurok dispunitu behar duzue eta!

Eta ba joan zituan anaiok urtarrileko San Antonioetan Urkiolara eta behe-rantzean hor Diman erosi ziaten txerrikuma ordotz mardo-mardo bat.

Lehenengo lekua egin zioaten kortan, txarrikorta edo kortatxi eder bat. Hazi ziaten txerri hori eta bere tertzioan kapatu ere bai, Bediako Zipri kapadorea izaten zuan en jeneral, eta ba pozik zeudean anaiok Gabon inguruan txerri hori hilteko, ahoan txua eginda.

Ailegatu zituan gabonok eta ba hasi zituan euren preparatibook egiten. Eta inori ezertarako ezer esan barik badinotsak anaia batak besteari:

—Hi, txerri-beharrak egiteko laguntasuna eskatuko diagu hor auzoan, baina odolosteak izan ere berritsuak izaten dituk eta horiek geuk egin beharko dizkiagu isilean, eta hik badakizkik egiten?

—Nik zelan jakingo diat ba?

—Argiak gaudek orduan!, zeozer asmatu beharko diagu ba!

—Ba begiratu ezak, txerriari egun batzuk lehenago, ba, zera, porrua, arroza eta gainetiko guztiak emonez gero ez diagu behar gehiago ezer!

—Eta holan honek beharleku honek ondo urtengo zigukala uste duk?

—Tirauk mutil, zezek urtengo ziguk, nasaitu hadi, eta ez hadi izan hain epe bako kakadario!

Esan eta egin seguru. Mantenitu ziaten txerri hori eta ba heldu zuan orduko urteko Gabon aurretuxua eta ba bota ziaten errekadua auzo guztietara eta matarifeari en partikular.

Orduko egunean goizean goizetik jagi zituan, oilarrak jo baino ere lehenago ba barauskarriok eta atontzeko.

Heldu zitzaizkiean auzokook eta barausi ziaten ogi altziren bat eta txerria-hilteko apur bat, hori “txerriiltekoa” anisari esaten ziateen, anis korrienteari, eta ba jatsi zituan kortara.

Heldu txerri horri, sartu gantxoa, eta laster gobernatu zian matarife horrek. Odolak ere zelanbeist hartu zizkiaten eta gero txerria erre, idea eta galtzuaz. Gero garbitu eta tripok zabaldu, atera este, barazare, gantzagi, bidi eta gainerako guztiak eta eskegi ziaten doilarako soliba batetik hamazortzi arroako txerri demas hori.

Horiek beharrok eginda, auzokook alde egin ziaten morroiladara lotu barik eze haiek ez zeukeaten taju ez feturarik.

Anaiok bakarrik geratu zituanean, hartu zinezko balde zabal baten esteok eta halan delakoan, barruko lohiok kendu barik hasten dituk gehiagoko barik kordel batzuketin esteok estuten eta behingo baten akabatu ziaten buzkentz estute hori.

Eta gero ba imini ziaten ura irakiten han behesuan, laratzuan, eta ba hasi zituan morzillok geldorreztetan.

Emon irakinaldi batzuk eta halangoren baten ba atera zizkiaten kanpora odolosteok eta badinotsak bata besteari:

—Hi, zera, inori eroaten hasi baino lehen probatu ez dizkiagu egingo? Har ezak, har ezak bat, ia jan liratzeken gaineratikook, edo iaber zera!

Probatu zian egin ere anaia horrek eta aurpegi gaziagorik inok ez ei zian inoiz imini seguru eta erantzun ei zioan:

—Hi, hauek ezin dituk jan, konfiantzarik handienekoari ere ezin diezaizkiok emon, zer egin diagan baino ez duk!

—Zer? —erantzun zion anaiak—, ba kaka-odolosteak egin ditugula! Berrito ez holakorik!

Ba horixe pasatu omen zuan, eta ba orain txerri bat hiltzen den bakoi-tzean, beti zegok baten bat hauxe kontu hau kontetako, eta oraintxe eta oraintxe ere barre guredana egiten diagu haxe dela eta ez dela, barre, baina barre gero e, errementatu ez bestean.

Bizkaiko txerriari kanta

Famatu egin da "Uztarri"-ren bederatzi bertsoko abesti barregarri hau. Goazen beste barik bertsootara:

1

Motibo bat nigana
dago etorria
esprikatuko banu
txit parregarria:
Bizkaian egin dute
prueba berria
kutxilorikan gabe
hiltzeko txerria;
erakutsi diote
istilu gorria.

3

Familia hori nor dan
nahi dezute jakin?
Bi gizon eta bi andra
beren izenekin:
gizona bat Pepetxo
ta bestea Antolin
emakumeak berriz
Ana eta Katalin;
laurak ere bazuten
nahikoa zeregin.

5

Bizkarra erreta ta
golpea buruan,
Jaungoikoak badaki
aer ikusi duan;
erioa ihesi
bere enpeinuan,
sartu zan kainuan,
gero bilatu dute
gurringa soinuan.

2

Bi familiak zuten
nolabait hazia
erdi banan jateko
kendu nahi bizia;
abilak egundaino
beti malezia
lau lagunen artean
zer agudezia!
Behintzat eskapatzeko
izan du grazia.

4

Mazoarekin jo du
Pepetxok buruan,
txerria gelditu zan
hilaren moduan;
erretzen para zuten
lastoaren suan,
polainak jaso ditu
sutu dan orduan,
diabruak harturik
ihesi da juan.

6

Zuek emakumeak,
hemen egin kargu,
abiatzen danian
gogotikan heldu;
guk beste aldetikan
zaituko degu,
lehen bezala lastoa
sutuko diogu,
azeriaren gisan
aterako degu.

7

Egingo nuke apostu
aditu dedanez,
ez dirala antojatzen
aurten urdai janez;
gaizki gelditu dira
txerririk hil gabez,
behatzak txupatzeko
alibiorik ez,
olioa beharko
koipearen ordez.

9

Artorik apenas du
etxean ikusi,
egunean bi aldiz
asunak egosi;
beste aziorikan
ez zuten merezi,
argala den medioz
joan da ihesi,
hurrengoan hobeto
gizendu ta hazi.

USOAK TXORI-PASEAN

Baserri inguruko abere eta hegaztiez gain, garai honetan, hots, irail-urrietan, txorien artean, "usopasa" da ehiztarien begirada.

Ehiza egiteko modu asko dago. Armaz aparte, lehenago iparraldeko usategietan sareak erabiltzen ziren arbolarik arbola lotuta paseko uso eta bagausoak multzoka harrapatzeko.

Paseko uso-multzoa hobeto ikusteko, ehiztariak estalaria izeneko dorre antzeko batzuetan egoten ziren. Behin uso multzoa ikusten zutenean, ehiztariak paletak edo karrokak (egurrezko disko zuriak) botatzen zituzten zeruetara, uso bandaren gainera.

8

Garizuma santua
izanagatikan
ez daukate pekatu
egin bildurrikan;
auzotik ez badator
erregalorikan,
inolan ezin hausi
bijiliarikan;
aurten ez dute haiek
bulda beharrikan.

Paletak miruaren itxura hartzen zuenez, usoak bildurtu egiten ziren eta lurrerantz abiatu eta, jakina, pagadui gaineko sareetan katigatzen ziren.

Sareetatik kanpo joanez gero, ehiztariak oihal zuriak astintzen zituzten, kornetak jo edo zantzoak bota sareetara bideratzeko usoak.

Gaur egun, ehiza egiten da baina beste era batera eta lege-araudi berrien bidetik.

Gai hau borobiltzeko, Nafarroa Behereko abesti famatu bat aipatu nahi dut, Fernando Aire "Xalbador" bertsolariarena:

Gure herriko ihiztariei

Beti laket izan zaut urriko aroa
 urriko aroa,
 mendietan mulizkan sentituz hegoa,
 berekin dabilela gizonen gogo.
 Gaur horientzat zerbait kantatzerat noa.

Urrieta guzian, lau oren argira
 lau oren argira,
 den nagiena ere erne atzarri da;
 esperantzaz beterik badoaz mendira,
 ordutik arrats arte hor egonen dira
 etorriko ez diren usoer begira.

Huts egiteak nehor ezin du ohora,
 ezin du ohora,
 holakorik ez erran beharri ondora;
 kartuxa txarrak edo hegaztinak gora,
 gaixto guziak heldu zaizkote gogora,
 berriz ere debalde ererrik bolbora.

Aurten ere usoak gaizki heldu omen,
 gaizki heldu omen,
 gauza bera entzuten dugu han ta hemen;
 nik otoitz horri erran behar diot amen,
 horiek entzun eta baitut segurtamen
 uso saltsa haundirik ez dugula janen.

*Ihizi guti dela beti erasian,
beti erasian,
gezur nonbait kondatuz egi eskasian,
hola hauteman ditut nik ene bizian;
zerbait egin badute noizbait ihizian,
errepikatzen dute bizitza guzian.*

*Bihurtu behar diot Jaunari grazia
Jaunari grazia,
noizbait batudalakotz zerbait ikasia;
gizonen jostagarri bada ihizia,
ez duela egiten zorion guzia,
kartuxa saltzaileak du irabazia.*

OTSO-EHIZA GORBEIA INGURUAN

Otsoa eta beldurra biak batera ibili zaizkigu beti eta gutxiagorako izan ere ez da egin.

Abereak gizakiaren janari eta mantenimentu izan diren neurrian, arerio gogorrak izan dira otsoak mendi zein etxe inguruetan. Aditu noraino: norbaitek otso edo azeriren bat hil edo tragatzen zuenean, lau hankak batera estu, baranda edo egur luze batetik eskegi eta etxerik etxe eramaten zuen erakutsi eta saria eskuratzeko.

Baina hori ez zen nahikoa izaten. Udagoienerantz, ardiak mutildu eta mendi larreetara botatzen ziren eta, jakina, otsoek estraguak egiten zituzten. Baserri inguruetan ere bai baten baino gehiagotan, batez ere, herritik apartadutxo egonez gero.

Zer egin orduan? Ba, aditu: Gorbeia inguruan, besteak beste, otso-ehizak egiten ziren. Gorbeia inguruko herrietako gazteria edo sasoi jendea ados jarri eta udagoieneko egun seinalatu batzuetan behetatik gora otsoak uxatzen hasten ziren, txistu, zarata, eupada eta adar-hotsean.

Goietan, mendate estuetan edo estarian hartarako egineko harrizko otso-hesi sakonen aho-ahoan egoten ziren zain ehiztariak euren eskopeta eta abarrekin, otsook heldu ahala, errematean hil edo tragatzeko.

Gero, hauek kontulari antzak izan behar, nortzuk bestela, zer hau ere esaten zuten: "Urduñatik Bilborako trenbidea egin zenean alendu omen zirela otsoak, trenbideko burdina kiratsak atzerantz botatzen omen zituelako".

Azaroko esaerak

- *Azaro, azaro, erein eta itxaro.*
- *Azaro euritsu, urte garitsu.*
- *Azila hotz, negua hotz, azila bero, negua bero.*
- *Zemendian San Martinek orio zaragiak. aurretik zein atzetik bota.*
- *Hazileko ortzia, neguko eguzkia.*

Abendua

Hilabete bete-betea dugu, bai Kristo aurreko ohituretan zein gero-koetan, neguaren hasiera barruan delarik. Lotazila izena hartzen badugu, aza-roan ereindako haziaren egoera azaltzen digu. Hazi hori lo dago eta udabe-riak etorri beharko du garatzeko. Abendua, berriz, Gabon egunari begirako izena dugu, Eleizeak preparazio garaitzat hartu zuena.

SAN FRANTZISKO JABIER

Abenduaren 3an, San Frantzisko Jabier eguna ospatzen dugu, Nafarroako Jabierren batez ere. Santu napar hau beste euskaldun santu batekin lotu genezake: Loiolako San Inazioekin. Parisen ezagutu zuten elkar, eta fama-tuak dira San Inaziok San Frantzisko Jabierri esandako hitzak: “Zertarako nahi duzu mundu guztia kortu, arima galtzen baduzu?”. Harrezkero, mundutik zehar ibili zen misiolari Indiarainoko bidean, San Inaziok sortutako Josulagunen bidetik.

SAN NIKOLAS

Abenduaren 6an, San Nikolas Barikoren eguna ospatzen da. Lehenago zabalago zegoen jai hau eta inauterietan bezala mutil gazteak apaiz jantzita ibiltzen ziren etxerik etxe eskean kantuka, baina urteak joan urteak etorri, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako eskualde batzuetan baino ez dirau, eta orain umeen jai bihurtu delarik. Gogora dezagun ospakizun honetako kanta entzutetsua:

*San Nikolas ttikia
gure ganbaran hazia:
—Gure ganbaran zer dago?
—Andre Juana Maria,
ave, ave Maria.
Dios te salve, bakalaojale.
Bost eta sei hamaika.
Txorizorikan ez baldin bada
igual dela lukainka.*

ANDRA MARIA SORTZEZ GARBIA AMAREN EGUNA

Abenduaren 8an, Andra Maria Sortzez Garbiaren eguna ospatzen da. Alde batetik, abadegaien eguna zen eta estudioak egin ahal izateko laguntza bila joaten ziren sorterrietara. Bestalde, amaren eguna ere ospatzen zen gaur egun aldaketak izan baditu ere.

SANTA LUZIA LAUDION

Abenduaren 13an, Santa Luzia. Jai handiak, besteak beste, Laudio gainean. Erromeria handia egiten zen eta inguru-herrietako asko joaten zen jai horretara.

Erdarazkoa izan arren, esaera esanguratsu bat erabili izan da gure herri-tarren ahoetan. Hauxe: "Santa Luzia kreze el día, si kreze o no kreze, poko pareze". Egia esan, gaur egun zehazturik daukagu solstizioen eguna, baina lehenagokoek ere zeozer igartzen zuten garai honetan.

Erromeria handia egiten zela esan dugu han Laudio gainean eta halaxe zen. Inguru-herrietakoak joaten ziren Urkiola eta abarretara bezala egun on bat ematera, eta, jakina, batek baino gehiagok bere lagunabarra ere aurkitzen zuen, eta kontrakoa gertatzen zenean, bertso-paperak atera ere bai. Begira behin zer gertatu zen:

SANTA LUZIARA JOATEKO PROMESA

Behin baten, Zeberioko neska-mutilak Santa Luziara joan ziren urtero bezala, oinez joan ere Ganekogorta gainetik. Bidea luzea zen, baina gazteen-tzat ez zegoen distantziarik.

Ospatu zuten eguna. Meza entzun, dantzan egin, bazkaldu, berriro dantzan askatu eta iluntzean etxera. Berez, ohitura jarraituz, iluntzeko abemariak baino lehenago itzuli behar zuten etxera, baina, batetik giro ona eta bestetik eguna laburra, berandu egin zitzaien etxerako itzulia.

Behin etxeraz gero, handiagoa edo txikiagoa denetan bronka dezentea.

Neska batek, zuhurra zen izan ere, erromerian Orozkoko nobioerdi bat aurkitu zuen eta hurrengo urterako planak ere egin zituen bien bitartean kartaz entenditzeko.

Horretara, bazekienez etxeko ezetza, etxean sartuz batera itzulimur-dika eta alaurika hazi zen gurasoen aurrean, negarranpulu gabeko negar irrintzak eginaz.

—Zer gertatzen zaizun baino ez da? —esan zion amak arduraz.

—Zer pasatzen zaidan? Ba, Santa Luziari promesa egin diodala datorren urtean ere berriro joateko!

—Tira ba, alabatxoa, hori baino ez bada, joan egin beharko duzu, promesak promesa dira eta. Ez dut nahi kontzientzia kargatzerik, baina horrela izan ez balitz ez duzu euki aurrerantzean joaterik. Gaineko lotsaria hain berandu etortea! Zoaz, zoaz ohera eta bihar tertzioz gora, lexia egin behar dugu eta saskelduta ibili barik!

MARIJESIAK

Abenduaren 15etik 24ra, hots, Gabon egunera, bederatziurren gisa Marijesiak ospatzen dira gure herrietan. Eguberri-kantuak kantatzen dira etxerik etxe edo kalerik kale. Iparraldean “noelak” izenarekin ezagutzen dira. Historia sakratua da kantuz azaltzen dena, Adan eta Ebagandik hasi eta Jesusen Jaiotza edota Erregenetararte.

Gaur egun, beharbada, Gernika aldean gorde da ongien ohitura hau. Dena dela, jarraian, bertsiio bi aipatuko ditugu: bata Gernikaldekoa eta bestea Markinalde eta Zeberiokoa.

Gabonak dira eta (Marijesiak Gernikaldean)

1
Gabonak dira eta
edegidazu ateau
ikusi daigun
jαιο dan infantea.

Maria Jose,
Jesus Maria.

2
Abendu santu honetan
Kristoren jaiotzean
kontentuaren handiz
guztiok poz gaitean.

Maria Jose,
Jesus Maria.

3
Adan formatu izan zan
lehenengo lurtean
pekatu egin eban
paraisu eternalean.

Maria Jose
Jesus Maria.

5
Trinidad altuko
bigarren pertsona
transformadurik dago
Belengo portalean.

Maria Jose
Jesus Maria.

7
Herodes koitadua
burladu zaitue
Erregeak joan dira
zu ikusi gabe.

Maria Jose
Jesus Maria.

9
Meltxorrek urrea
Gasparrek intzentsoa
Baldasarrek eroiela
mirra preziosoa.

Maria Jose
Jesus Maria.

11
Belengo portalean
estalpe batean
jaio da Jesus ona
abereen artean.

Maria Jose
Jesus Maria.

4
Behar zala bialdu
lurrera angerua
erremediatzeko
Adanen pekatua.

Maria Jose
Jesus Maria.

6
Herodes erregea
falso traidorea
zerren damu eban
Jesusen jaiotzea.

Maria Jose
Jesus Maria.

8
Hiru Errege Magoak
hain bide luzean
ostatu hartu eban
hain etxe pobrean.

Maria Jose
Jesus Maria.

10
Astoak arrantzea
idiak arnasea,
halan berotzen eban
jaio dan infantea.

Maria Jose
Jesus Maria.

Nazareteko tenplu santuan (Marijesiak Markina-Zeberion)

1
Nazareteko tenplu santuan
dontzeila eder bat jarririk.
Izena bere Maria dauko
graziaz ordenadurik.

Bai Belenen eta bart Belenen
jaio da Jesus Nazaren.

3
—Ez, ez plantatu dontzeila ederra
hemen ez dator gizonik.
Aita eternoak bialduta dator
Grabiel Zeruetatik.

Bai Belenen eta bart Belenen
jaio da Jesus Nazaren.

5
—Nik borondatea badot baina
ez dot merezimenturik.
—Merezimentu daukazulako
zeu zagoz eskojidurik.

Bai Belenen eta bart Belenen
jaio da Jesus Nazaren.

2
Ate-bentanak guztiak bere,
barrutik daukaz itxirik.
Barrutik daukaz itxirik eta
inoz sartu ez daiten gizonik.

Bai Belenen eta bart Belenen
jaio da Jesus Nazaren.

4
—San Grabiel Zeruetarik
enbajada zerori.
Jesusen ama izan egiteko
badozu borondaterik?

Bai Belenen eta bart Belenen
jaio da Jesus Nazaren.

6
—Doministiku penez pena,
penez doministiku.
Zeure entrainetan
Salbadorea dala sortu.

Bai Belenen eta bart Belenen
jaio da Jesus Nazaren.

Negua

Negua, abenduko solstiziotik, hau da, abenduaren 21etik martiaren 21era bitarteko garaia da.

Egun garrantzitsua euskaldun zaharrentzat zein gaurkoentzat. Egunik laburrenekoa eta gaurik luzeeneko egun honetan, eguna luzatzen hasten da, harik eta ekaineko solstiziora heldu arte.

Kristautasunaren etorrera ardatz bezala hartuta, jakin badakigu kristau aurreko euskaldunek ere ospatzen zutela garai hau, ez gaur besteko zehaztasunez, gutxi gora-behera baino.

Solstizio biak daude argiarekin lotuta eta hala ospatzen izan dira gaurko egunetararte. Ekainean, sugarrak eginda, eta abenduan, supazterrean zubil-enborra isiotuta.

Kristautasunaren eraginez, solstizio biak aldatu ziren 21etik 24ra eta kristau

kutsua eman, ekainekoan San Juan ospatuz eta abendukoan Eguberri edo Gabon.

Gure Euskal Herri zahar honek, mendeak joan mendeak etorri, aldatu zein gorde egin ditu ohitura zaharrak, sarritan nahastuta agertzen zaizkigularik. Eguberri garaia azaltzeko, hots, Gabonetatik Gabonzaharretara bitartekoa, lehenengo eta behin Kristoren jaiotzaren berri ematen digun ipuin mitikoa aipatuko dugu, Olentzerorena, gero Gabon-ohiturekin jarraitzeko.

Neguko esaerak

- Negu hotza, uda beroa.
- Negu onak, San Martinetarako hiru edurtza.
- Negu txarra, ardien muturra latza.
- Negua, zaharren hilgarri eta gazteen zahargarri.
- Neguan hotzari eta udan beroari bildur diona, ez da merkatari ona.

Olentzero eta Eguberri

Euskaldunon tradizio zaharra, ahorik hara etorri zaigu belaunaldiz belaunaldi eta horrela jaso zigun On Jose Migel Barandiaranek Olentzeroren ipuin eder eta esanguratsu hau.

“Behinola, kristau aurreko basajaunak edo jentilak Eguberri ospatzeko alkartu omen ziren Aralar mendiko landa zelai baten.

Neguaeren hasiera-hasiera zen, udaren hasierarik hona laburtzen-laburtzen zeterren egun-argia luzatzen hasteko eguna, Eguberri, hain zuzen.

Denak zeuden pozik. Basajaun gazteak saltoka eta harri-bolan ziarduten, helduagoak indar gutxiko eguzkipean dantzan eta zaharrenak jesarrita ingurumarietan denera adi.

Basajaunik zaharrena ez zegoen besteekin, atzeragoan baino. Zahar-raren zaharrez, begiak ere itxita zeuzkan, gorputza sor, burua arin, eskuak indarga eta hankak loka. Ez zen gauza jesarrita egoteko ere eta horrexegatik zeukaten haitz bati deusala, erdi etzanda, basajaun zahar gizaixoa.

Eguberri osoa eman zuten ospakizunetan, eta ilunabarra noiz helduko zegoela, argi berezi bat ikusi zuten ekialdetik.



Pentsakor geratu ziren denak ere eta inor ez zen ausartzen ahorik askatzen ha argia zer izan zitekeen azaltzeko, inoiz ikusi bakoa baitzen.

Iluntzea aurrera joan ahala, argi berezi hori geroago eta hurbilago zeukaten eta basajaun horietako ausartienak hasi ziren esaten batak besteari:

—Hi, eguzkia zetorrek berriro! —batek.

—Hago isilik! —beste batek—, eguzkia sartu duk sartzamendian; hori ilargi bizia izango diagu.

—Zaudete biok isilik! —hirugarren batek—, ilargia ilberrian zegok, beraz, hori argi hori izar handiren bat izango delakotan nagok.

Eztabaidok entzun orduan, basajaun guztien buruzagiak hitza hartu eta era honetara hasi zitzaaien berbetan:

—Nik neuk ere ez zekiat hori argi hori zer den, ez baitiat inoiz ikusi holakorik, baina, beharbada, han baztertuta zeukeagun basajaun zaharrenak zerbait jakingo dik!

Nagusiaren hitzok entzun eta gero, joan egin ziren basajaun zahar-zahar haregana eta esan:

—Hi, argi berezi eta handi bat ikusten diagu ekialdetik eta hor gaudek zer den ulertu ezinik, hik heuk ba al dakik zer den?

—Nola arraio jakingo diat ba ezin dizkiat begiak zabaldu ere egin eta! Zahar horren berbak entzun orduan, hartu besartean eta beste basajaun guztien erdira eroan zuten.

Behin erdiraz gero, argiari adi jarri zuten eta buruzagiak begiak zabaldu zizkion argi berezi hori ikus zezan.

Adi-adi geratu zen basajaun zaharra eta halako baten bere beso indar-ga biak gora-goraka jasoaz badino:

—Kixmi jaio duk! Kixmi jaio duk! Kixmi jaio duk! Gureak egin dik! Gureak egin dik! Gureak egin dik! Bota nazazue Aralar-eko haitzetik behera! Bota, bota, bota!

Beste basajaun guztiak harrিতuta gelditu ziren eta urtenbiderik ez zeukatela ikustean, basajaun zahar horrekin batera, bata bestean atzean, denak galdu ziren betiko, denak bat izan ezik: OLENTZERO.

Olentzero basajauna izanik, herritarren laguna zen. Beste basajaunak haserre ibiltzen ziren sarritan herritarrekin. Herritarrek bazekiten basajaunak eurek baino aurrerratuago zebiltzala labrantza eta burdingintzan, baina baten baino gehiagotan, zuhurtasuraren bidez, lortu egiten zituzten aurrerapideok basajaunengandik: esate baterako, garia, artoa, errota-harriaren haltzezko ardatza, burdina soldatzearen teknika edo gaztaina orriaren itxuran egindako zerra edo trontza.

Horregatik, Olentzero pentsakor geratu zen beste basajaun guztiak galtzen ikustean eta bere buruari esaten zion:

—Ni neu ez, ni neu ez nihoak beste basajaun guztiak lez amildegian galtzen, nik neuk maite dizkiat herritarrak eta gaur jakin dugun berria jakin behar ditek, gureak egin arren, eurenak aurrera egiteko

kristautasunaren aro berrian. Horretarako, herrira joan eta berri ona zabaltzen hasiko nauk baserririk baserri.

Esan eta egin. Olentzero mendia behera hasi zen herrirako bidean. Atzerik hara argi bereziak jarraitzen zion eta lehenengo baserrietara heldu zenean santzoka eta berba indartsuz hasi zen esaten:

—Herritarrok, Kixmi jaio zaizue! Begira horri goiko argi berezi horri, ekialdetik datorren argi pozgarri horri! Gureak egin du, baina orain zeuona duzue aro berri hau, poztu zaiteze, poztu!

Baserritarrak asko poztu ziren Olentzeroren berbak entzutean, eta esaten zuena egia zela ikustean, badino batek:

—Hi, Olentzero, zergatik ez goazek hi aurretik eta gu guztiok atzetik garela herriko baserri guztietara eta gero herriaren erdiko harizpera!

—Ba, joatea baino ez zegok! —erantzun zion Olentzerok.

Han zihoozen baserririk baserri berri ona zabaltzen eta bat esanda bera ere ez zen etxean geratzen, denak Olentzeroren atzean.

Herri guztiko ateak jo zituztenean eta denak harizpean alkatu, Olentzero hasi zitzaien esaten:

—Banan-banan ere esan dizuet, baina Kixmi jaio zaizue! Beste basajaun guztiek kontrakotzat hartu dute berri on hau eta “Kixmi” izena ere horrexegatik jarri dio gure basajaun zaharrenak. Esan dizuet, baina berriz diotsuet: beste basajaun guztiak amildegian galdu dira eurenak egin duela eta. Ni, ostera, hemen nauzue lagun lez, lehengo aroko azken basajauna izan arren. Etorkizunean zintzo jarraitu gaur jaio berri duzuen salbatzaileari!

Herria asko poztu zen eta jai handi bat antolatu zuten Olentzeroren inguruan. Zenbat gura eta harexen beste jaki eta edaki eman zioten Olentzerori, eta euren benetako poza adierazteko, bertso hauek egin eta kantatu ere egin zizkioten ohitura zaharrari eutsiz:

Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentzioarekin
ikatz egitera.
Aditu duenean
Jesus jaio dela
lasterka etorri da
berri ematera.

Horra-horra gure Olentzero
pipa hortzean duela
eserita dago
kapoiak ere baditu
arraultzatxoekin
bihar meriendatzeko
botila ardoarekin.

Olentzero, buru handia
entendimentu gabia
bart arratsean edan omen du
bost arroako zahagia.
Ai urde tripa handia!

Olentzerok, jan-jan eta edan-edanak eginda, hauexek berbok esan zizkion pozez beterik zegoen herriari:

—Banoatzue, lagun izan nauzue orain arte eta orain joan noa hortik zehar nonbaiten estaltzera, baina ohiturak ohitura izaten direnez, urtero-urteroko Eguberrietan hemendik izango nauzue opariz beterik, zahar, heldu eta batez ere ume guztien pozerako. Agur eta datorren Eguberrietararte!

Gabonetako ohiturak

Gabon ohiturak ugariak eta aberatsak ditugu batean bestean. Ohiturotara hurbiltzeko, Gorbeia inguruko baserri batera joko dugu, gaurko egunetako hiritar ume batzuen aiton-amonen baserrira.

Gorbeia mendiaren inguruko herri txikitxo baten, edurrak daragoio mara-mara goian behean. Gabonak datoz eta ia dena dago prest aitita Pello eta amama Bixentarenean.

Pellok bere baserriko hegal-itaxurepe guztiak egurrez beterik dauzka negu luzerako. Gabonkariak direla eta, aspaldirik ditu batuta karakolak eta kamarako goitegian eskegita zakuto baten. Hurrak eta intxaurrak ere zumitzezko artzan dauzka zabal-zabal eginda, Gabonetako intxaur-saltsa edo eta beste menester batzuetarako.

Bixentak ortuko azarik ederrenari botata daukotso begia, aurtengo leitza eta edurtzen ondorioz erreinik izan arren. Kapoiak ere baditu

mardo-mardo salako kaponadan. Gabon-madariak banan-banan ipinita dauzka euren logelako eskapolotaren gainean, umo-umo egin dakizkion, gordinik zen konpotean jateko.

Garrantzitsuena, labesua. Sua Pellok egin dio otegurraz, baina ogi-errariaren atzera-aurrera Bixentarena ber-berarena da. Lehenengo, labea tenplatzeko, artoak sartu ditu eta gero ogi, pamitxa, tremes, mokots edo morrokotarainoko guztiak. Hau guzti hau, Gabon bezpera-bezperan.

Baserriari dagozkion gabonkariak prest-prest dituzte, gainetiko ezgauzak seme-alabengandiko gabon-otzaretan helduko zaizkie.

Imanol eta Itziar, ilobetarik txikienak, irrikitan daude aitita-amamenean Gabonak ospatu eta lo bat edo beste bertan egiteko.

Etorri da, azkenean, Gabon eguna. Imanol eta Itziar zoratuinik daude pozaren pozez eta bazkaria ahoan sartu orduko baserrirako ditean dauzkagu, tipirrika, arteak ere hartu ezinik.

Joan dira eta egun argiz iritsi baserrira. Gaineko txera, besarkada eta mosuak! Umeak pozik eta nagusiak pozago. Apurka-apurka baserria beteaz doa, azkenerako elia, aitite-amamak euren seme-alaba eta ilobez inguratuta. Ederra zer da hori e?

Gaulendian, Gabonetan ilundu ere arin egiten du eta, sutean alkartu dira denak. Amama Bixenta egurdun txapa aurrean dabil lapiko eta kazulei eragiten, eta aitita Pello supazterrean, zizeiluan jarrita, lara-tzari beharra ematen.

Imanolek ez dauka pazientziarik eta ikastolan entzundako Gabon-ohiturez gain, gehiago jakin nahi ditu eta badinotso aititari:

—Aitita, zergaitik ez dizkiguzu kontatzen zure ume denporako Gabon-ohiturak?

—Hobe ez, Imanol, eta gustura gainera, afari aurretik zenbat gura eta harexen beste asti daukagu eukin ere eta.

—Beitu, ilobatxuok. Ni txikia nintzenean beste era batera bizi ginen eta, jakina, gaur ez lako gauzak egiten genituen. Egia esan, gaur ere ez dira ohitura zahar denak galdu, eta egin ere ez ditezela egin, nahiz eta hiri edo kale-bizitza nagusitzen joan.

»Nire haurtzaroan, gabonzuzia isiotuten zuen gure aititak eta honek bere zera dauka, bere zentzuna.

»Gure aititak esaten zigun Gabon egunetik San Juanetakora eguna luzatzen zihoala, eta behin haraz gero, laburtzen. Horrexegatik ospatzen ziren sua eginaz. San Juanetan, solorik solo galtzupoilak isiotuta “San Juan Bagilean” kantatuz eta gero sugarrak eginaz, eta Gabonetan, gabonzuzia surten isiotuaz.

»Gabonzuzi enborra basotik ekarteko ere, San Juan egunean jaiotako idi-buztarria behar izaten zen. Hau dela eta, ipuin bat ere kontatzen zigun. Zein? eta hauxe:

“Behinola, batenbat joan ei zen gabonzuzitan basora. Haritz enbor lodi eta lakazduna aurkitu bazuen ba ze, ezin erdibituta zebilen. Burdin-ziriak sartuta zeuzkan erdibitzeko eta hartan, eleizako abemariak! Ene! Jentil indartsu bat hurreratu zitzaion eta esan:

—Hi, gizon, ez al dakik gaua gaeuzkoentzat dena?

—Bai, bazekiat, baina gabonzuzitan etorri nauk eta ezin joan nintekek bera barik.

—Ja, ja, ja. Idiak San Juanetan jaiok direlako, itzuliko dituk etxera, baina hi eta enborra hemen geratuko zarete, hireak egin dik mutil!

Hak gizonak, bere burua galduta ikusi zuenean, ahoz barru errezuak baina ahoz kanpo zuhurtasuna erabiliz, erantzun zion:

—Hi, zera esango diat, heurekin geratuko nauk, baina indartsua haizeenez sar itzak hire hatzak hemen ziri bien arrankala honetan eta hik eskuz eta nik ziriak mailuaz joaz berehala erdibituko diagu haritz enbor hau.

—Bale! —erantzun zion hark jentilak— barreka zilbotari eutsi ezinik.

Gabonzuzitan joan zen gizonak, ziriak barrurantz jo beharrean, kanpora atera zituen eta jentilari hatzak harrapatu. Orduan, idiei aida-aida esanez, orpoe-tan har barik jo zuen etxea.”



»Gabonzuziaren suaz aparte, erreta geroko hauts eta iduriak soloetan zabaltzen ziren San Esteban egunean, koxitza onak lortzeko, eta hauts-iduriok gurutzetara botaz gero, pizti txarrak uxatzeko ere ona izaten ei zelakoaren ustea zegoen.

—Zer, gustatzen zaizue?

—Bai aitita, kontatu, kontatu gehiago.

Aititak, suari jaramoten zegoenez, ilintiak erre ahala surtara arrimatzen zituen eta halako baten eskuetan hartu surteko ilinti bi eta badino:

—Aitu, Imanol eta Itziar, gaurko egunez, honelako ilinti bi hartu eta amatatu ondoren, kortara eroaten genituen ganaduek esne arazorik ez izateko eta gero oilategira eta azkenean solora eta behin soloraz gero zoruan ipini gurutzetara pizti txarrak uxatzeko.

—Aitita —erantzuten dio Itziarrek—, horiek kontuak izango dira, ezta?

—Bai, jakina, baina beste argibiderik ez bazegoen, zer egingo genuen ba? Pello pozarren dabilkie kontu kontari eta umeen egarria ikustean ekin eta ekin egiten dio.

—Beste sineskera batzuk ere kontatuko dizkizuet. Begira, Gabonetan eta San Juanetan ere, iturriko ura era ona zela uste izaten zen osasunez ibiltzeko. San Juanetan, epelago egoten denez, goizeko inontzean eta erreketako uretan oinak bustitea ona zela esaten zuten lehenagokoek. Gaur barre egiten dugu, baina botikaririk ez zegoenean, zer egingo zuten ba? Zeozer asmatu behar!

—Aitita —badiotso Imanolek—, zure ume denboran Olentzerok ekarten al zizun oparirik?

—Je, je, je. Opariak? Bai, zera! Lehenengo eta behin, gure haurtzaroan, Erregeak bakarrik egoten ziren, egoten zirenentzat. Hona, gure base-rrira, ailegatu ere ez ziren egiten Erregeak. Bateko edurragatik, besteko jostailuak amaitu, beti zegoen tekla edo ailegoren bat Erregeak barik geratzeko.

»Orain zuok, biak dituzue. Olentzero eta erregeak. Ikastolak sortu zirenean indarberritu egin zitzaigun Olentzero, baina Erregeak ere eza-gutu beti ezagutu ditugu, aitua ezpabere Erregeetako kanta famatua: "Apalazio zalduna, Hiru Erregeen eguna..."».

»Apalazio esan dizuet, eta bai, hori eta urtebarrietako beste kanta famatua: “urte barri, txarri belarri, daukanak eztaukanari, nik eztaukat eta niri ekarri”, horiek ziren gure poza. Etixerik etxe joaten ginen koplok kantatzen eta aginaldoak eskuratzen, eta pozik!

Kontuak kontu, afaltzeko ordua etorri da eta santiamen baten plantatu dira denak mahai inguruan.

Ohiturari jarraituz, aitita Pellok errezuz bedeinkatzen du mahai eta mahaikideak eta jaten hasteko baimena eman baino lehen badino:

—Urtero-urtero bezala, txakur amorratuaren kontrako erremedioari ekingo diot, adi egon batez ere zuok gaztetxuok.

Hartu ogi bat, aiztoaz gurutze bat egin azpi aldetik, ebagi lehenengo ogi-kuzkurra, zati horrekin aitearen egin, mosu bat eman eta mahaiko mantelpean gordetzen du, jarraian “on egin dezazuela” esanaz.

Mahaian denerik dago, baina amama Bixentak orio-aza ekarri dakar mahaira ketan-ketan, entremes artera, eta aititak:

—Ez ikaratu, guk amamak eta biok gorde egiten dugu gure aurrekoen ohitura eta apurtxo bat baino ez bada ere, orio-aza altzi bat jaten goaz. Orio-aza, berbeak berak dino, orioaz egositako aza eta ez koipeaz. Gaurko eguna, Gabon eguna, bigilia zen, gaur ere bai askorentzat, eta gorde egin behar izaten zen haragirik jan ez egiteko eleiz-agindua. Bulda erosita eukiteak ere ez zuen balio egun seinalatu honetan. Aitu norainokoa izango dan orio-azarena, kanta eta guztia dauka eta:

Aita Juaniko
seme Periko
zer daukak afaiteko?
Orio-aza gozo-gozoa
opil beroagaz jateko.

»Gehiago oraindik, amama Bixentak karakolak ere ipini dizkigu eta janari hori ere bigilia gordetzeko asmatua da, ez delako ez okela ez arraina.

Kontuak kontu, afariak aurrera egin ahala, aitita Pellok ume guztien intziguak argitzen daragoio. Postreetara iritsi direnean, amama Bixentak

beste kazula-lurrezko bat ateraten du mahaira, eta badino Itziar gazte-txuenak:

—Zer den baino ez da hau morokil antzeko gauza ilun hau?

—Zer izango da ba —erantzuten dio amamak—, intxaursaltzea, gure betiko Gabon postrea.

Tira, orio-aza eta karakolei baino mira handiagoa egin diote intxaursaltzari eta probatu gutxienez denak egin dute. Gero gabon-madarizko konpota ere dastatu dute. Nagusitxuenak eta helduak txurruplin apurtxo bat ere bai, jakina, batengoagatik!

Afal ostean, batzuk kartetan, beste batzuk kontu kontetan, armonia ederrean daragoioe, batengoagatik erlojuari lepoa emonda.

Gau horretako orduak bete behar eta, Pellok bere Gabon-ohiturak kontatzeari daragoio supazterrean. Bateko Natibeteko txokolatea, besteko inozenten eguneko bromatxoak, marijesiak kantatzeko usadioa, Gabonzaharrak, Urteberriak, Erregenak eta zelan ez Olentzero.

Kontatuak kontatuta ere, umeak ezin dira emendatu eta aititaren mihiari tira eta tiraka dabilta, atxea-motxea eta pispit eta koskot jolasera olgatu bitartean.

Pellori ere bere ohitura-iturria agortuz doakio eta azken kontu bezala, berak ere ezagutu ez duen bat kontatzen hasten da adurra dariola dau-den iloben gozamenerako. Beraz, ohitura zahar-zaharra benetan.

—Aitu gaztetxook —dinotse—, kontatuko dizuedana, egin ez dut sekula egin eta egia denik ere ez dakit, baliteke kontu hutsa izatea ere, baina entzunda hauxe daukotsiet nite aitari eta.

Gabonzahar gauean, afaldu eta gero, hamabi-hamabietan, fetxoriak egiten omen ziren sasoiko gazteloan artean. Bateko, gurdiak eskegi arbola edo balkoiko balaustretatik, besteko, bedar-metak apurtu, solo-latak zabaldu eta holakoak.

»Baina, handiena baten hemen Uriondon gertatu zen. Hau egia da gero e! Nik neuk ere gaineko bildursartua bizi izan nuen fetxoria hori dela eta ez dela.

»Urteberrietan jakin genuen den-dena. Gabonzaharretako hamabietan, auzuneko gaztelo batzuek asto bat hartu zuten eta Asentzioko eleizportalera eramán. Gero, astoaren iduneko estukina edo erramala

kanpandorreko kanpai nagusiaren sokari lotu zioten. Horri gutxi erit-
tzita, hari astoari, pausu bi edo hirutara, bedar sikua ipini ez zioten
egin ba! Jakina, astoak ha bedar sikua jan guran kanpaiaren sokari
tira eta tira egiten zionez, ha zer-nolako kanpaiotsa atera zuen!
Auzuneko guztiok buruko uleak ere arteztuta eman genuen gauaroa.
Urteberri goizean, dena zen barrea, baina estukuralakoa bizi izan
genuen!

Kontu bitxi hau entzun ondoren, etxeko gaztetxuenak, oinetakoak erantzi,
supazterrean utzi, "gabon" esan oherantzean eta loak egiten joan dira
Olentzeroren oparien itxaropeneko ametsean.

Zuhaitz handi eta onak
bere sustarrak sakonak
oles aroan bizi guztiok
Eguberri zein Gabonak.

Abenduko esaerak

- Abenduan elurra altzairuz, urtarrilean
burdinez, otsailean zurez, martxoan lurrez,
apirilean urez.*
- Abenduko eguna, argitu orduko iluna.*
- Abenduko izarratuaz, bidertzeko haritzaz
eta ostatuko neskatoaz ez fidatu.*
- Abenduko lainoak, hegoa eta elurra.*
- Abenduko elurrak hortz luzeak.*

Urtarrila

Gabonzahar gaueko hamabietan, URTEBERRI hasten da eta ohitura zahar askoren artean urarena daukagu. Jose Mari Satrustegi naparrak kontatzen zigunez, Larraun eta Urdiainen, bete-betean ospatzen zen uraren jai hau.

Gabonzahar gaueko hamabi-hamabietako kanpai-hotsarekin batera munduko ur guztiak birjaio egiten zirela uste zen. Ordu horretan jasotako urak indar majikoa zeukala uste zen eta edaten duenaren babesle zela. Horregatik, gazteek ur hau hartu eta etxerik etxe eramaten zuten, gaur ere bai. Ur honen ekintzarako abesti hau erabiltzen da.

Ur goiena, ur barrena

1
Arantzazu, zer dekazu?
Ur goiena, ur barrena.
Ur goiena, ur barrena
Urte Berri egun ona.

3
Etxekoandre giltzaria
iriki ezazu ataria.
Badekagu ur berria
presta ezazu gosaria.

5
Etxe hontako nagusi jaunak
urregorritzko bizarra.
Hartxek, hartxek eman dia neuri
errealtxo biko zidarra.

7
Izotzetan, elurretan
abenduko gau luzeetan.
Beste guztiak ohean eta
gu, gaixoak, oinutsetan.

9
Arramarioan dabil sagua
ari segi dabil katua.
Etxe hontako limosnarekin
ez dugu beteko zakua.

2
Etxe honetan sar daiena
bakearekin osasuna.
Bakearekin osasuna
onarekin ondasuna.


4
Etxe honetan oilar bi
bat bestea iduri.
Etxe honateko etxekoandreak
Amabirjina dirudi.

6
Goian-goian ilardia
erdi-erdian klabeledina.
Gure baratzen belar ona
hark botatzen dau usai ona.

8
Eguzu, bada, eguzu.
baldin eman nahi badezu.
Baldin eman nahi badezu ta
bestela despegi gaitzazu.

10
Etxe honetan dago uztarri
haren gainean uzkar bi.
Amen.

(Azkeneko ahapaldi biak oparirik eman ezik.)



URTEBERRI

Jai eguna da beti. Eskari-kantuak ohitura bihurtu dira gure herrietan eta nola ez Urteberri egunean.

Gazteek lehenago, umeez oraintsu, hona hemen Arratia inguruetan aginaldoa eskatzeko kantatzen den abestitxo hau:

*“Urte barri
txarri belarri
daukanak eztaukanari
nik eztaukat eta niri ekarri!”*

ERREGENAK

Errege Mago izenez ezagutzen direnok, Judeako ekialdeko jakintsuak izan omen ziren. Jesus Belenen jaio zela jakin zutenean, opariekin hurreratu ziren Belenera.

Berri hau Bibliako Testamentu Berrian agertzen zaigu, Mateo ebanjelistaren bigarren kapituloan. Begira aipamen textual hau bertsikulo eta guzti:

***E*kialdeko mago edo jakintsu batzuek Jesus gurtu (Mateo 2, 1-12)**

¹Jesus Judeako Belen herrian jaio zen, Herodes erregearen garaian. Jesus jaio ondoren, sortaldeko mago edo jakintsu batzuek azaldu ziren Jerusalemenean, ²galdezka:

—Non da juduen errege jaioberria? Haren izarra ikusi dugu sortaldean eta gurtzera gatoz.

³Berri honekin larritu egin zen Herodes erregea, baita Jerusalem hiri osoa ere. ⁴Orduan, herriko apaizburu eta lege-maisu guztiak bildu eta Mesias non jaiotzekoa zen galdetu zien. ⁵Haiek erantzun zioten:

—Judeako Belenen, honela idatzi baitzuen profetak.

⁶“Eta zu, Judako Belen, ez zara, ez,
Judako hirietan txikiena;
zuregandik aterako baita buruzagia,
Israel nire herria
gobernatuko duena”.

⁷Orduan, Herodesek, mago edo jakintsuak isilean deiturik, izarra noiz agertu zitzaien jakin zuen zehatz. ⁸Gero, Belenera bidali zituen esanez: “Zoazte eta jakin zuzen haurraren berri eta, aurkitu ondoren, adierazi niri, neu ere gurtzera joan nadin”.

⁹⁻¹⁰Erregearen hitz hauek entzunik, abiatu egin ziren. Bidean, sortaldean ikusitako izarra agertu zitzaien eta biziki poztu ziren. Izarra aurretik joan zitzaien haurra zegoen toki gainean gelditu arte.

¹¹Etxean sarturik, haurra ikusi zuten Maria bere amarekin eta ahozpezturik, gurtu ondoren, beren kutxatilak zabalduz, eskuera kutsiak eskaini zizkioten: urrea, intsentsua eta mirra.

¹²Gero, Herodesengana ez itzultzeko oharra ametsetan harturik, beste bide batetik itzuli ziren beren herrialdera.

Ospakizun hau, beraz, aspaldikoa dugu, eta kristau Eleizaren esanguraz aparte, opari egun bezala hartu izan da aspaldirik.

Gaur egun, batez ere, ikastolak martxan hasi zirenetik, Olentzerok ere betetzen du eginkizun hau.

Olentzero Gabon gauean ospatzen da, eta Erregenak, beti bezala, urtarrilaren 6an.

Urteberrietan bezala, Erregenetan ere eskari-kantak abesten izan dira aginaldoa lortzeko. Hemen ere, gazteak lehenengo eta gero umeak izan dira kantari. Hona hemen Bizkaiko bertsio bat:

Erregeak datoz

1
Erregeak datoz
Jesus adoratzen.
Gu bere hemen gatoz
limosnia batzen.

2
Apalazio zalduna
Hiru Erregeen eguna,
zotzak eta paluak
estudianteen kontuak.

3
Estudianteak sasirik sasi
asko jan eta gitxi ikasi,
txoritxua kaiolara
estudiantea eskolara.

5
Erregeak datoz
Jesus adoratzen.
Gu bere hemen gatoz
limosnia batzen.

7
Martina atsoari eroan deutzaz
hiru oilanda katuak,
haren hazurak txupadu ezinda
harek dabiltzaz sailtuak.

9
Erregeak datoz
Jesus adoratzen.
Gu bere hemen gatoz
limosnea batzen.

11
Ateondoan hotzez hiltzeko
amak ez gaitu bialdu.
Zuri begira gagozan artean
egingo jaku berandu.

4
Hemen gatoz lau,
kanpai joten bi,
emoizu limosnea
Jaungoikoagaitik.

6
Apalazio zalduna
Hiru Erregeen eguna,
zotzak eta paluak
Martina atsoaren kontuak.

8
Hemen gatoz lau,
kanpai joten bi,
emoizu limosnea
Jaungoikoagaitik.

10
Apalazio Mari Montaña
hiru intxaurtxu eta lau gaztaina.
Haren gainetik launa sagar
gure altzoa zabal-zabal.

12
Hemen gatoz lau,
kanpai jote bi,
emoizu limosnea
Jaungoikoagaitik.

SAN ANTONIO ABAD

Abenduaren 13an, besteak beste, Urkiolakoko jaiak. Ganaduak bedein-
katzeko ohitura dago, eta eleizkizun ostean, erromeria.

GORBEIA
Gorbeia inguruko herrietan, Urkiolatik etxerantzean, txerrikumak
erosteko usadioa zegoen, urtean zehar loditu eta San Martin edo eta aben-
duraz gero hiltzeko.

SAN SEBASTIAN ETA TANBORRADA

Oso ospetsua egin den urtarrileko 19 eta 20ko jai patronal hau, Donostian ezeze, Azpeitia, Tolosa, Zarautz, Arrasate, Motriku eta besteren baten ere ospatzen da.

Jai ezaguna da eta herri guztietakoa aipatzen ibili beharrean, Donostiakoa egingo dugu. (Donosti < Dominum Sebastianem.)

Desfile hau uniforme eta guztizko 50 konpañiatik gorakoa da. Partaideak, besteak beste, soldadu napoleonikoak, sukaldariak, kantinerak eta abar dira, elkarte kultural eta gastronomikoetatik eratorriak. Tanbor eta barril hotsean daragoioe taldeok Raimundo Sarriegiren musikarekin Donostian zehar urtarrilaren 19 eta 20an.

Arlo musikalak bere bidea egina du eta, beste batzuez gain, derrigorrezkoak dira: San Sebastian-Martxa, Diana, Tariago, Iriyarena, Polka eta Retreta.

Antzinatasunari begiratzuz, 1863ra jo behar dugu. Hiria harresiturik zegoen garaira.

Garai honetan, antza denez, parada burlesko bat egin omen zen hiriko hiru iturrietako baten. Parada horretan, urketariak, guarnizioko soldaduak eta beste astidun batzuk elkartu omen ziren eta bakoitzak euren ontziak joaz egin omen zuten lehenengo tanborrada, inprobisatua, inauteri edo karnabaletan.

Geroagora, 1881, 1882 eta 1883ko inauterietan edo aratustetan, sukaldariak euren ontzi nagusi eta guzti eta Frantziako II. inperioren soldaduak desfilatzen ikusiko ziren.

Gaur egun, nagusitu egin da ospakizun hau eta denetariko jendeak hartzen du parte, nagusi, ume, andrazko zein gionezkok.

Jai eder eta ospetsu hau nolakoa den jakiteko, onena, bertorik hara ikusi eta bizitzea da.



ARABAKO OYON-EKO "KATXI"-REN JAIA

Abenduaren 22an ospatzen da jai eder hau. "Katxi" erdi horiz eta erdi orlegiz jantzita dabil txotoa puntaz duela. Sorbaldan, katu-narru puztu bat darama ahotzez beteta.

Jai giro alosokoa. Prozesioak, errito pagano zein erlijiosoak. Azkenean, zezensuzkoa tin-pan pun-hotsean.

Urtarrileko esaerak

- Ilbeltzeko elurra brontzea, otsailekoa zura eta martxokoa ura.*
- Ilbeltza pasatzen bada zuri, ardiak haziko du axuri.*
- Urtarril hotza, neguaren bihotza.*
- Urtarrila, hotzak hila.*
- Urtarrileko sikatea, urte guztiko gosea.*

Otsaila

Otsaila hilabeterik laburrena dugu laurik lau urtera bisiestoko egun bat gehiago sartuta ere. Erromatarren kulturari, lehenago ere esan dugunez, urtea martitik abendurakoa zen eta gero sortu ziren “januarius eta februarius”.

Beraz, februarius edo otsaila, urtearen azkenengo hilabetea zen erromatarrentzat, hau da, purifikazio hilabetea.

Guk, euskaldunok, alde batetik, eleiz ospakizunez jantzi dugu hilabete hau, eta, bestetik, inauterietan lotu kulturak nahastuz.

KANDELARIO

Otsailaren 2an, Kandelario eguna ospatzen dugu. Egun honetarako, etxean bertan egindako edota dendan erositako kandelak eukiten dira prest-prest.

Egun horretan, andrazkoak batez ere, hartu kandela txorta hori eta eleizara joaten dira apaizak bedeinkatzeko.

Zertarako bedeinkatu? Ba, herriaren sinesmenean, hainbat eta hainbat gauza edo erremediotarako. Hona hemen batzuk:

Gaur ez hainbeste, baina lehenago, zaharrak etxean hiltzen ziren eta begirako gaua egiten zen bitartean, gorpuaren ondoko mesadenotxean horietako kandela bedeinkatuetariko batzuk isiotuten ziren, Erramu egunean bedeinkatutako erramu baten ondoan.

Hurrengo egunean, oinezko hiletaren aurretik joaten zen emakumeak buruko otzara baten eramaten zituen kandelok eleizako sepulturari ipinteko.

Eleizaz kanpo ere erabiltzen ziren kandela bedeinkatuak. Esate baterako, inizitua, tximista edo hodeiak jotzen zuenean, kandela bedeinkatua isiotuten zen edo eta ereinotz bedeinkatua erre ere bai harik eta ekaitzak alde egin arte.

Artzain, ikazgin eta abarrek ere eramaten zituzten kandela bedeinkatuak euren zakuto edo morraletan, behar zenetan isiotu eta parte txarrekoak

uxatzeko. Berba baten esanda, Kandelarioetan bedeinkatutako kandelok, ezintasunaren aurreko babes ziren.

Sineskeraz aparte, egun hau kantuetara ere pasatu da eta hona hemen Gernikaldean oraindik ere abesten den kanta polit hau:

Kandelario lario

1

*Kandelarioz euria
laster da udabarria,
Kandelarioz aterri
negua dator atzeti.*

3

*Kandelarioz eguzki
negua dago aurreti,
Kandelarioz edurra
joan da neguaren bildurra.*

5

*Kandelario lario
hatxari ura dario,
makatzari madari
eutsi Peru hankeari.*

2

*Kandelario lario
hatxari ura dario,
errotari uruna
haxe da guk behar doguna.*


4

*Kandelario bero
negua dauko gero,
Kandelario hotz
negua joan da motz.*

SAN BLASAK

San Blas eguna ere bedeinkazio eguna dugu. Egun honetan, hots, otsailaren 3an, kolore guztietako San Blas kordelak erosten dira eta eleizara eroan bedeinkatzeko. Gero zortzi egunean eroaten dira idun edo samatik eskegita eta gero erre. Erremedio kordelak dira, estarria ondo zaintzeko balio dutenak.

Bide batez, San Blas kordelekin batera, gozoki eta frutak ere eramaten



dira eleizara bedeinkatzeko. Gero jaterakoan, gozokien papelak erre egiten dira eta fruta-azalak eta muskinak asto, txerri eta abarrei ematen zaizkie, eurek ere parte hartzeko. Bedeinkatutako ezer ere ez da botaten satsera.

AGATE DEUNA

Gaur egun, Agate Deuna folklore kutsuko jaitzat hartzen bada ere, jatorriz, kristau kutsuko ospakizuna dugu, otsailaren 5ean.

Martiri hau patronatzat hartu zen Euskal Herrian eta bere bizitza kantatzen dugu bertso-kopletan Agate Deuna bezperan, otsailaren 4an.

Agate Deuna Siziliako Katanian sortu zen hirugarren mendearen erdi ingurumarian. Aldi haretan, Quintiano agintariak emaztetzat hartu nahi zuen Agate neska ederra, baina horretarako kristautasunari uko egin behar zion eta Agatek ez zuen onartu. Quintianok zigortu eta hil egin zuen. Gerora, VI. mendetik aurrera, santa honek indar handia hartu zuen Afrikako iparraldeko kristauen artean eta gero asko zabaldu Mediterraneo inguruko herrietara.

Agate Deuna kantuan etxerik etxe

Usadio hau ume, gazte eta heldu taldeetan ezagutzen da Euskal Herrian zehar. Ohituraz aparte, agilandoa lortzea da gaur egungo helburu nagusia. Batzen dena, batzuetan, benefizentziarako izaten da, horra hor esaterako Arratiako koru famatua; baina gehienetan beste era bateko ospakizuna egiteko. Jantzi bereziak eramaten dira egun horretan. Doinuak ere era askotakoak erabiltzen dira, melodia hutsetik hasi eta polifoniarartekoak, instrumentuak ere bitarteko direla. Kantuen erritmoa makilaz egiten da.

Etxerik etxe edo herririk herri kantatzen diren bertso edo kopletan, Agate Deunaren bizitzaz aparte, tokian tokiko pertsona esanguratsuenari begirako bertsoa ere kantatzen da, agilando hobea lortzeko. Eta hori bai, han hor, hemengo kantaldi bakoitza egin aurretik, galdera hau egiten da: kantatu ala errezatu? Jakina, etxe batzuetan, zergatik hargatik, nahiago izaten dute erreza-tzea, batez ere hilberriren bat edo egonez gero. Agilandoa berdin ematen da.

Bertsio ugari dago, baina bat aipatzearren, Zeberioko Manu Ayesta herri bertsolariaren bertsioetariko bat aipatuko dugu. Abesti mota hauetan, euskalkiak nahastea oso normala da, nahiz eta gero hitz egiteko norbere euskalkia erabili.



A gate Deuna

(Zeberioko bertsioa. A. Zavalaren Auspoa-Sendoa 259an jasoa)

1

Bedeinkatua izan dedilla
etxe onetako gentea
pobre ta umilde dabizantzat
badute borondatea.
Santa martirik maitea
dago errukiz betea
berak alkantzau ta emon daizkula
osasuna eta bakea.

3

Nok esango dau zer pasau zuan
munduan santa Agedak
lenda biziko azotaduta
kendu eutsezan bularrak.
Gorrotoaren indarrarekin
gentilen biotz gogorra
instante baten zabaldu jakon
gorputz guztian odola.

5

Borroka gogor oiek diñaude
ilgo da gaurko gaubean
len beizan firme billatu euden
santa au biramonean.
Esan eutsoen euren onean
nai bozu (badozu) gure legean
bestelan presentatuko zara
Quintianoren aurrean.

2

Libertadea eskatzen deusats
etxeko printzipalari
santa Agedaren alabantzarik
kantatutzera nator ni.
Graziak ipini deusaguz
santa bedeinkate oni
onen fedean bizi gaitезan
osasunez eta ongi.

4

Santa au preso sartu zanean
zan milagro bat andia
zeruetatik bajatu jakon
Jaungoikoaren argia.
Milagro ikaragarria zan
santa onen alegria
san Pedrok berak kuratu eutson
santa oni gorputz guztia.

6

Berriz enperadore onek dino
eroateko argana
dontzella gazte orren biotza
len bezain firme darama.
Jaun zerukoak emana dauka
orain berak ein dauana
zer amodio andia eukan
gure Jaungoikoagana.

7
Soldadu batek galdetzen deutso
zergaitik dagon ixilik
adoraikezu eure jaungoikoa
egon nai bozu (badozu) bizirik
Itzori ondo aditu eta
santak diñotse bakarrik
nik adoratzen dodana baño
ez dago gizon besterik.

9
Orduan erantzun eutson berak
Jaungoikuari graziak
baña borrego gentil gaiztoak
zauden gorrotoz josiak.
Santaren fede bizi-bizia
Jaunaren probidentzia
lurrak ikara egin euan ta
arritu ziran guztiak.

11
Iltzen egoan orduan bera
Jesusi deiez eguan
orain gloriak gosatzen dago
angeruekin zeruan.
Zeruan dala eukiko dogu
santa Ageda goguan
bere bizitza kontatutzeko
kanta-kantari moduan

13
Adios orain esaten dogu
santa onekin batean
urte ontxu bat pasau dagigun
osasunagaz bakean.
Pobre umildiaren artean
beti erruki gaitean
karidadeak lagunduko dau
zeruetako atean.

8
Zer balorea eraman euden
etsai gaiztoan aurrera
umildadezko bere begiak
itzuli ziran lurrera.
Enperadore kruek-kruela
an beti beren legera
arrastaka ta desonraturik
atera bedi kalera.

10
Jaun aundi bat etorri zan ara
ikara aren puntuan
enperadore aren lagun bi
azpian artu zituan.
Ikusirik an orduan antxe
aiek alako moduan
ze milagroak gertatu ziran
santa onekin munduan.

12
Kristau deboto batzuek bertan
euden bere gorpua artu
Kataniako ziudadian
baita bere enterratu.
Kristaua, konsideratu
au onela zan gertatu
karidadea ematen dunai
berak eingotso (egingo deutso) pagatu.

Santa Ageda osteko izendapenak agilando bila

Agurra nor zer danari

Etxe bakoitzean bertso berdina abestu beharrean, ezberdinak egiten ziren eta egokiena aukeratu nagusi edo seinalatu, bakoitzarentzat esku-zabaltasuna lortze bidean. Hona hemen bat edo beste bakoitzetik.

Nagusiari

1
*Errotapian arria dago
aren ganean txoria
etxe onetako nagosi jauna
propietario andia
propietario andia eta
diru askoren jaubia
guri limosna emongo deusku
eun erleko bat barria.*

2
*Laño artean izarra
erreka munan lexarra
etxe onetako nagusi jaunak
urregorritzko bizarra.
Urregorritzko bizarra eta
urrezurizko samea
errealbikoz egina dauka
eleizarako bidea.*

Abadeari

1
*Izar ederrak zeruan dagoz
mundua argitutzeko
etxe onetako abade jauna
erlegiñoa zaintzeko
Aita santua Erroman dago
Jesukristoren ordeko
jauna berori eskogituta
dago aren lekureko.*

2
*Etxe onetako abade jauna
ondo ona ta noblea
jauna berorrek esplikatzen dau
Jesukristoren legea
Jesukristoren legea eta
eleiza amaren ordea
jauna berorrek zabalduko dau
zeruetako atea.*

Alkateari

*Alkate onak erri askotan
batean eta bestian
Zeberioakua langorik ez dao (dago)
bat bera bere Bizkaian
tabernan meatz allegatzen da
eleizan aal dauanian
jaun ori ona dala guk letxe
dakie mundu guztian.*

Nagusi jauna egon ezean

Gradurik gradu notadutzen da
 mundu onetan gentea
 nagosi jaunik ez dan lekuan
 lelengo etxeke andrea.

Etxeko andrea notatutzeko

1
 Eder intxaurren kordena
 guk olan dogu ordena
 etxeke andrea notadutzeko
 nagosiaren urrena.

2
 Okaran gorri betea
 aurten da zure urtea
 errealtxu bi emon ezkerro
 badozu borondatea.

Etxeko andreari

1
 Etxe onetako andrea
 leku oneko alabea
 ortxe bidean konsultau gara
 zelan dan limosnerea.

2
 Ortxe soloan madari
 erramak ditu gora adi
 etxe onetako etxeke andreak
 Ama Birjiña dirudi.

Esku batean dirua dakar
 bestean lukainka pareta
 altzoa bere gora dakar da
 an be dozena arrautzea.

Bere arpegiak egin eiten dau
 espillu bat legez argi
 enbra eder ta galantagorik
 ez da mundura etorri.

Alargunari

1
 Armarioan sagua
 ari begira katua
 etxe onetako etxeke andrea
 alargun bedeinkatua.

2
 Bere senarra gizon ona zan
 egoanean munduan
 orain gloriak gozatzen dago
 santa Agedagaz zeruan.

Zaldun gaztea notatzeko

Arantza baltzak orria txiki
 punta aldera loratsu
 orain emendik gura genduke
 zaldun gaztea notatu.

Zaldun gazteari

1

Ortxe goitxuan iturri
ura txorrotik etorri
etxe onetako zaldun gazteak
amalau urre txintzarri
Amalau urre txintxarrirekin
zazpi damaren eguzki
guzti orreri gitxi eretxita
geiago ditu merezi.

2

Argi ederrak asko daoiz baina
eguzkia da nagusi
etxe onetako zaldun gazteak
aren argia dirudi
bere arpegia argi ta eder
danok eiten du(dogu) ikusi
zaldun gazte ta ederragorik
amak ezin leike azi.

Seme-alabei

Ortxe goitxuan ardiak dagoz
mendian arran soñuan
etxe onetan seme-alabak
eskonduteko moduan
euron doteak andiak dira
danok dakigun moduan
seme-alabok ezkonduteko
askok gura dauz munduan.

Dama gazteari

1

Damatxu gazte preparadea
gorputzez ondo arteza
zure arpegia esan lei dala
jardin bateko larrosa.
Gorputzez ondo linda ta eder
berbaikunean donosa
zulako dama gazte-gazterik
erri onetan bat ez da.

2

Damatxu gazte konponidea
zeure kolore gorria
zeure matraila iruditzen jat
klabeliñaren orria.
Klabelediñaren orriarekin
larrosa maiatzekoa
zeuri begira ementxe gagoz
damatxu biotzekoa.

Txikerrena notatzeko

1
 Ortze ortuan aza bi
 batak bestea dirudi
 etxe onetako txikerrentxuak
 urre kurtzea dirudi.

2
 Etxe onetako txikerrentxuak
 edertasunak ugari
 bere arpegi eder orretan
 meresi dituz mosu bi.

Taberneruari

Geuri entzuten ementxe dauka
 taberna onetan gentea
 eta guk ondo kantau eiteko
 zarratuta du (dogu) samea
 samea freskatu egiteko
 utsituta dao botea
 len baiño len ba bete eiguzu
 taberneratxu maitea.

Azken eskaria


Orain nai dogu amaitu
 txarto esanak parkatu
 eskerrik asko ta urte askotan
 osasunagaz pasatu.

Limosnarik emoten ez dauanari

1
 Erbia dago azatzan
 erbikumea babatzan
 etxe onetako u(ga)zaba jauna
 samarañoکو kakatzan.


2
 Belea dabil atxean
 beretzat zori gatxean
 arantza baltza sartuko al jako
 atzeko zulo baltzean.

Behin Agate Deunaren jaia ospatuz gero, aratuste edo inauteriei begira jartzen da gure herria eta naturaren berpiztearen ospakizun horrek lotuko dizkigu otsaila eta martia, berrien berriz egiteko urteko ohituren joan etorria. Aikomen ba martirik martirako euskal urtea, ohitura-ospakizunez betea!



Otsaileko esaerak

- Otsail lore, batere lore; martxo lore, batere ez baino hobe; apiril lore, urre lore; maiatz lore, pare gabe.*
- Otsaila, txakur eta katuen hilabetea.*
- Otsailean gizona mangutsik ikusi baino, otsoa ardi artean ikusi hobe.*
- Otsaileko oloa olo (avena), martikoa olotto, apirilekoa ez olo ez lasto.*
- Barantail edo otsailean sortua, martxoak jan.*



ONDORIOA ETA GOMENDIOA


Euskal kulturaren tradizioa belaunaldiz belaunaldi heldu zaigu gaurko egunetararte, ahoz-ahoz zein beste era batzuez.

Euskaldunon historia luzean zehar, kanpoko hainbat kulturak inguratu, zeharkatu edota menperatu nahi izan gaitu, baina, eraginak eragin, guk euskaldunok gu geu izaten jarraitu dugu geure euskal nortasunean.

Baina gaur egun, besteak beste, telekomunikazioen mundu sofistikatu eta eraginkorra sartu zaigu bete-betean gure hiri, herri eta etxeetan.

Kapaz izango ote gara euskal hizkuntza, tradizio eta kulturari eusteko etorkizunean? Denporak agertuko digu edurra mendian!

*Itsasoan handi ura
basoan ugari zura,
euskaldun izan, euskaldun bizi
zainduaz euskal kultura.*



Betiereko egutegia

A) Urteak

1829-1900			1901-2000			2001-2100				
29	57	85	25	53	81	09	37	65	93	
30	58	86	26	54	82	10	38	66	94	
31	59	87	27	55	83	11	39	67	95	
32	60	88	28	56	84	12	40	68	96	
33	61	89	01	29	57	85	13	41	69	97
34	62	90	02	30	58	86	14	42	70	98
35	63	91	03	31	59	87	15	43	71	99
36	64	92	04	32	60	88	16	44	72	
37	65	93	05	33	61	89	17	45	73	
38	66	94	06	34	62	90	18	46	74	
39	67	95	07	35	63	91	19	47	75	
40	68	96	08	36	64	92	20	48	76	
41	69	97	09	37	65	93	21	49	77	00
42	70	98	10	38	66	94	22	50	78	
43	71	99	11	39	67	95	23	51	79	
44	72		12	40	68	96	24	52	80	
45	73		13	41	69	97	25	53	81	
46	74		14	42	70	98	26	54	82	
47	75		15	43	71	99	27	55	83	
48	76		16	44	72	00	28	56	84	
49	77	00	17	45	73		01	29	57	85
50	78		18	46	74		02	30	58	86
51	79		19	47	75		03	31	58	87
52	80		20	48	76		04	32	60	88
53	81		21	49	77		05	33	61	89
54	82		22	50	78		06	34	62	90
55	83		23	51	79		07	35	63	91
56	84		24	52	80		08	36	64	92

B) Hilabeteak


U	O	M	A	M	E	U	A	I	U	A	A
4	0	0	3	5	1	3	6	2	4	0	2
5	1	1	4	6	2	4	0	3	5	1	3
6	2	2	5	0	3	5	1	4	6	2	4
0	3	4	0	2	5	0	3	6	1	4	6
2	5	5	1	3	6	1	4	0	2	5	0
3	6	6	2	4	0	2	5	1	3	6	1
4	0	0	3	5	1	3	6	2	4	0	2
5	1	2	5	0	3	5	1	4	6	2	4
0	3	3	6	1	4	6	2	5	0	3	5
1	4	4	0	2	5	0	3	6	1	4	6
2	5	5	1	3	6	1	4	0	2	5	0
3	6	0	3	5	1	3	6	2	4	0	2
5	1	1	4	6	2	4	0	3	5	1	3
6	2	2	5	0	3	5	1	4	6	2	4
0	3	3	6	1	4	6	2	5	0	3	5
1	4	5	1	3	6	1	4	0	2	5	0
3	6	6	2	4	0	2	5	1	3	6	1
4	0	0	3	5	1	3	6	2	4	0	2
5	1	1	4	6	2	4	0	3	5	1	3
6	2	3	6	1	4	6	2	5	0	3	5
1	4	4	0	2	5	0	3	6	1	4	6
2	5	5	1	3	6	1	4	0	2	5	0
3	6	6	2	4	0	2	5	1	3	6	1
4	0	1	4	6	2	4	0	3	5	1	3
6	2	2	5	0	3	5	1	4	6	2	4
0	3	3	6	1	4	6	2	5	0	3	5
1	4	4	0	2	5	0	3	6	1	4	6
2	5	6	2	4	0	2	5	1	3	6	1

C) Asteko egunak

Igandea / Domeka	1	8	15	22	29	36
Astelehena	2	9	16	23	30	37
Asteartea / Martitzena	3	10	17	24	31	
Asteazkena / Eguaztena	4	11	18	25	32	
Osteguna / Eguena	5	12	19	26	33	
Ostirala / Barikua	6	13	20	27	34	
Larunbata / Zapatua	7	14	21	28	35	

ADIBIDEA: Asteko zein eguna izan zen 1937ko apirilaren 26a?

ERANTZUNA: Aurki ezazu aukeratutako urtea "A" taulan eta horizontalki jarraitu eskumarantz, "B" taulan apirileko zutabe zenbakira iritsi arte: (4) gure kasuan. Zenbaki horri, gehitu hilabete horretan aukeratutako eguna: (26); guztira (4 + 26 = 30). Azkenez, "C" taulan begiratu z gero, (30) astelehena zela ikusiko duzu.



Bibliografia

AITA DONOSTIA: *Obras completas. Cancionero vasco*. Eusko Ikaskuntza-Eusko Jaurlaritza-Gipuzkoa Foru Aldundia-Kutxa Fundazioa. Donostia, 1994.

ARRIAGA, JOSE LUIS: *Diccionario de Mitología*. Ediciones Mensajero. Bilbo, 1980.

ARRIAGA, JOSE LUIS: *Euskal Mitologia*. Gero. Bilbo, 1984.

AUÑAMENDI: *Enciclopedia geneal ilustrada del País Vasco*. Estornés Lasa Hnos. San Sebastián. 1977 eta hurrengoak.

AURKENERENA, JOSEBA: *Euskal sinesmen zaharrak*. Gero-Mensajero. Bilbo, 2001.

AZKUE, RESURRECCION M.: *Euskalerrriaren Yakintza. Literatura Popular del País Vasco*. Euskaltzaindia-Espasa Calpe, Madril 1989.

AZKUE, RESURRECCION M.: *Cancionero Popular Vasco*. Euskaltzaindia, Bilbo, 1990.

BARANDIARAN, JOSE MIGUEL: *Diccionario de Mitología Txertoa*, Donostia, 1984.

BARANDIARAN, JOSE MIGUEL: *Obras Completas B.G.E.V.*, Bilbo, 1972

CARO BAROJA, JULIO: *Los vascos. Etnología, Biblioteca Vascongada de los amigos del País*. Donostia, 1949.

CARO BAROJA, JULIO: *Estudios vascos*. Txertoa. Donostia, 1973.

ETXEBARRIA AYESTA, JUAN MANUEL: *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak*. Labayru Ikastegia-BBK. Bilbo, 1995.

ETXEBARRIA AYESTA, JUAN MANUEL: *Bizkaialdeko ipuin-esaundak*. Ibaizabal. Zornotza, 1995.

ETXEBARRIA AYESTA, JUAN MANUEL: *Gure fabulak bertsoz*. Ibaizabal. Zornotza, 1996.

ETXEBARRIA AYESTA, JUAN MANUEL: *Eguberri eta Gabon ipuinak*. Ibaizabal. Zornotza, 1999.

ETXEBARRIA AYESTA, JUAN MANUEL: *Zeberioko Kantak*. AUSPOA Liburutegia. Sendoa. A. Zabala, Auspoa 259. Oiartzun, 1999.

ETXEBARRIA AYESTA, JUAN MANUEL: *Bibliako kontaera antologia*. Ibaizabal. Zornotza, 1999.

EUSKALERRIKO ETNIKER TALDEA: *Atlas etnográfico de Vasconia (III). La alimentación doméstica en Vasconia*. Etniker, Euskalerrria-Eusko Jaurlaritza. Bilbo, 1990.

GARATE, GOTZON: *Atsotitzak*. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, 1998.

GARMENDIA LARRAÑAGA, JUAN: *Iñauteria. El carnaval vasco*. Kutxa, Donostia, 1992.

GRIMAL, PIERRE: *Diccionario de mitología griega y romana*. Paidós. Bartzelona, 1994.

JIMENO JURIO, JOSE M.: *Panorana 10. Calendario festivo de invierno*. Institución Príncipe de Viana. Iruña, 1988.

KALZAKORTA, JABIER: *Lamia, sorgin eta tartaroen erresuma ezkutua*. Labayru Ikastegia-BBK. Bilbo, 1997.

LABAYRU IKASTEGIA ETA EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN ELKARTEA: *Oles ta oles* (Bilbo, 1997); *Hou pitxu hou* (Bilbo, 1998); *Txulufrina eta arrosa* (Bilbo, 1999); *Pinpirin eta florian* (Bilbo, 2000).

LEKUONA, MANUEL: *Idaz-lan guztiak (I-II). Ahosko literatura*. Kardaberaz bilduma-Gipuzkoako Foru Aldundia. Gasteiz, 1978.

MITXELENA, KOLDO: *Fonética histórica vasca*. Donostia, 1961.

MITXELENA, KOLDO: *Textos arcaicos vascos*. Minotauro. Madril, 1964.

SATRUSTEGUI, JOSE M.: *Solsticio de invierno. Fiestas populares, Olentzero, tradiciones de Navidad*. Iruña, 1988.

SEGURA MUNGUIA, SANTIAGO; ETXEBARRIA AYESTA, JUAN MANUEL: *Del latín al euskara - Latinetik euskarara*. Universidad de Deusto. Bilbao, 1996.

ZAVALA, ANTONIO: *Katalago orokorra*. Auspoa-Sendoa. Oiartzun.



Hiztegia

A

abadegaia: abade ikasten dabilena, seminarista.

abantean: arin, zuzian.

abarka-mediak: oinetakoak, gomazko abarkak eta ardilanazko mediak.

abaroa: gerizpea, ezkutua.

abarrotsa: zarata.

abazuza: txingorra, granizoa, txirgora.

abedea: alfabetoa.

abemariak: kristau aroko iluntzetako eleiz-ermitetako kanpaiotsa.

adapoa: arboletako, betez ere inausi eta gero sortzen den lakatza, laztasuna.

adinon: ezer egin barik egotea.

aditu: begiratu, ulertu.

afrontua: ekaitza, sufrimentua, "rato txarra", larrialdia.

agilandoa: aginaldoa, oparia.

aginaldoa: oparitxoa, saritxoa, propina.

aginpidea: agintzeko era, agintzeko ahalmena.

agudo: arin-arin, bizkor, atoan.

ahoa askatu: hitz egiten hasi, berbaz hasi.

ahobizarrak: ahoko mihia lohi eta jateko gogorik ez.

ahotza: gari-lasto trillatua.

ahozpez: ahoa behera dela, tripaz behera.

aihena: hazi edo landareen brotea, tuberkuloena ere bai.

aiko: hona hemen

aikomen: hona hemen (singularra).

aikomen hamaika t' erdiak: hau da izatekoa! (esaera).

aikomenzan: hona hemen (plurala).
aikor: hara hor.
aikorzan: hara hor (plurala).
ailara: palu.
aitaxe: aitagarreba.
aitearen: harridura adierazteko otoitz famatuaren hasiera (aitearen, semearen...).
aitu: aditu, entzun, begiratu.
akarreoa: garraioa, edozein ekarri-eroan egitea (idea, garia, bedarra etab.).
ako: harako.
akordatzako: ustekabeko.
akordatzakoan: akordu barik, uste ez dela, ustekabeen.
akuilua: burdinazko gan eta guztizko makila ganaduekin ibiltzeko, idi-behiekin, etab.
alauria: ahots-zarata, garrasi, oihu handi eta luzea.
albora-karga: mozkorra.
alborean: bazterrean.
aldea batera: dena jarraian.
aldia: bizitza.
alimua: adorea.
alkarpoderoso: bikoteak ondasunen aginpide berdina izatea.
allegoa: aitzakia, diskulpa.
aloso: dezente, ugari.
altzi: apur bat; dariolako haritxoa.
altzikitu: erropa bustiari ur handiena sikatu.
Amalur: Euskal Lurra.
amatatu: itzali.
amea: ama, baina animaliena.
ametxorria: urdailara bidea.
amildegia: troka, barranku, prezipizio, abismo

amildu: erori, jausi.

amilua: lino jo-jotik ateratzen den estopa, gero irunez haria egiteko.

amukoa: estopa, kirrua.

anajea: anaia.

andafuerazko jantzia: kanpora bota edo kasurik egin ez egitea (esaera).

anda-izara: antzinako hiletetan gorpua batzeko maindira.

andapara: errota ondoko ur presa, indar hidraulikorako.

andaria: atauta zein prozesioetako imajinak lepoz edo eskuz eramaten zuena/duena.

angelus: goiz, eguerdi eta iluntzeko otoitz bat, kanpai-hots eta guzti.

antepetxua: bentana edo balkoietako salientea.

apalazioa: erregenetako aginaldo abestia (gazt. aparición > aparizio > aparazio > apalazio).

aparajua: trastea, elementua.

apatxak: ganaduen oinak.

apatxotsa: arin ibiltea.

apurrin: beste baten bizkarrean, eskuak saman eta hankak gerrian direla.

arbasoa: aurreko, lehenagoko, zahar.

arbia: nabo zuria.

arbigara: arbi garatua.

ardatz-agea: bedar-metak erdia gora daukan agea.

area: soloak lantzeko hagin askodun tresna.

arean: apur bat, pizka bat, zertxobait.

arehaginak: arearen haginak.

arerioa: kontrarioa.

argiak gaude: onak gaude! (esamoldea)

argi-kanpaiak: egunsentiko kanpai-hotsak albakoak.

argizagiak: astroak.

argizaiola: argizari eta guztizko egur landu bat argi egiteko.

argizaria: erleak abaiak egin eta ezitia egiteko sortzen duen produktua.

arkien: hartuan, hartzeko.

armin: barruko genioz, minduta.

armuda: burukoa (ohean lo egiteko).

arnasestua: arin ibilte edo estutasunaren ondorengo arnasa bizia.

arra, arrabete: palmoa, atzamar loditik txikirartekoa.

arranak jo: arran-hotsa atera, adarra jo, burlazar ekin, zenzerrada (esaera).

arrankaldu: itzekarra, arrankala edo grietak egin.

arrankaria: amuarraina.

arraska: orrazia.

arrasti: arratsalde.

arratea/ harratea: kobazulokoa zein arantza-hesi edo harrizko baten egindako zuloa.

arrikanpaiak: egunsentian jotzen diren eleiz-kanpaiak, albakoak. (ikus. argi-kanpaiak)

arrimuan: ondoan, laguntasunean.

artagaraua: arto garaua.

artazuritea: artaburuari kapaxak kentzea.

arteak hartu: lasaitu, baretu.

artega: urduri, larri, estu.

arteraino: arte.

artez: zuzen.

artilea: ardilana.

artza: zimetzezko otzara antzekoa, garauak haizetuz garbitzeko.

asaldatu: amotinatu.

askazia: senideak, etxeakoak.

aspela: bedar, ida edo antzerakoen multzo egina.

astrapala: zarata handia.

ataguztibe: hori goiti-beiti.

ataka: ate-ahoa.
atautea: zerraldoa.
atibo: bizkor, prest.
atinik: buruz gora, ahoa gora, tripaz gora.
atoan: momentuan, arin, berehala.
atomatu: ausartu, atrebitu.
atundu: konpondu, antolatu, apaindu.
atxea-motxea: atzamarren jolasa, (atxea-motxea perolipan...).
atze bete: bere atzean, atzetik...
atzemardoka: atzerik hara tanteoan.
atzerik hara: atzetik.
aurbehera: aldapa behera, aldats behera.
aurgora: aldats gora, aldapa gora.
aurpegi gazia: haserre aurpegia, adikuna txarrekoa.
aurrerapidea: adelantua.
aurretizik: aurrezdik, aurretik, lehenagotik.
aurridia: (b) uztartutako idi bikoteari beste bikote bat jarri aurrean laguntzeko.
ausiki: haginka egin.
autorrentzulea: konfesoarea.
azatzak: soloan garaua nondik erein jakiteko lurrean sartzen diren zotzak.
azduia: haitz askoko tokia (itsasaldean, astui).
azindak: ondasunak, aberastasunak, diruak, abereak.
azkarria: handia.
azpigarria: pinu-orria, bestelako orbelak edo ida ganaduei azpiak egiteko.
azpira: sukaldetako armairu berezia, goiko partea ogiak eta egiteko erabilia.
azpirapalua: azpiran atzera-aurrera uruna eralgiteko bahepeko palua.
aztarrika: salto-bueltaka.
aztua: aztia, adibinoa.
azunbrea: litro bi.

B

bahea: garau ehoa eralkitzeko tresna

baheroa: bahegilea.

bai berriz!: "sí por cierto" erderaz.

bakealangoa: bake santu bat.

bakearren: bakeagatik.

balaustra: eskilara-balkoietako egurrezko protekzioa.

baltseoa: jota-porrueen ostean egiten den dantza agarratua.

baltzitu: golpeka handitu.

bañutzea: bainuak hartzeko etxea.

baranda: palu luzea, fartika.

barausia: gosari txikia, oherik harakoa.

barauskarria: baraua hausteko janari-edariak.

barda: arbola-errama punta adar txikiagoekin.

barrakak egin: fetxoriak egin (esaera).

barruntatu: entzun, asmatu, sumatu.

barrutia: hesidun bedar-soloa, hesi gabea ere bai.

basamika: txori mota bat, oskilaroa, usoaren antzekoa.

basoiñarra: txilarra.

batzandu: batu.

bazkoazkoaz bete: gutxienez, Bazko egunean konfesatu eta komulgatzeko eleizaren agindua.

bazpia: bartza, zorrien arraultzak ileetan.

bazpiak erantatu: buruan jo ileak astinduz.

bazterrak enderdatu: nahastea sortu, zuzena okertu.

be: ere, bere (enklitikoa).

begiak bota...: arin, oso arin.

begipisuan: ganaduen pisua begiz kalkulatu salerosketetan.

begira: gaua eman heriotzetan, etab.
begitxapela: betazala
begizkoa: gaitzaren errua bestearen desio txarrari botatzea.(gazt. mal de ojo).
behargina: langilea.
beharlekua: lana, zeregina, ekintza; lantokia.
beharren: lanean.
behingo baten: arin baten, berehala, arin, agudo.
beinke: “bien que” gazt.
beitso/z: har beza/ bitza berorrek (berorika, bizkaieraz).
bekaizkeria: inbidia.
bekanekoa: siesta txikia.
bekara: aurpegiaren alde bat.
belaunikatu: belaun biak lurrean ipini.
belea baltzago ez egin: gauzak txarrago ezin joan (esaera).
belekia: egurrezko edo zurezko aitzur modukoa.
belu: berandu.
berbagura: hitz egiteko gogoaz.
berbaikuna: berba egiteko modua, hitz egiteko era.
berbalotsa: berbaz batenbatzuk, jendea mar-mar hizketan.
berbara etorri: berba egiten ikasi umetan edo konortea gadu ostean.
berbaroa: jendea berbaz; murmulloa.
berbarotsa/berbalotsa: jendea berbetan.
berbartua/berbaltua: tartamutua.
berbatu: prometitu
berbaz: berbetan, hizketan.
berde: 1. kolorea. 2. haserre. 3. eguraldi txarra.
bere artean: berekautan.
berebizikoa: egokia.

berekitan: berekautan.

beren beregi: espreski, propio, hartarakoxe, atantxe

berendia: (gazt. mengano).

beresia: baso berez-ernea, oihan txikia.

berez ernea: erein edo landatu bakoa.

beroa: genio bizikoa.

bertan behera: bert-bertan.

beste mundukoak: mitologia kutsuko pertsonaiak.

betatu: bete, betetu.

betuxoa: eskaparia; begiak bajatuta begiratzen duena errezeloz beterik.

betxintak: bepuruak (begi-buruak).

bidatu: bideratu

bidazkia: bidazia, transeuntea.

bidearloa: bide luzea.

bideak betean: beti bidean, batetik bestera.

bidiru: bi edo hiru.

bigantxa: urte biko txahal urruza edo emea.

bigilia: haragirik jan ez egiteko eleizaren agindua.

bijon: ondo ibili, ondo joan (esaera).

bikuntza: familia bi etxe baten bizitzen, dena erdibana.

bildurkilik: bildurrak hil eginik, bildur handiagaz.

bildursartua: lehenagotiko beldur kendu ezina.

biluzik: larrua agirian, ezerlako soinekorik gabe.

biozturia: urdailaren ahoa, bihotzerre tokia.

biraoa: maldizioa, juramentua, txorigorria.

biripoa: birapoa, hegaztien janari boltsa, urdaila.

bitargia: lainoetan zabaltzen den argiunea.

bitzuk: bikote bat eta bestea (batzuk, bitzuk, hirutzuk...)

bizilan: diligentzia; bizitzagatik egin.

biziogo/ bizio: tripetako mamarroa, lonbriza.

bizipisuan: ganadua bizirik pisatu, kanalean barik, sal-erosketan.

bolandera: suziri, etxafuego.

bolua: errota, eihera.

bonetea: apaizen buruko puntadun estalkia.

“bonum augurium”: (latinetik) zorte ona.

borroa: mekoa, indarga, txikia.

botoa: ikatza egosteko lur-zelaikada biribila.

brebiarioa: abadeen eguneroko otoitz liburua.

bularrestua: arnasa ondo hartu ezina.

bulda: bigilia gorde ez egiteko baimen-txartela.

burbuxa: zuhaitz mota bat, madroñoa.

burdinolak: burdina lantzeko antzinako ola edo fabrikak.

burduntzia: burdinazko zein egurrezko tresna, puntan txitxia sartu eta sutan erretako.

burlazar: adarra jotzen.

buruko lorra: buruhaustea.

burrunba: zarata gorra.

buzkantz/buzkentza: odoloste lodia.

D

dager: agertzen da.

damorroa: ganaduen haserre-urrumak.

dandabela: ipurdia, lepoa etab. joteko erabilten denean; inoiz, dangoak (Adibidez: “dandabela berotu”: ipurdian... jo, lepoan... jo.).

dandarraz: dariola.

dangoak: barrabilak, potroak.

dañino: kalte egiten duena.

daragoio: ekiten dio, dihardu.
 dardarhotsa: hotzak edota bildurrak eragindako dardakeoa.
 dariola: jausten, erortzen.
 daukotsat: euki+ nori (entzunda daukotsat = entzuna diot).
 de reo: basoko arbola denak ebagi edo botatzea.
 dei-barrua: deituz gero, entzuteko lekua.
 dei-barruan: deitzerakoan, entzun eta erantzuteko eremua.
 demonintra: deabrua esateko eufemismoa.
 denabeharrean: justu-justuan.
 dendik ere: dena den, dena delakoa.
 denodua: indarra, kemena, ugaritasuna.
 denporak agertuko du edurra mendian: egia jakingo dela orain ez bada, gero-agoan (esaera).
 denporakarrenean: denpora asko pasatu eta gero.
 denporaldia: denpora asko.
 denporalea: eguraldi txarra.
 deslai: abandonatuta, bertanbera utzita.
 desoran: orduz kanpo, berandu.
 diskutia: eztabaida.
 ditea: gogoa, asmoa, plana.
 dolarea: txakolin-ardo edo sagardoa egiteko tresneriadun tokia.
 dolimintua: ardura, kemena, gogoa, bizkortasuna.
 doministikum: latinezko "dominus tecum", (gazt. estornudo).
 don izan: prestijioa euki.
 dranga-dranga: geratu gabe, segituan.
 drinean: arin be arin, orpoetan ar barik.
 -dui: -di, -ti (mahasdui, mahasti...).
 duna: dun(a).
 durdidu: zorabiatu, mareatu, aturdidu.

E

eaurt egin: buelta eman, haranzkotik honantz.

ebatzi: erabaki.

edakia: edatekoa.

edan bako hordia: zorabioa.

edangioa: uraska; ganaduen uraska ura edateko.

edea: ganaduak uztartzeko larruzko estukin luzea

egarriak tximeltan: egarri handiaz.

egarribera: egarritsua.

egin akabadu: edozein ekintza amaitu.

eginen: zeregin.

eginena: zeregina.

egitarin: egite arin, guztiz ondu barik, zeozeren faltan.

egunatan: egun beratan.

egur eskarmentadua sugin ona: lanean ondo hezia (esaera).

egurdartea: eguerdi aurrea, goiz osoa.

egurginen: sua egiteko egurra prestatzen.

eguzkibegia: eguzkiak jotzen duen lekua.

ehulerua: ehunlea, liñoa iruten zuena.

ehun errealeko gorria: antzinako urregorritzko bost ogerlekokoa.

ei: omen.

einik: -einean, -t(z)eko zorian, beharrean.

ekidin: ebitatu.

elbarren: herri barren, herriaren beheko partea.

elegia: aukeratzeko posibilitatea.

eleizastikua: eleizara asko doana.

eleizurtera: bateatu eta berrogeigarren eguneko eleizkizun eta ospakizuna.

elia: ganadu taldea (basabehiak, zaldiak, mandoak), jende asko, gauza ugari.

elkorra: gogorra.

emendatu: bete, asetu.

enbelekhoa: aurretik kendu ezineko zazpi-sutea, (trabatik kendu ezina, “tabarrosoa”).

enberazua: estorbua.

enbra: andrea.

enbrolloa: nahastea.

endemoniñoa: handia, oso handia.

en partikular: batez be.

entrama: apetitoa, gosea, jateko gogoa.

entresaka: pinu landareak hasi ahala, enbarazukoak ebagi besteak hazteko. Ebagitako materiala papeleretara saldu.

epea: denbora, plazua, pazientzia.

eperdia emon: kasurik egin ez, haserre egon, deskonforme egon.

eperdian mun egin: zereginik ez dagoela adierazteko (esaera).

eragi: jagi erazi.

eragon: ekin, jardun.

eraldatu: eraz aldatu, kanbiatu.

eralgi: bahetu edo galbahetu behar dena.

erantatu: mogitu, espabilatu, astindu, bizkortu.

eraz: ondo, garaiz, tertzioz.

erazago: errazago, komodoago.

erazo: erazi (laburtuta= -azo)

erdibitu: erdi bitan zatitu.

erdi-eginean: zeozer biderdian geratu.

erdi-tertzioa: erdi ingurua.

erdu: zatoz.

erduzie: erdu (plurala, zuek).

ereinotza: laurela.

erlaia: enara.

erlauma: erregina berri baten ondorioz banatzen den erle taldea.

erlauntza: erle kopurua.

erleztarra: liztorra (gazt. avispa).

ermakariak: umea jaio eta egun batzuetara egiten diren opari-ospakizunak.

ernaldia: sabeleko enbarazua.

ernaritu: ume berria sortu, enbarazatu.

ernaroa: ereindako hazia ernetzen den aroa.

ernegaziñoa: amorrua, haserrea.

errandonea: bogada egiteko zurezko ontzia, barrika erdiaren jasekoa.

erraria: labesuan erretzeko ogigaiak.

errasu: zerua garbi.

errealbiko: lehenagoko pezetaren erdia. Pezetak lau erreal, ogerlekoak, hogei.

errekadu egin: ezkontzeko eskaria egin, norberak edo gehienetan beste batek.

errentadorea: alkilerrean bizi dena.

errentorea: errentan bizi dena, inkilinoa, maizterra.

erresuma: hormaren gain-gaineko teilatu-hegalpea.

erreune: erreta dagoen unea.

errezkan: errez, asko, pausuko, ugari.

errezua: otoitza.

errogatiba: prozesinoa, kantatu eta errezatuz.

Erromako Zubia: ustrukua, arkoirisa.

erromesa: pelegriinoa.

esaunda: kontaera, ipuin, pasadizu, bizikera, kontu.

esetsia: atakea, eraso.

eskandalua: 1. asko, ugari. 2. eskandalua.

eskapolota: armairu berezia, erdi-alturakoa.

eskekoa: eskalea

eskribidu: idatzi.

eskusadua: komuna.

eskusorkia: eskuak sikatzeko trapua.

eskuta(da): esku barru biekin hartzeko moduko gari, lino eta abarreko karga.

eskutila: eskuare, arrastelu.

esne-zabaldu: gaixo edo gaixotasun bat, esnea zabaldu errape edo titi barruan.

estadio: neurri bat, 125 pausukoa.

estaria: estalia, leku ezkutua.

estentoreoa: handia, ikaragarria (Estentor grekoaren abotsa berrogeita hamar gizonena batera baino handiagoa omen zen).

estola: abadeak mezea emoteko jantziatariko bat.

estrinkada: astinaldia.

estukina: zeozer estuteko bedar, gari, mimen edo kordel, erramal, soka.

estukura: estutasun, larritasun, apuroa.

etxaguna: etxeko jabea, propietarioa.

etxaldea: etxe eta inguruko propietatea.

etxe-ikusia: ezkondu aurretixuan ezkongai batak bestearen etxe-etxeak erakustea eta onartzea.

etxe-ipinia: etxe barrua bete bizitzeko moduan.

etxekada: etxe bete jende.

etzilimo: etzidamu.

eupada: deia, dei egitea eup! esanaz.

eutso: har ezak (hitanoz, bizkaieraz).

eza eskuan euki: badaezpada lortzen saiatzea (esaera).

ezarri: 1. jarri. 2. arrautzak inkubatu.

ezbaia: eztabaida, diskusioa.

ezebeza begirako ona: begiak ez du ahutsa ere onartzen (esaera).

ezgauza: ohizkoa ez dena, gutxi ikusia.

ezkutokia: ezkutatze-tokia.

ezlekua: (deslekua). ohizkoa ez den lekua, apartekoa.

ezpabere: bestela.

ezpadurdina: gaztelerazko “tábano”.

ezpala: astila, egur zatitxoa.

ezpia: sugearen punta biko mihia.

eztegua: eztai, eztai eguna.

F

fartika: baranda, palu luzea.

fatua: ganorabakoa.

fetura: ganora; itxura, patxada.

fielatoa: antzinako inpestuak kobratzeko ofizina.

firua: josteko haria.

fota: ogi mota bat.

frakagorriak: deabruak.

frakak soltau: kaka egiten joatea. (eufemismoa).

fraketan kabidu ezin: zeozergatik artega, urduri egotea (esaera).

G

gabonkariak: Gabon jaietarako erosten diren jan-edari bereziak.

gabonzubila: Gabon gauean isiotuteko basoan aukeratzen den enborra.

gabonzuzia: Gabon gauean biztuten den enbor esanguratsua.

gaineko: a zer nolako.

gainetiko: gainontzeko.

gainetu: gainera etorri zerbait egin asmoz.

galautsa: gari buru bakoitzak duen gaineko azaltxoa.

galbahea: galgaraua eralkitzeko tresna.

galbarra: ile mota batzuen buruko erremolinoa.
gelberdea: belar moduan berdean jaten den garia.
galburua: gariburua.
galdailla: kobrezko ontzi bat laratzuan edozer egosteko.
galerea: barregarria, aparajua, petrala.
galga: frenua.
galgaraua: gari garau.
galondoa: garia egoneko soloa.
galtzupoila: galtzu-lastoz egindako eskuta, garia joteko edota gainetikoetarako.
gana: akuiluak puntan duen burdinazko zirikagailu punta-zorrotza.
ganorabakoa: fundamentu gabea, fetura gitxikoa.
garandu: garauak kendu.
garapa: kapatxo, gainetikotxo.
garbea: artoaren lorea.
garbikuzia: garbiketa.
garia: garatxa (gazt. verruga).
gari-jotea: era batera zein bestera, galburuak garantzea.
garrazta: inausi gabeko zuhaitz handia.
garretan: garra dariola.
garrikotea: gerria lodi edo mitxelinak eginda dagoena.
gastelusearra: ganaduari sama inguruko lumak jaustea.
gauaro: gaueko denpora, gau luzea.
gaugarrak: zeruko gauetako garrak.
gaulendia: ilunabarra, iluntzea.
gauzeztandu: balio ezean geratu.
gazgina: txarra, kaltegilea.
gazigarri: gatza hartutako edozer: pernil, urdai, lukainka...
gatzeloa: ez ume ez gizon, gaztekotea.

gedar: hitz-zarata gogorra, matraka.
geldorreztatu: odoloste eta buzkentz freskoak lehenengoz egostea.
geriza: gerizpe, silueta.
gesu baten: lasterrera, denpora gutxi barru, halako batean.
gibelmina: behaztun.
giberria: urtetik gorako artxo edo auma.
gobada: bogada, erropa-garbikuzia.
gobela: kare-harria berotu ondoren zuritutakoa, gero kare-hautsetarako.
gogaitu: aspertu, aburritu.
gogatsu: gogo handiaz.
gogo-aldia: gogoan eukiten dena.
gogojardunak: ejerzizio espiritualak.
goian behean: ugari, asko, fuerte (euria, edurra).
goitegia: ganbara barruko goiko partea.
goiti beheiti: gora behera.
goldea: lurra arakatzeko antzinako tresna.
gorriak pasatu: larrialdiak, estukurak pasatu.
gorueta: lino edo artilearekin hari edo firua egitea.
goseberea: gosetsua.
gosunea: arin jan edo edatearen ondoriozko samako mina.
gozo-gauzak: dultzeak orokorrean.
grandea: dezentea, alosokoa, ona, tamaiñokoa.
graziak: eskerrak.
grillistua: irrintza handia.
guradana: asko, handia.
guraizana: maitasun fisikoa zein bihotzekoa.
gureak egin: hil, azkenera heldu, bukatu.
gureztala: nahi ez dela, gura ez dela, nahi gabe.

H

habaila: honda.

hagea: 1. arbola edo egurra. 2. tradizioa, erentzia.

hagearena: etxea erre orduan berria egiteko emoten ziren haritzak etab., zutik zein ebagita.

hagina: 1. zuhaitz berezia. 2. hortza.

haginadura: ahoko haginak edo izara, mantel eta abarren punta-ertzetako bordadua.

hainbaten: nonbaiten.

haizebegi: haizeak jotzen duen tokia.

haizetuta: pertsona zein ganadua digestio-haizez handiturik dagoenean.

hala biz: hala izan dedila.

haltza: erreka ertzetako zuhaitz mota bat.

haltzaren ondoan haltza erne: zer ikusi ha ikasi (esaera).

hamarrenak: ondasunen %10a ordaintzea, dirutan zein ekoizkinetan.

hamaseiko gorria: urregorritzko txanpon bat, balio handikoa.

handik gehiago: handik aurrera(go).

harila: hari edo lanazko obilloa, bobina.

harkien: hartuan, hartzeko.

haronakoa: hara eta honako joan etorria.

harri-pausuak: ur gutxiko erreka oinez pasatzeko harri tinkoak.

harrixokorra: harri zatittoa.

hastea neke: hastea baino ez dela behar (esaera).

hatz-begiak ondo ekarri: haurra falta barik jaio, ondo osatuta (esaera).

haur jazioa: solteratako umea, ezkontzaz kanpoko.

hazbegiak ondo euki: esaera: umea sano jaio, defekto barik.

hazduia: haitz askoko tokia.

hazeguna: ereitzak egiteko garai egokia.

hazitu: amilua harro-harro utzi.

hazitarako: hurrengo urtera ereiteko aukeratzen den hazi ona.

hazkaia: haziera, zelan hazten doan (gazt. crecimiento).

hedea: hualezko zinta buztarriak, bridak eta abar lotzeko.

hegillamua: hegia, egi zelaia.

herri-idea: herri-behitik jaiotako zekor iditua, euskal errazakoa.

herri-zekorra: euskal errazako zekorra, gorrixkea.

hesialdia: egurrezko hesiaren iraupena.

hezialdia: heziten denpora bat emon, esperientziak irakatsi.

hil eginik: hiltzeko zorian.

hirusta: trebolea edo sekulabedarra.

hodeiak jo: trumoia.

hordia: mozkorra.

horraitio: horregatik! (esamoldea).

I

ibilpidea: oinez ibiltzeko ahalmena, kapaz izatea.

idergiberria: ilargi berria.

idergibetea: ilargi betea.

iduna: sama.

iduria: erre osteko hautsa.

igero: liño-matazak garbitze-ekintza.

igeska: zuhaitz enborreko perretxiko sikua, jo-jo egin eta gero, txispatik sua hartzeko onenatarikoa. Lehenago, harririk hara sua egiteko oso erabilia.

igurdi: igurtzi, frotatu.

igurdialdia: masajea.

ihintza: inontza.

ikotika: saltoka.

ilinti/ ilentia: surten punta batetik erretzen dagoen egur luzanga.

ilunbea: iluntasuna.
ilundea: laño ilunak egindako iluntasuna.
imintzioa: gesto, mueka.
inausi: podatu.
indarga: indar barik, indar gutxiz.
infernuko lekua: oso urrun.
inframundua: inperua.
inizitua: oinaztargia, oinaztua, tximistargia.
inon denik: holako gauza arrarorik!
inontza: ihintza.
inorena: norberea ez dena, beste batena.
intera: garaia, denbora, sasoi, tertzio.
interan: garaian, denporan.
intilla: tragaza, soloa lantzeko tresna bat.
intxaurmantxerua: eskuetako intxaur-sumikearen aurkako mamua.
intzentsoa: eleizako erritoetan erretzen den hautsa usaina zabalduz.
intzerrea: leia egiten dueneko haize hotza.
intzigua: gogo bizia, grina, desira.
ipurditik bota: lurre-lurretik ebagi arbola.
ipuztarria: idi bikotea uztarran (behiak ere bai).
iragangaitza: intransitiboa.
iragankorra: transitiboa.
irakutzi: barruak garbitu, enjuagatu.
irentzitara: barrukoz kanpo.
irradaria: dantzaria.
irrintza baten: irrintzaka geratu barik.
irun: haria egin.
isiotu: biztu (sua, argia zein alimua).

iski: apur bat, gauza arin bat, pixka bat.
isopoa: eleizan ur bedeinkatuaz bedeinkatzeko erabiltzen den zulodun tresna.
itarin: egin arin, guztiz ondu barik, zezeren faltan.
itaurren: uztartutako idi edo behien aurretik ibili gidatzeko.
itaxura: itogin, gotera, batez ere teilatu hegaletatik erortzen dena.
iterantzuna: alusioa, ziria.
iterantzunka: tentaka ibili, alusiñoak egiten egon.
itsaslabarra: akantilatua.
itsuta: egur bihurtuzko estukina.
iturrikoura: iturri naturaletako ura.
itzela: handia.
itzulimurdika: atzera aurrera, bueltaka.
ixorrabarri: ernari berri.
izentaziñoa: muestra bat.

J

jagi bi: ogia egin orduko birritan jagi erazi edo fermentatu erazi.
jaionak: ezkon aurretik eleizan egiten ziren hiru deialdiak.
jakatzu: jateko gogo barik, inapetente.
jakia: jatekoa.
janzaharrean: janberritan ez, geroago baino.
jaunekobean: jo ta ke.
jentilbolak: harrizko bola biribil handiak jentilen jolaserako.
jinen niza: joango naiz? (-a= ?)
jorraia: aitzur txikia.
Josafaten landa: (sineskera) beste mundura bideko landa kontu-hartzailea.
jozak: dizkik.

K

kabrioia: gabirio, teilatuaren gailurretik teilategaletara datozen habeak, gaine-an ohola josi eta gainerago teilak ipinteko.

kakadario: beldurrez kaka dariola, beldurti.

kakokoa: zarteneko gazigarria: pernil, urdai, lukainka...

kandelargia: kandela bidez egiten zen argia.

kanikula: udako bero sano handia.

kanila: artaburutik artalorera doan lasto zatia.

kankailoa: baldarra, trauskila.

kanpaiots: kanpai-hots

kanpantxoa: dei-kanpai txikia (sakristietan, komentuetan...).

kanporamartxo: garizuma aurretikuko txitxiburduntzi eguna, igandez.

kanposantua: ortusantua, hilerria.

kapoia: oilasko kapatua loditzeko.

kaponada: kapoiak loditzeko zursare edo errejadun armairua.

kardena/gardena: berdezka kolorea, kardeniloaren jasekoa.

kargera: ikatz-txondorraren erdiko agea.

kargu egin: aditu, begiratu, zaindu, jagon.

kargutu: kargua hartu, aditu, ohartu.

karran: karraderan, arineketan, korrikan.

karroka: egurrezko disko zuria txoriak uxatzeko edo bideratzeko.

kaskondua: ume hazitxoa, mutikoa.

kebrantaitzurra: sakon aitzurtzeko aitzur nagusia, bideak egiteko, etab.

kedarrea: tximinia barruetan egiten den ikatz modukoa.

ketoa: motela, paratua, odolbakoa.

kia: ez, ezetz.

kikiribuelta: burua hanketan dela buelta egitea (gazt. voltereta).

kiputu: atzamarrak zurizkatu, hozmindu, moteldu, beratu, bigun-zuritu urak edo hotzak.

kirikiñusia: gaztainudietako gaztaina-kirikiñoak pilatzeko hesia (egurrezko zein harrizkoa).

kirimillak: koskillak.

koita: aitzakia, tekla, diskuġpa.

koiu: harrapatu.

kokorio: lelo, malbako, enbeleko, artaburu, ganorabako.

kokoterre: kokote eskasa, argala, zuloa eginda duena.

komertazioa: elkarriketa.

komunztadura: konkordantzia.

konortea: sena, zentzuna.

konprimentu: inportantzia.

kontaderia: kopurua.

kontraterrenoa: zelai edo lisu ez dagoena.

kopau: janari bokadu.

kordena: ikusi kardena.

kortatxia: korta barruan txarriaren txarri-kortea.

kortikea: zikinkeriazko azala, kostrea.

koskotekoa: buruko golpetxoa.

koskot: buruan "kos" edo koskorondokoa ematea. "Atxea-motxea" jolaseko zigorra.

kotejazinoa: neurria.

koxitza: uzta, fruitu, emaitza.

kreditua: batengan sinestutea, fiatzea, fama, sinesgarritasuna.

kurebioa: liztorra (gazt. avispa).

kurtzeroa: bidekurtzea.

kuzkurra: ogi zatia, normalean ertzekoa.

L

labegurra: laberako, labeko surako egurra.

laborea: zereala.

lagunabarra: norbere ideako edo neurriko laguna.

lain: beste.

lainabera: behelaino.

lakarta: arbola enborretako adarkia edota laztasuna.

laket: desiatu, nahi izan.

lakirioa: zepo harraparia ehizarako.

lantzean: noizean behinean.

laprastkada: labantzea.

laratza/laratzu: behesuko tximiniatik egostontziak eskegiteko arandeladun burrin-tresna.

laratzak ezagutuko du: eguneroko bizitzak ezagutu (esaera).

lardangaina: gehiegi, larregi, lardanbeste.

larraina: etxe aurreko harrizko zelaiunea.

larratu: kanpora bota, aldendu erazo.

larreotia: kakarraldoa.

lasiertuna: ganaduen gaixo bat: errapeak gogortu (gazt. mamitis).

lastamarraga: arto-kapaxaz egindako koltxoia.

lastargia: gari-lastoz edo antzerakoz egiten den zuzia antortxa gisa erabiltzeko.

lata: solorako egur-habezko hesi-pasoak.

laur: lau.

lausotu: begiekin argi ikusi ez.

lehenago moro: ezergatik ere ez lukeela ekintza hori egingo (esaera).

lehengo egun baten: orain dela egun batzuk.

leitza: izozte (gau hotzak ematen duena).

lepo bete eman: lepoan jo-jo egin.

lepozuria: alperra, nagia, lanari fit egiten diona.

lerdena: elegantea, esbeltoa.

letania: Jainko, santu eta santa jarraian izendatu eta erantzuteko otoitza.

lexia: erroparen garbikuzia, kolada, bogada.

libratu: jaio, erditu, umea izan.

linaza: lino-hazia erne eta bedarrean dagoena heldu arte.

linderoa: muga, muna, basoan arbola iladea muga bereizteko.

lo arrazo: umeari lo egiten lagundu loak hartu arte.

lo bat: gau bateko loa.

logale: logura.

lopetxak: gaztaina mota bat.

lorra: zerbaiti buruan bueltak eman, hausnarketa sakona.

lotsaria: lotsa handia.

lozorroa: lo sakona.

lukainka: txorixoa.

lumatu: hegaztiari lumak kendu.

lumorraztu: txorikumea lumaz jantzitea.

lumorraztubakoa: 1. lumaz jantzibakoa. 2. heldu edo maleziabakoa.

lurbela: lur iluna edo beltza.

lurmena: elurtzako elurra urtu eta lurra ikusten den tokia.

lurmendu: edurra urtu eta lurra ikusi.

M

magala: edozein soineko luzeren barrenak.

magalotsa: erropa-magalaren zarata.

majo: polito, ondo, dezente.

makatza: madari txikia, silbestrea.

makina bat: asko.

malbakoa: malezia gabeko.

maleta sikua: kozinatu gabeko jakiak, otartekoak, etab.

mandaitu: handitu.

mandaulia: euli mota bat, ganadu kiratsera etortzen dena (mando-euli).

mandazaina: astakirtena, kankailoa.

mantenitalde: lan egin mantenidu alde, batez be kriadu-lanetan.

mantzina: txarra, gaiztoa, okerra, gazgina.

mantzinkeria: gaiztokeria, okerkeria.

mardo: lodi, sendo, gizen.

mari: marabedi (diru mota bat).

marijesiak: Gabonetan kantatzen ziren eta diren oles eta eleiz kutsuko kantak.

marrazu: tiburoi edo antzeko arraina.

marti-oilarra: martiana jariotako oilarra.

martxandera: arraultza eta hegazti eroslea, salerosketarako.

maskalak: txondorraren bazterretako hondakin erreak.

maskelua: esnea egosteko ontzia behesuan laratzetik eskegita.

matarifea: txerri eta abarrak hilten dedikatzen dena.

mediginen: mediak egiten.

mehatzunea: baso edo antzerako zelai hutsa eta garbia.

meko: argal, makal.

mendia hartu: bizitoki berrian egokitu, ohiturak onartu, hartara egin.

menester: zeregin, eginbehar, ekintza.

merindafaria: iluntzerantz egiten den janaria, sarritan soloan bertan.

merroa: eskasa, makala, argala.

meta: gari, bedar, ida eta abarren pilaketa plegatua.

meza eraso: meza ematen lagundu, monagillo egin, akolito izan.

mihian har bakoa: edozer esateko beldur bakoa.

mihian har barik: berba egiteko ez duela ikararik.

mihisea: lino-hariaz egindako tela edo ehuna.

mintasuna: ardura, gogoa, dolimintua.

mira: harrera, txera, kasu

mirakollosa: berritsua, kuriosoa, inoren susman dabilena, dena jakin gurakoa, kotilla.

mirua(k) harra(ri) letxe: arin, berehala (esaera).

mizkeria lan gaizto: kapritxosoa izatea (esaera).

modua egin: dirua irabazi edo patrimonioa egin.

mokila: lur zatitxo gogorra, sokil.

mokil-ausi: soloko mokilak jo eta apurtu lurra birrinduteko.

mokorra: zuhaitz enbor zatia, normalean sustrai aldekoa.

mokotsa: morrokota, hau da, hiru puntako ogitxoa erdian arraultza eta guzti.

morokila: arto-irinarekin egiten den jaki biguna.

moropila: korapiloa.

morralla: sorbaldatik eskegita eramateko zakutoa.

morrokota: mokots.

morroilada: txerria hil ondorengo odoloste eta abar jatea.

mortalak: handiak, ikaragarriak.

muna: soloko ertza edo linderoa.

mundurik aramaio: mundurik zehar, hortik zehar, bideak betean ibiltea (esaera).

muskina: hondakina.

mutildu: ilea edo lanea ebagi labur-labur.

mutxurioa: eskutazko meta txikia.

N

nagiak atera: besoak eta abar luzatu, desperezatu.

nagosi: nagusi.

nahaste: (enklitikoa): batera. Adib., urliagaz nahaste edo batera.

nahiera: kapritxoa.

nahinoiz: noiz nahi, edozein unetan.

nahinon: non nahi, edozein lekutan.

narraz: arrastaka.

narrua jo: txotxoka egin, untzea jo, sexu harremanak izan.

narrukoa: golpea.

negarranpulua: negar-malkoa.

nobioerdia: hasi berritan dabilen senargaia.

noizago: hurrengo noiz?

noizgura: gura duzunean.

notatu: apuntatu, nonbratu.

O

oboan-oboan: inguratuz-inguratuz; bueltan-bueltan; ingurumarian.

odol malauria: zauri zoldu bateko odola, zoltzairikakoa.

odolak ur egin: haserre amorratua, disgustu ikaragarria (esaera).

ogi-erraria: laberako eta laberik harako ogi, arto eta abarrak.

oheadarra: ohe mota batzuen lau ertzetako goranzko apaingarria.

oholtzazko: oholezko.

oilar-lurra: lur komunalak, edozeinenak, eskrituragabeak.

oinberdinka: oin biak batera dirala saltoka.

okela: haragia.

okelua: bazterra.

olabeorra: zizaña, belar txarra.

olata: hileta hurrengo igandean eskeintzen den meza.

oloa: abenea.

ondo esan: ondo tratatu.

oratu: agarratu, heldu.
orbela: orri iluna, udazkenekoa.
ordotsa: txerri arra.
orduan: 1. eta gero; ondoren. 2. beraz.
orkolo-hatza: eskuko hatz lodia.
oroak eta moroak: (esaera) gauza asko eta handiak lortu.
orpoetan har barik: arin, bizkor-bizkor, abantean, abiadan.
ortozik: oinhutsik.
ortusantua: hilerria.
oska: zuloa.
ostera: ordea.
osterantzean: bestela.
otegurra: ote egurra.
otoz otoan: ustekabean, sorpresaz.
oxorroa: mizmerua.

P

padura: lurralde urtsua.
palatua: lur zapalduzko hesia.
pamitxa: ogi txikia.
panta rei!: dena aldatzan da (grekozko esaera).
parajea: lurraldea.
parte-tzarrekoak: mito-pertsonaia txarrak.
partidea: asko.
pauta-pauta: geratu barik, ganoso.
Pedro Botero: deabrua.
pipiladura: oilo-narrua pertsonetan (gazt. carne de gallina).
pispit: txatxamarka egin, pitxikeka egin (gazt. pellizco).

pitantza: errotariak diruaz barik irinetan kobratzen duena.

pitxina: pitilina, zakila.

plageak harturik: gehiago lortu nahian (esaera).

podazuz: poderioz.

poilak: galtzu zein liñoagaz egiten ziran kargatxuak edo eskutak.

porreak buruan jo: azkenerarte itxaron (esaera).

potondegia: eleizetako ponte edo bateatzeko harri-aboa.

potro-boltsak: barrabil-narrua.

prebentatu: ezkondu.

prefektoa: lehengo ikastetxeetako irakasle zaintzailea.

purgatorioa: eleizaren katekesian, mundu honetatik zeruan sartu aurreko arima garbitzeko tokia.

putxa: gatzatua.

putxa-putxa: bigun-bigun.

R

-ri deutsal: ondo-ondoan.

S

sabia: mintegia.

sakonaria: sakontasuna.

sakristia: Eleizan, apaizak jantzi eta abarretarako gela.

saldamentua: gaztaina mota bat.

sama-sikua: egarribera, edailea.

sandoniak: San Antolinak.

sano: oso.

santiamen: denpora gutxian, arin, berehala.

saputzak: soloa lantzerakoan ateraten diren bedarrak.

sartzamendia: iluntzean Eguzkia sartzen den zero-lur tokia.
sastaparra: edozelako zer txiki bat, bedar, egur eta abarrezko bat.
satarra: sagu arra.
segun itxura: antza denez, itxura denez.
seguru: antza, dirudienez.
sekulabedarra: hirusta mota bat.
sentsain: haurra zaintzen, umea jagoten.
serora: abadetxe eta eleizako andere arduraduna.
sikeran: gutxienez.
siri: antzinako diru mota bat.
sitsa: zedena, egurra zulatuz jaten duena.
sokila: lur zatitxo gogorra, mokila.
soliba: etxe barruetan oholpeko ageak.
sor: mogimendu gutxi, astun, gogor.
sorots egin: bigilatu, zelatatu, sorotsi.
sotana: apaizen soineko beltza.
subaratsa: linoa joteko ezpata.
suela eman: kanpora bota.
suetea: sukaldea.
suge gorria: biborea.
sumika: erretxineak, soloariak edo egosteak uzten duen mantxa berezia.
sustarbakoa: ganorabakoa, feturabakoa.
sustarbakokeria: ganorabakokeria, lelokeria.
sustarra: sustraia, fundamentua.
sustartu: aurkitu, topatu.
surtea: behesua sutan.
sustosartua: aurreko sustoen eragina kendu barik.

T

tabula rasa: ezer ez balegotik hasi (latineko esaera).

tajua: patxada, fetura, fundamentua.

talaburrina: taloak erretzeko haztadun burdina zapala.

talo jagia: legamin eta guztizko taloa, gehienetan ogi-urunezkoa.

taupadotsa: bihotzaren taupada bizkorra.

tejamana: bedar sikua eta abar gordetako txabola nagusia.

tekla: aitzakia, allegoa.

tenola: indarra, gogoa, alimua, adorea.

tentadu: ikutu.

tentazar: burlazar, adarra joten.

tertzio: garai, sasoi, goiz, ordu.

tipirrika: urduri, saltoka, artega.

tirauzu: erdu, zatoz!

tirauzue: erduzie, zatozte!

tragastu: soloa lantzeko tresna den tragasa erabili.

tragatu: animalia bat berez hil. Jateko ez den pizti bat norbaitek hil.

trailak: artilezko kordelak.

trajura: itxura, patxada.

tranpako atea: kortara bajatzeko barruko eskilaretako atea.

trauskila: ganorabakoa.

traustik: deusik, ezer.

treberrea: hiru hankako tresna su gainerako eta gainean lapikoa.

trebitua: buruaustea, konflikttoa, nahastea.

tremesa: gari zahi edo azal eta guztizko ogi mehea, ogi-integrala.

tripalak: tripa edo sabeleko minak.

tripiskildu: zati-zati egin; apur-apur egin.

trolebusa: lehengo autobus elektrikoak, pisu bat zein bikoak.

trontza: binakako zerra handia enbor lodiak ebagiteko.
turrumutua: zarata sano handia.
txakur-amesa: iratzarririk ametsetan.
txakurrandia: pezeta baten hamarrena (lehengo txanpona).
txakurtzikia: txakurrandiaren hamarrena.
txangori: sargori antzeko beroa.
txankerrea: hanka meheak edo argalak dituen.
txaramela: ate osteetako pasadora.
txarrezean: modu txarrean, kontrara, haserre.
txatxamarka: atzazalak edo azkazalak haragian sartu igurtziaz.
txera: abegia, agurra, mira, harrera.
txerria-hiltekoa: paitarra, anisa.
txerrinka: gurpila, errudea.
txerrintola: egur, alanbre lodi edo zinezko jolas-gurpila.
txibizkeria: gozo egarria edo gogoa.
txilindroia: gariaren ernaro osteko mokil-zokilak birrintzeko tresna.
tximistorratza: pararraiosa.
tximur: zimur.
txingarra: egur-brasa.
txirgora: abazuza, txingorra.
txirran: bueltaka-bueltaka, bilinbolan.
txirripitixioa: txorien kantua.
txirripitztada: txipristina.
txirritxirria: girgilua, kilkirra.
txistada: txissst dei-hotsa.
txiterdi: berba erdi, hitz erdi.
txitik atera: hitzik egin.
txitxiburduntzi: urdai, lukainka eta gagnetikoak burdinazko zein zurezko burduntzian erretzea (esaera: errementariaren etxean zotza burduntzi).

txokatu: extrañatu, harritu.

txorbela: zuhaitz adartxo bat orri eta guzti ganaduei euli eta abarrak uxatzeko.

txorigorriak: maldizioak.

txori-satsa: abonua, ongarria (lurra aberasteko).

txotoa: txanoa.

txotxoka egin: larrua jo, sexu harremanak izan.

txua: txistua, listua.

txubelaxua: igela.

txuria gora: laminak esnea surten ganaz hasten zeneko berbak (esaera).

txurruplin: zurrut edan likor-gauza bat.

U

udelandu: lur gaineko bedarra aitzurtu eta kendu, gero lurra lantzeko.

ugelaxoa: gaztaina-kirikiñoak hartzeko egurrezko tresna.

ugeldarria: gauza egonak uzten duen kortika edo kapea.

uhala: larruzko zinta, edea.

ume-jasoa: solteratako umea.

umea galdu: aborto naturala.

untze-joa: narrutan egin, sexu harremanak izan (eufemismoa).

urahoa: erreka edo ibai batek beste handiago batean edo itsasoan bat egiten duen tokia.

urguxua: txubelaxua, ugaraxoa, igela.

urkatxa/ urkulua: errama bik egiten duten angelua.

urlia: (gazt. fulano).

urrean: antza, seguru, dirudienez.

urruma: pertsonen edo batez ere ganaduen marru, baurre edo orro antzekoa.

urteagarrenean: urte bat barru, urtera.

urtekarrenean: urte batzuk barru, urteetara.

usoa: emakumearen sexu organua; txori mota.

ustiapena: explotaziñoa.

uzama: ugazama, ugazamandrea.

V

“vita mutatur non tolitur”: bizitza badoa eta ez dator berriro (lat. esaera).

Z

zahagia: ardaotarako narru-ontzia.

zahatoa: botea (ardoa edatekoa).

zahar on egin: (esaera) zahartzarora osasunez heldu.

zahia: gari garauaren azala eho, eralgi eta gero.

zakutoa: zaku txikia.

zankalostea: belaunaren atzea.

zantzoa: irrintzia.

zapalagea: ikatz-txondorrerako egurrezko mailu handi bat.

zaputza: kokotea, buruko ilea. Galondoko sustar hondakinak.

zaragia: larruzko ardo-ontzia, larru osokoa.

zarrantxa: burdinazko orrazi latza.

zautu: beresi, isasi, ibarbaso.

zedena: sitsa, zura zulatuz jaten duena.

zehe: xehe, fin-fin, birrin-birrin.

zein... + aditza (part. zein subj.): ...ean ere; ba...ere. (gazt. por si...)

zeinakio: zer egin ez dakiala, ezer egin barik.

zeinda: hau da, hots, adibidez, esaterako.

zeiteko: zertarako, zergaitik, zer egiteko?

zelanbeist: nolabait, zelan edo halan.

zemendia: azaroa.

zer dan beist: zer den edo zer ez den.

zer den baino ez da!: ez dakit zer den.
zerbaist: zer edo zer, zerbait.
zezina: ganadu-haragi gazitu-sikatua.
zezpala: ezpala.
zia: koipe-ura.
zigarro bat egin: atsedena hartu (esaera).
zilbota: tripa lodia, garrikotea.
zina: zinezko baldea, ontzia.
ziribedarra: bedar mehe eta luzea.
zirigutzi: nahastu, astindu, errebolbitu.
zirigutzia: erremolinoa, astinaldia.
ziriporra: burdin-ziri nagusiak joteko mailu nagusia.
zirkin: mogimendu.
zizeilua: sutondoko jarleku eta abarretarako tresna.
zohia: bedar eta guzti ateraten den lur zatia.
zoli: bizkor, arin.
zolibia: baserrietako solairu edo plantetan ohola josteko azpiko habeak.
zoltzaia: infekzioa, pusa.
zorabiatu: mareatu.
zorrak kanpaiak pagatu: hilez gero zorrik ez (esaera).
zorribidea: zimurdura bitarteak batez ere aurpegian urteak bete ahala.
zotzalbo egin: behar gitxi egin, askorik ez urratu (esaera).
zozomikotea: martiko azken egunak eta apirilaren lehenengoak.
zubila: zuhaitz enborra.
zumarra: olmoa (zuhaitza).
zura: egurra.
zurezko: egurrezko.

zurmitza: otzarak eta egiteko egur mehe landuak.

zurzubil: zurmitzak gurutzatzeko tresna, otzaragintza eta abarretan.

zuzian: abiadan, abantean, oso arin.

Egitura bereziak

-ginen: egiten.

-(e) ez josita: beterik, ugari.

-(r)i deutsala: ondoan baina ikutzen, apoiuan, arrimuan.

-ri daukotsat, -tsazu... entzunda, esanda, etab.: -ri entzuna diot...

-azo: erazo, erazi.

-rik hara: -tik segituan; -tik hur; aldetik.

-(e)n baino + ez + aditza = ez + aditza + (e)n (zehar galdera).

-(e)n beist: -(e)n -(e)la: (Adib. nor zaren beist: nor zaren zarela).

zein... + aditza (part. zein subj.): ...ean ere; ba... ere. (gazt. por si...).

-otsa: hotsa.

-etan = -tzen (Adib. kantetan=kantatzen).


URTEAREN JATORRIA ETA URTE BARRUKO OSPAKIZUNEN ITURRIA

Liburu multidisziplinari honetan, euskaldunok gure Amalurreko historia luzean bizitako hainbat eta hainbat ohitura, jai, ospakizun, gertaera, mito, ipuin, esaunda, pasadizu, abesti, esaera, topiko, eta abar luze bat eskeintzen dugu, urteroko egutegia bizi ahala, euskaldunok nor eta zer izan garen gogoratuz, etorkizuneko mundu berrian ere euskaldun zintzoak izaten jarrai dezagun geure betiko euskal nortasunean.

Euskarak egiten gaitu euskaldun eta euskara izan da gure Amalurreko historia luzearen lokarri-ardatza. Izate aberatsak esate aberatsa dakar berari deusala eta horixe izan da gure helburua.

Gaurko euskaldunok, lehengoengandik hartu dugun euskal altxor hau, geure eginik, bidera dezagun etorkizunera, Euskal Herria izaten jarraitzeko belaunaldiz belaunaldi. Erdu liburura!

*Itsasoan handi ura
basoan ugari zura,
euskaldun izan, euskaldun bizi
zainduaz euskal kultura.*



ibaizabal

